


EGĀN



1-6

1977

EUSKAL-ERESI ZAHARRAK: Yon Etxaide ...	7
EUSKALDUNEN GARAIPENA: A. Apat-Echebarne	39
IRAKURLE BATEKIN GATZ-OZPINDUZKO ALKARRIZKETAN: Juan San Martín	43
JOSE MARIA UZELAY: Juan San Martín	47
NORBERT TAUER-ekin: Juan San Martín	50
EUSKARARI-BEHIN BATEAN: Bittor Mujika ..	57
SAN BLAS EGUNA: Bittor Mujika	59
ASTE SANTU: Bittor Mujika	60
ORREAGA: Joseangel Irigaray	61
«PAZ DE ZIGANDA»: Ikastolatik	75
HEUSKALERRIKO LANAK: Ion Oiartzun	75
ETXEA: M.* Pilar Gavari Ferrus	77
ARALARREKO BI PINUAK: Irene Kasajus	78
ABIZENEN ITZALA: Etxeberria'tar P.	79
SALBATORE MITXELENA, ABERRI-MINAK ERAGINDAKO POETA: Otsalar	95
ZUBEROA GAINDI: Otsalar	99
XVIII. MENDEKO GABON KANTAK EUSKAL LITERATURAN: Otsalar	102
MOTIVO ESPANOL: Elizalde	107
TIGRE-LARRUDUNA (Vephis-tqaosani): Xabier Kintana	119
ROSTEVAN, ARABIAKO ERREGEAREN KONDAIRA: Xabier Kintana	130
ROSTEVAN ERREGEA ETA AVTHANDIL EHIZAN: Xabier Kintana	135
ARABIAKO ERREGEAK TIGRE-LARRUDUNA IKUSI: Xabier Kintana	137
THINATHINEK AVTHANDIL, ZALDUNAREN BILA BIDALTZEN DU: Xabier Kintana	142
AVTHANDILEK BERE MENPEKOEI EGINDAKO GUTUNA: Xabier Kintana	148
EGUZKIA GURTZEA: Juan San Martín	151
EUSKAL LITERATURAREN BESTE AURPEGIAZ: Juan San Martín	154
EUSKAL-LITERATURA BERE BARNETIK IKERTUAZ: Juan San Martín	160
MAIDDI-URRIKA: Bitañio	165
NAHAS MAHAS.—BARANDIARAN ETA AJURIAGUERRA Profesoreeri Omenaldia: A. Irigaray	167
HENDAYA-KO HAIZE GARBIA: A. Irigaray ...	173
EUSKO-IKASKUNTZAK ERREGEARI AZALPENESKEA: A. Irigaray	174
H LETRAREN ARAZOA GIPUZKOARREN ARTEAN: Juan San Martín	177
A. Fr. JUAN MATEO ZABALAREN BIGARREN EHUNURTEURRENA: Juan San Martín	180
PIARRES LHANDAREN MENDEURRENEAN: Juan San Martín	182
LORD CARNARVON ETA EUSKAL-HERRIKO FORUAK: Juan San Martín	185
NAHI EZ DUGUNA FALTA DENEAN: Juan San Martín	187
CALIFORNIA-KO ASTEKARI ESQUALHERRIA: A. Apat-Echebarne	193
ANTOINE DABBADIE AZPEITIAN: A. Apat-Echebarne	194
HARTZAK JANA: A. Apat-Echebarne	195
JAMES PHILIP BANKEROA AUZITEGIAN: A. Apat-Echebarne	195
OCCITANO IZKUNTZEN ALDE ONAK ETA ARRANKURAK: A. Apat-Echebarne	196
ENBEITA-TAR KEPA: A. Apat-Echebarne	197
SORGINKERIAREN LIBURU BAT: A. Irigaray	198
ONATI-N EUSKO IKASKUNTZAKO BILTZARRREN NAGUSIA: A. Apat-Echebarne	199
LIBURUAK: Juan San Martín	201
LIZARRAGA DE ELCANO-REN BIOGRAFIA EDER BAT: A. Irigaray	213



EGAN

En cumplimiento de cuanto establece el Art. 24 de la Ley de Prensa e Imprenta, se hace constar los nombres de las personas que constituyen los órganos rectores de la publicación EGAN, del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo", de la Excma. Diputación de Guipúzcoa.

Director: Luis Michelena.

Consejo de Redacción: Angel Irigaray y Luis Michelena.

Depósito Legal: S. S. 289 - 1958

Imp. Echeverría - V. Pradera, 47 - San Sebastián 1979

EGÁN

SUPLEMENTO DE LITERATURA DEL BOLETIN
DE LA REAL SOCIEDAD VASCONGADA DE AMIGOS DEL PAIS

Dirección y Redacción: A. Irigaray y L. Michelena

Redacción: SEMINARIO URQUIJO DE FILOLOGIA VASCA
Palacio de la Diputación de Guipúzcoa - SAN SEBASTIAN

II Epoca

Vol. XXXVII

Enero-Diciembre 1977

EUSKAL-ERESI ZAHARRAK

YON ETXAIDE

*Juan Carlos Gerra'ren oroiz
eta gorazarrez.*

Gure euskara, antziña-antziñakoa delarik, lozorro triste batean murgildurik egon zaigu, burua altxatzen eta bere ederra lantzen saiatu gabe, hauzoko zaizkion gaztelaniak eta frantsesak literatura-ren gaiñak atzematen zituzten bitartean.

Bersolariak izan genituen, oiheski (1) bada ere, gure mintzaira lantzeari ekin ziotenak, nolabait, mendez-mende, zeren literaturak, hizkuntza izkiratuak alegia, ez baitzuen langillerik arkitu bere baratzako lur gizona jorrazteko azken mende hauetaraino, hots, Etxepare'k, Leizarraga'k eta Axular'ek beren literatur lehenkiak euskarari eskeiñi zizkioten arte. Bestalde, inguruko erromanzeek, latin hizkuntzatik sortutako herri-mintzaira berri-berriak izanik, beren literatura lantzeari gogoz ekin zioten. Frantzia aldekoek oc-mintzairari hegoaldean eta oil-mintzairari iparraldean eta Españian gaztelaniari, katalan saillari eta gaillego-portugesari. Aipatu herriok, latiñaren desegitetik sortutako beren hizkera oihesak lantzen zituzten bitartean, euskaldunak, beren mintzaira paregabea gutxietsiz, hauzo hizkuntzez lilluratu ziren (2).

(1) Rústicamente, toscamente.

(2) Gaztelar erromantzearen lantzean, Onzalo Berzeoko (Gonzalo de Berceo) euskaldun erriotarra izan zen irudirik gailletako bat. Berzeo deritzan herrian jaio zen 1180'gn. urtean. Kukulla'ko Donemiliaga'n (San Millán de la Cogolla) egin zituen estudioak eta benediktino fraide taldekoa izan zen. 1246' garren urtean utzi zuen mundu hau. Fausto Arotzena jaunak dionez euskaldun jatorra zen Berzeo. Bere iskributan, zenbait euskal-hitz sakabanaturik utzi zingun, esaterako *kirol*, "fiesta" adieratzeko eta bere literatur pertsonaien artean ageri den gizaseme bildurti bat "Don Bildur" izenez bataiatu zuen. Izan ere, aldi hartan, Errioja (Río Oja edo Larrioja/Larriola?) garaia euskaldun izan bide zen.

Euskaldun agintarien zabarkeria euskaraganako, xehetasun honetxek ematen digu argiro: Erdi-Garaian latiña erabilli ohi zen erresumatako edo erreñutako hizkera ofiziala bezala. Horra, bada: Nafarroako VII'garren Antso Indartsuak (3), latiña baztertuz, Gaztela'ko Alfonso X'garrenak ("Jakintsua" zeritzanak) baiño hirurogeitamar bat urte lehenago hautatu zuen gaztelania bere erresumako hizkuntza ofiziala bezala (4). Hauxen izan da, noski baiño noskiago, Euskalerriko agintari guzien hutsegiterik handiena (5).

Gure lan asmoari jarraiki, jo dezagun euskal-kanta zaharretara, hauetxek izan baititugu, belaunez-belaun gureganaturik, euskal-literaturaren aintzindariak. Lan hontan azterturen ditugun eresi guziak ez dira lehendabiziko euskal-liburuen aurrekoak, baiñan lehendikako gatza eta zukua dakarte beren egituran eta honela euskararen antziñatasunaren lekuko paregabe zaizkigu.

Azkue'k dio: «La palabra *eresi* significa "canto" en el sentido de "canto histórico", es decir "rapsodia", y por extensión "poesía". De *erastea*, "discurrir, recitar o narrar algún suceso", viene lo que se llama *eresiak* "romances de gesta", las canciones antiguas que contienen alguna historia o narración». (Ikus bere hitzegian "eresi"

(3) Sancho VII el Fuerte. Beste era hauetan ere dei dauteke euskaraz: Kementsua, Sendoa, Gogorra, Azkarra, Zailla ...

(4) Ikus: "Historia Vasca", P. Bernardino de Estella, 102 paia, eta Arturo Campión'en "Nabarra en su vida histórica" ("Geografía del País Vasco Navarro" ediziñoan, 428 paia).

(5) Campión'ek, gure arbasoen nolabaiteko zurigarri, euskerarekiko zutèn zabarkeriaz eta axolagabekeriaz egia biribilok botatzen dizkigu: "La convicción de que la lengua es el elemento más importante de cuantos medios de diferenciación, continuidad y cohesión nacionales existen, es una idea sumamente moderna; hasta fines del siglo XVIII los gobiernos no se cuidaron de vigilar o destruir, según los casos, el habla popular; sólo durante el siglo XIX adquirió el idioma el valor de un símbolo nacionalitario; hasta entonces las lenguas se transmitían inconscientemente de generación en generación, conservándose o perdiéndose según vicisitudes históricas, largas de enumerar. Este fue el destino del euskara, sometido enteramente a las leyes generales de la conservación y desaparición (debilitamiento de la conciencia étnica, utilidad en el uso del lenguaje extraño, superfetación de una lengua administrativa que ejerce por sí todas las manifestaciones escritas y orales de la vida pública, etc.). Las Cortes de Nabarra y las Juntas Generales de otros Estados baskos se cuidaron a veces de extender el castellano, jamás de conservar el vascuence. Así te veo postrada en la ceniza, maravillosa Cenicienta de nuestra raza y al terminar mi carrera, repito la invectiva shakespiriana que pronuncié al comenzarla: «Oh basko, eres semejante al indio vil que arroja lejos de sí una perla más preciosa que toda su tribu!»» (Ikus: "Nabarra en su vida histórica", 179 p., 1929'ko ediziñoa).

hitza). Azkue'k berak bildu dituen bi adigarritatik, badirudi zentzu zabalago bat ere bazuela, alegia, edozein kantu. Hots: *Gure mihiak kanta biotzo hauthari eresia berriak* (cante nuestra lengua nuevos cantos al elegido). *Aingeruak (h)asi ziren eresiaz airean* (los ángeles empezaron a cantar en el espacio). Bi adigarriok Joanes Etxeberri Ziburukoari hartuak dira "Noelak" poema liburutik. Beraz, orain badakigu, gutxi-gora-behera, "eresi" edo "eresia" ("eresia berriak") zer den euskaraz. Hitz hau euskal jatorrikoa ote dugu? "Eresia" eta gaztelaniazko "elegía" alderatzen baldin ba'ditugu, badirudi alkarren ahaideak direla. Esanguran ere badute hurbiltasunik, hots: "Composición poética del género lírico, y de asunto triste y lastimoso". Grezitarrek "elegos" (negar-zotinka) hitzetik "elegeía" sortu zuten eta erromatarrek hemendik "elegía". Hitz hau "negar-zotinka"tik sortua izanarren, bai grekoek eta bai erromatarrek poesia samiñak eta alegerak izkiriatzen zituzten izen honen babesean. Gaiak, beraz, etzien inolako mugarririk ezartzen. Bai, ordea, neurriak, zeren bi literatura klasikotan beti ere hexametro eta pentametrotan irazten baitzituzten beren "elejiak".

Antziñako gure eresirik edo eresiarik gehienak galdu baldin ba'zaizkigu ere, euskaldunen bertso zaletasunari eta tradiziño maitetasunari eskerrak, sail eder bat behin betiko heriotzatik salbatu zaigu eta hauetako gehientsuenak Juan Carlos Guerra Arrasatear euskalzale zintzo eta saiatuak liburu batean, alegia "Los Cantares antiguos del Euskera" deritzanean, agertu zizkigun, bakoitzari iruzkin ernagarriak (6) egiñaz. Bigarren izkirialdi hontan, osagarri eta gidari bezala, L. Mitxelena'ren "Textos Arcaicos Vascos", liburu ezin utzizkoa gai hauetan, beti begien aintzinean eduki dugu.

Irazlan hontarakoxe Juan Carlos Gerra'ren sailletik ernagarrienak aukeratu ditugu eta bilduma bereizi hontatik, eresia luzeak direnean, zati batzuek besterik ez ditugu agertuko, dena aztertzen hasiko ba'giña gure lanak luzeegi joko bailuke. Alabaiña, gure eresi zaharren irudipen bat egiteko, zati bereziok aski izanen ditugula derizkiot.

Gerra'ri jarraiki, hiru sail handitan bereiz ditzakegu eresirik ederrenak:

1. Jauntxo edo handiki arteko guduei dagozkienak, baitipat Oñaztar eta Ganboatarrenak.

(6) Komentari interesgarriak.

2. Hilleta-kantak, hau da, hilberriaren aintzinean ahaidetik hurbillenak kantatzen zituzten bertso hunkigarriak.

3. Orotariko gertakari laburrei dagozkienak.

Hiru sail hauen aintzindari, kanta zaharren sarrera antzo, “Perutxo’ren eresia” (Cantar de Perucho) deritzanaren iruzkin hedatu bat eginen dugu, merezi baitu kantu honek orain arte izan dituen komentalarietako emaniko iritzeak jasotzea eta gaurko belaunaldiari jakinaraztea. Lan hontan agertzen ditugun eresiarik zaharrenak XV’garren mendekoak ditugu eta berrienak XVIII’garrenekoak, baiñan orok, Perutxo’ren eresia izan ezik, lehenbiziko euskal-liburuaren ondotik inprentaratu zituzten. Has gaitezen, beraz, aintzindarizat begiz jotako eresia honekin.

Perutxo’ren eresia (El cantar de Perucho).— Manuel Lekuona apez jakintsuaren esanari gagozkiola, lehenengo euskal-tekstoia, “Tercera Comedia de Celestina”ko “El Cantar de Perucho” deritzan ahapaldia izan zen, 1536’gn. urtean argitaratua (7). Honen ondoren, 1542’an, Pantagruel’en liburu ospatsuan “Jona andie” deritzan euskal-tekstoia agertu zen, eta 1545’gn. urtean euskaraz iratzitako lehenbiziko liburua, “Linguae Vasconum Primitiae” (8). Julio Urkijo’k ere lehenengo euskal-tekstoia “El Cantar de Perucho” dela dio (9). Alabaiña, Barriobero y Herran jaunak dienez (10), Pantagruel’en lehenbiziko liburua 1532’ren azkenetan edo 1533’ren hasieran argitaratu zen Lyon’en eta urte berean bigarren edizio bat ere egin zen hiri bertan.

“Jona andie” euskal-tekstoia lehenengo liburuan ageri zaigu: beraz, Barriobero’k dionari jarraituz Pantagruel’ekoa izan zen aurreneko euskal-tekstoia eta Lekuona eta Urkijo’ri jarraituz, be-

(7) Espasa-Calpe’k, 1559’gn. urtean ipintzen du. Jakin-araz dezagun bide-nabar, hemen ez garelara ari frase labur-laburrez, zeren, denok dakigunez, hantutan zaharrena eta ospatsuena “Glosas Emilianenses”etan arkitutako esaldi pareta baita (*izioki dugu eta guek ajutu ez dugu*), Errijoja’ko San Millán Kukulla’koan. Ez da ezagutzen bi esaldi hauen aldi-muga zeatza, baiñan X’garren mende erditsukoak direla esan daiteke huts egiteko bildurrik gabe.

(8) Viejos textos, “El Cantar de Perucho”, R.I.E.V., 1925.

(9) “La Tercera Celestina y el Canto de Lelo”, R.I.E.V., 1910.

(10) “Gargantúa y Pantagruel”, traducidas y recompuestas de las ediciones reputadas como más auténticas y escrupulosas, anotadas y comentadas por E. Barriobero y Herrán. M. Aguilar, Editor, Madrid, 1923.

rriz, “El Cantar de Perucho”. Dena dela, urtetan oso alde gutxi dago eta berdin xamar deritzait nahiz bata nahiz bestea lehentzat jotzea.

Fernando de Rojas'en “La Celestina”k imitapen asko izan zitu. Horietako bat Toledo'ko Gaspar Gómez'ek iratzi zuen, “La Terecra Celestina” izenez. Trajikomedia hontan, —ahul eta ganoragabea irizlariak diotenez—, idoro zuen Menéndez y Pelayo'k Perutxo'ren eresia eta euskalariei dei egin zien beronen azterpen bat egin zezaten.

Nik dakidanez, lau euskalari izan ditugu “El Cantar de Perucho” izenez ezagutzen dugun euskal-tekstoaren komentalariak: Julio Urkijo, Manuel Lekuona, Juan Carlos Gerra eta Luis Mitxelena. Lau euskalariok saiatu izan dira Gaspar Gómez'ek aldrebes xamar iratzitako eresian tartekatzen diren korapillo eta maratillak askatzen. Nik, lauron azalpenak irakurri ondoren, bakoitzak diona gogoan hartzen dut, eta laurok oiñarritzat hartuta eta ezer berririk asmatzeke, neri egokiena deritzaten tankeran ezarriko dut hemen. Hona, beraz:

Lelo lirelo zarai leroba
Yaz zoegia (11) nintzan,
Aurten erua.
Ai! joat (12) gabiraia,
Astor(e) usua (13),
Lelo lirelo zarai leroba.
Ai! joat gabiraia
Astobitza'ra (14),
Eso(k) amor(e)ari
Gaxo naxala (15),
Penaz natzala (16),
Jatorkedala (17)!
Lelo lirelo zarai leroba.

(11) Igaz zuhurregia (demasiado prudente).

(12) Hoakit, zoazkit (vétème).

(13) “Raudo azor”, Lekuona'ren irizpidez; “hator usua”, Urkijo'renez.

(14) Mitxelena'k nahiago luke “aztore azkarra”, “aztore bizkorra” edo zerbait holako.

(15) Lekuona'k: “Gaxo natzala”.

(16) Lekuona'k: penaz nazala.

(17) Datorkidala (que me venga).

Maite-kanta honek ezagun du Bizkai'ko euskaran egiña dela. "Yaz" darabil soilki, "igaz"en ordeztu, oraiñaldiko Bidaso'z beste-koen eran. Punturik illunenak eta, horretxegatik, hauzigarrienak "astor usua" (aztore usua) eta "aztobicarra" (Astobitza'ra) dira. Ni ez naute erabat betetzen eman diren ertenbideak. Denborak argi eginen ahal du!

Jo dezagun orain lehenbiziko saillera eta aukera ditzagun hiru eresi zoragarriok: *Aramaio-ko eresia*, *Arrasate-Olaso'ko eresiak*, *Martie Bañez Artazubiagako'ren eresia* eta *Bereterretxe'n khandoria*.

Aramaio'ko eresia. — Gomiz-Onzalutx, Butroe'ko eta Muxika'ko jaunak eta Oñaztarren buru lehenak, 1443'gn. urtean, bere ahaideei hots egin ondoren, Ganboatarren aurka jo zuen eta hauek Bizkai'ko zenbait herritan zituzten jauregi ta gazteluak erre ta kixkali zituzten.

Ganboatarrek etzuten luze iraun bere etsaien eraso mende-katu gabe. Peru Abendaño'k, Lekutio'ko (Legutiano/Billerla = Villarreal de Alava) jaunak eta Ganboarren buruzagiak alegia, bildu zuen bere jendea; Gomiz-Onzalutx'ek Abadiño'n eta Otsandio'n (Abadiano'n eta Otxandiano'n) zituèn jauregiak erre eta Aramaio'ra (Aramayona) jo zuen. Hiri hontan hogeitatu bat etxe eta Mendiola'ko torrea erre zituen. Mendiola'ko jauna, halabeharrez, bere gaztelutik kanpora zegoen eta Aramaio ibarreko mutil gazteak armetara deiturik, Abendaño'ri eraso zion. Honek, ihesiari eman eta erretiran bost gizon galdu zituen, euren artean, eresiak *Gaxto-Apala* ez-izenaz aipatzen digun bat. Abendaño'k, Arratondo'ko bide malkorretik edo "eltze"tik —eresiak darabilen hitzez— doi-doi itzul egin zuen eta itzultze honi dagokio guri heldu zaigun ahapaldia. Luis Mitxelena'ren arabera antolatutik aldatzen dugu hemen:

Izarragat'ti gora eltzian joala (18)
Jaun Peru Abendaño'ko esala (19):
Oñetako lur an jabil(t) ikara (20),
Gorputzeko lau aragiok berala (21).
Oi! aldi oneri, albanegi enpara (22),
Barriz enendorke Aramaio'ko kontrara.
Mendiola, il deustak Gasto Apala,
Bere laguntzat beste asko ditubala.

(18) Lur landu gabeen zihola. "Eltze": terreno inculto, baldío, yermo. Izarraga'ti = Izarraga'tik.

Egia esan, teksto orijinalean, laugarren neurtitza honela ageri zaigu: *Gorpuceco lau aguinok berala*. Alabaiña, Gerra'k dion bezala “Oñetako lur au jabilt ikara / gorputzeko lau aragiok berala” formula bat bezala erabiltzen zuten aldi hartan eta aldakuntza txipi batekin horrela agertzen zaigu Martin Bañez de Artazubiaga' ren hilleta-kantan, hots: “Oñetako lur au jabilt ikara / lau aragiok bere an berala” (*Oiñetako lur hau dabilkit ikara, lau haragiok ere han manera berean edo ber-maneran*). Mitxelena'k ere ez du zalantzarik egiten. Zuzenketa hau segurutzat jotzen du.

Eresi honek zoragarriro agertzen digu Abendaño'ren larria eta barru irakiña, aurrena, eta geroxe bere arerioak erasoaren garbaia, ez ordea oker egiñaren damuz, zeren Erdi-Aroko gizon listartiek nekez aitortzen baitzuten benetako damurik —mendekua zutenez gero beren eginkizunen helburu—, baizik-eta bere asmoak makur aterearen eta bere lagunik onenak han galduaren garbaiez.

Arrasate eta Olaso'ko eresiak. — Hona Arrasate'ko eresieren kantagaia: 1443'gn. urtean, Butroe'ko Gomiz-Onzalutx'ek Juanikote bere semea ezkondu zuen Mariana Urdaibai'ekin eta bere alabarekin ezkon hitza eman (ezkontzeko umoturik ez baitzen artean) Martie Ruiz Ganboako'ri. Butroe'k eta Ganboa'k Baraxuen'go (Aramaio-ibarra) jauregian zin egin zuten gudu gora-beheretan alkarri laguntzea eta salkeriarik ez egitea.

1445'gn. urtean, Peru Urtiz Garaiko'k, beronen seme Joan Latz'ek, Arexola anaiek eta Gomiz-Onzalutx'en taldeko beste batzuek, beren buruzagiari traizio egiñaz, Peru Abendaño'ko'ri saldu zioten Aramaio'ko ibarra eta Baraxuen'go gaztelua eskuratu.

(19) Esala = zesala (esaten zuela), sintetikoki irabiatua. “Perutxo”ren eresian “esok” (esaiok) agertzen zaigu, gaurko Bidaso'z bestaldeko “errok”, “errozu”, “errazu” bezala. Aintzineko “z” galtzea normala da bizkaieraz: esan eban (=zeban, zuen). Arrasate'ko erreketaren ahapaldi batean ere honela dio: “Joa-niko'k eta beste askok / eudela parte bertan”. “Eudela” = zeudela, zutela: zutela parte bertan (Mitxelena: *Textos arcaicos vascos*, 83 p.).

(20) Jabilt ikara = dabilkit ikara.

(21) “Berala”: “de la misma manera”, Garibay'en arabera (Mitxelena: *T.A.V.*, 92 p.).

(22) “Albanegi enpara”, Mitxelena'ren arabera “si yo lo pudiera salvar” da, gipuzkeraz “ahal ba'neza salba(tu)”. Mitxelena'ren irizpidea jarraituz honela ere izkiria daiteke neurtitz hau: *Oi! aldi oneri: albanegi enpara!*

Gomiz-Onzalutx'ek traizio honen berri jakin zuenean, Estibaliz Mendiola bere adiskide leiala igorri zuen etoi edo traidoreen aurka. Bere etsaien kontra Arrasate'n borrokatzen ari zela, ordea, gezi batek zauritu zuen eta bertatik hil zen.

Sumindu zen Gomiz-Onzalutx albiste beltz hau ekarri ziotenean; bildu zituen bere menpeko gudariak eta Aramaio'ko gaztelua hesitu zuen. Artean, Abendaño heldu zen eta itzul eragin zion.

1448'gn. urtean Arrasate bi alderditan zatiturik zegoen: Bañeztarrak eta Guraiatarrak. Urte hontan alkarren kontra ekin zioten eta Guraiarrek Gomiz-Onzalutx'i bere laguntasuna eskatu. Bai honek eman ere, Aramaio'z bir-jabetzeko irrikitzen baitzegoen eta bere gogoa asetzeko txit une egokia iritzirik, bastehun gizon bildu zituen Guraiarren lagun joateko; Juanikote bere semea eta Presebal bere illoba tartean zituela, Arrasate'n sartu zen San Bernabe egunez. Ganboarrek 1500 gizonekin eraso zioten. Bi egun geroago Ganboar gehiago bildu ziren eta beren indar guziz hamar egunetan erasoarren, etzuten menderatu Butroe'ko jauna. Etsipena emanda, Ganboarrek herriari su eman zioten.

Lau saihetsetatik suak inguratuta, hiritik atera nahi izan zuen eta aita, semea ta illoba bata bestearen ondoren, Ganboatarren atzaparretan hillotzik jausi ziren. Sarraski (23) hau Madalena'ko ermitatik hurbil gertatu zen, orain, laburtuz, Maala esaten dioten lekuan. Ganboarrek eta Oñaztarrek kantatu zuten, bakoitzak bere gisa, gudaldi hau. Hona hemen, Ganboarrek kantatu ohi zutenaren lehen ahapaldia :

*Gomiz'ek asko lagunik,
Zabal Arabaarrik (24),
Giputz hondo ederrik,
Bizkaitar urduri gogor(r)ik.
Ez diazo (25) bakarrik,
Ze an daz (26) Presebal ilik,
Juanikote'gaz lagundurik,
Txibuluen (27) ospe bagerik,
Ez urrun Maloguen'ik*

(23) Matanza, carnicería.

Ahapaldi hau, Aramaio'koaren aldean, pobreagoa da edertasunez eta apainduriz. Maillu kolpeka oiheski (lazki, zakarki) landua dirudi *-ik* atzizkiaren hots legorrez. Baiñan, bestalde, atzizki indeterminatu honek gure arbasoen artean zuen indarrak eta zabal-tasanak txunditurik uzten gaitu. Hala ere, *lagunik*, *arabarrik*, *ederrik*, *gogorrik*, *bakarrik*, *lagundurik* eta *bagerik* oraindik ere oso erabiliak dira, nahiz ez horren alkarren ondoan. Azken ber-soko *-ik* ez da indeterminatua, etorkia aditzera ematen duen *-tik* baizik (Azkue: sufijo casual de ablativo, variante de *-tik*). Beraz, Maloguen'ik = Maloguen'dik. "Y así —dio kronistak— según este cantar fueron muertos estos en un sitio que llaman *Maloguen'go errekea*."

Lehenago esan dugunez, Arrasate'ko gudaldi aintzinetik, Oñatz eta Ganboa taldeek bake antxean zirauletarik, Gomiz-Onzalutx'ek bere alabarekin ezkontzeko hitza eman zion Martie Ruiz zeritzaion Olaso'ko jaunari. Olaso'ko jauna, ordea, Arrasate'ko sarraskian Oñaztarrekin ibilli zen (29) eta honetxegatik Gomiz-Onzalutx'en alarguntsak galerazi nahi izan zuen ezkontza hau. Alabak, ordea, gogor ekiten zion Olasotarrarekin ezkondu nahiean, eta hauzi hau dela-ta, sortu zen alabaren ezpaiñetan ahapaldi polit hau:

(24) "Zabaleko Arabarrak" ("alaveses de la ancha llanada") dio Gerra'k. Baiñan nere ustez "Zabal diren arabarrik" esan gura du bertsolariak. Aditza kenduz: "zabal arabarrik". Ikus gaiñera nola esaten duen ondoren "giputz hon-do ederrik", "Bizkaitar urduri gogorrik". Alegia, hiru probintzitako mutilen kalifikazio bat da. Arabarrak, mutil zabalak; giputzak mutil ederrak; eta bizkaitarrak mutil urduri ta gogorrak.

(25) "Diazo": *de sentido ignorado*, dio Mitxelena'k. Zentzuagatik *dagoz, daude, dautza* izan daiteke.

(26) "Daz": Mitxelena'ren ustez ia seguru *datza* (yace) da. "Ze an daz (datza) Presebal ilik" (=que allí yace Presebal muerto).

(27) "*Chibulu* es un hapax que se ha solidado traducir por "pífano" —dio Mitxelena'k—; *ospe* es naturalmente "ruido", "estrépito", no "fama".

(29) Olaso'ko jaunak Arrasate'ko gudaldian zintzo jokatu zuen bere aita-giarreba-gaiarekin, sutetik eta etsai artetik salbu ateratzeko aukera eman baitzion. Alabaiña, esaten zitzaion lekutik ihes egiteko mezua okerreko eskutan erori zen eta kanpokoek opa zioten ater-aldi hau aprobetxatuz, Untzueta delako bat, mezua jasu zuena alegia, salbatu zen. (Ikus Juan Carlos Guerra'ren "Los Cantares antiguos del Euskera", 14-15'gn. paia.)

*Berba orren berba gazia,
Berba orri nai ez dakiola balia.
Dardoak eginarren bere aldia,
Olaso da ene egoteko aulkia.*

Eta ipuitan bezala, asarre oztopo guziak laututa, zorioneko ezkontza egin zuten 1450'ko Urtarrillaren (Hilbeltzaren) 18'an. Maitasunak, ziñezkoa denean, ez omen du mugarik eta oztoporik ezagutzen eta erdi-aroko gizonen gorroto suak itzaltzeko, benetan ziñezkoa izan behar.

Martie Bañez Artazubiagako'ren eresia. — Urteak arin labaindu ziren Arrasate'ko sarraskiaren ondoren, baiña Joane Alonso zertizàn Gomiz'en seme eta ondorengoak beti gogoan zeukan bere aitaren heriotza eta aurreneko abagunean mendekua hartzeko asmotan ziarduen. Bere asmoa bete nahirik, Baraxuen'go gazteluaz jabetu zen eta honekin Aramaio'ko ibar guziaz.

Lehen esan dugunez, Arrasate'ko sute aintzinean, herri hon-tako bizilagunak bi taldetan bereizirik zeuden: Bañeztarrak eta Guraiarrak. Hauek, Gomiz-Onzalutx'en laguntza eskatu zuten eta Bañeztarrak Ganboatarrana. Urteak igarota, Joane Alonso'k bere aitaren heriotza mendekatu beharrez, Martie Bañez Artazubiagako begiz jo zuen eta 1464'ko maiatz-arratsalde batez, Martie, Ibarreta'tik Arrasate'ra zihoala, Joane Alonso bidera erten zitzaion bost Oñaztarrekin eta kupida gabe ero (hil) zituzten Martie eta honi lagunduz zetorren adiskide bat, izenez Joane Ibañez Barrutiko.

Martie Bañez, Otzaeta'ko Antsa Otxoa'rekin ezkondua zegoen eta honek, bere senarraren erailleenganako gorrotoz bihotza puztuta, eresi hau kantatu zuen, apika bere senarraren gorputz aintzinean:

*Oñetako lur au jabilt ikara,
Lau aragiok bere an berala (30),
Martin Bañes Ibarreta'n il dala.
Artuko dot esku batean gezia,
Bestean zuzi iraxegia (31),
Erreko dot Aramaio guztia.*

(30) Oñetako lur hau dabilkit ikara, / Lau haragiok ere han ber-maneran (era berean, modu berberan). Ikus hontaz esandakoak "Aramaio'ko eresia"n.

(31) Gipuzkeraz: zuzi irazekia (=antorcha encendida).

Gorrotoa, doillorkeria, azpikeria, mendekua, traiziñoa eta odol egarria gizadiaren jaun da jabe ziren ehunki aberetsu haietan, gizonezkoetan ez-ezik, emakumeen bihotz xamurretan ere billatzen zuten noiz-behinka griña hauek kabi eta egoitza, bertso hauetan ikus daitekenez gandu eta lanbrorik gabe.

Oñatz-Ganboatarrei dagozkienak gehiago ere ba'dira, baiñan, azaletik ari garenez gero —denbora neurtuak hala agintzen digulako—, oroimen txarreko bi talde oillarkoien borrokak alde batera utzirik, Zuberoa'ko lurralde eztitara jo dezagun, hango jauntxokerien odolak ezeturik sortu baitzen —nere ustez beñepein—, euskal-eresitan ederrenik ederrena :

Bereterretxen khantoria. — Joan den mendean inprentan jaso zuten arte, ahoz-aho heldu zaigu belaunaldi batetik bestera. Sarkaldeko Euskalerrria'n Oñaztarren eta Ganboatarren izurritea hedatu zèn bezalaxe, sortaldean Agramont eta Beaumont izeneko taldeak zebiltzan, Euskalerrri'ko bakea, langintza eta aurrerakuntza nundik eta nola ondatuko. Bereterretxe agramuntes zalduna zen eta aldi hartan Agramuntar eta Lukuzetarrak (Nafarroa-Beherean eta Zuberoa'n izen hau hartzen zuten beaumontesek) sekulako sarraskiak egiten ari ziren Bidaso'z handiko eusko-lurretan, euren arteko mendeku eta makurkeriak helburu nagusizat harturik.

Aspaldi haietan, Leirin'go lehenengo kondea zen Maule'ko gazteluko gobernadore eta Jaurgain historiagilleak dionez, haren aginduz hil zuten Bereterretxe 1434 eta 1449 urteen bitartean traiziñoz, beronen "khantoria"n ikus dezakegun bezala. Orok daki-gunez, Maule'ko gobernadorearen ondorenak bere traidore odola jaso zuen, beronen ezpalekoak atera baitziren seme-billobak, zeren Leirin'go hirugarren kondea izan zen —hots, billoba— Nafarroa'ko erresuma gaztelarrei saldu ziena. Idoia Estornes'ek (32) hitz labur baiñan sarkorrez honela kontatzen digu Bereterretxe'ren heriotza: "Bereterretxe agramuntes taldeko Zuberotar zaldun bat zen. Maule'ko alkaideak (33) —Luis de Beaumont zeritzan honi eta beaumontesen buruzagi zen—, gaiñetik kendu nahi izan zuen eta Larrain'ko haren etxera billa joan zitzaion gizon mordo batekin. Bazko arratsa zen; kondeak irten-arazi zuen hitz egiteko, baiñan atera heldu zenean, gordeak zeudèn gizonak bere gaiñean jausi

(32) "Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco", "Cantar de Bereterretxe", 74 paia (Tomo I: Literatura).

(33) Gazteluzaina edo gaztelu-gobernadorea.

ziren. Haren hillotza Maule'ko bidean agertu zen Atharratze'tik hurbil."

Eresi zoragarri eta hunkigarri hau etzaigu, noski, osorik iritxi, hutsuneak nabaitzen baitira ixtorio-hariaren urragarri. Gureganatu zaizkigun hamabost ahapalditatik, zazpi aukeratu ditugu, ipuin hariari atxikienak irakurlearen jakingarri. Badugu beroietan nun goza eta nun ausnar :

1

*Haltzak eztü bihotzik
Ez gaztanberak ezürrik.*

Enian uste erraiten ziela aitunen semek gezürrik.

3

*Bereterretxe'k oheti
Neskatuari eztiki:*

"Habil, eta so egin ezan gizonik denez ageri?"

4

*Neskatuak berhala,
Ikhusi zian bezala,*

Hiru dozena bazabiltzala bortha batetik bestila.

5

*Bereterretxe'k leihoti
Jaun Kuntiar goraintzi:*

Ehun behi bazereitzola, beren zezena ondoti.

6

*Jaun Kuntiak berhala
Traidore batek bezala:*

"Bereterretx, aigü borthala: ützüliren hiz berhala."

13

*Mari Santz'en lasterra
Jaun Kuntiar borthala!*

"Ai, ei, eta, jauna, nun düzie ene seme galanta?"

14

*—"Hik bahiena semerik
Bereterretxe'z besterik?"*

Ezpeldoi altian dün hilik; habil, eraikan bizirik..."

(1) Aitunen semek : los gentilhombres.

(3) So egin ezan : begira ezan.

Bertsuok, ernagarriak ez-ezik, zirraragarriak dira eta sarritan hunkigarriak. Ama baten larria bere semea galetsi duelarik eta jaun kuntiarekin kinismu doillorra amaren bihotz minduari iseka egiñaz, goi-arnas aberatsenaz adierazirik daude. Badugu, bai, euskal-eresi zaharretan mintza-molde eder eta baliosik. Zurrupa eta miazka dezagun beroien jario gozotik, kanta zahar hauetan baitugu iraulirik, ehundaka eta millaka urtetan mamitutako euskaldun herriaren sena, soiñekorik ederrenaz eta dotoreenaz jantzita.

Goazemazue orain hilleta kantetara eta aukera ditzagun, besteren artean, hiru eresiok, ene ustean ederrenetakoak: *Andre Milia Lastur'koaren eresia*, *Alostorra'ko eresia* eta *Joanè Amenduzeko'ren eresia*.

Andre Milia Lastur'koaren eresia.— Aantziñako eresia xarman-garrietan, hauxen dugu aipatuenerarik. Hona hitz bitan eresia honen mataxa: Andre Milia Lastur'koa gazterik hil zen erditze gaizto baten ondoren eta, ziotenez, haren alargun Peru Garzia Orotarrak, Marina Arrazola'rekin ezkondu gogoan agertu omen zuen, lehendanik ere hartaz zaletua omen zegoen-eta. Andre Milia, bere ezkontaroan Arrasate'n bizi zen eta honen aizpa batek hilberria jakin zuenean, Milia'ren egoitzara heldurik, hillotz aintzinean honela ekin zion kantari, erditze samiñaren ondoren, gozagarri beharrez, heriotza idoro zuela aditzera emanaz:

Zer ete da andra erdiaen zauria?

Sagar errea, eta ardao gorria.

Alabaia, kontrario da Milia:

Azpian lur otza, gaiñean arria.

Koblakariak etsai eta salkeria beltzaren mende dakus bere aizparen hillotza eta bere senarrarengandik tratu txarrik jaso zuen Arrasate'tik Lastur'era itzultzeko bihotz-deia egiten dio:

Lastur'era bear dozu, Milia.

Aita jaunak eresten dau elia (1),

Ama andreak apainketan obia.

Ara bear dozu, Milia.

(4) Bortha batetik bestila: ate batetik bestera.

(5) Bazereitzola: eramango zizkiola.

(6) Aigü borthala: ützüliaren hiz behala: jatxi atera: itzuliko haiz behala.

(14) Bahiena: bai ahal dun. Eraikan: altxa ezan.

(1) Jeisten du ganadua. Badirudi hemen "ordeñar el ganado" dela.

Ondoren Peru Garzia salatzen du bere andreaganako desleialtasunaz eta Antsa Ortiz deritzan Peru'ren arrebak anaia babesten du bere ezkon-aizparen erasoetatik. Azkenean, Milia'ren aizpak Arrasate'ko hiriaren aurka kantatzen du saminki, hiri honek Gipuzkoa'ko hiru andre handikientzat izan zuen abegi txarragatik, alegia :

*Mondr(a)goe'ri artu deusat gorroto,
Giputz andraok artu ditu gaxtoto (2):
Iturriotz kalean andra Maria Baldako,
Arte-kalean andra Otxanda Gabiolako,
Erribalean (I) andra Milia Lasturko.*

Juan Carlos Gerra'k dionez (3), hil-eresi hau XV'garren mendeko lehenen erdi aldekoa dugu, zeren 1429'an hil baitzen Andra Otxanda Gabiolako, arestian aipatu dugun Martie Bañez Artazu-biagako zorikabearen ama.

Alostorrea'ko eresia. — Usuak, Beltrán Pérez de Alos'en alabak kantatu zuen hilleta eresiaz, hona zer dion Juan Carlos Gerra'k (4) :

«Elezaharrak dio, aspaldi zaharrean, dorre hontako jaun bat, Beltran Periz Alos'ko zeritzana, bi aldiz ezkondua egon zela. Bere lehen ezkontzatik alaba bakarra izan zuen, Usua, bere ama ononaren bertute jabe izan zena. Bigarrena, alderantziz, desleiala izan zitzaion Gaztela'ra joan zenean mairuei gerla egitera. Bere dorrera itzuli zenean, Alos'ko jauna konturatu zen zerbait arrerik bazebillela han, eta bere emazteak, susmo txarrak uxatzeko, Usua'ri leporatu zion sasikoaren amatasuna, bere amodio ixilpekoen frutu izan zelarik. Buru-nahasirik, Beltran jaun onak, gertatuaren egia jakin nahi izan zuen eta hil zenaren itxurak egitea bururatu zitzaion. «Gau-hillaren» judizio handian desestali (5) zuen ixilpekoa; zerraldotik altxa zen eta mendekua hartu zuen ezpata batez zeharkatuz bere desohoratzaillea». Ileta gau hartan Usua'k kantatu zuen zenbait ahapaldi aipatutako dugu hemen :

(2) Gaiztoki, gaizki, txarki.

(1) En el arrabal.

(3) «Los Cantares antiguos del Euskera», 42'gn. paia.

(4) «Los Cantares antiguos del Euskera», 45 p.

(5) Descubrir. Beste hitzez : agirian jarri.

*Etxe eder leio bage onetan,
Ez naiz sartu zazpi urte aubetan
Eta zortzigarrenian
Neretzat zorigaitzian
Aita Beltran'en iltzian.*

*Ama-andria neria nizaz
Bi erdi egin zanian,
Milla ollo il eta
Ezkaratzian
Zazpi zezen korritu ere
Enparantzian (6).
Ni ere banenguen
Lumatxo artian,
Eta nere ama-andria
Urre gortña artian.*

*Gero Bidania guztian
Bat zan erorik eta zororik:
Aita jauna neriak aura
Senartzat eman dit,
Baña ez nuke trukatuko
Obiagoogatik.*

*Aita jauna neriak
Niri eman zidan
Imiñan dotia,
Ama-andriak ere ixillik
Bere partia.*

*Lenen gabian
Begiak biotzak luen mendian (7),
Baita berriz ere bigarrenian:
Irugarrena igaro baiño len
Ondo poztu ziñan Alos-torria,
Eldu zalako neregan semia (8).*

(6) Plaza.

(7) Nere ustez honela ulertu behar da: "Bihotzak zituen begiak loaren mendean". Bestela ez daiteke uler.

(8) Ahapaldi honi buruz Gerra'k dio, antziña gure Euskalerrian, herriaren uste-usteko sinestea omen zen Jaungoikoa'ri atsegingarri zitzaiola, senar-emazteek ezkontz-ondorengo lehenengo hiru arratsetan haragizko har-emanik ez izatea. Ohe-barau honi dagozkio, segurtamen osoz, bi lehenen gauetako lo-aldiak. Hirugarren eguna igaro baiño lehen eman zioten sortzea —haragi-jotzea sinbolopean aditzera emanaz— alkartasunaren frutuari.

*Alos-torria, bai, Alos-torria!
Alos-torreko eskallera luzia!
Alos-torrian nenguanian
Goruetan,
Bela beltzak kua, kua,
Leiuetan.
Andik jaiki eta
Urre goruaz (9) jo nuan,
Baña andik laster
Berri gaiztuak jo ninduan.*

*Zaldunak esan zion: Ixi! Ixi!
Ama dollorkumia!
Ez da bada ori zure
Esateria.*

*Ixi! Ixi! Zaldun odol
Txarreko gaztia!
Ala ere gutxiago zan
Zure eginpidia!*

*Aizpa ederrak or daude
Ederrik eta galantik,
Atz ederrak eraztunez
Beterik,
Ez daukatela mantubetan
Zulorik;
Ala ere guxiago
Begian negarrik.*

*Ama-andriari ere bai
Poza dario;
Nere biotzari bakarrik
Mindura jario! (10).*

(9) Arakistain'ek "goruaz" dakar, baiña Gerra'k, inprentako hutsegitez "gozuaz". Halaber, hutsegitez ere, "rueca" itzuli beharrean, "rueda" itzultzen du.

(10) Gramatikalki "bihotzari mindura dario" edo "bihotza mindura jario" behar luke izan, baiñan Arakistain'en tekstua dagoenez errespetatzen dugu.

*Aita-jauna neria
Gaztela'n zanian,
Ixil askorik jaio zan
Alos-torrian semia;
Eta ala ere ixillagorik
Dago bakian
Azitzen Zarautz aldian,
Gure jatorriaren loitukerian.*

*Ai! au mindura beltza!
Ai! nere lotsa!
Alabak negarra-ta,
Aitak lur otza!
Zeiñek loitu zaitu zu
Alos-torria?
Ai! nere aita maite,
Aita maitia!
Iltzia ondo egin dezu
Aita-jaun maitia!*

Arakistain'ek bildu zituen ahapaldi guztiak jaso ditugu hemen (11), ipuin haria ez galtzarren, hain baita ederra hilleta-eresi hau. Gerra'k ere sail osoa aldatzen du bere "Los Cantares Antiguos del Euskera" liburu zoragarrian, baiñan hala ere esango nuke badirela ahapaldi galduak, alegia, Arakistain'en egunetaraño heldu etzirenak.

Joane Amenduzeko'ren eresia. — Joane Amenduze'k 1564'garren urtean iratzi zuen hilleta-eresi hau. Mikele Amenduze Iruñar barberaren (12) semea zen eta horregatik pentsatzen dugu bera ere Iruñ-xeme izanen zela. Josepe Goñi Gaztanbide'k arkitu zuen "Archivo General de Navarra"n, eta J. M. Satrustegi'k argitara eman B.R.S.V.A.P.'en 1963'an. Mitxelena'k komentatzen du T.A.V.'en 107-110 paitan eta onartzen ditu, eskuarki, Aingeru Irigarai'en ikutuak eta beronen interpretapena. Hona hemen :

(11) "Tradiciones Vasco-Cántabras", por D. Juan V. Araquistain. Tolosa: en la imprenta de la Provincia, 1866.

(12) Cirujano.

*Hemen natza ortzirik (13), noizbait gozo eritzirik,
 Erioak hustegabe doloroski egotzirik.
 Ene arima Jangoikoagana beldurreki partiturik,
 Lagun gabe bide lusean peril asko pasaturik,
 Honak eta ho(n)rrak bertan mu(n)duak edekirik (14),
 Plazerak azkenik (15) atsekabe biurturik.
 Haideak eta adiskideak urte gutis (16) atzendurik
 Ikustetut isuririk (17), arzezi gusia deseginik,
 Argi gabe, illunbetan, hustel eta kirasturik.
 Nigar begi bapederak (18) bere aldias oroiturik:
 Niork ere isanen estu ni(k) estudan (19) partidurik.
 Ene arima duzen (20) gomendatu, garitates mobiturik.
 Zarraizkidate guzi(ok) (21) bertan itzok ongi notaturik.
 Josafat'(en) baturen (22) gara judision elkarreki;
 Bitarteo lo dagigun (23) bakea dela gusieki.*

Luis Mitxelena'k eresia eder honentzat proposatzen duen itzulpena gaztelaniaz —“con todas las reservas del caso” dio berak—, hauxen da: “Aquí estoy enterrado, derribado inesperadamente y con dolor por la muerte, cuando en otro tiempo me complacía en la vida. Mi alma ha partido, temerosa, hacia Dios, pasando muchos

(13) Ehortzirik, egortzi (=enterrar, sepultar). Ondorengo “gozo eritzirik” Mitxelena'ren ustez “biziari gozo eritzirik” interpretatu behar da.

(14) Kendurik.

(15) “Azke” ongi irakurtzen da, baiñan ez ondorengoa. Irigarai'ri “azkenik” derizkio.

(16) Gutiz, gutxiz. “S” eta “Z” artean badago nahasterik, baiñan badakigu “-z” atzizkia “-s” zela Nafarroa-garaia gehiengan. Honela Lizarraga Elkano'koak: *negarres, ustes, iganes, buruas, oyus, argitus, agos, ...* Honegatik ez naiz ausartu bi letra hauen arteko aldaketarik egiten. Horrela, laugarren bertsoan “lusean” (=luzean) bertanbera utzi dut.

(17) “Ikustetut” = ikusten ditut. “Isuririk”, Irigarai'ek “itzuririk” (=itzulirik) dela uste du eta ez “ixuririk”. Ondorengo “arzezi gusia” (=harresi guzia).

(18) “Begi bapederak” (=egin beza bakoitzak). Ondorengo “aldias” (=aldiaz).

(19) Eztudan, ez dudan. Aurreko “isanen estu” (=izanen eztu, ez du).

(20) “Duzuen gomendatu” (=dezazuen gomenda; gomendatu = encomendar). Ondoko “garitates” (=garitatez, karidadez).

(21) “Guzi” ongi xamar irakurtzen da. Gerokoa illun dago. Mitxelena'k “guziok” proposatzen du.

(22) Batuko. Ondorengo “judision” (=judizioan, juizioan).

(23) Bitartean lo egin dezagun. Geroko “dela gusieki” (=dadilla guziekin).

peligros, sin compañero alguno en el largo camino. El mundo me ha privado al punto de bienes y de honores; los placeres se han vuelto al fin pesares. Veo dispersos a parientes y amigos, deshecha toda la muralla (¿?), olvidados al cabo de pocos años, sin luz, a oscuras, convertidos en podredumbre y hedor. Lloren todos y cada uno recordando su tiempo: nadie va a tener amparo que yo no tengo. Encomendad mi alma, movidos de caridad; seguidme de cerca, anotando bien estas palabras. Todos nos hemos de encontrar juntos en juicio, en el valle de Josafat. Durmamos entretanto; que la paz sea con todos”.

Sail haundixegoa hautatu dugu —ez ordea nahi bezain handia, betarik ez baitugu— orotariko gertakariei dagozkienak aztarrikatzeko. Goazemazue, beraz, bana-bana :

Beotibar'ko gudu. — Beotibar'ko zelaian (Tolosa'tik hurbil), giputz-nafarrek jokatu zuten anai-arteko gudaldi negargarriak eresia batzuek sortarazi zituen. 1321'eko iraillaren 19'an alkar jo zuten bi gudari taldeek eta Gipuzkoa'z bir-jabetu nahian etorri zirèn nafarrak txehetuak eta birrinduak gelditu ziren Tolosa'tik urreko zelai ospe gaiztoko hontan. Gudu hontan bizia galdu zizun Martie Oibarko zeritzàn nafar gudari-taldeko buruzagiak, neurtitz pare xalo honek darakuskigunez :

Beotibar! Beotibar!
Hik diadutak Martin de Oibar!

Nafarren erosta hontaz honela dio Garibay'ek : “Entre los muchos prisioneros fue el más principal el dicho Martin de Aibar (24), alférez del pendón Real con un hijo suyo”.

Azter dezagun orain Garibay'en bitartez heldu zaigun Beotibar'ko gudaldiaren ahapaldia :

Mila urte igarota
Ura bere bidean.
Gipuzkoarrok sartu dira
Gaztelu'ko etxean,
Nafarrokin batu dira
Beotibar'en pelean.

(24) Aibar = Oibar. Herriari euskaldunek Oibarre esaten diote.

Garibay'ek honela itzultzen du ahapaldi hau: “que aun pasados los mil años, va la agua su camino, y que los Guipuzcoanos avían entrado en la casa de Gaztelu, y en pelea se avían topado con los Navarros en Beotibar”.

Hontaz dio Mitxelena'k zuhurki: “Tanto Zaldibia como Isasti sostienen, frente a Garibay, que significa «así los guipuzcoanos han vuelto a ser castellanos”. Es difícil sostener esta opinión, ya que el nombre vasco de Castilla ha sido siempre *Gaztela*, no *Gaztelu*.”

Eta gero honela jarraitzen du Errenteriar seme argiak: “Unas palabras, por último, acerca de la antigüedad del cantar que, como dice Guerra, sería el más antiguo de los que poseemos de ser coetáneo del suceso que recuerda. Creemos que en conjunto Guerra tiene sobrada razón al pensar que fue compuesto en fecha mucho más reciente: aparte de los argumentos que él presenta, la misma regularidad de su métrica «a sílabas cuntadas» es prueba fehaciente de ello. Pero una de las razones en que insiste, el anacronismo del vocablo *gipuzkoar* «guipuzcoano», es totalmente inaceptable por razones de principio. Ni Guerra ni nadie sabe cuándo nació esa palabra y el único medio de tener alguna idea de su antigüedad es el examen de los textos. Ahora bien, el testimonio de éstos nos dice sin ambages que en el siglo XVI y XVII tal voz les parecía normal a Zaldibia, a Garibay y a Isasti.”

Arakistain'ek, “El Baso-Jaun de Etumeta”n, Beotibar'ko gudu antziñako gure asabek Erromatarren aurka Ernio'n eduki *omen* zituztenekin alderatzen du. Aitor'en izena ere agertzen zaigu eta arbaso irudimenkor hau —euskaldunen patriarka bihurtua— Xaho'ren asmamen beroak sortua dugu joan den mende erditsuan. Ez ote dira Arakistain'enak edo bere adiskideren batenak bertsuok? Boskarren ahapaldia batez ere, Lelo'ren kantuko beste baten ia berdiña da asmoz eta letraz. Honatx biak:

BEOTIBAR'KOA

*Berak asko ta gu gutxi,
Baiña, atzenez gu nagusi.*

LELO'RENA

*Aek anitz ta gu gutxi taia
Askin indugu lalboa.*

Bertsuok mamitu zituenak, nere ustez, Lelo'ren kantua begien bixtan eduki zuen.

Urrutia'ko etxanderearen eresia. — Eresi hau XV'gn. mendeko lehenen erdialdekoa dugu, zeren bertsuotan ari zaizkigunok, Mennanton Urrütiako Altzürükütarra (Urrütia jauregiko nagusia)

eta Domenja Ahetzeko (edo Aheztarra?), 1422'gn. urtean ezkondu baitziren Zuberoa'n. Jaun Menanton 1453'tik 1464'ra, Zuberoa'ko aitonen seme eta juez bezala ageri da.

Urrütia'ko jaun espatsuak etzuen egon lasairik, bere andrea-ren urrats bakoitza susmotsu irudi baitzitzaien eta honetxegatik emazte gaixoa zakarki eta bidegabeki tratatzen zuen. Azkenean zelatan hasten zaio amorantearekin arkitu ustetan. Andre Domenja'ren amoranteak, ordea, txiroak ziren. Erakuspide ederra jaso zuen bere senar espatsuak, haragizko bekatuan murgildurik harrapatu uste zuen garaian, garitatezko lanik ederrenean topatu baitzuen. Hona hemen, erakusgarritzat, hamasei ahapalditatik lau:

*Goizian goizik jeikirik,
Ogi ophilak eginik,
Ahetze'ko anderia,
Lehia dün handia (25).
Zareta (26) bat bürian
Kanporat jalkhitzian,
Mus d'Urrütia-k zian
Baratü (27), bai, bidian.*

*—Nun zabiltza hain goizik,
Jauregia hüstürük?
Galthatzen do (28) Urruti-k,
Begiak oldartürük (29).*

*—Jaona, ikhusiren düzü,
Nahi balin ba'düzü,
Nurat orai nabilan,
Zareta hau bürian.*

*Jente eskeliari
Emaiteko sokhorri,
Madama Urrütia-k
Hartü zütian bidiak.*

(25) Koblakaria, bat-batean, hirugarren pertsonatik, hikako bigarren pertsonara pasatzen da, berriz ere hirugarren pertsonan jarraitzeko. Hikako bertso-lerro hau honela itzultzen du Jaurgain'ek: "Grand est ton empressement" ("La tradition au Pays Basque"; Jean de Jaurgain: "Quelques légendes poétiques du Pays de Soule", 363 paia).

(26) Saski, otzara (=cesto).

(27) Gelditu, geratu (=parar).

(28) *Galdetzen dio. "Do", nunbait, *deio*'ren laburpena da.

(29) "Les yeux en fureur" (con los ojos furiosos), itzultzen du Jaurgain'ek.

Urrütia'ko zaldun espatsuak (bekaiztiak) bere andre ongillearen errukabetasuna aitortuz eta barka eske amaitzen dira bertso hunkigarriok:

—*Pharka izadazüt* (30) arren,

Bekhaitz enüzü (31) izanen:

Emazte hun zirela

Orai badit (32) *nik proba.*

Lelo'ren kantua. — Honela esan zaio orain artean eta guk ere honela esan beharko beste ezagungarri izendatzen ez den artean. Alabaiña, *lelo*'k euskaraz “estribillo” besterik ez du esan gura eta ez da, iñundik ere, askok nahi izan duten bezala pertsona izena. “Lelo il lelo leloa zarak il leloa”ren tankeran darabilgu Etxepare'k: “Etai lelori bai lelo leloa zarai leloa”, eta Perutxo'ren eresian, ahapaldi hasieran eta amaian: “Lelo lirelo zarai leroa”. Beraz, “leloa”k eta “zara”k xixak bezala sortzen zaizkigu han-hor-hemen eta ez dugu Lelo'ren kantura jo behar harrigarritzko gudariz asma-menak berotzeko.

Mogel'ek eta Humboldt'ek erromatarren garaikotzat jo zuten gudu eresi hau, Ibarguen-Cachopin'en esanari jarraiki. Gaurko irizlariak ordea gezurrezko esten dute (33) eta Ibarguen-Cachopin'ek 1590'gn. urtean hasera eman zionez gero bere kronikari, gudu-kanta hau, zahar usaikoa izanarren, orain arte azertu ditugun gehienak baiño ehuntsu urte geroagokoa dugu: Juan Carlos Gerra'ren ustez 1529'koa, zahar iritzirik.

Beronek diotsagu: “Basta compararle con nuestros espontáneos cantares del siglo XV para notar desde luego su mayor artificio, que llega hasta un verdadero rebuscamiento de vocablos y elaboración de frases y le hace indiscutiblemente de posterior época. Sobre todo la última estrofa parece labrada a fuerza de martillazos” (34). Gerra'k, ahapaldiz-ahapaldi eta hitzez-hitz eresia osoa

(30) Iezadazu / zaidazu.

(31) Ez nauzu, ez naiz.

(32) “Düt”en forma alokutiboa, “dizüt” bezala. Gipuzkeraz, aditz-joko hau ez dugunez, *dut* itzulia behar da (Orain badut nik proba).

(33) Etsitzen, juzgatzen.

(34) “Los Cantares antiguos del Euskera”, 92 paia.

aztarrikatzen digu goi ta behe eta baita adierazten ere Karlos I/V 'garrenaren aldiko pentsakera ahapaldiotan barrena xaretzen zai-gula.

Hizkeraren bereizkizunak aztertuz, Arratia aldekoa dela derizkio, baiñan bere egilleak ez omen zuen Bizkai'ko Jaurrerian iratzi, Madrilleko Errege-Gortean baizik. Sakonki eta xeheki baz-tarrak arakatzuz, Gerra'k, Anton Bedia, Karlos V'garrenaren gela-morro (35) eta Arratia'ko semea jotzen du eresia honen egilletzat. Anton Bedia delako hau Italia'n, Belgika'n, Bretaña'n eta Alema-nia'n barrena ibilli zen Errege eta Enperadorearen zerbitzuan. Gizon buruz landua izan bide zen, zeren liburu bat izkiriatu bai-tzuen "Tratado de las cosas de Vizcaya" izenekoa Gerra'k dionez, eta literatura gaietan ikasia zèn aldetik, Lelo'ren kantua oretzeko gaitasunik ez zitzaion falta gure Arratiarrari.

Eta agiri probagarririk ba'ote dago Lelo'ren kantua aldiz gero-ko juzgatzeko?

Horra ba : Gerra jauna hauzi hontan ondoa jo arte murgil-duriko gizona dugu eta berak dionez, euskal-ahapaldien gai guzia, Erromatar historiagilleek Cantabria'ko gerlez esan zutenetik hartua dago. Areago: daitekeena ere da egilleak latinezko tekstori ere ez erabiltzea, Garibai edo Mariana'ren bitartez albiste hauek har-tzea baizik. Hau dugu froga salatzaillerik hots-handikoena, baiña baditugu hontaz gaiñera zenbait xehetasun salatari ari zaizkigunak. Adibidez, hitzen billatze bihurria, herri-senaren antzutasuna, etorri neketsua, Arratia'ko bereiztasunik nabarienaren aldean (*utxin ta amaio*) (36) *anitz* hitzaren erabiltzea, Bizkai-Gipuzkotan ezagutzen ez dena, Nafarroa'koa eta Bidaso'z bestaldekoa baita. Guztihonek zera esan gura digu: Lelo'ren egillea erudito bat zela, beste euskalkitako euskaldunekin har-emana zuena eta sortzez euskalduna baldin ba'zen ere, berezko bertsolariari darion etorria falta zitzaiola.

Eresia zaratatsu honen historia labur-zurrean eman dugularik —osorik ezagutu nahi dezanak jo beza Gerra'ren liburura, ziñez

(35) "Ugier o criado de cámara" dio Gerra'k (95 p.). Eta "ugier" hontaz dio: "(Era) gran zurcidor de leyendas genealógicas que se copiaron en aquel centón por cosa cierta, y en las cuales remontó sin empacho las filiaciones viz-cainas, hasta los godos, con toda suerte de pormenores".

(36) "Dejación y final", itzultzen du Gerra'k (C.A.E.: 110/117 pk.).

merezi baitu—, ezar ditzagun hemen lau lehendabiziko ahapaldiak, gaiñerakoak baiño ulerkorragoak eta naturalagoak baitira eskuarki :

*Lelo il lelo, lelo il lelo,
Leloa zarak il leloa (37).
Oktabiano munduko jauna,
Lekobidi Bizkai'koa.*

*Roma'ko (38) armak aletin eta
Bizkaia'k daroa zantzoa (39).
Itxasotati eta leorrez
Imini deusku moltsoa (40).*

*Leor-zelaiak bereak dira
Mendi tantaiak leusoa (41),
Leku ironian (42) gagozarian
Nok-bera sendo dau gogoa.*

*Bost urtetako egun gabean
Geldi bagarik potxoa (43),
Bildurrik gitxi arma bardinaz
Oramaia (44) zu gexoa.*

Atharratze'ko jauregitarrarena. — Zuberoa'ko “aitunen seme” bat, Karol, Lukuze'ko eta Atharratze'ko jauna, berrogeitamar urte beteak zituelarik, alarguna eta bost seme-alaben aita, Mayi Jaurgain zeritzan hamazazpi urteko neskatilla batez maitemindu zen. Hau, berriz, Sala jauregiko gazte batez lilluratua zegoen. Jaurgain'

(37) Hona hemen estribillo gisa erabiltzen ziren forma batzuek: “Lelori lelo, lelori lelo, leloa zarai leloa” eta “Lelori lelori zarai lelori” (Ibarguen'en Kronika). “Lelori lelo, zarai leloa” (Salinas'ko Kondearen eresia). “Lelo lirelo zarai leroba” (Perutxo'ren eresia). “Etai lelori bai lelo leloa zarai leloa” eta “Etai lelori bai lelo” (Bernat Etxepare).

(38) Euskaldunek beti “Erroma” esaten dute eta ez Roma. Nola etzen ohartu hontaz Lelo'ren kantuaeren egillea?

(39) Zantzo: irriutzi.

(40) Moltso: cerco?

(41) Leusoa: caverna?

(42) Iron (ironean): ventajoso?

(43) Potxo: asedio?

(44) Oramai: artesa.

'eko etxeoandreak bi alaba zituen ezkongai eta Mayi estu hartu zuen Karol zaharrarekin ezkon zedin. Beharbada, bazen Jaurgain' en diru premia edo handi-nahitasuna, ozpiña ez baita on-esten ozpin denez, harek zerbait ondu dezakeelakoan baizik. Dena den, hona hemen Atharratze'ko jaunak Mayi'ren eskea egin zuenean jaso zuen erantzuna :

*Ozaze-Jaurgañian bi zitroin doratü (45),
Atharratze'ko Jaonak bata dü galthatü;
Arrapostü ükhen dü eztirela huntü,
Huntürik direnian, batto ükhenen dü.*

Egia ala gezurra, bertso polit bat "huntzeko" aitzaki xarman-garria baitirudi, Mayi'k haizeari hots egiten dio, bere hauzia ebakitzeke esku-jabe egiñaz. Baldin iparretik ba'datorkio, maita-bidean murgilduko da eta hegotik ba'datorkio, ostera, diru-zorroan (46):

*Klara (47), zuaza orai salako leihora,
Ipharra ala hegua denez jakitera;
Ipharra balin ba'da, goraintzi Sala'ri (48),
Ene korpitzaren txerka jin dadila sarri (49).*

Amodioarentzat zorigaitzez, ordea, hegoak jo zuen eta Mayi'k Atarratze'ko jaunarekin ezkondu behar izan zuen. Geroxeago ikusiko dugu hego haizearen izen poetikupean bere amaren agindu zorrotza eta mingotsa gordetzen zela.

Aldia hartan, Kalvinotar hugonoteak nausitu ziren Nafarroa Beherean, Zuberoa'n eta Biarno'n (hiru eskualdeok Nafarroa'ko

(45) Bi limoi oritu. Galthatü: eskatu. Huntü: ondu, zoritu, umatu, hel-du. Batto: bat (dim.). Ükhenen: izango.

(46) Atharratze'ko jaunaz Gerra'k dio: "poderoso magnate suletino, a quien los documentos oficiales de Navarra le nombran «el ilustrísimo señor don Carlos de Lussa, Señor y Barón de Lussa (Lukuze) y de Tardets (Atharratze) y de otros muchos lugares, tierras y Señoríos.»"

(47) Mayi'ren aizpa.

(48) Mayi'k maite zuen mutillaren jauregi edo etxe izena.

(49) Nere gorputzaren billa (hots: nere billa) datorrela azkar (aguro).

errege-erregiñen mendeko baitziren eta hauek erlisiño berria onartu zuten) eta katolikoak garrakzi eta etengabe eraso zituzten. Atharratze'ko ezkontide berriak, katoliku zintzo zirenez, Otsagabi'ra ihes egin behar izan zuten hugonoteek jazarririk (50) eta han egon ziren Nafarroa'ko Endrike III'garrenak eta Frantzia'ko IV'garrenak, erresuma hontako errege-aulkiaren truk, Kalvino'ren dotriñari uko egin zion arte, erlisiño katolikua onartuz (51). Honegatik dio Mayi'k :

Ama (52), saldü naizü biga bat bezala,

Bai eta desterratü, oi! Españiala.

Aita bizi ükhen ba'nü, ama, zü bezala,

Enündüzün ezkontüren Atharratze salala (53).

Ezkontza 1584'gn. urtean egin zenez gero, eresi hau XVI'garren mendeko bigarren erdialdekoa dugu.

Egiñ bereko alargünts. — Eresi hunkigarri hau ere Zubero-tarra dugu eta beronen protagonistak Phetiri Irigarai eta Gabriela Lohitegi dira. Zuberoa'ko etxe leiñargitako bi gazteok 1633'ko uztaillaren zortzian ezkondu ziren. Eguardi beteko zorion hordigarria nahigabe osin bihurtu zen eguzkia etzatearekin. Ba'ote erakuspen zarrasta eragingarriagorik mundu hontako gauzen illauntasuna, ezereztasuna, hutsalkeria eta irauneza adierazteko? Hala ere, lurrari hain atxikiak baikara, alargüntsak —giristino etsipenez labor— ezin eraman du hain maitagarri zitzaionaz bereiztea eta zenduaren gorputza baltsamaturik, zazpi urtetan edukitzen du gizon hilla bere etzanguan. Hona hemen, heriotza izugarria eta senarririk gabeko etsi-eziña azaltzen dizkiguten bi ahapaldi (lehenbizikoa eta laugarrena):

(50) Persekutaturik, persegiturik.

(51) Ezkontza 1584'gn. urtean egin zen eta ezkonberriok Maule'ko jauregian jarri zuten egoitza. Zuberoa'ko hiriburuan arrapatu zien erelisiño-gerlak eta etsaiaren eraso ezin burutuz, itzul egin behar izan zuten Nafarroa'ko Otsagi'ra (Otxagabia) 1587'ko Otsaillaren 2'an eta hemen egon ziren 1593'gn. urteraino (sei urte).

(52) Aldakera batzuetan "aita": Alegia, saltzaille ama izan beharrean, aita, eta ondorenez, hirugarren bertsoko "aita" (aita bizi ükhen ba'nü), "ama" bihurtzen da (ama bizi ükhen ba'nü).

(53) Ez nintzen ezkonduko Atharratze'ko jauregira.

Goizian goizik jeiki nündüzün ezkuntü nintzan goizian;
Bai eta ere zetaz (54) bezitü ekhia jelkhi zenian;
Etxek'andere zabal nündüzün (55) egüerdi erditan,
Bai eta ere alhargüntsa (56) gazte ekhia sarthü zenian.

Zazpi urthez etxeki dizüt (57) gizona hila khanberan;
Egünaz lür hotzian eta gaiaz (58) bi besuen artian.
Zitru hurez ükhüzten niziün (59) astian egün batian,
Astian egün batian eta ostirale goizian.

Undürüñe'ko damaren damaren eresia. — Nork ez du entzun euskaldunetan “Maitia nun zira?” zuberotar eresia zoragarria kantatzen? Esan daiteke, Euskalerrri'ko koroek, noranahi aterata, kantatu beharrezkoetan daukatela, hain baita eder, ezti eta bihotz-barnerakoaia. Alabaiña gutxik jakinen dute kantore honi, letrari alegia, sortzea eman zion historia. Hona hemen Gerra'k kontatzen digunez (60):

Joana Undurain edo Undürüñe (Zuberoa'ko Haunze'n jaioa 1701'ean), Haunze'ko Phetiri Undürüñeko'ren edo Undurain'en eta Maria Ziborozeke edo Zibozeko'ren alaba bakarra zen. Michel, Lahüntze-Barretzeko seme leiñargiak eta Joana'k (hau ere etxe laeiñargikoa) alkar maite zuten. Mutilla lege-gizon ospatsu zen, baiña dirutan etzegoen neskaren gurasoek nahi bezain lodi. Nunbait, honegatik, aitak ukatu egin zion baimena alabari Barretxe'ko gaztearekin ezkontzeko eta pentsamendu hori burutikan ken-arazteko, komentu batean sartu zuen. Horregatik dio galaiak tristeki:

(54) Sedaz jantzi. Ondorengo “ekhia jelkhi” (=eguzkia atera).

(55) Etxekoandre oso nintzen.

(56) Viuda.

(57) Eduki dut. Ondorengo “khanberan”: etzangoan, logelan.

(58) Gaeuz.

(59) Garbitzen nuen. Aurreko “zitru”: limoi, limoe.

(60) “Los Cantares Antiguos del Euskera”, 139 paia. Gerra'k Jaurgain'i hartzen dizkio Bidaso'z bestaldekoen albisteak.

Maitia nun zira?
Nik etzütüt ikhusten,
Ez berririk jakiten,
Nurat galdü zira?
Ala khanbiatü da zure deseña? (61).
Hitz eman zenereitan,
Ez behin, bai berritan,
Enia zinela.

Maitariaren baitan erasoka ari diren kezka-axanpak aienatzearen neskak, lehengo maitasunean irmo dirauela adierazten dio eta aita jotzen du alkarrekin ezin egonaren errudun.

Ohikua nüzü (62);
Enüzü khanbiatü.
Bihotzian beinin (63) hartü,
Eta zü maithatü.
Aita jeloskor (64) batek dizü kausatü:
Zure ikhustetik,
Gehiago mintzazetik
Hark nizü (65) pribatü.

Hogeitabost urte bete bezain laister, ordea, adiñoneko baitzen, Joana'k komentutik itzul egiten du —kaiolatik ihes egiten duen txori zoriontsuaren irudi— bere bihotzeko maitasun egarriaren ase-miñez. Aitaren esanak ez dute gehiago beragan agindu-indarrrik eta harekiko lokarriak ausarki urratzen ditu: "Nik eztiket ordian (nik ez dut izango orduan, hots, hogeitabost (66) urteak betetzean)

(61) Designio, idea, intención.

(62) Lehengoa, betikoa, beti izan naizena, nauzu.

(63) Bainuen.

(64) Celoso, suspicaz, envidioso.

(65) Nau.

(66) 1701'eko Hazaroaren 6'an jaio zen eta 1726'ko Hazaroaren 6'an itzul egin zuen komentutik. Beraz, aldi hartan adin nagusitasuna 25 urtekin hasten zen.

aitaren axolik” aitortzen du Haunze-Undürüñe’ko dama gazteak. Komentutik ihes eginda, Ozaze’ko bere lehengusiña baten etxean jarri zen bizitzen eta hemendik, bere asmo aldaeziña jakin-arazi zion aitari begirapenik handienaz. Aitak barkatu zion alabari, zerbait barkatzekorik baldin ba’zuen, eta eztaiak gurasoen onespenez ospatu ziren 1727’ko otsaillean.

Belzunze’reñ eresia. — Belzunze izena Nafarroa Beherean elezahar usaikoa dugu, Gaston izukaitzak herensuge (67) ikaragarriaren odolez bere sort-egoitza leiñargitu zuenez gero. Hemen, ordea, ez gagozkio elezaharreko Belzunze’ri. Alabaiña, eresi hontako Belzunze ere (pontizenez Armando) gudari bipilla (68) izan zen eta azken mendetakoa izanarren, aldi hartako enbor zaharraren puja berri ote den gaudezke.

Armando, Belzunze’ko hirugarren bizkondea 1723’gn. urtean jaio zen. Belzunze izeneko gaztelua —gaur ondakiñetan—, Arberoa’ko Aiherre’n dago, baiñan badirudi Armando Meharine’n (Mehaire, Mehaine) sortu zela, herri hontako Bizkondea baitzen, “Belzunze’ko Armando III’garrena” izenez. Gudaritza ogibide aukeraturik, Hannover’ko batallan gaillendu zen eta Hastenbeck’eko gudaldian gizagaillen (69) omenez bete. Sajonia’n bere izena bildurgarri bihurtu zen etsaiarentzat. Egintza guztihoen sarigarri teniente-jeneral maillara igo zuten eta Santo Domingo uharteko gobernadore izendatu.

1763’gn. urtean, gudu-nekeaz atsedean hartzeko, Mehaine bere jaioterrira heldu zen eta egonaldi hontan, koblakari itxu batek kantatu omen zituen haren omenez zenbait ahapaldi. Hemen, hamabi ahapalditatik hiru emanen ditugu, gure ustez onenetakoak. Hitzak ongi hautaturik darabilzki koblakariak Belzunze’reñ dohairik bikaiñenak aberaski aditzera emateko:

(67) Dragón.

(68) Valiente, resuelto.

(69) Héroe.

Nafartarren arraza
Hila da ala lo datza?
Ez dut endelgatzen (70),
Belzunze bizkondea
Hain kapitain handia,
Ez baitzaut mintzaten:
Hori zaut gaitzitzen (71).

Gotin'go partian
Entzuten zutenean:
"Belzunze heldu da",
Elkargana bil eta
"Nun da ene baioneta?"
Oihuz: "armetara!"
Bainan oro ikara (72).

Belzunze'ren izena,
Eta haren omena
Urrun da hedatzen;
Erregeren gortetan (73),
Hiri eta kanpainetan,
Nork ez du entzuten
Belzunze'z mintzaten?

Ez ote, agian, azken ahapaldi hau gure herri-literaturako lili-rik ederrenetako bat? Ba'ote daiteke xaloago, txairoago, lasaiago, egokiago, ozenkiago (74) eta herrigiroz igurtziago ahapaldi bat molda? Lehenengo gerrateko karlistek behar bestean ederresten jakin zuten ahapaldi hau eta hegoaldeko Euskalerrian barrena

(70) Ulertzen, konprenditzen.

(71) Horrek dit min egiten.

(72) Baiña guziok ikaraturik.

(73) Kortetan (=en las Cortes).

(74) Xalo: *sencillo*. Txairo: *airoso*. Ozenki: *sonoramente*.

zabaldu zuten, Belzunze'ren ordez "Zumala" izena ipiñita, euren gudalburu eta buruzagi ospatsuari, hots, Zumalakarregi'ri, hala deitzen baitzioten, izenaren luzea laburtu beharrez, noski.

Luzaroan jarrai genezakeen gure eresi zaharrok aztertuz eta ederretsiz, baiñan nere asmoa oparo bete dudala derizkiot, zeren lan hontan murgiltzerakoan, gaurko gizaldi gazteari gure kanta zaharren berri, laburki eta azaletik ematea hartu bainuen asmotzat.

Sakonago ikas nahi dezanak gai lilluragarri hau, jo beza Juan Carlos Gerra'ren liburu mamitsura, han, iñun ez bezala izanen baitu aukera gure eresia zaharrak beren osotasunean zer eta nolako diren ezagutzeko, baiña ediziño hau aspaldian akitua denez gero —luzaro gabe hain liburu ederraren ediziño berririk aterako ahal digu editorialen batek!— eta gure ixtori-kantuok hauts arte-tik aterata gaurko gizaldi berriari jakin-araztea behar-beharreko etsirik, Gerra'ren liburutik eresiarik ernagarrienak bildu ditut eta ahalik eta zukurik gehiena ateratzen saiatu ondoren, euren azal-pena —behar ere hala baitu— euskal-soiñekoz jantzirik eman.

Donostia'n, Hazaroa/Hazilla, 1977.

EUSKALDUNEN GARAIPENA

A. APAT-ECHEBARNE

KARLOMAN Enperadorea lurgose aundia izan zen eta Barcelona eta Zaragozako Suleiman eta gobernari arabek eskeini ziozkaten bi errialde horien agintea, beren gerizaren truk; Espainiako musulmanak elkar borroka gorrian bai zabiltzan beti. Karloman tirriatu zen eta Zaragozara abiatu, eremu aundiak beretu naiez eta hango kristau gatibuak ere laguntzekotan.

Baina Zaragozan gauzak azpiz gora atera zitzaizkon, bere Armada boteretsua izanarren, eta Karlomanek Suleiman preso artu eta Iruñera itzultzean, euskaldunak sorayo agertu baizitzaizkon egoaldera pasatzean, orai iparraldera iriko arresiak desegin enperadore asarretuak; bai eta kolpe hori euskalduneri gaitzitu, sasi gudulariak biltzartu arteraiño mendietan.

Orreagatik Luzaiderako maldan (Val Carlos izena hortik dator), 778 urteko agorraren 15 garrenean, arratsaldeko 8-ak irian, frankoak soin-burdinen pisuz akituak izaki, mendi kaskotatik geziak eta arrimetak gureek yaulkirik, gibeledo retaguardia zehatu zuten eta karrosen aberastasanak (ebatsiak) beretu, Errolan bretoineko gudularia ilik utziz beste agintari aundiekin batean.

Urte haietan oraino *kristau guti* euskaldunetan; araben historiek diote salbai-paganoak zirala gure arbasoak.

Orreagako zafraldiaren urteurrena ospatzeko, Astabizkarreko Kanta ederra damagu:

I

Oyu bat aditua izan da
Eskualdunen mendien artetik,
Eta etxeko jaunak, bere atearen aintzinean xutik,
Ideki tu beharriak eta erran du;
Nor da hor? — Zer nai dautet?
Eta zakurrak, bere nausiaren oinetan lo zagoena
Altxatu da eta garrasiz Astabizkarren inguruak bete ditu.

II

Ibañetaren lepoan harrabots bat agertzen da,
Urbiltzen da, arrokak ezker eta eskuin jotzen dituelarik;
Hori da urrundik heldu den armada baten burrunba:
Mendien kopetetarik guriak arraposta eman diote;
Berek duten seinua adiarazi dute,
Eta etxeko jaunak bere geziak zorrozten-tu.

III

Heldu dira! heldu dira! zer lanzako sasia!
Zernai kolorezko banderak nola heien erdian agertzen diran!
Zer zimiztak ateratzen diran heien armetarik!
Zenbat dira? — Haurra, kontatzak ongi.
Bat bida hiru lau // bost sei zazpi zortzi //
bederatzi hamar, ameka amabi // amabi!
amairu amalau // amabortz amasei // amazapi emezortzi
emeretzi ogei!

IV

Ogei eta milaka oraino. // Heien kondatzea
denboraren galtzea liteke //
Urbilt ditzagun gure beso zailak //
errotik atera ditzagun arroka horiek,
bota ditzagun mendiaren patarra behera
heien buruen gaineraiño;
Leher ditzagun, herioaz jo ditzagun!

V

Zer nai zuten gure mendietan //
 Norteko gizon horiek? //
 Zertako jin dira gure bakea nahastera? //
 Jainkoak mendiak egin dituenean, //
 Gizonek ez pasatzea nai izan du //
 Arroak biribilko-ka dira erortzen //
 Tropak dituztela lehertzen //
 Odola xurrustan badoha //
 Haragi puskak dardaran daude //
 Oh! zenbat ezur karraskatuak //
 Zer odolezko itsasoa!

VI

Eskapa! eskapa! indar eta zaldi-tuzuenak.
 Eskapa hadi, Karloman errege! hire luma //
 beltxakin eta hire kapa gorriarekin!
 Hire iloba maitea, Errolan zangarra hantxet hila dago; //
 Bere zangartasuna beretako ezdu izan. //
 Eta orai, Eskualdunak, utz ditzagun arroka horiek //
 Yauts giten fite, igor ditzagun gure geziak //
 Eskapatzen direnen kontra!

VII

Badoazi! badoazi! nonda bada lantzazko sasi hura?
 Non dira heien erdian ageri ziran //
 zer nai kolorezko bandera haik? //
 Ezda geyago zimiztarik ateratzen //
 heien odolez betetako armetarik, //
 Zenbat dira? — Haurra, kondatzak ongi!
 —Hogei, hemeretzi, // emezortzi amazapi //
 amasei amabortz, // amalau amairu... // amairu!!
 amabi ameka amar... // amar bederatzi //
 Zortzi, zazpi, sei, bortz, laur iru bi ta bat.

VIII

Bat! ezda bihirik agertzen geyago;
 Akabo da: Etxeko yauna! joaten alzira //
 Zure zakurrarekin, // Zure emaztearen eta zure
 haurren besarkatzera. //
 Zure geziaren garbitzera eta altxatzera //
 Zure turutarekin; eta gero heien gainean etzatera eta lo-itera. //
 Gabaz, arranoak, haragi lehertu horien jaterra joanen dira.
 Eta ezur horiek oro eternitatean xurituko dira!



IRAKURLE BATEKIN GATZ-OZPINDUZKO ALKARRIZKETAN

JUAN SAN MARTIN

—Hi, Juanito; lehengunekua, zoragarria.

—Zer lehenguneko?

—Euskerazko literaturan aurkitzen dan pikardiazkoarena. Ede-
rra iduritu jatan. Hola bihar jok, seriotasunez gehiegi larritu barik.
Ze, ez dagok bizimodua zertan mingostu, berez be nahikoa min-
gotsa danez. Baiña urrenago batian neuk be kontatuko deudadaz hiri
Petra ta Mariarenak.

—Petra ta Maria?

—Bai. Ez dakik ala?

*Petra ta Maria
andra bi badira,
haren familia
ezta askoz hobia.
Eibarren gazteria
ondatzen doia.*

—Iñoiz entzun izan juat, holako zerbait.

—Bai? Holako zerbait bakarrik? Ba, urreguan kantatuko
deudadaz. Eibarren be pikardiazkoak badirala demostratzeko.

—Orduan, “Maitasunetik lizuntasunera” zeritzan artikulua gus-
tatu jan?

—Bai horixe : Izan be, euskeraz, bertsolariak aparte, hainbeste sotanadun ibili dok ezkribitzen eze, nork pentsatuko juan ba holakorik bilatuko zanik? Literaturak, ezti az gainera, holako gatz eta ozpin saltsa barik, jai jaukak!

—Hi, baina, jakik Etxepare bera be abadia zala.

—Bai, baña jatorra.

—...?

—Bai, jatorra; musian musua emongo leukiana, eta ez beti dotrinia nundik sartuko dabiliena. Eta, hik ondo dakik euskeraz dotrina gehiegi ezkribitu dala, bestelakoaren ondoan.

—Bueno, bueno! Baina bestelakorik be bajaukagu.

—Baña xinglekeria gehiegi.

—...?

—Hara; neuk esango deuat, euskal literaturarekin badakik zer gertatu dan?

—Zer?

—Ondo bizitzen ikasteko liburuak ezkribidu biharrian, sotana dun jente horrek, “Ondo hiltzen ikasteko liburua”k pillaka. Nor zuan aintziñako zuberotarra, “Ontsa hiltzeko bidia” ezkribidu ebana?

—Tartas.

—Tartas? Ederra postria! Nekez bizi ondorean, ondo hiltzen ikasteko bidia. Baina, nik badakik zer esaten dodan?

—Zer?

—Ontza hiltzeko bidia, Eibarko eskopetia. Ze, bizitza petral honetako ontsa eta basoko ontza, daroiagun bizimodua daroiagula, bardin txamarrak diralako.

—Hori dok filosofia.

—Ez, zera... hiria dok oillo-sopia.

—Hik esaten dituk esatekoak. Tira, tira!

—Zer tira ta zer bultza. Gehiago be esango najeukek.

—Oindiñok be gehiago?

—Bai. Hara, Euskal literaturarekin pasatu dana badakik zer dan? Aberastu biharrez, aberasteko nobelak bihar zirala, eta gaizki konprenditu; eta nobelak ezkribitu biharrian, nobenak ezkribitu zirala.

—Ixo, ixo! Gehitxo dok hori. Dana dala, nobenak, demonio-keriekin amaitzen lagunduko juen.

—Horixe falta genduan bakarrik! Oin hi be hasiari demoniñoekin sinisten duala esanez.

—Dana dala, hi bertsolari zalia haizenez eta Txirritarekin bat etorri; gogoratu adi berakin.

—Txirrita: ha bai aparta, zabalez eta zentzunez, gizon patxarazkoa.

—Harena dok ba:

*Albaiteruen salan
demoniño hartan
demoniñozko eztropozu bat
egin nuen bertan,
demoniñuak hemen,
demoniñuak han,
demoniñuak non nahi
gorputzaren bueltan,
demoniñuak sasoi zeukaten
demoniñuetan.*

Eta ez deritxok albaiteruan sala, bere milla demoniñokeriekin, Euskal-Herri guztira zabaldua dala?

—Iño!; ointxe esan deustak esatekoa. Banajoiak hire ondotik, holako mozororen batekin kutsatu baino lehen.

Busturiko Txirapozukoak izan ziran XVIII. mendearen azkenaldera San Mames portzelana fabrika sortu eta aurrera eroan ebènak. Staffordshire-ko jatorria eta antza baeuken be, Penintsulan egin ziran portzelanarik onenatarikoak ziran Busturiakoak. Honegatik, Txirapozutarrak baeuken aspaldi aspalditik arteetarako joera eta Josemari Uzelay, 1903an Bermion jaio bazan be, Txirapozutarra zan amaren aldetik eta arte zaletasun giroan etorri zan mundura, gurasoegandik hainbeste portzelana, pintura lauki eta esku-izkribu zahar jaso ebazanez. Gaur bertan, Txirapozun bizi da Uzelay eta han gordetzen ditu belaunaldiz jaso dituan arte ondasunak eta agiri zaharrak.

Josemari Uzelayren gurasoak inginiere karrera erakustea nahi eben, baina semeak gaztetxotatik erakutsi eban arteetarako joera. Honegatik, gaztetxo zala eroan eben Txirapozura, uri handietatik urrinduaz arte zaletasunetik alde eragingo eutsen usteaz. Baina, Busturiako Txirapozu bera, neoklasiko etxe handi eta ederra, arte-zale batentzat “arte-pozu” atsegina zan, bere grina edo joeretatik aldendu beharrean lehen baino gehiago pozuratzeko. Eta, holako zerbait gertatu jakon Josemari Uzelayri be. Ez zegoan barruan eroian arte garra itzaltzerik. Ume umetatik arteetarako iratzartu zanak pizturik zeroian gar hori, urteak aurrera, gurasoak ez eben euki beste erremediorik semea bere gogozko edo berezko bidean libre itxi baino.

Hogei urtegaz Paris-era joan zan, eta han, G. Urrutia eta J. Aranoa bizkaitarregaz batean, Pantxo Cossío-regaz lan-gela ber bera erabiliaz, han ihardun zan pintura ikasketetan. Ondorean, bere lanean eten bagerik jarraitu dau eta frutu ugari emona da.

Aurtengo udabarrian, Kultur Kontseilaritzan arteari buruz egin behar izan neban lehen lanetariko bat, gerra ondoren Bermioko Batzokitik hango Ertzilla-torrera eroan eben Uzelayren obra handi bat herriz Batzokira itzultzeko jectioak egitea izan zan. Eta igaro dogun azaroaren 24an, Bilboko Galeria Artetan, bere lanen erakusketa antologiazkoa idekieran euskaraz eta erdaraz agurtzeko berba batzuk egin nebazan Josemariren ohorez. Orduan esan nebanetik zerbait hemen barriz gogoratu gura dot.

Joan zan mendean Regoyos, Guiard eta Guinea-rekin hasita, Antonio Maria Lekuonak Bilbon eukan pintura eskolaren inguruan artelarien iraultza piztu zan, eta Euskal Herriko pintoreak laga eben Madrid-eko San Fernando Akademiako bidea eta Paris-era jo eben. Ondoko aldakuntzetan Paris-ko estilo barriak izango ziren hemengo artisten iturri. Eta, gure mende honen lehen parte haretan ikaragarritzko mogimendua sortu zan Euskal Herriko artegin-tzan, batez be Bilbo inguru honetan.

Arte honen berezitasunak inpresionismo eta postinpresionismo giroak berakin ekarren argi, kolore eta teknika barriak zituan ezaugarri, eta hemen, hemengo semeak, bertako gaiak, gai herri-koiak oinarri. Hortik sortu zan Euskal Herriko Artisten Elkartea, Bilbon bertan, eta horren inguruan Euskal Pinturaren Eskola deritzaiona. Eskola hau hain diskutigarria bihurtu bazan be, inork ezin lei ukatu bere nortasuna eta bere egitekoa. Eskola honetara errenditu zan D. Vázquez Díaz bera be eta hemendik eroan ebazan haize barriak Madrid-era. Ekintza horretatik aldi barri bat sortu zan pinturagintzarentzat. Bilbon ta Bilbotik sortua eta zabaldua, horren eraginetik Donostian Martiarenaren eskola, Nafarroan Zigarena eta Araban Maezturera (Lizarran urte askoan jardun bazan be, Arabako eraginak berari zor eutsan gehien). Eragin guzti horren pintorerik berezietakoena eta famatuena Aurelio Arteta izan zan, baina aurrelarienetan Iturrino zan buruetako bat. Regoyos-ek inpresionismoa ekarri eban lez, Iturrinok "fauvismo"arekin era barrituaz. Arrue anaiak, Zubiaurre anaiak eta beste pintore aipagarri asko sortu ziran mugimendu haren inguruan. Guztiak joera barrietatik zetozen, kolorez eta gaiez ber bertako joerak sortuaz. Baziran gaiaren aldetik gehiago arduratu ziranak, beste batzuk pintatzeko eraz gehiago arduratu ziran lez.

Pintatzeko eraz gehiago arduratu ziranen artean, fauvismoaren eraginetik abiatu ziranak ditugu. Bide hau lehenengo hartu ebana Iturrino izan zan. Izan be, Henri Matisse-ren laguna izan zan.

Bere ondotik, kolorez eta pintatzeko eraz arduratsu etorri ziranak J. Etxebarria, J. Tellaetxe eta L. M. Uzelay.

Euskal Pinturaren Eskola haretakoek, libertade handiagaz jokatu eben eta bakotzak bere joera berezia landu eban, bere gogotik zetorkiona eginaz. Honegatik, lehen batian fauvismoaren joeratik abiatu ziranak be, oinarri horretatik hasita bere bidea jarraitu eban, bakotzak bere nortasuna landuaz eta zainduaz, eta hemen dare Eskola horren balioak.

Uzelayk pintura argiak erabiltzen ditu, "luminoso" esaten diran horretakoak, beste inork baino lehen, berde, urdin, bioleta, gorri eta orizkarak berezko argia sortuaz. Marroi eta sepiak asko erabiltzen ditu. Hau da bere joeretako bat. Baina, arabeskoaren erritmoak maite ditu eta lauki beteak egiten ditu. Argia, bizia, atmosferarik gabekoa. Irudiak estilizatuak ditu eta lan guztiaren konponketan holako surrealismo kutsu bat nabari da. Baina, surrealismotik baino urrago dago hiperrealismotik. Hau da, errealismo berri bat, gaur egun modan dagoana, baina Uzelay berrogetakak urteak aurreratu zana. Bestalde, dibuju ona dauka, berezkoa, eta berez erritmoak bilatzen dakian eskuz egina. Paris-en ikasketetan egin ebazan lanak kendu ezkerro, hasiera hasieratik ikusi geinke holako joera berezi bat. Irudimena eta eskua alkarri bat eginaz daroiaz eta kasik igarri barik be betiko joeretatik jardungo da. Hirurogetamar urte igarota be gaztaroan hartu ebazan joeretatik iraunez. Hola ikusten dira bere lanak Bilbon ideki daben erakusketa eder honetan.

Paris-tik itzultzean, gerra aurretxoan, lan asko egin eban gure herrian. Bilbon Arte Ederretako maisu izan zan Julian Tellaetxea bere lagun maiteagaz batean, eta gerratean biak izan ziran, Euskadiko Gobernuak izendaturik, arte zaintzen eta gordetzen arduratu ziranak. Gainera, kargu horretan zirala, Picasso-ri "Gernika" lau-kiaren enkargua euron bidez egin jakon.

Gerra ostean herbesteratuta izan zan eta Inglateran lan asko egin eban. "Caronia" Itsasontzia edergarritz hornitzetik Wiebridge-ko High Pine Club apaintzera arte. M. Flores Kaperotxipi eta M. Madariagak euren liburuetan dakarrenez, "Queen Mary" itsasontzirako be edergarriak egin ei ebazan.

Handik itzultzean, 1950. urtean ideki eban lehen erakusketa Bilbon bertan, Galeria Arte delakoan. Geroago "Bilbao" petrolio

itsasontziaren edergarriak egin ebasan. Ordurako, baita be, Pio Baroja-ren "El País Vasco"-ren lehen argitalpenaren dibujoak.

Euskal Pinturaren Eskola deitu zan mogimenduaren azken lekukoa dogu. Euskal Herriaren historia guztian ezagutu dan eskolarik handiena eta iraultzaileena; gerrak desegin ebana. Espainiako Akademiaren bide itxieri uko eginaz era barriak ekarri zituena, artista baktzaren libertadea erakutsi ebana. Honegatik, asko zor deutsegu, eta Josemari Uzelay mogimendu haren azken lekukoa dogunez, herri guztiaren omenaldia merezi dau.

Bere obra hor dogu, libertade zentzuaren seinalagarri. Ikus eta gogoetara itzuli, Josemarik ondo merezia dauka ta. Berak, bere askatasunean, gauzak ez ditu pintatzen ikusten dituan lez, baina bai sentitzen dituan lez. Hala da bere izatea, jatorra ta zintzoa.

— NORBERT TAUER-ekin

JUAN SAN MARTIN

Euskaltzalerik gehienon artean ez dugu Norbert Tauer aurkeztu beharrik. Aspaldidenik, Tauer, gure herriaren zoriaz kezkatu bizi da eta euskararen egoera eta euskal literatura hurbildik jarraitzen ditu. Batez ere, berakin gutunezko harremana izan dugunok ongi dakigu jaun honek duen euskaltzaletasunaren berri. Inoiz herbesteko euskaltzaleen artean erudutzat jarri izan dugu eta ez da oraingo asmoa bere pertsonalitatea orrialde hauetara ekartzekoa, horixe bai ezetz.

Tauer-ek euskaldun askokin izan du gutunezko harremana, eta 1955etik 1962ra bitartean Buenos Aires-ko "Euskaltzaleak" euskarazko gutunezko norgehiagokaz eratu zituen sariketen irabazle izan zen. Liburutxo bat ere badu, *Bere idazkiak* deritzana, gutun hautatuen bildumaz egina. Nik dakidanez, euskal literaturan lehen inprimatu zen gutunezko liburua, zeren bere ondorean argitaratu bai ziren S. Onaindiarena eta J. P. Ulibarrirena, azken hau joan zen mendearen lehen partekoa izanarren.

Txekoslobakiako Plzen-Pilsen-en sortu zen Norbert Tauer. 1978ko ekainaren 6an bete ditu larogei urte. Egun hortan, beretzat oritzapenen bat izan dezagun geure buruak euskaltzale edo aberzale sentitzen dugunok, baina baita kristau jatorrok otoitz egin ere anitz urtez bizi dadin. Gizon zintzo bati zer ederragorik, adinean sartua delarik, maitasun gogoia agertzea baino? Eta Norbert Tauer maitagarria da, inor maitagarririk baldin bada. Uste hortakoa nintzen hainbeste urtean izan dudan harremanen erakuspenez, baina ez dut aski hitz on asmatzeko ahalmenik pertsonalki ezagutu ondorean.

X. Kintana eta J. Tobarrek gertatu zuten *Euskaldun berriekin euskaraz* deitu liburua Norbert Tauer-ekin hasten da, nonbait, orain bizi diren euskaldun berri edo euskara adinean ikasi zuenetakoa denez. Merezi du liburu hortan Tauer ber-berak esaten dituenak ezagutzea. Hemen oraindik zalantza duten askorentzat jakingarria bai da. Euskal-Herriak dituen berezitasuna txoratu zutela dio, eta honek bultzaturik hasi zela Campi3n-en gramatikaz euskara ikasten. "Euskara, munduko hizkuntza guztien artean edere-rena ta bere egituragatik harrigarriena da", bere iritziz.

1928-rako agertu zen bere euskarazko artikulua bat Donostiako "Argia" zeritzan aldizkarian. Geroztik, gutunak ez ezik, beste anitz artikulua idatzi izan ditu eta baita zenbait olerki ondu ere. Hauetako batzuk "Oleri" izeneko aldizkarian argitaratu ziren. Bernardo eta Idoia Estorn3starrek "Enciclopedia General Ilustrada del Pa3 Vasco" (Cuerpo B.) delakoaren *Literatura*-ren III. tomoaren, 593/596 orrialdeetan aurkituko ditugu hitz-lauz idatzi duenaren agerpen batzuk. Han bertan dator txekoz gure hizkuntzaz, literaturaz eta kulturaz idatzi duenari buruzkoa ere. Bere lanari esker, gaur, Txekoslobakian ezaguna da gure herria eta bere kultura. Nornahik daki hizkuntza berezi baten gabe garela ere. Praga-ko Odeon inprimategiak argitaratu zuen "*Slovník spisovatelů*" lanean, Europako mendebaldeko hizkuntzen literaturari buruz, han argitaratu zuen, 1968an, Espainia eta Portugal-koeri buruzko tomo bat ere. Katalan eta galegoaz gainera, euskal literaturaren historia ere agertu zuen, Norbert Tauer egile zela. Urte berean, Madrid-eko "Cuadernos para el Di3logo" aldizkariak, hain liberal edo ezker-
tiar izanarren, Penintsulako literatureri buruzko zenbaki berezi bat egin zuen, baina euskarazkorik ez zen agertu. Nonbait, ezagutu ere ez. Holako jokabideen ondoriozkoa zaigu, ezagutzen ez dena maitatu ezina. Eta, Espainiako Unibertsitateetan Filosofía y Letras

estudiatu duten euskaldunek ere ez dute izan euskaraz literatura bat dugunaren berririk. Ez dakit literatura bat ondo esana dagoen ere, zeren “bat” hori demostragarri jarri nahi duten ikasientzat ez noski. Hizkuntza bat dagoen lekuan, beti bai dago literatura bat; herri literatura bederen, herriaren nortasuna ezagutzeko baliozkoena dena. Hizkuntza, edonongo hizkuntza, literatura baten jabe baita; eta arrazoi beregatik, hizkuntza, edonongo delarik, kultura berezi baten jabe da. Ukatu ezinezko arazoa dugu hau. Eta edozein herri normaletako eskoletan erakusten da bertako kultura eta bertako hizkuntza. Gurean horrela ez bada, sar gaitez anormalitate horren arrazoiak aztertuko dituen gogoetetan; eta bertatik ohartuko gara gure herrian anaitasunezko maitasunean bizi ahal izateko zelako zama astuna jarri zaigun.

Borondate oneko gizonak izan balira munduaren gidari, ez genuen izango holako zama astunik. Norbert Tauer bezalako gizonak izan bagenitu gobernarien artean, gure herriak ez ezik, bereak ere beste burubide bat eramango zuen. Gure herria, bere hizkuntzaren bidez ezagutzea lortu zuen eta, hangoak ezagutu zezaten, bertakoei adiaraziz ezagutaraztera eman zuen. Honegatik, han aurkitu nituen gure herriaren kultura hemengo askok baino gehiago ezagutzen zutenek ere. Hauean artean, baita euskara ikasten ari den bat ere, Karel Keller. Eta, honek esan zidan, nekez ohartuko garela euskaldunok Tauer-ek zenbat maite gaituen.

Bere Txekoslobakiako eta Euskal-Herriko oroitzapenez beterik aurkitzen da. Bere zaletasunik handiena euskarazko liburuak dira eta biblioteca aberats baten jabe da. Baina ez hori bakarrik. Tauer-ek Euskal-Herriko artisten lanak ere baditu, eta beharrezko ditu bere oroitzapenatarako eta bere gogoaren lagungarri. Gainera, berakin harremana izan duten euskaltzale guzien gutunezko karpetak gordetzen ditu, Julio Urkixo eta R. M. Azkue-gandik hasi ta gure egunok artekoetaraino.

Igazko urtean zenbait galdera egin nizkion Tauer euskaltzaleari eta orduan gutunez bete nuena orain pertsonalki osatu dut. Ezinezkoa zait emen dena agertzea, baina bai zerbat funtsezkorik irakurlearen adigarri.

Arestian esaten genuen, 1928-rako hasi zela hemengo “Argia” Aldizkarian euskaraz idazten. Hola dakar Kintana eta Tobarren

“Euskaldun berriekin euskaraz” deritzan liburuak. Baina, zerbait lehentxoago, 1926 edo 1927. urtean, uste du, euskaldunen batekin gutunezko harremanen eskarizko deia eginaz argitaratu zuela lehen lehena “Argia”n. Dena dela, 1926-35. urteetan, “Argia” ez ezik “Euzkadi”, “Ekin” eta “Jaungoiko-zale” aldizkarietan argitaratu zituen zenbait artikulua. Damu da haiek gorde eza. Baina, orain, 1945etik argitaratutako artikuluen bilduma bat prestatzen ari da. Liburu batean argitaratzea ez litzake gauza txarra izango. Gerrandoko gizaldi berrikoak, gure euskaltzaletasuneari inori ezer zor baldin badiogu, besteak beste, Jokin Zaitegirekin batean Norbert Tauer-i zor diogu batik-bat. Eta hau esateaz, Zaitegik bere “Euzko-gogoa”ko atarikoan bidez agertu zizkigun aburuak eta Tauer-ek “Azkatasuna” (1946-X-15) aldizkarian euskaldun gazteei egin zion deia ditut gogoan.

Tauer-ek, orduan, mende bat dela txeko hizkuntzak izan zuen egoera agertzen zigan; gurea bezala hilzorian zegoala, baina gizaldi berri baten ekintza kartsuak berbiztu eta indartu zuela eta egun literatura gihartsu baten jabe zela, bertako idazleen lanak mundu guziko hizkuntzetara itzultzen zirelarik. “Helburu hontara —hots, euskara salbatzera— iristeko euskaldun guztiak, batean bildurik, lan egin behar dute. Euskararen salbamendua lortu nahi baduzue, beste biderik ez daukazue”; zion bere lan hartan. Gainera, erarik bizienean aitortu zigan: “Neure adiskide maite maiteak, ez ezazue ahantz, euskararik gabe ez da Euskal Herririk izango”. Hare gehiago, 1946ko artikulua hartan esango zigan: “Helburu hontara heltzeko beharrezkoa da euskara bakarria eratzea. Eta euskara hau oinarria izango da euskararen ezagutzea euskaldunen artean zabaltzeko”.

Nere galderen erantzunez, berberak gogoratuarazi zidan “Euzko-gogoa”n 1951. urtean argitaratu zuen artikulua hura (7-8 zenbakian). Artikulu hau euskal literaturari buruzkoa zen. Garai hartako egoera latza salatzen zuen eta gure jokabidea nondik eraman behar genuen adiarazi, eta euskaraz hizkuntza bezala hedatzeko dituen ahalmenak erakutsiaz, berriz ere euskararen batasunera dei egingo zigan.

Handik urte batzuetara, 1959an Mexico-ko “Eusko-Deya”n (226 zenbakian) egin zigan beste dei garrantzitsu bat. Euskararen eguna ospatze soilez ez konformatzeko deia zekarren, euskara egunoroko bizitza harremanetan erabiltzea eskatuz eta azken aldian egina zen aurrerapena erakutsiz, esanez: “Asken gerraren ondoko urteetan

euskararen egoera ilun iluna zen. Euskararen arerio ankerrek euskara errotik ezeztatu nahi izan dute. Euskarazko liburu eta aldizkariak ezezik, baita euskaraz hitz egiten ere eragotzi dute. Horrela eta guztiz ere euskaltzale sutsuek ez dute utzi, eragozpen handiak garaitu behar izan duten arren, beren herritarren artean euskararenganako sua bizia gordetzen. Lan merezigarri honek emeki emeki fruitu ederrak ekartzen zituen. Orain, lan porrokatu horri eskerrak euskaltzaletasunaren gar irangiezinak zabaltzen dira Euskal Herriko bazter guztietara, euskaldun askoren bihotzak berotuz". Honelakoak izan dira urteak zehar Tauer-ek eman dizkigun kontseiluak.

Bere aspaldiko euskaltzaletasuna bere artikulua zehar adiaraztetik aparte, bestelako erantzunik ere jaso zuten nere galdera haiek. Eta honetara joango naiz zuzenki. Hara hemen galderantzun batzuk :

—*Hizkuntzaz aparte zer aurkitu duzu gure herri hontan berezigarririk?*

—Hizkuntzaz aparte jakingarriak aurkitzen ditut euskarazko kantak eta Folkloriko ipuinak.

—*Euskaraz irakurri dituzun liburuetatik zeintzuk izan zaizkitzu atseginenak?*

—Euskaraz irakurtzen ditudan liburuetatik atseginenak iduritzen zaizkit Euskal Herriko bizitza eta euskal ohiturak pintatzen dituztenak.

—*Biblioteca aberatsaren jabe zara, batez ere euskarazko liburu-zenbat dituzu?*

—“Euzko-gogoa” aldiskarian Euskal literaturari buruz argitaratu nuen artikulua hartan agertzen nuen bezala, euskararenganako neure maitasuna sortu zenetik euskal literaturaz interesatzen naiz eta euskarazko liburu argitaratu berriak ahal ditudan guziak eskuratzen ditut. Lehen zuzen zuzenean erosiaz, baina oraingo denboretan ez zait erraz euskarazko liburuak herbestean erostea, hemendik kanpora dirua bialtzea haizu ez delako. Baina, neure adiskideei eskerrak, hauen laguntzarekin, azken urteetan argitaratu diren geientsuenak eskuratu ahal izan ditut. Honegatik, neure etxean, euskal liburutegi eder eta aberats bat daukat. Azken urteetan argitara emandako liburuak ez-ezik, baita ere liburu zaharrak, eta hauen artean batzuk egungo egunean txit bakanak direnak.

Adibidez aipatuko dizkizut: "Origen de la lengua Bascongada" izena duen liburu bat, Jon Perotxegik egina, 1760; Chourioek euskarara itzulitako Jesu-Christoren Imitacionea, 1720; eta Larramendiren lanen lehen edizioak, adibidez. Bestalde, euskarazko aldizkaririk gehienak jasotzen ditut, Zeruko Argia, Anaitasuna, Herria, Otoizlari, Gure Herria, Egan, Euskera, Newsletter, Arantzazu; Liburuak, Kuliska sorta, Auñamendi, Ekin eta Auspoa sailetan argitaratzen direnik gehienak hartzen ditut.

—*Bihar edo etzi nori uzteko asmoa duzu?*

—Egia ésan, oraindik ez dakit zer egingo dudan liburutegi honekin.

—*Itzaropenez, euskara eta euskal literatura nola ikusten dituzu?*

—Oraingo egoerari begira, euskara eta euskal literaturaren be-roa, esperantzarriak ikusten ditut.

—*Euskara idatziaren batasunari zer deritzazu?*

—Neure iritiz, euskararen batasuna behar beharrezkoa da euskal literaturaren bizitzarako.

Hauek dira lurrez gugandik urruti baina bihotzez hain hurbil bizi denaren iritzi eta opariak. Nikolas Alzola adiskideak, Euskal Herriko mendi bati edo Tauer izena jartzea eskatzen du euskaltzale kartsu honen oroitzapenez. Euskal Herriko mendi guziak dituzte beren izenak eta, nere iritiz, ez litzake gauza erraza izango izen berri bat errotzea, baina bai merezi luke mendirik handienetako batean, Aizkorrin edo, oroitarri bat eraikitzea. Honen beste merezia du guretzat eredugarritzko euskaltzalea den honek.

BITTOR MUJICA

EUSKARARI

Larrekoa omen zara,
landugabea,
basatia.
Hala ere nere odolak
zu behar zaitu.
Nere hezurrek
barruan zu nahi zaitue
eta nere buruak zurekin
nahi du egon.

* * *

BEHIN BATEAN

Sufritzen zuen guztiakin
idazten hasi zen.
Behin batean esan zioten :
“goazen Donostiara”,
eta bera joan zen.

Arratsaldean goiz
irten ziren,
hitz onak besterik
ez ziren entzuten.

Eta gauean etorri zirenean
batek besteri
agur ez zion esan.

Gizona bestearentzat
ezer ez da.

Laino tartean bizi naiz
eta ez dut eguzkia ikusten.
Nere soina ihartuta dago,
ez du ezer sentizen.

Horregatik eguzkia behar dut.
Bai, eguzkia! Lainoa
kenduko duena
eta nere odola, erdi hila,
mugituko duena.

Noiz arte laino itxi hau!
Noiz arte!
Eta izozte handi hau!
Bitartean herria,
jende beharrean dago.

* * *

Pena eta...
ematen dit
argi borobilak, eguberritan,
ikustea bakarrik.

Pena eta...
ematen dit
gure ahalmek
hortarako
edukitzea jarririk.

Tik-tak, tik-tak
erlojua aurrera doa
eta ni zartzen
eta zu
eta hura
Eta Euskal Herria.

Gaztetu behar dugu Herria!
Bai, gaztetu.
Tik-tak erlojuaren
beste hainbeste.

* * *

Ni naiz telebisioan frantsesen laudorioz
filma bat ikusi zuena.
Ni naiz bere lana
alperkeriaz baztertu zuena.
Euskal-Herriaren nortasunaz
dudatan jarri zena.
Behin batetan Mitxelenaren
lan bati esker aurrera
jarraitzeko gogo hartu zuena.
Izan nahi nuke, gizona.

SAN BLAS EGUNA

Gaur gauean entzun dut
Atharratze abestia
eta beste asko.
Gaur gauean sentitu dut
hego-haizea eta
sartu zait bihotzeraino.

Hego-haizea
Nafarroatik etorria.
Hainbat eta hainbat
etxe eta gizon,
neguko gau hontan,
epeldu eta gozatu
duzuna.

Esaidazu, zenbat
nafarren ahotan
euskara ez duzun
entzuten.

Zabaldu zazu
nola euskara,
ez bakarrik
jauntxoaren hizkuntza
baizik laborarien
eta artzainen
hizkuntza izana,
dagoen orain
herritatik kanpo,
pago eta errekatxoan ondoan,
biluzik,
kizkurtuta,
eta ia hilik.

ASTE SANTU

Kanpoan igaro ditut lau egun.
Ikusi ditut aurpegi beltzaranak,
arropa txukun garbi batzukin jantzita.
Eta itzultzerakoan gari soroak
oraindik gazteak.

Gaur goizean ordea

.....

Bi ziren, anorak beltza, erdi hautsita zemazkiten.
Ixil, ixilik, igaro dira nere aurretik.

* * *

Gari berri soro bat ikusten dudanean
pentsatzen dut badagoela gure munduan
urguilurik gabe, bere edertasuna azaltzen duena.

Mendian erreka bat entzuten dudanean
pentsatzen dut badagoela gure munduan.
engainaturik gabe hitz egiten duena.

Eta entzundakoan gizon bat, aurretik
etxea eta lagunak utxita, hasi dela
borokan eta hildutela
bere izena zikindu dutela,
sartzen zaizkit bizitzeko gogoak.

ORREAGA

JOSEANGEL IRIGARAY
(1978 urtean)

Lerro lerro, gurutze pisuak sorbaldan deramazkitela, kantuz eta otoizka, betidaniko bidetik doazi beilarrak Orreagari buruz; eta hala urte oroz, berdin iduzki nola euri, Udaberriko egunetan abiatzen dira aetzak, artzibarkoak (oroztarrak barne), erroibartarrak eta auriztarrak. Geroago, Iraillean, baxenafartarrak, luzaidarrak barne.

Denak Orreagari buruz. Eta ohitura hori noizdanik ote?

Diotenez, XVIgn mendean edo asten omen dira beila horiek eta orduz geroztik urteoro urteoro, herri bakoitzak bere eguna duelarik, hala da egiten. Batek daki ohitura horiek, ibillaldi eta joan-etorri horiek zer nolako zutabe diren kondairaren zentzuan! Bizitzaren saretan! Dudarik eta gabe, bideak eta zergatikoak gurutzatzen dira, baina kasu huntan denak Orreagari buruz doazi.

Eta zer da, bada, Orreaga? Zer dela-ta hainbateko erakarpen eta maitegoa?

Orreagaren lehenbiziko berriak aspaldikoak dira, 778gn urtekoak. Aurten, beraz, amabigarren mendeurrena. Orduan euskaldunak Karlomanoren aurka jazarri ziren, harek Zaragozatikako itzulian Nafarroan egin basakeriak mendekatu beharrez. Karlomanori gauzak uste baino makurrago atera omen zitzaizkion Zaragozan eta itzultzerakoan amorruren amorruz Iruñea eta beste zenbait iri zigortu omen zituen. Gero Orreagan barna abiatuerazi zuen bere armada eta euskaldunak Orreagako inguruetan, hain zuzen, jazarri omen zitzaizkion. Karlomano pasa omen zen, baina haren armadak borroka latz bat pairatu behar izan omen zuen. Pairatu

eta galdu. Han galdu zituen Errolan buruzagia eta gudari saldo haundi bat; eta gatazka hartatik sortu zen “La chanson de Rolland” izeneko poema epikoa: Europan zehar arras edatu zen, baina gehienetan mauriak izan zirela aipatuz, euskaldunak ia agertu ere ez dira egiten liburu eta kondairetan; eta iritzi hori arras edaturazia zegoen, eta dago oraino ere. Gure herrian, aldiz, beti uste izan da euskaldunak izan zirela Karlomanoren armada zafratu zutenak. Ikus, adibidez, Pasai Donibanen eraikia dagoen oroitarria; XVgn mendekoa omen da eta behialako oroitzapen batean oinarritua. Honela dio (1):

“In gratiarum actione pro victoria obtenta, et cumplimiento voti facti Deo et B. Mariæ S. V. era octingentesima decima quarta, quando ibamos ad Orierriagam et Saltum Pirenaice nunc de Ronces-Valles præliaturi contra exercitum Caroli-Magni Francorum Regis, cum nostro Basconiaë populo, pro se et sociis suis de Pasaje victoribus. Joannes de Ubilla me fecit.”

“En acción de gracias por la victoria alcanzada y en cumplimiento del voto hecho a Dios y a la Bienaventurada siempre Virgen María, en la era de 814 cuando fuimos a Orierriaga y Puerto del Pirineo, que ahora se llama Ronces-Valles, a pelear contra el ejército de Carlo-Magno, Rey de los Franceses, con nuestro pueblo de la Vasconia, por sí mismo y sus compañeros del Pasaje vencedores. Joanes de Ubilla me hizo.”

Euskaldunak, beraz, uste baino gehiago elkartu ziren borroka haundi hartarako. Nahitaez amets egiten duzu...

Orreagako gatazka
irabazi azkena
gure ondamendiaren astapena,

geroztik artizarra galduxe dugu
galduxe kemena
asmamena
geroztik beldurti eta lotsak gabiltza
zeharbideetan barrena

(1) “Pasajes-Resumen histórico”, Ldo. Fermin Iturrioz Telleria Pbro. (1951).

Itzaltzuko koblakaria kantari asi zen
euskaldunak azkonak zorrozten
indarrak elkartzen
eta Orreagako gatazkan

lehen aldikotz

Karlomano eta dotze pariak
galtzaille atera ziren,
Orreagako gatazkan
irrintziak goraka
arriak biribilkolika
Euskalerriak erakutsi zuen nor zen,

gero,

etxean gelditu zen

aitatxi itsuarekin

Gartxot koblakariären kanten ametsean

eten gabeko dantza luzean lotua

oihan eta zeharbidetan barna

eta oihanean eder fagoa

oroitzapenaren mikatza!

Orreagako gatazkan erakutsi ahala

Orreagako oihanetan, ai!, ote galdua?

Baina, gatazka hura dela-ta, Arturo Campion ospetsuari pasa nahi diot itza, kondairazko ikasketaz eta “El bardo de Itzaltzu” eder eta altxagarriaz landa Orreaga izeneko idatz-lantxo pollit bat egin bait zuen euskaraz (21 euskalki eta subeuskalkiz eginarazi zuena, euskararen era desberdinak parekatu ahal izateko). Hemen, Auzperriko den euskalkia emanen dut, Biskarret-Gerendiainekoa (D.F.U. batek egina) (2):

“Gaberdia da. Karlomano Erregea Auritz-perrin dago bere tropekin. Zeru ilunean ez da ageri ez illargik, ta ez izarrik; urrundará sugar aundiek istatzen dute mendiener-tean; Frantsak kantatzen ai diré errian; Altabizkarreko

(2) “Orreaga (Roncesvalles). Balada escrita en dialecto guipuzcoano por D. Arturo Campión, acompañado de versiones a los dialectos vizcaíno, labortano y suletino, y de diez y ocho variedades dialectales de la región bascongada de Navarra desde Olazagutia hasta Roncal”. Arturo Campión. Imprenta y Librería de Joaquin Lorda, Pamplona 1880.

inguruetan senti diré otsoain izigarritzko harramak, eta Euskaldunek zorrozten tuzte bizkitartean beren dardo eta aizkorak Ibañetako arri eta peñetan.

Antsiarekin Karlomanok ezin du loa bereganatú; guazeain ondoan bere pajetyo batek leizen du amorezko kontu bat; urrunchago, Erroldan indartsuak garbizen du bere Durandarte ezpata famatua, eta Turpin arzobispo onak errezazen dio Jaungoikoain ama sanduai.

Pajetyo neria, —dio Errege Karlomanok; —zer da gasko isiltasuna austen duen arroitu ori? —Jauna, —errespondatzen dio pajetyak; —Iratiko, ichasoa baño aundiagoko oyanain ostoaak diré, aizeak mogituak. —Ah! gazte maitia, eriotzain oyua iduridu, eta nere biotza beldur da.

Gaba arras iluna da. Ez ilargik, ez izarrik ageri da zeruetan; urrundará sugar aundiek istatzen dute mendienertean; Frantsak lo daude Auritz-perrin; Altabizkarreko inguruetan otsoak harramaka daude, eta Euskaldunek zorrozten tuzte beren dardo eta aizkorak Ibañetako peñetan.

Zer da arroitu ori? —galditen du berriz ere Karlomanok, eta pajetyak, errendituik loaz, errespondazen ez dio. —Jauna, —dio Erroldan indartsuak; —mendiko torrentia da, Andresaroko ardien marraka da. —Murzuri bat iduri du, —errespondazen du Errege Frantsak. —Egia da, Jauna, —dio Erroldanek; —erri onek nigar iten du gutaz oroitzen delaik.

Antsiarekin Karlomanok ezin du loa bereganatú; lur eta zeruak argik gabe daude; otsoak ai diré harramaka Altabizkarren; Euskaldunen aizkorek eta dardoek istatzen dute Ibañetako aritzenertean.

Ah! —suspirazen du Karlomanok. —Ezin loa nereganatú dut; berotasunak errezen nau. Zer da arroitu ori?—Eta Erroldanek, loai errendituik, errespondazen ez zio. —Jauna, —dio Turpin onak; —erreza zazu, erreza zazu enekin. Arroitu gau Euskal-erriko gerla oyua da, eta gaur da gure famain azken eguna.

Iruzkiak argitzen tu mendiak. Garaitua Karlomano iyes doaye, «bere luma beltz, ta bere kapa gorriakin».

Aur eta maztikiak danzan ai diré kontentuz beteik Ibañetan. Estranjeroik ezta Euskal-errian, eta menditarren irrintziak eiltzen dira zeruetaraño.”

Lehen erran dugun bezala, Euskalerrian oihartzun haundiak izan zituen gudaldi harek; haundiak eta luzeak, egungo egunetaraingo bait diraute. Berriki, “Ibañeta”, “Orria” eta antzeko pastural eta antzerkiak egin dira. Bestalde, herri kantetan eta beste adierazpenetan non nahi agertzen dira haren oihartzunak. Gogora datozkit, konparazione, “Aimunen lau seme” zuberotar pasturalaren bertso haiek:

“Heben bagira Aimunen lau seme
heben balin baginu kosi Maigus ere,
ezkinateke lotsa Xarlemañe züre
Frantziako dotze pariak oro jinik ere.

Aimunek badü protekzione
adrezia parerik mündian ihun ere,
aita zian debrü, ama belagile
eta hüra, aldiz, haien bien seme.

Aimun zanian triaten gainean
bürdinez kargatürük etsaien erdian,
etzen ez hüra lotsa heien oroen artian
zeren belar hünak bereki baitutian.”

Baina, luzeago eta gatazkari berari lotuagoa bada beste poema eder bat, XIX^{gn} mendean Garai Monglave-k frantseseraz egina eta Duhalde ezepletarrak euskaratua. Erdi aroko kutsua du eta arras ezaguna bilakatu da euskal literaturan. Gogoeta utsa da, naski, baina, hala ere, honera ekarri nahi dut, Orreagari eskeinia delakotz eta ederra iduritzen zaidalakotz. Hona, beraz, Altabizkarko kantua deritzan olerkia (3):

“Oihu bat aditua izan da
Eskualdunen mendien artetik,
Eta etxeko jauna, bere atearen aintzinean zutik,

(3) “Milla Euskal-Olerki eder”, Aita Onaindia. Larrea-Amorebieta (Bizkaia), 1954.

Idekitu beharriak eta erran du : «Nor da hor? Zer nahi
[dautek?]

Eta xakurra, bere nagusiaren oinetan lo zaguena,
Altxatu da, eta karrasiz Altabizkar-en inguruak bete ditu.
Ibañetaren lepoan harrabots bat agertzen da,
Urbiltzen da, arrokkak ezker eta eskuin jotzen dituelarik :
Hori da urrundik heldu den armada baten burruma.
Mendien kapetaterik, guziek errepuesta eman diote,
Berek duten seinua adierazi dute,
Eta etxeko jaunak bere dardak zorrozten tu.
«Heldu dira, heldu dira. Zer lanzako sasia!
Nola zer-nahi kolorezko banderak heien erdian agertzen
[diren!

Zer ximistak ateratzen diren heien armetarik!

Zenbat dira? Haurra kondatzak ongi».

—«Bat, biga, hirur, laur, bortz, sei, zazpi,
Zortzi, bederatzi, hamar, hameka, hamabi,
Hamahirur, hamalaur, hamabortz, hamasei,
Hamazazpi, hemezortzi, hemeretzi, hogoi».

—«Hogoi eta milaka oraino ;

Heien kondatzea denboraren galtzea liteke.

Urbiltz ditzagun gure beso zailak, errotik atera ditzagun
[arroka horiek.

Bota ditzagun mendiaren patarra behera,

Heien buruen gaineraino ;

Leher ditzagun, herioaz jo ditzagun.

Zer nahi zuten gure mendietarik Norteko gizon horiek?

Zertako jin dira gure bakearen nahastera?

Jaungoikoak mendiak in dituenean nahi izan du hek
[gizonek ez pasatzea».

Bainan arrokkak biribil-kolika erortzen dira ;

Tropak lehertzen dituzte.

Odola xurrutan badoa ; haragi-puskak dardaran daude.

O, zenbat hezur karraskatuak! Zer odolezko itsasoa!

Eskapa, eskapa indar eta zaldi dituzuenak.

Eskapa hadi, Karlomano errege,

Hire luma beltzekin eta hire kapa gorriarekin.

Hire iloba maitea, Errolan zangarra, hantxet hila dago.

Bere zangartasuna beretako ez du izan.

Eta orai, Eskualdunak, utz ditzagun gure dardak
Eskapatzen direnen kontra.
Badoazi, badoazi. Non da, bada, lanzako sasi hura?
Non dira heien erdian ageri ziren zer-nahi kolorezko
[bandera hek?
Ez da gehiago ximistarik ateratzen heien arma odolez
[betetarik?

«Zenbat dira? Haurra, kondatzak ongi».
—«Hogoi, hemeretzi, hemezortzi, hamazazpi,
Hamasei, hamabortz, hamalau, hamahirur,
Hamabi, hameka, hamar, bederatzi, zortzi,
Zazpi, sei, bortz, laur, hirur, biga, bat».
—«Bat; ez da bizirik agertzen gehiago».

Akabo da. Etxeko jauna, joaiten ahal zira zure xakurrekin,
Zure emaztearen eta zure haurren besarkatzera,
Zure darden garbitzera eta altxatzera zure tutekin,
Eta gero heien gainean etzatera eta lo itera.

Gauaz arranoak joanen dira haragi-puska lehertu horiek
[jatera.
Eta hezur horiek oro xurituko dira eternitatean.»

Eternitatean! Orreaga! Amets bat, gure kondaira urratuaren
oroitzapen eta ipuina.

Horra, beraz, Orreagaren astapena. Geroztik beti edukiko du
halako oihartzun berezi bat.

Geroago, IX eta Xgn mendeetan, abantxu Europa osoan feudal-
-aroa zelarik nagusi eta elizak indar eta itzal haundia zuelarik,
Santiagora joateko ohitura eta joera zen asi. Elizak garrantzi eta
meritu haundia ematen zion Santiagora beilan joateari. Joera hori
Europar zehar edatu zen eta leku guztietatik bidaiak egiten asi
ziren. Auñamendia pasatzeko bi bide omen zituzten, bata Somport
eta Jacan barna; bestea Luzaide eta Orreagan barna. Orreaga,
hain zuzen, bidarien laketa-leku egoki eta berezia bihurtzen asi zen.
Horixe omen da Orreagako Saindutegiaren asiera: errumesei es-
keini ospital eta ostatua. Hortik Baselizatxo bat Ibañetako lepoan
eraikitzeari ematea, hortik beheko saindutegi eta tegiak.

Han zen, beraz, XIIgn mendearen bukaeran edo XIIIgarrena-
ren asieran eliza berezi bat eraiki, eta beheko kaperaren espadañan

lehen Ibañetako kaskoan errumesei laguntzeko zegoen ezkila ezarri omen zuten.

Eta nola biziko ote ziren Orreaga inguruko euskaldunak?

Zorionez, izan zen beilari bat gorriak pasa omen zituena gure herrian barna iragatean eta, aurka izanik ere, berri interesgarriak eman zizkiguna, iztegitxo bat eta guzti: Aymeric Picaud. Honela mintzo da (4):

“Después, cerca de los puertos Ciséreos, está la tierra de los bascos (*vascos*), que en la costa, hacia el septentrión, tiene la ciudad de Bayona. Esta tierra tiene lengua bárbara; es frondosa, montuosa, desolada de pan y vino y de todos los alimentos corporales; pero es abastecida con manzanas, y sidra, y leche.

En esta tierra hay malos cobradores de portazgos, a saber: cerca del puerto Ciséreo, en la villa que llaman Hostavalla (*Ostabat*) y la villa de San Juan y San Miguel, al pie de los puertos Ciséreos (*de Cize*), que sin remisión han de ser condenados. Salen, pues, al camino a los peregrinos con dos o tres dardos para cobrar por la fuerza los injustos tributos, y si alguno de los transeúntes no quiere dar las monedas a petición de ellos, los hieren con los dardos, y con esto les quitan el censo, afrentándolos, y hasta las calzas los registran. Estos son feroces, y feroz, y silvestre, y bárbara es la tierra que habitan; por la ferocidad de los rostros, en consonancia con lo bárbaro de la lengua, entra temor a los corazones de los que los ven. Aunque, según ley, no deben cobrar tributo sino a los mercaderes, sin embargo, lo cobran injustamente a los peregrinos, a todos los transeúntes. Cuando deben, por costumbre, cobrar por cualquier cosa cuatro monedas o seis, cobran ocho, doce; esto es, el doble; por lo que mandamos y rogamos que sean excomulgados diligentemente.

(4) “Código de Santiago de Compostela”, Aymeric Picaud (1143). “Viajes de extranjeros por España y Portugal”, J. García Mercadal-en liburutik artua, Aguilar S. A. de Ediciones. Madrid, 1952.

.....

Junto a aquel monte, a saber, hacia el Septentrión, está el valle que se llama valle de Carlos (*Valcarlos*), en el cual se refugió el mismo Carlos (*Magno*) con sus ejércitos, después de que los guerreros fueron muertos en Roncesvalles, por lo que también muchos peregrinos que van a Santiago no quieren subir al monte. Después, en la bajada del mismo monte, se encuentran la hospedería y la iglesia, en la que está la peña que Roldán, héroe poderosísimo, con su espada, de arriba abajo, cortó por el medio con tres golpes.

Después se encuentra Roncesvalles, lugar en que una vez se hizo magna batalla, ¡en la que el rey Marsiro (*Marsilo*), y Roldán, y Oliveros, y otros cuarenta mil guerreros cristianos y sarracenos fueron muertos!

Después de este valle se encuentra la tierra de los navarros, que, feliz, tiene pan, y vino, y leche, y ganados.

(5) Navarros y vascos tienen un mismo aspecto y calidad, a saber: comidas, vestidos y lengua. Los navarros visten con paños negros y cortos hasta las rodillas solamente, al uso de los escoceses, y los calzados que llaman lavarcas (*abarcas*), hechas de cuero peludo, no acabado, con correas atadas cerca del pie y con las plantas de los pies tan sólo envueltas; llevan las piernas desnudas, pero usan capotes de lana oscura, largos hasta el codo, a manera de *penule*, con bordes, a los que llaman *saias*. Estos, torpemente visten y torpemente comen y beben; pues toda la familia en las casas navarras —tanto el siervo como el señor, tanto la criada como la señora— suele comer todos los potajes mezclados a la vez en una cazuela, sin cuchara, sino con sus propias manos, y beber en un *cipho*. Si los vieres comer, los considerarías perros o cerdos. Si los oyeres hablar, te acordarías de los perros que ladran, pues tienen una lengua de todo punto bárbara: al Señor llaman *Urcia*; a la Madre de Dios, *Andrea Maria*; al pan, *orgui*; al vino, *ardum*; a la carne, *aragui*; al pescado,

(5) Garai hartan "Vascos" gehien bat baxenafartarrei deitzen zioten eta aunitzetan, "navarros" gainerako euskaldunei; "Vizcainos" deiturarekin geroago gertatu zen bezala.

aragui; a la casa, *echea*; al dueño de la casa, *iaona*; a la dueña, *andrea*; a la iglesia, *elicera*; al presbítero, *be-laterra*, que se interpreta bella tierra; al trigo, *gari*; al agua, *uric*; al rey, *ereguia*; a Santiago, *iaona done iacuc*. Esta es gente bárbara, desemejante de todas las gentes por los ritos y la naturaleza; llena de toda malicia; con el color oscuro, con rostro áspero, torcida, perversa, de fe vana y corrompida, libidinosa, por costumbre borracha, docta en toda violencia, feroz y silvestre, viciosa y réproba, impía y desabrida, furiosa y contendedora, inculta en los demás bienes, instruida en todos los vicios e iniquidades, semejante en malicia a los godos y a los sarracenos, enemiga en todo de nuestras gentes galas. Navarro o vasco, matan, si pueden, por una moneda, a un galo. *In quibusdam horis eorumdem in Biscaglia scilicet et Alava dum navarri se calefaciunt vir mulieri et mulier viro verenda sua ostendunt Navarri etiam utuntur fornicatione in cesta pecudibus. Seram enim navarrus ad mule sue et eque posteriora suspendere dicitur ne alienes accedat sed ipse. Vulve etiam mulieris et mule basia prevet lividinosa. Qua propter ab omnibus peritis sunt corripiendi navarri.* (Alegia: «En ciertas circunstancias los mismos en Bizcaya y en Alava, así como los navarros, se calientan el hombre a la mujer y la mujer al hombre enseñando sus partes deshonestas. Los navarros usan también de la fornicación incestuosa con los animales. Se dice que el navarro cuelga un cerrojo en las partes posteriores de su mula y yegua para que ningún extraño pueda acceder a ellas salvo él mismo. Da besos libidinosos a la vulva de la mujer y de la mula. Por todo lo cual los navarros han de ser evitados por todos los [hombres] diestros.»). Sin embargo, en el campo de batalla son buenos, aunque malos para sitiar fortalezas. Son alabados porque tienen la costumbre de dar los diezmos, con ofrendas a los altares. Cada día que el navarro va a la iglesia hace a Dios ofrenda de pan, o vino, o trigo, u otra sustancia. El navarro o el vasco, cuando camina, suspende del cuello un cuerno, como cazador, y dos o tres dardos, que llaman *azonas*, lleva por costumbre en las manos. Cuando en la casa entra y vuelve, silba con la boca como un mirlo; y cuando, escondido en secretos lugares o en la soledad por motivo de robo, desea

llamar sin voces a los compañeros, o canta a manera de buho o aúlla semejante al lobo. Suele referirse que descienden del linaje de los escoceses, por lo que son semejantes a ellos en costumbres y aspecto.”

Ikusten denez, euskaldunak oraino beren gisara bizi ziren, orduko “moldeetara” makurtu gabeak, eta, beraz, “basati”tzat artzen ziren haietakoak. Teleka zaharra, alanzakoa...

Nahitaez, oroitzapenezko ametsa egiten da indar eta jabetasun hura arras ahuldua dagoelakotz.

Erdi aroan, beraz, indar haundia izan zuen Orreagak eta haren ondasunak gehitzen zoazten. Dakigun bezala, hura garai egokia zen donazione eta antzekoak emateko. Nafarroako erregeak ere ez zebiltzaten urrun. Bat, Antso Azkarra, han ehortzia dago. Karle II garrenaren erraiek ere, berak ordenuan agindu zuenez, han egon beharko zuten. Bestaldetik, Navas de Tolosa deitu gatazkan atxeman ziren kateak Orreagan daude; Nafarroako kateak, hain zuzen. Bai eta han bertan pillatu beste zenbait pitxi eta oroitzarri ere. Agiri eta liburuekin, bestaldetik, liburutegi haundi eta aberats bat osatzen joan zen.

Lurraldeei dagokionez, Orreagaren eremu eta oihanak ezker eskuin zabaltzen ziren; hainbeste non erran izan bait da Orreagako prailleak Erromaraino hel zitezkeela beren lurraldeetatik atera gabe. Guttiago bazen ere ez zen ahuntzaren gauerdiko eztula, alajaiña.

Beti ere, praille-etxe eta ospitala izaten jarraitzen zuen. Hona, konparazione, nola ikusi zuen XVgn mendean J. Münzer deitu bidariak (6):

“... El 9 de Febrero, después de comer, partimos de Pamplona y, andando tres leguas, primero por un valle, en el que crecen la vid y los cereales, luego por un monte elevadísimo, llegamos a Roncesvalles, donde hay un mo-

(6) “Itinerarium sive peregrinatio per Hispania, Franciam et Alemaniam” (1494-95), Jeronimo Münzer. “Viajes de extranjeros...” liburutik artua.

nasterio de canónigos con hospedería aneja, en la que se da a los peregrinos, además de albergue, pan, vino y otras cosas necesarias al que camina. En la iglesia de este monasterio vimos, entre otras reliquias y curiosidades, el famoso cuerno de Roldán, que murió allí, y fuera ya de la casa, una gran capilla o ermita construida en el sitio en que numerosísimos cristianos fueron muertos por los sarracenos en tiempos de Carlomagno, según más extenso tengo escrito en el «Liber Sancti Iacobi», en el que cuento cómo los cristianos, habiéndose introducido inadvertidamente en un desfiladero, viéronse rodeados de enemigos y sucumbieron a manos de ellos. Horrible es, en verdad, aquel paraje.”

Jendeen artean ere Orreagarenganako loturak estutzen dira. Orduan, XVIgn mendean, asten dira hain zuzen aipatu beilak, eta halatsu mantentzen da abantxu XIXgn mendea artio. Orduetik honera, guttika guttika, haren dirdira apaltzen doa, moteltzen eta suntsitzen haren argia. Eta hala egungo egunetaraino.

Garai batean erlijio-kulturazko zentzu berezi baten ohantzea zen; hortaz dudarik ez dago. Orain, aldiz, nahiz inguruko eskualdean itzal bat eduki oraino, eta ondasun frango izanagatik ere, apaldu argia da; egungo moldeetara araberatu gabea. Eta hori da negargarriena. Egungo bizitzaren argia izan beharrean, oroitzapenezko leizean suntsitzen doan arnasa da.

Baina ez dut uste oraino berantegi denik. Oraindik zer edo zer egin liteke. Aurtengo urtea, 1978garrena, okasione egokia litzake zerbait ere egiten asteko, eta bertako agintariak ere hala pentsatzen duela dirudi. Izan bedi, bada, Orreaga altxatzeko indar eraginkorra, garrantziagoko helburuen ibilbide. Batetik, bertako museoa, liburutegia eta antzekoak; bestetik, inguruko eskolategi-bideak, azkuntza-nekazaragoarenak, kulturazko ikastaroak, industriarenak, eta abar. Erran nahi bait da, errotua dagoen herriari erantzunez.

Hau dena, naski, herriaren egoera eta etorkizunaren arabera dago. Azken batean, kakoa hortan datza. Gertatuko ote?

Bitartean...

Urrobi eta Errobi
ameka ipuin eta ur garbi,
Erro eta Iratin
jendeen negarrak doazi.

Eskualdeko oihanetan
kukua kantari,
Pettiriberro landan
mila sorgin eta lamin,
gure lurraldeetan
elurra du ari.

Orreagako leihoetan
bele beltzak jostaketan
urzurika Ortzainzurietan
ixiltasuna ibarretan.

Urrobi eta Errobi...

Orreagaren magalean
zenbait herri bizi
beti Orreagari so azi
behar lukete ezi.

Aiezkoa, Orotz eta Artzibar
Erroibar, Luzaide eta Auritz
gure lurraldeak oro
behar zaituztegu aunitz.

Urrobi eta Errobi...

Gure denboretan iriak usten
nekazariak joaten, lanari uzten
gure denboretan euskara galtzen
bizitza hiltzen.

Orreagan laiñoa sartzen ari
ez da iduzkirik ageri,
Ibañetako lepoan nehoiz ere
gertatuko ote irabazle berriz?

Urrobi eta Errobi
ameka ipuin eta ur garbi,
Erro eta Iratin
jendeen negarrak doazi.

“PAZ DE ZIGANDA” IKASTOLATIK

Iruñeko “Paz de Ziganda” Ikastolatik aur-kontu horiek bidali dituzte.

Olaia Erbiti andereñoak diosku, iñoren laguntzarik gabe eginak daudela. Hemen sartzea merezi dute.

HEUSKALERRIKO LANAK

Heuskalerrian lehengo lanak oso nekesuak izaten ziran.

Oraingo lanak lantegietan daude; ez denak bainan gehienak lantegietan daude.

Lehengo lanak basoetan zirauden; egurrak hartzen zituzten, etxean janaria egiteko; baita neguko gauetan berotzeko ere.

Besteak gari-lasto hartzeko zelaietan; nekazariak eraman eta gero behiak, zaldiak, ardiei neguan janaria emateko.

Beste batzuk gero garia eraintzeko, zelaietako lurrak mugitzen zituzten. Baita gizon bizkor batzuek ere harriak hartzen zituzten; toki batetik beste batera eramaten zituzte. Idiak lan gogor hauetan asko laguntzen zioten.

Halaxe lanak hobeto egiten. Hoiek ziran lehengo lan zaharrak.

Oraingo lanak herri nagusi batean, lantegian izaten da. Lantegietan gauza onak egiten dituzte denontzat. Hori lehenago ez zan izaten.

Orain ere herri batzuetan lehenagoko lanak egiten dituzte, baina bi problema aurkitzen dira:

Lehenagoko herriko gizonak bere gauzak egiten zituzten (bere ogia, lana, e. a.)

Orain herriko gendea, bere lanekin dirua irabazten ez dutelako, herri nagusietara joan behar dute lantegietara, jan nahi ba dute eta herriak jenderik gabe eta ezer gabe gelditzen dira.

ION OIARTZUN

12. urte

IKASTOLA PAZ DE ZIGANDA

ETXEA

Mendian gordeta...

Bai...

Ez du esaten ezer...

Ezer...

Lizarrek eta arkaitzek gordetzen dute

... bai arkaitzek

Txori txiki batek esan dit

Kontuz emen lapurrak daude...

ta...

Ni bide batetik gaur

ixil-ixilik etxera joan naiz

Hor zegoen

Txikia

polita

xuria

Sartu naiz

ta

lizar batek esan dit

—Nere semea ezkondu behar dut

zeure etxea nahi dut,

uzten ahal didazu?

—bai jauna, bai

—Artu zazu

Joan naiz ondo ta pozik...

etxeari begiratu diot

Txikia

polita

xuria

Mendian gordeta bai,

lizar ta arkaitz...

M.^a PILAR GAVARI FERRUS

12. urte

IKASTOLA PAZ DE ZIGANDA

ARALARREKO BI PINUAK

Aralarren bi pinu landatu dituzte. Pinu hauek oso goibel dira, gainera biok bakarrik daude. Inor ez bait da joaten ura botatzera. Ta gainera euririk ez du egiten. Hauek oso txikiak dira ta ura edan behar dute. Pinu batek Yon izena du, bestea Yone da. Yonek, Yoni eskua ematen dio eta biok batera esaten dute:

—Euririk ez baldin ba du egiten legortu ta hilko gara.

—Bainan, zer ikusten dut?

—Bi gizon!

—Nora joanen dira?

—Elizara sartzen ari dira.

—Mikel Aingeruari otoitz egitera joaten dira!

—Bai! Euria hasten du.

Zein pozik jartzen ari dira pinuak, orain ez dira legortuko,
eta biok batera esaten dute:

—“Eskerrikasko Mikel Aingerua.”

IRENE KASAJUS

11. urte

IKASTOLA PAZ DE ZIGANDA

ABIZENEN ITZALA

ETXEBERRIA'tar P.

BERGARA

Aberri-kutsua atsegingarri izaten. Bein sorterritik irtenaz gero berriz zer esanik ez.

Beiñolako abizenek itzal-egiten digutela iduritzen. Ez, noski, itzal ilgarri. Bai, ordea, abaro eta arnas-berritzeko egokiera.

Orain, ILO-ILO'n ni: Filipin'etako iri xarmantan. Ia esan liteke, eskualdeko eta lurralde ontako erdi-erdian bizi gerala.

Sarri euskal abizenak ikustea gertatzen zait.

1978-garrengo ilbeltzaren amairugarrenean, izparringian, illeta-deia zetorren. Alegia, Manila'ko egunerokoa.

Ilbeltza onen amaikagarrenean eguerdiko amabi eta iru laurdenetan iri artan Maria Konsuelo BERGARA il zaigu. Illeta-dei ortan aren zortzi illoben izenak aipatzen dizkigute. Ondoren billoba eta beste aideak ildakoarentzat otoitzak eskatzen.

Baita: illaren amaboskarrenean illeta-otoitzak eta meza izango dirala: Manila'n, goizeko zortziretan eta bereala illotza azkeneko egoitzara eramango digutela.

Bein, Argentina'ko Mendoza'tik Justo GARATE'k auxe galdetu zidan: alegia, emen orain "Davao" deitzen dioten iriari BERGARA BERRI izena ipiñi ziotela lenagoko aspaldian, eta ortaz aztarnik ote-nuen. Bergarar osagille iakintsuari ezer iakingarri biala dezaiodan aukera gutxi nik izan. Edestiko barrutietara ioan ezik, ezer ezin iakin.

Bestalde GARATE iauna Mendoza'n dedanik ere ez dakit. Berorren eskutitza artuz gero, Barandiaran Josemiel ospetsua eta beste batzuekin aspaldiko EUSKO-IKASKUNTZA pizteko lanetan dabillenekoa ikasi det. Ortarako Euskalerrira etorri al zaigu?

AGIRRE

Gaurko ontan abizenaren zabala ezin ukatu. Euskalerriko lendakaritzan ere AGIRRE izenekoa lenen izana degu.

Amar urte datoz, eta anai gaztena ikusteko asmoz, nere arreba Erramuna'rekin Buenos Aires'en nintzan: irira iritxi orduko, zuzenean, Ezeiza egazkin'lekutik etxarte guztiak barna arako beste egazkin-leuraño ioan giñan: ibai zabala itxasoan ustutzen dan alderdi artaraño. Egazkiña irten zan eta ekaitza sortuz aizeak orbela bezela zerabilkigun ontzia, eta an giñoazenak larri giñan. Atzera uBeno Aires'era itzuli giñala arrotzegira eraman ginduzen eta an urrutizkin-zerrenda-idaztia begiz io nuan. Eusko abizenak izango zirala-ta, idaztia zabalten asi nintzala ua... AGIRRE sailla! Bakarik Lopez abizenekoak AGIRRE abizenekoak baño geiago!

Manila'ko Benigno AGIRRE'ren illeta-deia, gaur, ilbeltzaren amazazpigarrenean. Irakurleek deia nortaz ari zaigun iakin dezaten, ildakoaren izen goitia ere adirazi digute: alegia *Bening*.

Alarguna, seme-alaba eta aideak Bulacan'en utzi dizkigu eta elizkizuna ere antxe izango. Bulacan au Manila'ko aldiri eta auzo degu. Gero, an bertan, arratsaldeko iruretan eorzketa izango.

Beti ez. Bañan, Ilo-Ilo ontan eorzketak arratsaldean maizagotan ikusi ditut. Aurretik iru lagun: gurutzea erdian eta aldamenetan argi-ziriak. Izan ere, apaiz iaunek puztitara ezin iritxi.

LEGASPI

Euskaldunok geron artean "Z" eta "S" erabiltzez kezka eta aserreak ba-ditugu. Bañan, auzi ori Pilipin'etara ezin ekarri! Bestela ere lanak eta buruasteak badituztela iduritzen zait. Orain emen beti "S"z idazten dute. Zumarraga'tik etorri zitzaigunak "Z" maiteago zigun, eta orain ere Euskalerrin izki orren maitale ditugu.

Ilbeltzak emezortzi eta izparringian Rafaelina Tumbokon LEGASPI'rentzat otoitz-eskean datozkigu. Rafaelina au, ementxe Pa-

nay deitzen diogun izaroan, Kalibo irian, iezko ilbeltzaren emereztigarrenean il zitzaigun.

Urte-urreneko otoitzak dituztenez gero, sendikoen izen-lerrorik ez digute ipiñi: bakarrik mezak noiz izango diran adirazi.

LEGASPI abizena txito zabaldua degu. Toki izenetan ere eusko abizen au maiz erabilia izan da.

Agian, gero egokierak nik ez izango, esan dezadan. Eta, Manila'rako gotzai-laguntzat LEGASPI abizeneko pilipindarra aukeratu berria dute.

ESKIBEL

Euskadi'n bertan, orain beintzat, ESKIBEL au gutxiagotan ikusten degu. Ez dakit zergatik, bañan abizen au, batez ere Araba'n geiago izaten zala eta dala uste det. Nere asmakeri auetan parragarri izan nindeke. Eta, bizi naizen alderdi auetan izen oriek diralako a besterik ez nuke adirazi nai.

Etxekanderearen izena osorik Francisca ESKIBEL. Velarde'ren alarguna. Ama il zaietela-ta atsekabez ditugunak: zortzi seme-alaba.

Sendi-kopuruari gagozkiola, iesulagunok degun ikastetxeontan, bost senide dabilta. Bostok ez izan ortxe kale-ertzean bizi zaizkigunak. Ioan eta etortzeko gurtariña dute. Ostera, ikasle auk sendeetan ez dira zarrenak ez gaztenak.

ESKIBEL zana Ecija Berri'ko PALAYAN irian bizi zitzaigun, eta illetak ere antxe izango dituzte. Ondoren illaren ogeitabatgarrenean, arratsaldeko iruretan eorzketa-aokua eratuko.

URRA

Naparroa'n Eneko Arizta (Arizeta) izan gendunetik, auxe ere atera dezakegu: URRA abizena, olaxe eraskiñik gabe ere iatorra degula.

Eguneroko izparringian, ilbeltza onen emeretzigarrenean URRA'ren alargun Margarita Zayco'ren etxeokak ditugu: alegia, eskerrak ematen. Ama il zaiotela-ta, seme-alabak, illobak eta billobak eta beste aideak esker-onez ditugula. Atsekabeen lagun izandako guztiei oriek agurrik sutsuena bialtzen. Sendiko guztiak Manila'ko Makati'n orain bizi.

Eguneroko izparringi batzuk ildakoen agirientzat toki geiago izaten.

ZUZUARREGI

Larogeita bi urte zizkigun. Aren izena izparringian onelaxe degu: Pilar I. de ZUZUARREGI. Osatetxean il zitzaigun. Seme-alaba eta aizpak, illobak eta aideak otoitzak eskatzen. Illeta non izango danik ez. Agian, osatetxeko elizatzoxan?

Eortzi illaren ogeitabigarrenean. Bitartean illotza Araneta etxadiko zerraldotegian egongo dala.

Zerraldotegi itza zer ote-degu? Eta itz onek darakuskigun lana zertaz adiraziko? Ona: ludiko bazterralde askotan, illotzak bakoitzak bere etxean zaintzen dituzte, eorztera eraman arte. Txina'n eta ango oituraz bizi diranek, askok beintzat, il-kutxa bizitan erosten, eta lo-etzauntza-ondoan iaso. Ori, adiñekoak egiten geienetan. Noskiago, gero ondorengoek nolana erabiliko dituzten beldurrez. Olako orien ustez, bein erositako il-kutxa ez salduko.

USA'ko California'ra ioatea egokittu zitzaidalarik, ordurarte Asia'n ikusi nitunak aztu bearrean izan naiz. An illak txukuntzeko eta apaintzeko toki eta etxe bereziak dituzte. Pilipin auetan orobat. Ilo-Ilo ontan ere.

Zerraldo-il-kutxan sartzten dutenari iñondik ez igarriko illik dagoenik. Aitonatxo izan, ala amona xarra izan, bizi-bizi diraula iduritutako zaizu: muxu-gorri eta illeak ederki orraztuta.

Ez det uste mendiko ATI-ATI'tarrek orrela ibiliko diranik, eta ainbesteko eralgiketarako txanponik izango dutenik.

Betikoa: duanak bonbon! Ez duenak... egon!

ARANETA

Eusko-abizenen zerrendaz osatutako idaztiak ba-dira, izan. Nik, emen, idaztillu onen ondoan delako idazti orietakorik ez izan, eta ARANETA abizen au nondikakoa degun ezin adirazi. Alegia, gure aberriko zein txokotan lenbizi asi ziran itz ortaz beren sendia bereizten.

Txina'tik irtendako (bialitako) iesulagun asko ARANETA'n bildu zitzazkigun. Eta, orien itzalera aruntzarako asmoz txina'izkera ikasten ziarduten gazte sailla pillatu.

Pilipin auetan ARANETA abizena oso zabaldurik degu. ILO-ILO iri ontan bertan, urrutizkin-izen-zerrendan iru ARANETA ementxe ditugu.

GORRIZETA

Ilo-Ilo irira iritxi arte ikusi ez nuen abizena auxe det: GORRIZETA. Iriaren biotz-biotzean laspel salerosketan dabiltzanak ba-ditugu, eta aien abizena GORRIZETA. Euskal-idazleen artean, adiñean gora-xamar dabilkiguna noski, Elizondo'n IZETA iauna degu. Lenago. Donosti'tik irteten zaizkigun asterokoetan, IZETA iaunarenak atsegiñez irakurtzen nituan. Orain (lerro auek idazten ari naizen ontan) delako asterokoek errietako berririk ia ez digute sartzen. Eta, beti idazle bakar batzuen lanak irakurtzera beartzen gaituzte. Bañan, errietako idazleei tokirik ez uztea, oso iritzi kaxkarra izatea dala esango nuke. Errietako idazleenak irakurritz askozaz ere euskera errikoia goa irakurriko genduke.

Donostia'n ere IZETA abizenekoak ba-dira, eta sendi ortakoa Gazteiz'en apaiz degu, eta iri ortan euskal-meza aretxek zuzentzen duala uste det. Andoain'go apaiz-ikasle-etxean elkarrekin ibiliak gera.

Len IZETA abizenekoak Mendaro'n ba-ziran, eta anditxek Bilbao'ra ezkondua degu etxekandere ongille Maria IZETA. Berorren seme Rafael, Manila'n iesulagun degu: gizon argia eta langille bizkorra txito.

MENDIOLA

Ona emen, erdi-aiton egin zaigun ilo-ilotarra. Aitona nik esaten, ez illobak ditualako bakarrik, baizik eta ibilian eta buruaustetan oso urtetsuak bezelakoxea degulako.

Arbasoak nondarrak zitun galdetu nionean arro eta pozik erantzun zidan: EA'koak. Aiek EA'ko zein etxetakoak diran esaten ez daki. Nolanai ere MENDIOLA au, ango baserriren batetik itxasgizon irten zanaren ondorengoa. Eta... ona emen koska! Pilipin-darrentzat euskal-baserrien izenak oso arrotz gertatzen!

Gaztego zala EA'n izan omen zan. Bañan, ango berri garbi eta zeatz ezin eman. Natxitua EA'tik zein alderditara dagoan esaten ere ezin asmatu dit.

Andoain'go seme, Agirre'tar Koikili apaiz iauna EA'n luzaro izana degu. Bere arreba Karmen eta ama Maixtoan'ekin bizi zan. Etxekandere otzanak ikasi eta iakin zidan Euskadi'ra agertu nintzala: 1955-garrenean, alegia; eta, gaztigua berialaxe biali arek neri...

—Aizak Etxeberri! Karmentxo Agirre'ren ama oska dek.

Maixtoan zanari zor nizkionak asko izan, eta antxe ioan nintzaion. Maixtoan'ek nere umezarotik maitasunez begirutzen zidan eta aren senitartekoa ez nintzanik ari ez iruditzen.

Or ba :

Mendiola onek eatarra zala esan zidanean, nik EA'ko zertxo asko zuztarragotik iakin nai... Ez alperrik!!

Eta, nere aiton buruzuri au Ilo-Ilo'n ziñegotzi degu. Gizon zuzena eta oso jainkotia...

Eta... au ere ikuttuko al det? Ilo-Ilo'ko emakumeak santu guztiak berenganatu bearrean ibiltzen zaizkigu. Aien irudiei maittiak egiten... Gizonak ez ainbeste.

SAGARBERRIA

Olako abizenik, zanik ere ez nekian. Iaun au Dumaguete deritzan errian ikusi nuan. Gizaseme argia eta txito iztuna. Gaztetan ikasketak Alemania'n egin zizkizun. Etxean lur asko zutela, eta lurrari etekiña are atera nai.

Bere aita zanaren bizitzako gora-berak, oraindik ere oso go-goan ditu. Aren egite onak gogoz goraiipatzen... eta nolabaitekoak, esan bakarrik. Ua itxasgizona omen zuan, eta arek asko ibiliz aunitz txokotako autsak bildu.

Bai ta : nere izketa lagun au tabako-orri erretzalle purrukatua.

Esan nezaiokena lendik ere entzuna izan arek, eta nere iardepenetan mindu zezakenik ezer ez zidan aurkittu. Delako ezpañetatik ke-iario ibili bear orrek, berezibilak baño geiago sakaitzen dizkigula. Eta, arek :

—Ez! Olako ilketa lazkaririk ez litzake izango, pilipindar amonaxo igarrak bezela, tabako-orria nâskaterarik gabe erreko ba'lute.

—Zuk ori esan! Amona eta ain urtetsu ez diran emakume iarrak, eta ain segail ez diranak ere, erre eta erre sarritan ikusi izan ditut. Beren sukaldetan ez det uste ainbeste ke izaten dutenik. Tabako-aza-orria eguzkitan legortu ondoren, txukun-txukun bildu eta ezpañetan su eta sudurretik kea.

—Entzun didazunez barazki-ikasketak egiña naiz. Noskiago, landare bakoitzak bere izerdi berezia ditu. Eguzkitan zerao legortuz, landareak izerdi ori asko galdu lezake. Nik uste gure baserri-tarrak ori egiten dutela; eta, gero ezer ez erantsi. Orrela orriak garbi irauten eta aren keak erretzalleari okerrik ez egiten.

—Bai! Diostazun guztia alaxe izango degu. Bañan, emakume oriek *zerbait* izatearren ez ote-zaizkizu erretzalle?

—*Zerbait* izan!... Orixel... Izaro auetan guztiok zuztar bateko etorkiñak geranik ez det uste. Beltxaranak ba-dituzu. Beltzagoak orobat. Sudur-zapalak ere bai. Tarteka-marteko bai oraindik kistar-sinismenera iritxi ez diranak ere. Gero, nâstuak zenbait?... Orien guztien iritziak banaka-banaka nork ikasi? Izkuntzak, berriz... Sakoste eta izaro bakoitzean bat gutxienez.

—Tabako-azarenak, lenbizi garbi azaldu bear ditugu.

—Eta zergatik esango diozu AZA? Ez al liteke *barazki* izan?

—Euskera zer dan ba'-zeneki AZA esateak ez zinduke arrituko. Azak zaña besterik ez du izaten, tabakoak bezelaxe. Barazkietan azpira ondo borobil naiz luzea dizutenak or dituzu. Eta, gero, ondoan zain pizarrak, emengo aguretxo zenbaitek bixar bakanak bezela.

* * *

Geroago, SAGARBERRIA'ren erritik ego-alderago ioatea gertatu zitzaidan. Urretxuar ARGARATE iesulaguna ikusi nai nualarik *Olutanga* izarora iritxi nintzan. An amabost eguneko txangoan, ARGARATE'rekin ango bazterrak ikusteko aukera ederra izan nuan.

Olutanga'n lurrak oso azpi ioria. Len izugarriko basoa omen zan eta orain ogei urte, Asturias'tar batzuk zurgintzarako ziteken guztia ebaki eta garbittu. Arrezkero lengo biztanleek eta geroago etorriek lurraren onari liparrean igarri, ARGARATE apalak esan zidanez Pilipin guztitako tabako-aza onena antxen biltzen dute.

Delako aza mardul sail aundiak nekusazkin. Aza-landare aien margo musker ezeak, ikusi utsez, begiak pozten. Gero, berriz, eguzkitan ondu ondoren erretzen dutelarik, erretzalle guztiak ezeren kutsu txarrik gabe. SAGARBERRIA iaunak esan zidanez ezer erantsi gabe. Eztarria alperrik galdu eta birikak zakintzeko beldurrik ez.

ZALDIBAR

Buenos Aires'eko *Ribadabia* etxarte-kalea bezin luzea eta gutxigo ere ez dalarik, ILO-ILO'koentzat *Iznart* kalea zerbait izan. ZALDIBAR abizen au, kale ortan, agiri-agirian, aien etxeko irugarren bizitzan dezu.

Doibatzak eta Jaro'ko Gotzai iaunaren laguntzaz txinatarentzat eraiki ziguten ikastetxe ontan, ikasle baten abizena ZALDIBAR degu. Emengo ikasketak laister bukatuko eta ondoren ikastetxe nagusigoetara ioango zaigu. Gazte orrekin itz-egiteko aukera aundirik ez det izan. Zuzen-zuzenean arengana berriketan abittuz, ikaratu egingo litzaidake.

Beste batzuk irtenagoak ditugu, eta ber-berak asiko au eta ua galdetuz. Olakoek geroagoko ikastekoetan laguntza izan dezaten ibiltzen zaizkigu, eta beti ere zerbait irabazteko asmoz.

BARASOAIN

BARASOAIN au abizenen artean ez det ikusi. (?)

Erkalaren txindietxe nagusikoek, izen ori beren diru-txarteletan ezarri digute. Alegia, amar pesoko txartelean.

Txartelean Malolos goterkiko eliza nagusia argazkiz: nolana ere aspaldiko eraikuntza. Aspaldia ere Pilipin'etakoen iritziz neurtu bear; eta, Legazpi onera etorri zanetik.

BARASOAIN au eliz-barruti 1859 asi ziguten: ordurako kistar-sailla eliz-aterpe egokia eske zebillelako. Orain bere muga barnean 17.874 biztanle ditu, eta elizara eragozpen gabe bil ditezkenak 17.658. Beste bizilagunak ostelarietakoak, Aglipay'tar eta abar.

GEBARA

Itz au euskaldunak onera etorri-berri artan, guk orain bezela esango zutela iduritzen zait. Bañan, orain tagalo-eraz "R" gogor

oguzten dute eta idatzi ere abizen au, askotan GEBARRA idazten digute: bein baño geiagotan GIBARA.

Oraingo ontan, lekaimegoan beste izena artu zuen arren, illeta-agirian sendiko abizena ipiñi digute: GEBARA. Urte ontako ilbeltzaren ogeitabargarrenean Goikoak deitu ziolarik, ama atsekabez bete zitzaiola. Senide eta aideak er emiña ezin ibitu. Guztiek izparringi-irakurleen otoitzak nai dituzte.

Geienetan ildakoak zenbait urte zituan adirazten, bañan oraingo ontan ez.

Antza, lekaimeak adiña eta olakotxoak aztu egiten dizkigute. Aiek oso-osorik Goiko Aitarenetan zintzoago ari zaizkigu. Orrela obe! Eskeintzaz ARENAK izango giñala aitortu genduenez gero, geron etxeko eta sendiko lokarri eta arazo guztiak alde batera uzteak azkatasun aundia damaigu. Gero, berriz, gure Goiko Aita launa gu baño askoz iakintsu eta altsuago degu, eta guk egingo gendukena Arek ederkiago beteko: garai egokian: iñori miñik eman gabe: bakoitzaren eskeak garbi entzunez: malko samiñak maiteki legortuz: itxaroko gendukena esku-zabal luzatuz.

URBIZTONDO

Tartean egun batzuk ioan zaizkit. Alegia, eguneroko izparringietan agertzen zaizkigunak orri auetara aldatu gabe. Bestalde, berriz, beti, emen gu utziz, beste bizitzara aldatu zaizkiguneren izenak bakarri aipatuz aspergarri nindeke.

Gaurkoa, ain nabarmen eusko-abizena izanak aipatu nai. Biotzaren erdi-erdiko naimen sutsuz aipatu ere!

Otsail ontako irugarren egunean. Manila'ko Mandaluyong auzoan il, eta illeta-deia illaren laugarrenean agertu zaigu. Adiñeko etxekanderea, noski: irurogeitamabost urte: aizpa oraindik bizi; ezkon-aizpak eta illoba-sail ederra ere bai.

Olako illeta-dei eta agirietan ainbeste izen agertzen zaizkigula, auxe ere ikasi genezake: oraindik Pilipin'etan etxe-sendi bat eta berean askuak bizi dirala. Alde batera etxeak eta etxeko atreak beti zabalik: otz-beldurrik izaten ez dutelako'edo. Geienez ere esku-kakokoen beldurra izango eta maxiatzallien ikara ere bai.

Auxe ere oargarri: izparringian ogeitabi illeta-dei datoz eta orietako bosten eorzketa arratsaldean izango. Batek edo bestek eorzketa goizean izango dutela adirazten. Besteak ezer ez.

Bizi naizen etxe ontara Manila'ko izparringi bi agertzen: eta, beste izparringiko orrietan, aztuazkoan illeta-deiak esaten dizkigute. Agian, izparringi onek iragarkiak azalduz, geiago irabazten.

Izan ere, alderdi guztietan, egunerokoak eta aldizkariak SAL-TZEKO argitaratzen dizkigute.

IRISARRI

IRISARRI au apaiz gaztea degu. Panay'ko izaro ontan bertan jaioa. Orain apaizgaien irakasle. Amabostean bein'edo etortzen zait. Alegia, alakoxe izkutukoak aitortu bear dizkidala.

Gon-gotzai iaunak ere orixe adirazi zien: Loiola'ko Eneko deunaren seme eta iarrailea iri ontara etorri zala... eta, ala nai lukenarentzat nengola buru-zuri eta ludian berein zertxo ikusi izana.

Lenbizi etorri zitzaidan artan bere abizena arro esan zidan:

—Nere abizena IRISARRI. Bai euskotarra!!

Agian lenagokoak bai, bañan guraso eta arbaso zenbait ez det uste euskotarrak izan ditunik. Buruko illea guk oi deguna baño askoz beltzagoa, malaiotarrek duten beltzekoa, noski. Eta Formosa'n nintzala ainbat zaindu bearreko *taieldarrak* bezelakoxea: illearen margoari antz-ematen oitua nagola iduritzen zait. Aurpegiko azala ere malaio-azal arrea: emengo beste askok bezelakoxea. Auek, berak esaten dutenez sudur-zapal ditugu. Besteok, berriz, sudur-luze gera.

Noskiago, beiñola emen IRISARRI abizenekoren bat nagusi antzera ibili izana, eta arrek langille eta mirabeen artean bertako umeak izango zizkizun... eta, oiek nagusiaren abizena artu.

IRISARRI argiak emen ditudan idaztiak ikusi nai, eta Olabide'ren Itun Zar eta berria ere arakatu zidan. Erantzun-gaitz izan zitezkenak galdetzen asi aurretik Idazteuna argitaratzeko lane-tan neroni ibili nintzala esan nion.

Apaizgaiekin bertako izkuntza egoki eta iakintsuki erabiltzen ote-duten galdetu niolarik, erantzun garbirik ez zirala eman nai igarri nion.

LARRAZABAL

Izparringiak dakarrenez onera aldatuko det : Oscar de LARRAZABAL. Eta “de” au oso gutxitan darabilte.

Otsail ontako boskarrenean Manila'n il zaigu. Nik, ordea, egun ortan Agata deunarenak nituan gogoan. Ain zuzen, arako IMATZ izeneko belgundari apalak gogamenetik ez zidan ies egiten. Bein, antxe Txina'n 1934-garreneko udazkenez zerbait abesten asi nintzalarik, *Ropero Vasco*-koak atera nizkion. IMATZ'ek :

—Mutil! Ori ez dok orrela. Entzuik neurea :

Goazen! Goazen emendik ;

Emen ez dago gauz onik.

Bijar goizian bialduko'tzut

Astoa zorriz beterik.

LARRAZABAL'en ama eta emaztea eta bost seme negarrez ditugula, eta ildakoaren alde otoitzak eskatzen dizkigute.

Illotza, ortarako dituzten etxean dute. Delako etxe ortan beti izaten dezu ildakoaren senitartekoren bat, eta maitxoan ingurraztia ere bai, an zure izena ezarri eta aiekin atsekabekide izan zeranekoa garbi geldi dedin. Zerraldotegi orietara ioanez adiskideekikoa zabalago gerta liteke... bañan, bai otzago ere. Ortaraze oituak dituzunez gero, guztiok berdin egiten dute.

Eorzketa illaren zortzigarrenerako gaztigatu digute ; eta, arratsaldeko iruretan. Ordurarte ildakoarentzat mezak eta beste otoitzak toki iakiñetan. Agurtza deuna, eta bakoitzari gogoko zaiona.

ELIZALDE

Orain-orain bezela ELIZALDE au emen izenik ospetsuenetakoa degu. Noski, Manila'n geien. Eta, ILO-ILO ontan ere ELIZALDE iragarkia agiri-agirian degu. Izki aundiz, bañan gauetan argi nabarrez oraindik ez. Ez det esan nai etxe orren aurretik aruntza-eta-onuntza sarritan ibiltzen naizenik.

Amonatxoa ere ortxe bizi zaigu; bere otoitzak esatera eta lainkoari gorespen ematera iesulagunon elizara etortzen; geienetan larunbat arratsaldetan. Bere etxetik bertago an du txadona, eta ilongoeraz bere biotza Goiko Aita'ri zabaldu eziñik ez luke. Izan ere, iri ontan bizi izanez, neskame eta mirabeak bertako umeetatik artzen dizkigute. Eta nagusiek ingelesez naiz beste izkuntzaz esatari bizkor izan, bertako izkuntzan ere iaio izaten dituzu.

Or ba: amona orrek ere beti berekin ekartzen duan neskaxari ilongoeraz itz-egiten dio. Adiña aunditxoa digula, eta bakarrik ibiltzen beldurtu egiten... eta, ori berezibillean ibiltzen dalarik...

Mirabe, neskame eta morroiak aipatzen asiz, auxe esan bear egiti izateko: emen oraindik lengo bizikera zarrean dittugu. Ezik, zar-izate au noraño atzeratu iñork ez izakin... Baserrietan eta aldiri ttikietan lan aundirik izaten ez dutenez, neskametzara eta morroitzara abitzeko esparik iñork ez izaten. Gero, berriz, iri azigotan zer-ikusi asko eta izkirimiak erruz...

Ilongotarrek beren artean esana ere ba-dute:

“Txinatarren etxeetan emengo neska-sail aundiak mirabe.” Eta, “erlea zitorira bezela, txinatarra zillarrera...”

Aberatsen aurrak ikastekoetara ume-umetatik abitzen zaizkigu. Gurasoek, ordea, neskameak ttikien lagun bialtzen. Eta, neskame oriek pillan ementxe egoten dira eguzkiaren beldurrez, lenez gañera geiegi beztuko ez liraken arren. Tarte ortan zer egiten duten? Ikusten dituztenen guztien bizitza maxiatu, edo'ta erdi-lo egon koxka-ertzen bat arrapatzen ba'dute. Umeak ikastaldia bukatzen dutenean etxera eramango. Bai ta: txolartietan umeak zerbait artu gabe ezin egon, eta orduan aiei ezañak-neskameak legortuko... eta, alakoxe estuasunen bat izaten dutenean, bestelako garbiketatzak ere egin bear, usaitu ibili ez ditezen.

ILO-ILO'n, beste zenbait tokitan bezela, txinatarrak naiko sakabanaturik ditugu eta ikasleak ikastetxera bialtzeko gurtariña bear: zillarketatxoa osatuz txinatar oriek gurtariña azkar etxeratu, erabiltari-morroia artu bear izan-da ere.

Oraindik egun asko ez dirala auxe entzun nuan:

“An neskamerik aurkitu ezin zutelako, olako sendia USA'tik onera etorri zaigu.”

Eta, neskame-arazo au Euzkadi'tik asita, toki askotan Ipar-Ameriketara bezela degu. Agian Ego-Ameriketako Peru'n ez: an menditar asko nekusazkin Lima'ko kaleetan... eta, ez zuten batetxo ere aberats-tankerarik.

Pilipin'etan neskameak eta morroiak aukeran izate au, batetxo ez arrikizun. Emengo gaztedia beren txoko izkutuetatik norabait ioateko irrikitzen beti. USA'ra askuak ioaten: gizaseme gazteak osagille, eta neskatxak gaixo-zain: guztiak emen bertan ikasketak bukatu ondoren. Gai oni buruz, emen Formosa'n baño erreztasun geiago dituzte. Batez-beste alde-egiten dutenak, emakumeetatik geiago: gaxo-zain ikasketak bukatu al izateko urte gutxi batzuk aski izaten. Osagilletzara iristeko, herriz, asko geiago. Ondoren... emen mutil zar asko. Erbestetik ezkontzera itzultzen diran emakumeak oso bakan izaten.

ABOITIZ

Entzun izan dedanez ABOITIZ izeneko aukerak lekeitiarrak ditugu. Emen ABOITIZ-sendian lagun bakar bat baño geiago dira.

ABOITIZ'tarrek lana bi salletan banatu digute: itxasontziena eta lankai-salketa. ILO-ILO'n ere saltokia ba-dute: era gutxitako lankaiak ikusiko dizkiegu: geienak arrotzak eta batez ere japon-darrak.

Itxasontzien aruntza-onuntzatarako aukera izan berria dute. Geienetan Manila'tik Cebu'ra, eta Manila'tik Davao'ra ibiltzen zaizkigu. Urtero ilbeltzaren amargarrenetik ogeitaboskarrena arte ATI-ATI'tarren ikuskizunetara gizatalde aundiak pillatzen.

Orain zazpireun urte'edo, Kalibo alderdira, itxas-ertze-ertzera, Borneo'tik arrotzak agertu omen. Aiek ere nonbait bizi nai, eta Kalibo'tarrek etorri-berriei zaputzik egin gabe txoko eta lur-zati eskeiñiz elkarrekin bizi zitezkeela uste. Bañan atosketa txeratsuak luzaro ez iraun eta lipizta sortu: elkarri eraso eta alderdi bietan ilketak. Azkenekoa sakaildu arte liskartsu ibiltzea gizatasun gutxi-koa zala, eta onezkoak egitea erabaki zutelarik, gertatutakoaren oroitzaz gero ospakizunak asmatu.

Kalibo'n asitako oroitzarrietak toki geiagotara zabaldu ditzutelarik, eta orain aukerak obetu ziralarik, erritarren alaikizunera ikusleak biltzea asmatu dute. Orrela, Kalibo'ra Filipin

auetako iri azietatik ikerle-ikusle asko ioango. Noskiago geienak itxasontziz. Egazkiñez ez ainbeste. Eta beste salosketarien artean Aboitiz'tarrek ere lan orri ekin.

Kalibo'koak aspertzen diranean, beste errietan ango ikuski-zunaren antzekoak eratuko: ILO-ILO'n, Manila'n, agian beste nonbait ere bai. Toki guztietan urte-garai ber-berean ekingo ba' liote itxasontzientzat lanik ez: eta olako irietara iñor gutxi bil-duko litzakela, angoek irabazia urri...

Bizi naizen ILO-ILO ontan ATI-ATI'tarren ospakizuna ilbel-tzaren 21 eta 22 garrenean izan genduan: beroena eta zalaparta-suena illaren ogeitabigarrenean. Sariduna erabakitzea ere egun ortan izan zan.

Bañan, emengoez Eliza eta Erria txito elkarturik ibiltzea nai. Ezik asiberri artan Eliza'k zer-esanik ez zuanean: alegia, txartzat ematekorik ez zuanean, elkartzea eta adiskidetzea txito erreza izaten zutela. Aurten ILO-ILO'n asarretuta ibili zaizkigu: Eliza'k ospaketa illaren amaboskarrenean izan zuan; eta, meza eta guzti eguardean. Elkar-meza gaztigatu ziguten, eta neroni ere ioan nintzan. Berandulari ibiliz eta aldarea eguzkitan, lendik meza emana nintzan eta besteak eguzki-galdatan utziz, nere etxera itzuli nintzan. Aurretik iakin izatera txapela eramango nuan, eta eguzkiarena egingo iñori miñik eman gabe. Beste geiagio ere eguzkiaren erreari nola ies-egin ez zekitela nekuszkin.

Or ba: illaren ogeitabigarrena eguzkitsu oso. ATI-ATI auen batzarketak ikusteko asmoz Macao'tar iesulaguna etorri zitzaigun, eta arrek lagundu nezaion nai. Neronek ere lenegoz ikusten ni-tuelarik lagunari zer erakutsi-adirazi nezaioken? Ua, ordea, oso iztuna eta an zeudenekin adiskidetza egiteko egokia. Eguzki galdata eseri giñan... alakoxe beldurra nik eguzkiari, eta amabi talde izango zirala iakin arren, irugarrena ikusita itzalera baztertu nintzan. Gaia aldatuz aitortu dezadan, esandako orduan ez zitzaizki-gula asi... izan ere, eguzkialde auetan *gizarte-ordua* garrantzi geia-gokoa izan, eguzkiaren ioanean itzalak egiten digun luze-zabala baño.

Lenengo sallean Kalibo'koak berberak agertu zitzaizkigun, eta oso umeak ere ba-ziran tartean eta ain iauzigille bikain ziranik ez zitzaidan iruditu. Bigarren salla emen bertakoena: gizaseme gazte eta elduak ere bai. Ibiliaren neurria danbolin utsez egiten

dute. Bañan jotzalle asko biltzen eta ots aundia ateratzen. Bigarrenego auek ere ez zidaten zirrara aundigirik egin.

Ondoren neskatxaren *eskeintza* egin ziguten. Zurezko mai gañean ots-aundiz eta txito apañik lau aramallek neskatxa ekarri zuten. Tarte egokia egiten ziotelarik apaizatzakoa eskuan illetia eta aizto-zorrotz-kirtenduna. Salleko besteak lizar-makil ziruditen aizta-makillak eskuan. Beren oiturazko iauziak sallekoak; eta, apaizatzakoak ere bakarka neskatxaren biran iauziak zegitzin eta illetiarri aize zemaion itzali ez zedin... eta, une egokiz taldekoak oldartsuago iauzi zegiten bitartean, beste bakar arek neskatxari biotza zulatu...

Sakailduak ez dakit karraxirik egin zuan. Nik ez nuan entzun eta orrela IRATXO eta INDAR EZKUTUENTZAT beren endakoa il zutelarik, guztiak baztertu egin ziran. Erriak BESTE ALDERDI-KOEN beldur izanetik ez engoitik.

Emengo endakoek, garai zarretan olako eskeintzarik egiten zutenik entzun, bein ere ez nuan entzun izan. Oraingoan neskatxa ez zuten il: bakarrik irudiz antziñako oitura berritu.

Ospakizun auek ikustera asko etorri zitzaizkigun. Bai erbestetik ere. Eta Ipar-Amerikar omen ziran gizon-emakume aiek, doixtar iatorikoak zirala iruditu zitzaidan. Aietako bat sendiko ama, noski. Ua emakume puska! Eta aren alabak ere bai: gazte aziak. Pilipindarren artean segallagoak bat eta bi baño geiago ikustea gertatzen zaigu.

Lerroa okertu eta aria eten gabe, beldur auxe esan liteke: antziñakoen antzera orain ere gizona IAINKOTXO eta IRATXOE-kikoa nola egin ezin asmatu ibiltzen zaigula. Gizonok gerok eratutako IRATXO eta IRIZKERI geiegi ditugu: "Ludia gizakiz berialaxe beteko zaigula. Guztiontzat aña "eltzekari osatu eziñez izango gerala..." Eta, zenbait ilketa?

SUMALDE

Gorago LEGASPI aipatzean esandakoa berritu nezake, noski. Pilipindarrek "S" maite eta "Z" ez ainbeste.

Andoaindarrok "Z" oso etzekoa degu.

Gurutze Deunaren eliza ZUMEA kalean genduan. Ari len *ermita* esaten genion, eta Andoain'en Gurutze Deuna ospatuz Orri-

Ila'ren irugarreneko ospakizunak, urteko egunik alaiena genituan. Lenbizikoak ziralako, noski. Goiko eliza aunditik Zumea'ra ibildeuna. Bastero'n ere eragozpenik ez beste bitxabala zearkatzeko. Orain, berriz?

Ondoren, udako egunetan non-nai billerak eta ttunttuna eta ollasko-jokuak eta illuntzetan garaiz ezin etxeratzeak. Azkenerako, guztitara ezin iritxi eta aspertu.

SUMALDE izenekoa txirrindulari degu. Beste izaro zabalagoan bitxabalak ederrago, leunago eta luzeago dituzten ortan txirringuketa dute: laisterketara ogeitabederatzi gizaseme agertu. Onena eta bizkorrena eta bular-auspuztuenekoa nor izango?

Oraindik ez digute erabaki.

* * *

Manila'n endore izana ETXEITA degu.

Abizen au iñon ez det ikusi. Ortarako Manila'ra betazago ioan bearko nuke, eta noiz ioango naizen ez iakin.

Urdaneta, Orokieta, Mojika (Muxika), Urkitza, Altzibar, Labaien, Zubieta, Antxieta, Alaba, Arellano, Zubia, Ernani, Galarreta, Ezkerra, Abasolo.

Emengo aldizkari eta eguneroko eta beste izendegietan geiago ere bildu eziñik ez nuke.

SALBATORE MITXELENA, ABERRI-MINAK ERAGINDAKO
POETA

OTSALAR

*Zein ederra dan
olerkaritza
bihotzak min duanean!*

Aitortu zuen Salvatore Mitxelena zenak bere poema batean. Zerk mintzen zuen? Sukarrezko kristau fedea eta aberriak mintzen zuela esango genuke.

Bere gaztaroko giroak eman zion gogoetarik aski hitzezko arte-gintzara eramateko. Gudu izigarri baten ondorea eta bere herriaren galzoriak eskaini zizkion gaiak, baina baita ere fedez larri-mindurik aurkitzeak.

Bere poemak epikoak dira gehienbat, baina lirikaz ongi janzirik. Bertso egituretan berriz euskal kanta zaharren eta bertso-laritzaren estiloak erabili zituen, baina baita ere bertso librea, ritmoz hornitua.

Gerrak haustutako zaborretatik nekeza zitzaion lirika berri bat sortzea. Inguruan aurkitu zuen egoera latzak minberaturik eta go-go jaso nahirik eta jaso ezinezko poesietan abiatu zen. Errealismu latz batek bihotz mindurik eta ideal bati begira. Ideal hau, fedea eta Euskal-Herria. Eta, hemendik, garai hartan ezin zen atera oinazezkoa ez zenik.

Baina, oinazezko egunok, bere gogorako, bazuten gorde-leku bat: Arantzazuko Amaren itzalpea.

Hortatik sortu ziren “Arantzazu, euskal poema” (1949) liburutik hasi eta “Ama-Semeak Arantzazuko kondairan” eta “20 Kanta Arantzazuko”.

Arantzaz abarotzat hartze hau, L. Villasantek dionez, Montserrateko Virolairen bertso hura ezagutu gabe izan behar zuen:

*Amb vostre nom comença nostra historia,
i es Montserrat el nostre Sinai.*

Zure izenarekin hasten da gure historia, eta Montserrat da gure Sinai.

Arantzazuko kondairen poemok izan bai ziren Salbatore zenaren lehen lanak, lehen aberriminak. Sufrikario baten aterpe Arantzazu zelarik. “Euskal-Fedea, beratan, bidazti, aldapa-gora, nora datorren jakiteke”. Bere ikuspegitik eta bere gaztaro hartan hala ikusten zuen:

*Zuk zer dezu, Arantzazu!,
ames-kabi, erti-leku?...
Euskalerrria oso-osorik
kantari dijoakizu.*

Aztertzekoa litzake orduko giroa, Salbatore zenak hala ikusi zuena; herri baten hil nahieza. Zapaldurik ere bizitzaz iraun nahirik, baina izu eta ezin aurrerapiderik aurkitu, eta ezin honek bultzatu zuen (hala deritzat) herria bera Arantzazura bebes bila. Ahalmenik ez zutenek ere zerbait nahi; nahi baina ezin. Aldi ilun hura ezagutu zuen gure poetak, bere obrak hala jasoa duenez. Honegatik oitortu zuen: “honako poema hau ez dala iñorena, ez nereza. Baizik Herriarena!”.

Bere garaiko gizonarentzat kantatzen duen poetak, betiko gizonarentzat kantatzen du. Giza esistentzia ez baita belaunaldi soil batena, baiik trazendentziarena, ororena, betikoa eta toki guzietakoa.

Honegatik, lan ederra egin digute bere obra guzia bi liburutant jaso dutenek. Lehen tomoa datorren ostiralean aurkeztekotan dira, Donostian bertan. Aste oroz, frantziskotarrak eratuko dituz-

ten kultur ekintzaren artean, gaur arratsaldeko 7retan izango da lehen mahai-ingurua eta etzi bigarrena, Salvatore Mitxelena pertsona eta idazle bezala adiaraziz. Behar beharrezkoa genuen hau, zeren aspaldi ezkutuegi gelditua zen euskal literaturarentzat hain garrantzitsua den autore hau, batez ere gerraondoko lehen ekintzaren eragile eta egilerik aipagarriena zenez gero.

Aldi haretan, gure poeta hau, ohartua zen transizioko poemagintzaz ari zela, bilaketa aldia zela. Honegatik beronegatik hartu zuen herritar estiloa, bertsolari nahiz koblakari eskola zaharretatikoa, lokarturik zegoen herriaren irazartzerako hain beharrezkoa. Hala ikusi bai zuen “Herri bat guruzbidean”, nahi eta ezinarekin borrokan. Urte ilunak haeik, aterpe edo babes leku bat nahirik eta herria izuaren isilean. Dena zen eremu, eta eremuaren erditik Salbatoreren oihartzuna jaiki zen: “Aberriak min dit”.

Beretzat, “Euskalerrria lehenago, barruko edozein alderdi baino”. Gaur ere oraindik zer lezio ederra gure ikasbiderako.

Sentipen hoiegatik hartu zuen Unamunoren esaldi hura “Erri bat guruzbidean” antzekirako: “Un *miserere* cantado en común por una muchedumbre azotada del destino vale tanto como una filosofía”. Bizitzaren sentipen trajikotik hartua dela ohartuko gara.

1954. urtean Eibarren Mixio bat eman zuen E. Agirretxekin batean. Ohiturarik ez zuen asko han izan zen San Andresko parrokiari. Asis-koak berak ere ez dakit eibartar gehiago bildu ahal izango zuen, baina bai badakit han zen pizti bat ez zuela baretu, eta han joan zen Donostiako agintariengana salatari. Geroztik apenaz zuten zuten baketan eta asperturik joan zen Ameriketara mihiolari.

Bihotza hemen zuen batentzat ez zen aukerarik hoberena :

*Lur ezaguna utzirik
banoazu iraduz.
Zurekin bat eginda
nik atsedan, Jesus!*

Herbesteratzean argitaratu zituen “Euzko-gogoa”n “Erri bat guruzbidean” eta “Bizi nahi” (1955) poemak, lehenago idatziak nonbait, Bizkaiko guduaren poema epikoak, biziak, eta biziak haina minak. Poema bizkorra eta eraginkorra. Gure artean egin

den epikarik gailenenetako bat. Orduan ez zen zabalkundearen eratzeko biderik. Ez zen ahal. Eta bere poemaren mensajeak etzuen izan hedakunderik, beste olerkari guti batzuen baitan baizik. Baina, Arantzazun han utzi zuen eskola: bere lagun Alustiza "Az-tiri", bere ikasle ziren B. Gandiaga eta A. Bilbao. Horrela, Joxe Azurmendira arte kate bat luzatuaz, eta beren frutuak poeta berri askoren emaitzetan. Salvatore gabe oso nekez edo hain aberats izango ez zena, noski.

"*Unamuno taabendats*" (1958), saiaera liburua, bere azken lana, aurretikoekin lotura gabekoak itxuraz, baina funtsean honek ere zer ikusi handia du, bere barne prolematikaren eboluzioa aurkitzen delarik. Lan hau, lehen aldiz, bertsoz idatzia zuen, bertso librez gehiena, eta argitaratze orduan, zenbaiten eskariz, hitz-lauz jarri zuen, irakurgai errazagotzat. Zaitegin eskutik ezagutu nuen bertsozko hura, "Unamuno ta gu" zeritzana, eta unkiarriagoa iduritu zitzaidan. Bere taxura "Unamuno taabendats"en azken orrietan aurkitu genezake.

1970ean Jakin sortak elkar-lanean egindako liburu bat eskaini zigun, Salvatore Mitxelenaren bizitza eta lanak estudiatzen zituena, baina bere lan batzuk oraindik argitaratu gabeak zeuden eta beste batzuk aldizkarietan sakabanaturik. Poeta ezagutzeko, honegatik genduen hain premiagarria lan guzieren bilduma hau. Are gehiago, poeta bera aldi berezi baten seme eta adiarazle zen aldetik.

Zarautzen sortua zen, 1919an. Arantzazu, Forua eta Oliten egin zituen ikasketak. 1954. urtearen azkenaldera joan zen Ameriketara eta handik Suiza-ra 1962an eta hiru urte barru hil zen La Chaux-de-Fonds hirian 46 urte zituela.

Herriari herritar eskolatik hain bikain kantatzen jakin zuen poeta bihotz mindua, egoera latzean, etsi ezinez, atsekabeturik joan zitzaidun. "Aberriak min dit eta miñak olerki...". Eta maitasunez sufritu eragin zion herritik urruti, arrotzen lur hotzetan aurkitu zuen heriotzak. Gure literaturan ongi merezia du ohorezko lekua.

*Urretxindor kantaria
baso-basoan gordia
gau eta egun ospatzen da ari
maiteño ta habia.*

* * *

Salbatoren Mitxelenaren *Idazlan guztiak*, I, K. Iturria eta J. A. Gandarias-ek argitaratua kalean dugu. Lehen tomo honetan Olerki umezurtzak, Aberriak min dit eta miñak olerki, 1936 ezkerro, Guruzbidea, Euskal samiñaren guruzbidea, Arraun eta amets, Erri bat guruzbidean, Confixus eta Unamuno ta Abendats direlako lanak biltzen ditu. Hain ongi burututako liburu honek J. A. Gandariasen Aintzin solasez hasi eta J. Azurmendiren Salbatore Mitxelena bere lekuratzeko saiera labur eta A. Agirretxeren Mitxelena-ekin pentsaketan, zein baino zein saiera politagoak dira.

Idazlan guztiak deritzan liburu hau kontuan hartu gabe oso nekeza litzauguke gerra osteko euskal literaturaren ekintza beraren hastapenak ezagutzea.

ZUBEROA GAINDI

OTSALAR

“Orhiko xoriak Orhin du laketzen”, hala dio Zuberoako esan zaharrak, eta ezta harritzekoa ziberotarrei beren lurraldea laketzate; ez bai du Euskal-Herri guztiak Zuberoan pareko den tokirik, lurrez ez ezik herriz eta herritarrez. Hala ere, Zuberoa hustutzen ari da. Barkoxeko Etxahun zenak Ofizialenak deitu khandorian esanak iraunen bai du oraindik orain ere :

Oi laborari gaxua,

Hihaurek jaten arthua;

Ogi eta ardu geñhatzen auherren asetzekua,

Halere haiñ haie maite nula artzañak otsua.

Koblakariaren mende bat geroztik ere egoera berak iraunen du eta xiberotarrek ez dute beren herrian bizibiderik. Etxez kanpotik behar diren osagarriak oso nekezak dira lortzen; eta Zuberoak behar dituen erremedioak Paris-ko gobernuaren esku daude.

Aspaldi delarik, Zuberoara osteraren bat egin gabe urterik igarotzen bazait ere, aurtengo udaran bi egun t'erdi eman dituk Zuberoan, oroitzat zaharrak berrituaz eta egungo egoeraz jabetuaz. Pirineoetatik itzultzean, Oloron-dik sartu nintzen Pettarra haranera. Oloron-go erromanikoaren arte aberatsa ikusiagatik, hala ere, bikaina iduritu zitzaidan Ospitale-piako San Bladi. Izan ere hain da berezia erromes ospitalaren eliza erromaniko hau, griego gurutza-zako zoladura eta sabai-uztaiak zortzi puntazko izarra osatzen dutela, Nafarroako Torres del Río-koaren erara. Bere tipian ere badu bizantino arkitekturaren joera.

Ospitale-piatik aisa ginen Maulen, Zuberoako hiriburuan. Baina, Zuberoak, Pettarra baino atseginagoa du Basaburuua eta harat abiatu ginen, baina ez lehenago Arballa handiko Gotañen geldiuone bat egin gabe. Bertako elizak, Zuberoako beste anitzek bezala, dorre hirukoitzak du. Hauetak gehienak Pizkunde garaian eraikiak dira eta teilatuak ere, bertako etxeak bezala, gailur zutinez eginak dituzte, Pirineoak barna aurkitzen diren bezala, elurrak errazago eroritzeko eginak.

Gero, Zalgize igaroz, Irurin sartzen gare Basaburuako Ibai-exker eskualdean. Barkoxetik igarotzean lehenengo Etxahunekin gogoratzen garen bezala, Irurin ere Etxahun koblakaria (Piarres Bordaçarre) datorkigu oroimenera. Eta, Atharratzera heltzeaz, abuztuaren 26an, ostiralez, azokarekin aurkitu ginen. Euria gora-behera, jendetza handia bildu zen salerosketaren inguruan eta egun euskara da nagusi. Gu ere, jendartean nahasirik, entzumena eta ikusmena adi, harat-hunat genbiltzan. Plazako liburu-denda batean euskarazko sail bat ageri zen eta hara nondik izan nuen *Etxahun-Iruri Khantan* liburu ederra erosteko aukera. Txomin Peillen idazlea ere egun han zela jakin genuen baina ez ginen elkar ikusi.

Xuberotar euskalkiaren doinua goxoa iduritzen zaigu. Ongi ulertzeko inoiz ez dugu izan eragozpenik, poliki mintzatzeko ohitura dutenez, konpreniarazitzeko eraz jardutzen direnez. Gure eleagatik laster esaten ziguten: "manesa zira", baina ez arrotz. Non-nahiko euskaldun anaitzat hartzeko herri jatorra dugu Zuberoa.

Urteak dira xuberotarren artean holako egunak igaro nituela, eta iraganaren oroitzat datorkit bihotzaren alaiagarri.

Urrengo egunean, Athereitik Ligi barna, Santa-Engraziko Kasketara heldu ginen. Inguru haiek ikusiaz, gure Unaik esaten

zidan: Gipuzkoako parterik politenen bezalakoa edo politagoa da Zuberoa guzia. Hala da izan ere. Baina bertako jende atsegina lurraldea baino estimagarriago da. Non-nahi duzu adiskide bat laguntzeko gertu, eta arratseko azken orenetan amestu ezinezko kanta hunkigarriak entzuten dira edonon. Tristuraminez kutsaturik gehienetan, baina hala ere, nork lezakean hoiien abotsez eta sentipenez barneminak haizetara ager.

Ibar-exker garaian Kakuetakoa haitzartea ibili ginen, euria ziharduena, ibaia zehar, bidetxihurrez eta zubitxoak igaroaz, mendarte mehar haiek inoiz baino politagoak iduritu zaizkida, euria gora-behiera, eta urak irtetzen duten haitzularaino heldu ginen. Ur hauek Ernazko lepoan dagoen leza batetik lurpeko eremuetan aurkitzen den ibaiarenak dira. San Martingo Harriko leza edo Lepineaux leza (aurkitu zuenaren deituraz) bezala ezagunagoa da. Duela hamazazpi urte zortzi egunez ibili ginen leza horren barrutik Verna deritzan tokira arte. Orduko neurketetatik iriki zen Santa-Engaraziko Harphidiatik tunela eta egunen batean turismorako eran jarriko den ustea dugu, zeren hain ederra eta haindia bai da harpearen Verna delako parajea.

Eguna bukatzeaz, Santa-Engrazia bisitatu ondorean, Montoritik zehar ginen, Aretatik (Biarno) Arlasen hegietatik Ernazko lepotik Belaguara eta hemendik Izabara (Erronkari) jetsitzeko.

Urrengo egun batean Orhiko gailurrera heldu ginen: "Arranoak bortietan gora dabilta hegaletan..." kanta gure ezpainenetan genuela. Gaur oraindik, oroitzapenok berritzean, hartuko nuke ofizioa Iratirat unai, baina... Zuberoatik hain urruti bizi behararen damuan.

Euskal-Herrian ez da mendirik Orhik bezain bista ederrak dituenik. Ekialdera Pirineooko mendi katea, lehen partean Auñamendi eta Hiru Errege Mahaia direla; hegoaldera, Saraitzutik behera Nafarroako lurralde zabalak ageri dira; mendebaldera Iratiko ohianak eta Atlantika aldera eten gabeko mendi tipien kate luzea; ifarrera, azpikaldean eta hurbil, Larrañe, baserri txuriak mendi maldetan dituelarik, Bereterretxen khantoriaren oroitza daskarkigun Andozeko ibar luzea, Atharratze, Zuberoa oro, Garaziko Behorlegitik Biarnoko Aramitze aldera, gibelean Frantsiako zelai zabala agiri dela. Hain bakarti eta zut egotetik du Orhik ikuspegiak aukera hau, Pirineoko mendebaldetik bimila metroko mendietan lehena. Orhi eta Zuberoa, elkar txarmengarriago egiten duten parajeak dira.

Edozein euskaldunentzat interesgarria da Zuberoarekin harremana. Euskaldunok elkartzen gaituen sustraien erroak modako politikarien uste arinak baino sakonagoak dira. Eta hau berau ondo konprenitzeko ere, euskaldunok, guk geuk, gure herri eta herri-tarrak hobeto ezagutu beharra dugu. Hontaz eskolatik ez bai ziguten ezer erakutsi.

Orotarik baztertua eta ahantzia, hala dugu Zuberoa :

Mertzikaren loriaren ederra
Barnean du hezurra gogorra.
Maitatu dut izanen ez dudana
Horrek baitaut bihotzean pena

Eta behar bada halako saminduraz sentitzen zaitut ene barnean hain zorabiagarri zeran Zuberoa.

XVIII. MENDEKO GABON KANTAK EUSKAL LITERATURAN

OTSALAR

Azken bolada honetan XVIII. mendeko Gabon kanta berriak aurkitu dira euskal literatura idatziaren aberasgarri. Bestalde, lehendik ezagutzen zirenetaz ere argitasun gehiago dugu, egin diren azterketeri esker.

Guztiok dakigunez, Olentzarorenak izango ditugu Eguberrieta-ko kantarik zaharrenak, jentil garaian errotzen direnezkerok. Baina euskal literatura idatzia, XVI eta XVII. mendeetan landu zen Ifar Euskal-Herrian eta Gabon kantadun lehen liburua Joannes Etxeberriek 1630ean argitaratu zuen *Noelak* deritzana dugu, eta bertan jasorik daudenetako zenbait, oraindik orain ere, herriak ahoz aho ekarri ditu gure egunokarte. Egia esan, *Noelak* liburua zenbait aldiz argitaratua izan zen.

Mugazemendik, Hego Euskal-Herrian, eliz liburuxka bat edo beste utzirik, egiazko literatura ekintza ez zen hasi XVIII. mendera arte, eta lehen ekintza hontan aurkitzen dugun gairik bereziena Gabon kantak dira. Hauetako ezagunenak era berezian agertzeko eginak ziren gainera: antzerkiz publikoari adirazteko.

Lehen lehena 1759an Arrasaten aurkeztua izan zen, esku-izkribu ber berak dionez. Gabonetako ikuskizun hau Pedro Inazio Barrutia Aramaioko seme eta Mondragoeko eskribau zenak idatzia. Erarik herrikoienegina da, bere azken zati honetan ikus genezakeanez:

*Gaur dala Gabon gaba,
Gaur dala Gabon,
Gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon.
Ots begi danbolinak,
Lutua ken bidi,
Fiesta degiogun
Infante oni.
Zerureanik dator
Gure artera,
Erratuai bidia
Erakustera.
Emaitera dator
Milla barri on;
Gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon.
Ezta besteren eske;
Biotzak bakarrik
Beretzat gura ditu,
Beste bagarik.
Kunplidu egiozu
Jaun oni naia;
Beroni sal erozuz
Biotz guztia,
Ordeaz bera zeuri
Dakizun emon;
Gaur egiten jaku
Jangoikoa gizon.*

Koruaren azken kanta da hau, baina tarteka koplak zaharretan egindako bertsoak dira politenetakoak. Pertsonaje zelebrerik ere bada bertan eta Grazioso deritzan batenak umore gardenez beterik daude, “Lian lan bere,…” errepikaz kantatzen dituenak batez ere.

Bizi bizia eta entretenigarria da antzerki hau, Belen Arrasate-tik hurbil jartzen duelarik eta bertako herritarrek Jaiotzaren inguruan kantari direla, estampa politik anitz bada.

Franzisko Xabier Maria Munibek, Peñafloidako kondeak, Sor Luisa izenordetzat harturik argitaratu zuen 1762an, Azkoitian bertan, “Gabon sariak” izeneko antzirudia. Bere obra jakitunago batena da. Segidilla eta aria politikak ditu, baina bertako koplak ez dira txarragoak. Egileak hitzaurrean agertzen duenez, Martin Beltz izeneko batek lagundu zion bere bertsoagintzan. Barrutia baino gehiago lotzen da Bibliako pasarteeri, baina Mundragoekoak irudimen berezia nabari du.

Hara hemen Muniberen koplak jostailuetako baten zatia :

*Ezagun du munduak
Jesus jaio dena;
Ain dago mudatua,
Ez dirudi lena;
Len guzia zan pena,
Negar, naigabeak,
Ta oraiñ atsegiñ, gusto,
Algara, parreak.*

Sor Luisaren izenpean nor gordetzen zenaren zalantzak gure egunok arte iraun dute. Jose Manterolak Munibe Peñafloidako kondearenak ziren ustea zuen, “El borracho burlado”ren egile berarena. Azkenik, J. I. Telletxea Idigoras-ek uxatu zituen azken zalantzak, Amigos del País-ko Boletinean eta *Papeles viejos* liburuan argitaratu zituen ageri zehatzekin.

Antzerki eraz agertzeko egindako bi lanok, Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu eta Ubillos idazleen lanekin batean, Hego Euskal-Herriko literatura landuaren hastapenetakoak izan ziren.

Gabon kantetan lehenagokoak ditugu Gernikako De la Gandara deiturako batenak, Telletxea Idigoras berak Larramendiren paperetan aurkituak, eta geroago, osatuago eta zaharragoak J. A. Arana Martijak aurkitutako izkribuetakoak. Ikus, 1757ko kanta hauek "Euskera" aldizkarian argitaratuak (Euskera, XXI, 1976, 89/98 orrialdeetan). Guziak, zein baino zein politagoak, elkarrengandik aski bereziak dira.

Baina, bada besterik ere. Denok dakigu Hemeretzigarren mendearen lehen partean Bilbon bertan urtero Gabon kantak egiteko ohitura zela eta hoietako asko egin zituztela Bizenta Mogel eta Paulo Ulibarrik, honen gutunetan eta L. Akesolok egindako azterketetan ikus dezakegunez.

Horien biltze eta atontze lanak ere egiteko ditugu. Literatura alorrean ere, gogoia duenak badu non landu. Zeren biltze eta klasifikatze lan hori ere egin beharrezkoa bait da, eta hori egiten ez den artean euskal kulturarekin zordun izango gara, bai literaturaren mailan eta bai linguistikarenean.

Hamazortzigarren mende hartan, Gernikako De la Gandara-renak baino lehenagokoak dira Bilbon bertan San Franzisko komentuan kantatzeko eginak, 1755ean Fr. Martin Oarabeitiak, komentu hartako organista eta kapera maisu zenak musikaz jarriak. Euskarazko Gabon kanta haiek, behar bada, "villancico" bezala ezagutzen diren zaharrenak izango dira. Orri soil batean inprimatu ziren eta Juan Ramon Urkixok denbora asko ez dela birargitaratu du.

Ageri denez, garai haietan aski zabaldua zen Gabon kantak egiteko ohitura. Joannes Etxeberri Ziburukoaren ondorean, mugazemendik lehen lehena behar bada, ezagutzen ditugunetatik, Donostian bertan 1691an Nikolas Zubiak argitaratu zuen "Doctrina christiana" hartan jaso zirenak izanen dira noski. Zortzi bertso haietako estanpa polit bat, hau da :

Donzella eder batek

Belengo errian

Seña Iesu Christo

Dauko sabelean.

*Eguzki dibinala
Gaberdi batean
Etorri zan lurrera
Gizonen soñean.*

Eta artzainen elkarrizketa honekin bukatzen da :

*—Matxinikito!
—Zer diok, Txeru?
—Atzorik ona,
Ze barri dogu?*

*—Barri dogu ze
Angeru milla
Gure menditik
Igaro dira.*

MOTIVO ESPAÑOL

ELIZALDE

Kontaketa hau, dena den, Alcalá de Henares-en idatzi nuen lehen aldiz, 1947-an, ni ere juizioaren begira, beste asko bezala, nengoen bitartean. Bizkunde haroko Unibertsitate sonatutik ez urruti, bi presondegi ziren han orduan. Bitarteko paretak baizik bereizten ez bazituen ere, biziki ezberdinak ziren, elkarrekin har-emanik ez zuten monada bakoitzak. Lantegi gisakoa zen bata, aspaldi ez duela, eta zenbait preso barrenen giltzatuak gelditu zirela, erre zena. Hor aipatzen dena bestea da, inoiz galera izana, hots, emakumeen presondegia eta gero, zenbait urtez, Eimar koronelaren erreinu beltza, gartzela hustu eta gartzelakook erabat Ocañara eraman gintuzten arte.

Lerro hauek zenbait ukitu pairatu behar izan dute. Argitaratzekotan nintzen beti, Espainiarik aipatu gabe edo, eta beti gerorako uzten nuen, azken orrazketa eman gabe. Izan ditzakeen aldaketak, nolana ere, hizkerari bakarrik dagozkio, zegoen zegoenean gelditzen delarik gainerakoa. Alde hortarik ere, ez dut gehiegi aldatu. Zahar kutsu horri, nik uste, errazki antzemango diote gure idazle gazte bel-durgabeek.

Atxakia bila banenbil, esango nuke, gezurretan hasi gabe, ez dudala euskaraz hontaz kanpora deus kontatu, zerbait idatzi badut ere, eta erdaraz deus gutxi. Barkakizun izan bekit, beraz, behar nuen bidea hartu ez badut.

Hemen agertzen diren *dramatis personae* bakanez hitz bi esan nahi nituzke. Hizlaria eta idazlea ez dira berbera,

hark nora ezean honen kutsua hartu badu ere. Mintzatzen dena ez da, euskalduna ez ezik, ezta euskotarra ere. Dakidanez, Madrilen bizi zen, bestetan jaioa —Gaztelako herri larri xamarren batean— izanik ere. Bestea, eria, ez da asmatua inondik ere. Eta honek, Madrilen bizi bazen ere, bazuen loturaren bat Euskal herriarekin, hemen inoiz bizi izan zelako bederen eta, oker ez banago, hemen-go batekin ezkondua zegoelako. Zorigaiztoz, eta negargarria ere bada, ez naiz bere izenaz oroitzen.

Aberats gara historiolaritzan (*magnum prouentum historicorum saeculum hoc attulit*, esan dezakegu, Plinio gaztearen hitzak pixka bat aldaturik), beltzak eta zuriak, zeruak eta lurrak ditugula arteko, eta ez nuke inor mindu nahi aski eta gehiegi dakizkien gauzak esplikatzen hasten banatzaio. Badakizue, beraz, zer zen “Unión Nacional” eta zeren bila zebilen; badakizue ere nor zen Monzon (Jesus) nafarra eta iruin-semea eta zenbatetaraino izan zen elkarte horren sortzaile eta eragile, eta zenbatetaraino ez zen izan. Orduko zenbait izen, Simón Sánchez Montero-rena, esate baterako, hagitz ezagunak baitira egungo egunean. Beste zenbait, berriz (hala nola Ocañan afusilatu zuten Zoroa-rena), ez hainbeste. Inoiz pentsa daiteke *damnatio memoriae* baten zigorpean gelditu direla hau, hori eta bestea.

Lerro hauek guztien, hilen eta bizien, goretzien eta gaitzetsien, oroitzapenetan doaz argitara. Borrokalekua elkarren aldamenean izan genuenok, hango nahiz hemengook, ez gara elkarren adiskide agertu beti. Adiskide ez, behar bada, baina bai, nahi eta ez, elkarren lagun, ahaide eta are senide. Senide haserre eta sumindu, nahi baduzue.

Idazleak gorrotozko uzta joriaz orduan pentsatzen zuena ez zegoen agian orain axaetik begiraturik dirudien bezain oker. Lekuari dagokionez egin zuen kolpe huts. Hark inorengan ikusten zuen sua etxean biztu zaio, orduko amesgilea bera ere irentsiko lukeen neurrian. Barka bekio, arren, idazlea baitzen bere kaxkarrean eta ez profeta. Nola asma zezakeen sekula tirorik entzun ez duten olerkaririk bakezaleenak ere gudari bipil bihurturik aurkitu behar zituela gurean?

Egunaren hurren eguna berriz ere. Eta badirudi, halaz guztiz, arestian ohera naizela. Denboraren lasterra!

Egunorokoari ekin beharko orain. Errejimeneko bulegoan nago eta ez dut lanari buruz kezakizunik: ez da ez neketsua ez aspergarriegia. Gaur, nola sarrera nahiz irteera berririk ez omen dugun, ez dut agertzeko presarik ere. Ez da egiteko astunik izango. Gero, beti bezala, hor etorriko zaigu gure don Pedro. Bizkor horietakoa ez da, behar bada, baina bai aski prestua. Hori, eta ez da hutsaren hurrena, ez dago ukatzerik. Ezta gaztetango beroaldiak, neronen gisan, epelduxe dituenarentzat ere.

Benetako adiskidetasunik ez da, egia esan, gure artean. Nekez izango ere, gainera, daramatzagun uniformeek, grisa bata eta berdexka bestea, bereizten gaituzteino. Kanean bageunde, oraindik, ez dakit. Nolanahi ere, nere gauzen berri jakin nahi izaten du, lehia gogaikarririk gabe. Horren truk, eta hona non dagoen ajea, bereak ematen dizkit aditzera. Kezkatzen duten buruhaustek kontatzeaz gainera, burubide bila ere jo du neregana behin baino gehiagotan.

Urrikari dudarik ez nuke esango. Gehiegixko ere balitzateke horrelakorik niri, neure buruarenganako kupida azkenik hastandu dudan honi, eskatzea. Daitekeena da, ordea, nik esanak horrexetik beragatik probetxuzkoago izatea, inoiz edo behin bederen.

Barregarri ere bada, harrigarri ez ezik, hura ibiltzea nere ondotik bere ezbehar eta larri-aldietan. Arrazoizko da, haatik, ongi begiratuz gero. Burua urdinduxe duenean lau seme-alaba eta emazte erixka baten jabe gertatzen den gizon helduarentzat bizia ez da maiz aski ihespiderik gabeko zoko galdua baizik. Nik, berriz, ez dut kezkarik. Zorioneko ere banaizela —gizakumeari dagokion neurri murritzean, jakina— esango nuke, antzinatik datorren goganbehar beltz hura somatzen ez banu neure baitan: horrelako hitz harroak direla medio norbaiten, ez dakit noren, ezin-ikusia neureganatzeko ikara, alegia.

Ez da beti horrela gertatu, ezta alderatzeko ere. D.G.S.-eko kalabozoetan, poliziaren kontrato borrokak artegatzen ninduen batipat, eramanaren podorioz eta maltzurkeria bitarteko, beti zapaldua neunkatelarik, ari nuen borrokak. Galdaketaz-galdaketa nerabiltenean, eta are gehiago gelazuloan ahazturik bezala nengoen bitarte luzeetan, neureari eusten nion, ernai eta gogor. Hor-mak eta errajak gora-behera, besteri lotua nengoen, kaleko lagunei,

eta odol nahiz amoriozkoak ez bezalako lokarriz lotua, gainera. Gau batez, azkeneko saioa bukatu, alai nenkartzen neure zulora, gailen ikusten bainuen neure burua aitortuak izenpetu ondoan. Garaipen honek, jakina, ez zuen inolazko zer ikusirik espero nezakeen etorkizunarekin, ez bainintzen artean etorkizun hortaz arduratu. Preso hartu nindutenetako bat nuen aldamenean: gazte, ile-horixka, itxurazkoa, gorbata urdina zerman, ongi gogoan dut, gorritz barratua, ez arian begiak lotzen zizkidana. Hizketan zetorkidan, irrimurritza ezpainetan, kontent hura ere bukatu genuelako. Ez zen, noski, lagun-arteko berriketarik, niganako agertzen zuen halako urriki hotza baizik. Eta berriz giltzapean uzteko puntuan, honelako zerbait esan zidan:

—Beno, beste bat arte. Ez zekiat ze arraiogatik sartzen zaretzen horrelako istiluetan. Ea jasoko duan urte mordoxka hori ez den gehiegizkoa gertatzen. A, lehengoa ahaztu zaidak, jakina, eta haren kondizionala...

Eta hitz biluzi hauek gelditu zitzaizkidan, egun haietako irain eta zakarkeria guztien ondoren, gogoan josiak. Loak aldegin zuen. Hitzok belarrietan nituen behin eta berrero, gau t'egun, kupida aire harexekin berarekin. Eta haien oihartzunak ikuskari bat, ustez atzendua, zekarkidan gogora, begien aurrean balego bezain argi. Bost urteren buruan, izan ere, izan zuen asti begi-muinetan ongi itsatsirik geratzeko. Aldatu arren, beti bateko irudia: patio zabala, lau aldeetarik adrilu gorritzko etxez inguratua. Kolore miragarritz jazten du eguzki berriak, distira haserrea dario eguerdian eta bake hosinean murgiltzen da ilunabarreko ordu arrear. Bakartasun-ugartea, pareta altuz hesia, jendetza izengabearen golkoan. Ixiltasunezko ur geldi hartan denbora badoa eta, halaz guztiz, egonean dago. Urte-haroak ez dabilta, ibili, elkarren segidan: betiko leloa dute berritzen, aspertu gabe, negua neguaren pare, uda udaren...

Bi urte eta joan dira geroztik. Baldin aipatu dudan sosegu hortaz hasiera-hasieratik jabetu nintzela banio, gezurra nioke. Hasi berri hartan, baita geroago ere, neure erorikoaren ingurumari guztiak aztertzen nituen etengabe. Ezinbestean niharduen horrela, ezin-bentzutuzko indar baten morroi, gogoetaren gogoetaz gertatua desgertarazteko modurik balego bezala. Egin dezagun kontu egun hartan, bezperan nahiz hamabost egun lehenago agitu zen zerbait apur bat —pittin-pittin bat— aldatzen dugula. Eta hona non, alda-

keta huts hori dela bide, beste gertakari andana sortzen den, bata besteari lotura estuz lotua... eta, halere, preso hartzen ez naute- larik. Eta bestelakatze hori, nola edo hala, hogeï, ehun, mila bider lortu nuen. Joko horrek, gauz batipat, etsai gaiztoa bailitzan menderatzen ninduen eta ez zen eskapatzerik.

Gero, urteen joana dago beti gogoan nahiz gogapean. Bai, badakit esana dudala, behin baino gehiagotan, denbora ez dela mugitzen leku hauetan, eta ez diot neronen esanari ukorik egingo. Ez du oinik higitzen, baina oinatza uzten du ondotik. Guztia erre- tzen eta suntsitzen duen errekaia da: ilea, hortz-haginak, azala... Eta hori guztiõri, sentikoitasun zorrotzago baten bitartez, nabari duzu zerorrek, den ttikiena dela. Erretzen ari den kandela zara, erretzen ari zarela dakizuna. Garrak ez dizu minik ematen, baina, zeure burua deuseztatzen ari dela dakizularik, sudurretan duzu beti urtzen ari den argizagiaren kiratsa.

Gero, poliki-poliki, bakeak egin nituen neure buruarekin. Be- rez nagusitu zitzaidan aldarte hori, ez saiatu nintzelako, segur aski, eginahalak egin arren baizik. Arian-arian ulertu nuen, argi baino argiago, ez nuela nik nengoen egoeraren kulparik: ez nik, ez don Pedrok, ez beste edozein goardiakok, ezta azkenik juzgatu ninduten militarrek ere. Ez zegoen inoren bizkar egotz zitekeen erantzukizunik. Are gehiago, eta hau da gehien zihoakidana, behar bezalakoa zen nere egoera. Ez zen, zeru garbitik behera amiltzen den oinaztarriaren pare, ustekabean jo ninduen erauntsi mires- garria. Ez. Neronen zoria zen, neure herriarena, neure belaunal- diarena. Saihestu nuen, bada, anartean suminez bezanbat saminez oinazetzen ninduen neure buruarenganako kupida. Bestelakoa zen, egia, zenbait kidekoren zoria eta, hagitx bestelakoa izateaz gainera, baita hobeia ere, itxuraz behintzat. Besterena zen, ordea, ez neurea eta azkenik heldu nintzen, egiaz ari naiz, hori bekaitzik gabe aitor- tzeraz.

* * *

Aldi joana ixila dut eta ez nau ustekabean asaldatzen. Haur- tzaro eta gaztarokoa suntsitu zen: beste mundu batekoa da eta ez dut aspaldian mundu horrekin lot nazakeen elkarbiderik. Bes- tea, arestikoa, hain izan zen laburra... Urtebete irauñ zuen, doi- doi. Orain gogora dezaket larritu gabe, baina ez naiz hartaz gehiegi arduratzen. Gibelaldean, urruti, dagoen oihala da, erdi argi erdi ilun, eta lehenak zauri ez nazan, kristala dut bitarteko.

Lanean ari nintzen, gau t'egun. Hala behar ere, gogorra baitzen bizitza, batez ere urte hilen pisua arrastaka generamanentzat. Berandu agertu nintzen, gainera, leku hutsik gelditzen ez zen mundura. Lehian atertu gabe, berriz eta berriz. Eta han nonbait, zoko izkutuan, ehiztarien ihesi dabilen pixtiaren sena, zelatan daukan arriskuen bigira.

Orduan ezagutu nuen. Ez naiz ongi oroitzen noiz eta nola egin genuen topo lehenbizikoz. Bestela bezala gertatu zen, ez bainion nik antzeman berekin zekarren izkutua. Hurbiltzen gindoazkion elkarri konturatu gabe eta bat batean eguna zabaldu zen ene baitan, eta aspaldidanik ametsetan ere ahazturik neukan soinuaren lehen hotsak entzun nituen berriro.

Udaberri hatsarrean, gogoan daukat, elkarrekin gindoazen igandegoi batez, aldirietan barrena. Lanbroak, eguzkiak artean uxatu ez zuen lanbroak, bere ganduz estaltzen zituen bazterrak. Haren besoan nuen eskua eta ukitze arin horretan bizi nintzen ni oso osorik. Hotzak zurbildua zuen aurpegia. Noizean behin, haize mehearen hotzikarak iharrostoen zuen eta, batak besteari begiratzeko genionean, den-dena —hura, ni, inguru lanbrotuak— gatzaturik gelditzen zen, sosegu betezko geldiune soil batetik dilindan.

Neure burua berriz ere presondegian ikusi nuenean, haren irudiari lotu nahi nintzaion eriosuar. Haren beroak inguratzen ninduen ametsetan eta eguargiz. Elkarri idazten genion. Gero, ez dakit ongi zer gertatu zen. Bitarteko genituen kartek eskaintzen ziguten gaia idorregia zen, agian, eta alferrik egiten genituen leherrenek asperturik eta gogaiturik utzi gintuzten azkenean. Dena den, gero eta bakanago agertzen ziren eskutitzak; azkenik, mututu ziren. Ez diot sekula txartzat hartu. Horrelaxe garabiltza bizitzak. Hura urrundu zuen eta azken batean nerau naiz, segur asko, urrutien saihestu nauena.

* * *

Neurean naiz berriro. Beharrik (hola aitortu behar orain), ez nintzen luzaroan libre egon, gero mira egiteko adina ez, bederen. Aspaldiko bazterrak ezagutzen ditut eta haien neurriei egokiten saiatzen naiz, debeku larririk gabe. Kondenatu berri hartan, mingarri zitzaidan penatuen uniformearen jantzi beharra. Orain ikusten dut zein oker nengoen. Hori zen, izan ere, niri zegokidan jazkera, beste edozein jantzi-erantzikoa bailitzateke neretzat. Grisa

da kolorez, apala, eta soinean dudanean naiz naizena: itzal-herriko itzal ilauna.

Ezinzirik ez dudala esana dago. Edozein aldetarik begiratura, pasamodu moldatzen naiz. Gainean dudan zigorra, zortzi urte, ez da gehiegizkoa. Hortaz gainera, bai, bestea dago, gerratekoa. Lintzura lintzuraren hurren, eta zenbatenez ere lehiatzen zaren oinak lehorrean landatu beharrez, hanbatenez murgiltzenago zara lokazpean. Zorionez, ordea, hemen pasa beharko dudan epea luzeegia da, onenean ere, hainbeste lagun atzipetu dituen kontaketa likits horretan neure burua iraultzeko, falta diren egun, aste eta hilabeteen kontaketa, gehigarriak eta ken-beharrak barne. Egunoroko kontaketa aspergarriaz ari naiz, azken ekoizpena alde zurretik dakiguna izango ez delako irudipen zoroz behin eta berriro hasten dugunaz.

Bizitzeko adina badu gorputzak. Badut anaia, anaiak lagun-tzen dit eta laguntza hori, hemengo lanbideak ematen didanaz gain, aski eta sobera dut. Haren laguntza ez da beste mundukoa, egia, baina nola eska gehiagorik? Gehiegi ere egiten duela iruditzen zait, zenbaitetan.

Haren bisitek, lehenbiziko hartan, nahigabetzen ninduten. Ezin konpreni hark, etxea oinarri sendoen gainean eraiki uste zuen guraso hark, nere jokabidea: erokeria, bere iritzi zentzudunen arabera. Ni, berriz, zaurietan zirika somatzen nueneko, hitza ezpainetarik jaulki baino lehen sumintzen nintzaion. Izan ere, neuri zegokidan, ez besteri, neure bizkar eroria nuen zorigaitztoaren erantzun-beharra eta, hori zela bide, maiz azkendu genituen geure ikustaldiak haserre bizitan. Orain, besterik da. Ez dut uste ene jokaera ulertu duenik, baina badirudi behintzat nitaz eta neure zoriaz etsi duela. Nik, aldiz, bere buruagan eta zimendutat hartu duen lurrean hain dut aurkitzen fidatua, non inoiz edo behin beldur bainaiz ez ote dion lur horrek huts emango egun edo bihar, haurtxo bat bezain ahul eta zurtz gelditzen delarik. Ez dakit, gainera, beldur naizen ala gogo dudan.

Orain ez dut deusetan larregi sinesten. Denbora batean, ordea... Orduan neure buruarenganako adina neure oinaze-lagunen-ganako sentitzen nuen urrikiak zapaldua nendukan. Zuri eta beltz ikusten nuen zuzentasun eta bidegabekeria hitzen erabateko balioa. Munduak ezin zezakeen eraman eta ontzat har hemen barrena ikusten genuenik eta, goiz edo berandu, saiatu beharko zuen makurrak

zuzentzen, zauri gaizkoatuak gorputz osoa ustel ez zezan. Ez jakin nik artean gorrotoa eta indarkeria munduaren errai-erraietan kokatuak ditugula. Ene xinplekerian, borroka, nolabait esan, on eta gaizkiaren artekoa zelakoan nengoen. Geroago ikasi dut gizonen hitz sutsuek, gora-goraka garraren irudiko dabilzanek, ez dutela zer ikusi askorik gertakizunekin. Doinu ederra darie, baina ez dator bat gauzen marmar traketsarekin.

Kaleko lagunak joan zaizkit gogotik. Halako batean, hemen topatu dut bat edo beste, gure artean. Aldatu egin gara, ordea, bai haiek eta bai ni. Etena da antzinako lokarria eta oroitzapena bera ere ezabatuz doa.

Ez dut adiskiderik. Ezta premiari ere, neure buruarekin ongi konpontzen naiz-eta. Patioratzen naizenean, gogoz egoten naiz lur-koloreko nekazari talde bati edo besteri begira. Ez dakite behar bada zer-nolatan jo duten honera, baina ez dute haatik ez auhenik ez arrenkurarik ixurtzen. Ez diete, gainera, kasu gehiegirik egiten esplikatatu nahiz etengabe ari zaizkienei.

* * *

Adiskide bat izan dut, egia esan; ez, haatik, bila ibili nintzelako. Herritarra nuen, eritegian zeukatzen gizon heldua. Halako handitsu gisakoak sortzen zitzaizkion iztarte-galtzarbeetan, hemen desagertu ahala han agertzen zitzaizkionak. Hauek ziren, behinik-behin, gogoan ditudan gaitzaren ezaugarriak. Gaitza zein izan zitekeen ez dakit nik, ez zekien berak eta ikusi zuten medikuek ere ez bide zuten ezagutzen. Guztiok genekiena, eta berak ere bai apika, axalean besterik sinetsi nahi bazuen ere, hauxe zen: ez zuela sendabiderik. Ez dakit zerk neuregana zuen hain bortizki. Aldi joanak, noski: ezinarekin borroka berriz, bederik behin, ikusi behar zuen aldiak. Nigan jaioterria somatzen zuen nonbait, igande arratsaldeetako bake eguzkitsuan emazte-alabekin egiten zituen ibilaldiak, plazan gazte-jendea dantzan ari zen bitartean. Erregaliaz betetzen ninduen eta emazteak, Jainkoak daki nola, sortzen zizkion huskeriak niri harrerazi beharrean zebilen beti. Eta kontu gero, nik inoiz neure aldetik zerbait eskaini nahi banion! Aldamenean behar ninduen, eritegia zabalik zegoeno. Lo-zorroan aurkitzen nuen zenbait aldiz, sukarraren mende; ernai, berriz, beste zenbaitetan, hobeki zegoelako pozez. Honelakoetan,

patxara ederrean mintzatzen zitzaidan familiaz, denda-mutil gisa pasa zituen urte luzeez, gero, lanaren podorioz, denda-jabe bihurtu arte.

Noizean behin, bere hondamendia eta etxekoen eramankizunak gogora zetozkionean, haserre kiskalgarriak hartzen zuen bat-batean. Izan ere, bazuen haserrabiderik, gauzak harako zenbaiten ahotan oraindik "normaltasun" deritzan haren neurritz neurtzen badira, behinik-behin. "Unión Nacional" zela eta, juez agiriak zioenez, diru pixkaren bat eman zuela, zenbait paper irakurri eta zabaldu, eta kito: hamabi urte eta eguna lepora zizkioten. Bera, ordea, nahiz holakorik franko gertatu bazterretan, etsi-etsia zegoen berari egin zioten bidegabekeriak mundu osoaren izaera eta egoera nolaerebait bere onetarik atera zuela eta destokitze horrek ekarri beharko zuela, nahi eta ez eta luzarora gabe, zegokien eraso ikaragarria bere borroeroen gainera. Nik, jakina, ezin nezakeen horrelakorik sinets. Pertsona gehiegi ikusi baititut heriotzera zera-matzitenean, egungo egunean nik eta bestek ahazturik dauzkagunak, eta haien hitzak entzun, esperantza horrek, zuzen-egarri horrek berberak sutan zeuzkanak. Ez nion, ordea, ezer esaten. Irudipen hori zuen, segur aski, gorputz ustelduxeari osorik eusten zion lokarri bakarra.

Ahulago zegoenetan, kartak idazterazten zizkidan, eta ez zen atsegin izaten ahotik zerion nahaste urrikalgarri hura entzutea. Emazte-alabak, berak urrea bezala bizitzea nahi, merezi zuten gisan, eta mixerian ikusteak kupitzen zuen. Neskametzan zebilen emaztea, alaba berriz aurtzai edo zeukan nonbait eta ezin eraman zezakeen haiek horrela ikustea, premiazkoenari ere uko eginaz, berari hain janari garestiak bidal ziezazkioten. Eta halako batean, besterik gabe, sumintzen zitzaien eskatua zeukan hau edo hori pardelean etorri ez zelako. Eta hori noiz gertatuko eta orain gertatzen, hain zuzen, medikuak hitzeman zionean ez zeukala gaitzik egonak eta ongi janak sendatuko ez zionik. Nahigabe oihuaz bukatzeko: "Ez dakizu, ezin jakin dezakezu, kuttun horrek, zenbatetaraino mintzen nauten nere erruz, nere erruz bakar-bakarrik, ikusi behar dituzunak. Inoiz edo behin, behinik-behin, paga albanitza nik nolazpait ere ni naizela medio sofritu dituzuen nekeak!" Orixe zeukan gogoan josia, eta behin eta berriro, aterraldirik gabe, agertzen zen lelo hori jasotzen zuen, haren ahotik jaulki ahala, nere luma hotzegiak, ikararik gabe.

Emaztearenak ere erakusten zizkidan. Ez zuen letra batere itsusia, astiro eta nekez idazten duen pertsona batena izan arren: “Nola pentsa dezakezu, Antonio bihotzekoa, zutaz ahaztu naizenik? Joan den astean ez nuen eskatzen zenidana bidaltzeko modurik izan. Ez berandets, ezinbestekoa izan baita atzerapena: hurrengo aldian hartuko duzu. Diozun botika hori ere sortuko dizut, luzatu gabe. Eta, batez ere, zaude trankil, larritzeak beste edozerk baino kalte gehiago egiten dizu-eta. Ez duzu gutaz arduratu beharrik. Ongi konpontzen gara.” Eta azken aldera nexkaren eskutikako lerro pare bat, zuzen baino okerrago amaren esanera eginak. Iluntze oro, han uzten nuen eritegiko ohean, karta eta oroitzapen. Ira-txoak ere, gau ixilean lapur-antzerara barrentzen diren aurpegi nahi-gabetuak, ez zebilzkion urruti.

Kemenak ahitzen ari zitzaizkion, nolnahi ere, eta ezin gorde bere buruari gaitza gaizkitzen zihoakionik. Halaz guztiz, medikuen zabarkeriak eta sendagairik ezak zuen errua, ez bestek. Ai, behar bezala zainduko balute!... Eginahalak eginak ziren eripresondegri batera eraman zezaten, baina hortarako behar zen agindua, hila joan eta hila etorri, ez zen oraindik ageri. Horrek erretzen zuen gizona, ikusten baitzuen, ikusi, egunak igaro ahala, esperantza ere urritzen zihoala.

Agindua etorri zen azkenik eta eramaileak ere bai, agindua-rekin batera. Berri honek, ordea, hainbeste hilabetez gogoan eta ahoan itsatsia zeukan berriak, poztu beharrean, beztiduraren irudiko ixiltasun beltz batez estali zuen. Igerri zion, nonbait, tokialdatze hori ez zela itxaropidearen hasiera, azkena baizik. Mutu eta uzkur, arretaz bildu zituen bere puskak, eta ez zion inori laguntzen utzi. Nere besoaren arrimuan ibili zen azkeneraino. Aldendu beharra ailegatu zenean, estu eta larri lotu zitzaidan besarka, niri eta bizitzari batean agur egiten bailigukeen. Kezkatan nengoen ez ote zitzaidan erantzunaren motelaz ohartuko, baina ez zen kon-turatu, gainezka zeraman oinazean igeri baitzebil.

Egun gutxi barru jaso nuen agindu zidan eskutitza. Bizpahiru karta joan eta etorri ziren, presondegitik presondegira ibili ohi diren kontrabandokoak, hutsaren hurrengo huskeriak itzulingururik nahasienez bidez adierazten dituzten horietakoak, alegia. Gero, hilabete batzuen buruan, hilberria etorri zitzaidan, soil-soilik. Ez ninduen ustekabeko saminez jo. Ez zen ordurako errainu hits bat besterik. Ondotik pasatzen zaizkigu horrelakoak, hurbilxeago nahiz

urrutixeago, biziak edo eraginik, eta ezerezean murgiltzen dira gero, gartzelaren lau paretak inguratzen dituen ezerezean, harria itsas hondargabea hondora doan moduan.

* * *

Bada beti hemen juizio-zain dagoen jende berririk. Iturria ez da agortzen, eta hala behar ere. Eskarmenturik gabeak dira batzu, ezina egin nahian penagarritzko estiran luzaro urratzen direnak, hemen bizi behar baitute gorputzez gogoa kanpokoei lotua dagoen bitartean. Beste batzuek, berriz, ia Espainiako presondegi guztiak ezagunak dituzte. Maiz jotzen dute neregana bere arazoe-kin, dudan karguak bai baitu nahikoa zer ikusi hemengo bizi-moduarekin. Hori dela bide jakin ohi dut besteren iritzi, asmo eta ametsen berri. Eta, nahiz hauek aski ergelak izan frankotan, zuzen ateratzea ere gertatzen da, eta ihes egiten didate orduan neure eremuetarik. Nolanahi ere, etsirik ez diot inori ematen. Ez nabil horien gezur-ametsen premian, baina ederki ikasia dut, neure bizkar, ikastaldi neketsu batek bakarrik eraman gaitzakeela geure buruaren jabe, ez irudipenen eskuko, izatera.

Gau batzuetan, ohi baino alaiago etzaten naiz. Halako ezinegon beroa nabari dut gogo barrunbean. Ongi ikasia naiz egiaz mantentzen eta izen kontsolagarriak zokoratuz izanari atxikitzen. Badakit, ordea, gorrotoa ez dela izen soila, gaur ezer baldin bada. Eta pozik nago, bai baitakit ongi baino hobeki, burukipean gogor eta biribil baneuka bezain ongi, ereindako hazi ugaria hazten eta mardultzen ari dela ni lo nagoeino. Eta amets bat egiten dut, berbera beti: garrak, zentzuz beterikako gar ederrak, dantza eta jauzi dabilta gau-zerua gorrituz, eta haizeak sakabanatzen ditu lurraren gainean miloika txinparta bihurturik.

Holaxe dihoakit bizia, soseguz, ixilik. Badut, haatik, gogan-behar bat, ezin-menderatuzkoa. Badakit, somatzen dut, hor non-bait gelditzen zaidala zain-mutur minberaren bat. Haren pilpira sorra nabari dut aldizka. Eta beldur naiz beti edozein huskeriak —zuhaitz, bazter ezagun nahiz gorroto ditugun begi maitene oroi-tzapenak— ez ote didan, egun edo bihar, agerian utziko, taupaka, ikaragarri...

TIGRE-LARRUDUNA

(Vephis-tqaosani)

XABIER KINTANAREN itzulpena

SARRERA

1. *Georgiaz*. Georgiako Herriak, haundi-maundien aipamen ofizialetan agertu ere egiten ez diren beste nazio askoren antzera, bere garrantzia ukan du, eta ez hain ttikia, Ekialdearen historian.

Georgia grekoen eskribuetan azaltzen zaigu lehenbizikoz. Izan ere, Jason eta argonautak urrezko ardilarruaren bila Kolchidara joan ziren, hots, Georgiako mendebaldeko kostara. Ekialdeko lurraldea, aldiz, Iberia izenaz erazagutu zuten idazle klasikoek. Bien batasunetik sortuko zen Georgia historikoa, *Karthli* edo *Sakarthvelo* bertako hizkuntzaz.

Mugakide duen Armeniaren antzera, Georgia aski goiz kristautua izan zen, eta horrexeri zor dio, neurri handiz, bere literaturaren hasiera, Bibliaren georgierazko lehen itzulpena, hain zuzen ere, V mendekoa baita. Beren kokatze geographikoari esker, mendebal eta ekialde artekoa, zibilizazio ezberdin askoren gurutzalekuan egonik, georgiarrek beren ondare nazionala aberasteko modu paregabea ukan dute, etxeko eta kanpotiko materialez, kristau eta islamiar tradizioez, kultura berezi eta oso joria osatuz. Europa eta Asia arteko zubi horren bidez, grekora egindako itzulpenen bitartez, Indiako eta Pertsiaiko literatur lan batzu heldu zitzaizkigun Erdi Haroan, letretan ekialdeko profanotasuna eta zentzualismoa sartuz.

Byzantioko enperadoregoaren jaitsapenaz, Kaukasiako hegomendebaldean dagoen nazio eguzkitsu honek, izugarritzko hedadura eta boterea hartu zuen, Itsas Beltzetik Kaspioraino eta mendi kaiteko ipar eta hegoaldeko herri asko bere erresuman sartuz. Zabalte politiko eta ekonomiko honekin batera kultur oldar nabaria ezagutu zuen Georgiak, bere goren puntua XII mendearen erditik XIIIaren erdirarte ukanez.

2. *Xotha Rusthaveli*. Urrezko mende honetan georgiar literaturak ohi ez bezalako indarra hartu zuen, gorteko poeta ikasien eraginez batez ere. Garai honetakoa da, hain zuzen, "Tigre-larruduna" deritzon poema. Bildu izan diren datuetatik, jakin, ba dakigu egilea Xotha Rusthaveli izan zela, Georgiako hegoaldean, Meskheti-ko eskualdean, 1160. urte inguruan jaiotako zalduna, eta deituraren arauera ba dirudi Rusthavi izeneko herrian sortu (1). Orduko ohituraz, Xothak bere estudioak Grezian egin bide zituen; orduko filosofo grekoen oihartzuna ondo adi daiteke haren obran behintzat.

Rusthaveli Tamar erreginaren gortelaria zen eta *metxurtxletukhutsesi* (2) kargua zeukan. Tradizioak, poemaren lehen bertsoetan oinharturik, Xothak bere erregina ixilean maite zuela dio, eta amorio ezinezko eta etsi horren sublimazio gisa sortu zela, hain zuzen ere, "Tigre-larruduna", georgiar literaturaren obra nagusia.

Gaur ba dakigu Xotha Rusthaveli Palestinan egon zela. Duela urte batzu, Jerusalemeko Gurutze Sainduko georgiar Monastegian, I. Abaxidze, A. Xanidze eta G. Tseretheli zientzilariek orma batetako freskoan haren irudi eta izena aurkitu zituzten, Berriatua eta biok, ihaz Israelen izan ginenean, ikusteko era izanik. Ez da hain gauza segura, ordea, batzuk diotenez, Jerusalem bertan hila eta hobiratua izen zela Rusthaveli. Ezezaguna da, halaber, haren heriotzearen data.

3. *Poema*. Obran agertzen diren pertsonaia bizien aipamenetik, ba dirudi Rusthavelik bere lana 1205-1207 inguruan idatzi zuela. Jadanik 1230. urtean poemaren pertsonaien izenak (Tariel,

(1) Rusthaveli = "Rusthavitarra". "

(2) "Altzorzaina", "diruzaina".

Thinathin...) egiazko pertsonen izenak bilakaturik izateak aski garbierakusten digu hark herriagan izan zuen oihartzun eta arrakasta. Eta harez gero ez da hura batere ttikitu.

XIII.tik XIX mendearen hasierararte Georgiak mongolen, turkoen eta pertsiarren erasoak pairatu behar ukan zituen. Herriak horietan "Tigre-larruduna"ren froga latz berberak zekuskien eta haren irakurketan kontsolamendua hartzen. Gaur egun ere, Rusthaveliren liburua ezkonberrientzako nahitaezko oparia izaten da Georgian.

Poemaz kontserbatu den eskueskriburik zaharrena 1646.ekoa da, zenbait bertso bakan lehenagotik badira ere. Mendeetan zehar, ordea, beste zenbait poetak textu originalari beren glossa, interpolazio eta segidak gehitu dizkiote, obrari zioten estimuaren seinale. Horregatik baina, eskueskribuetatik, lastoa eta bihiaren antzera, jatorrizko bertsoak geroago erantsietatik galbahetu behar izan dira, edizio kritikoak eginez.

"Tigre-larruduna"ren lehen edizioa 1712.ean argitaratu zen. Azpimarratzekoa da, noski, moldiztegia 1707.ean sartu zela Georgian eta, Ebangelio eta Psalmoen ondoan, Rusthavelirena izan zela handik irten zen hirugarren obra, Vakhtang VI erregearen ardurapean publikatua, hain zuzen.

Georgiako Zientzien Akademiak ofizialki argitaratuan, Xotha Rusthaveliren poema 1.670 bertsoetakoa da. Bertsook georgiera *xairi* deitzen direnak dira, 16 syllabatakoak, 8 syllabatako hemistikhiotan banatuak. Beren errima kontsonantea da, A-A-A-A skhemaz. Xairiak, gortelari edo eta ikasi kutsukoak barik, herri usainekoak direla aipatu beharra dago.

Rusthaveliren maisutasunaz jabetzeko, kontutan hartzeko da poeman darabilen hiztegia 7.066 hitzetakoa dela, horietarik 3.700 behin bakarrik agertuz.

4. *Iturri eta balioak.* Gaiaren aldetik arabiar eta indiar pertsonaiak badarabiltza ere, "Tigre-larruduna"ren iturriak Pertiako literaturan aurkituko genituzke errazago. Iturri oso urrunak dena den. Pertiakoa da, izan, maitasunaren gai profanoa, baina Rusthavelik kristau idealismoaz goratzen du hura. Gertakariak, egia, kanpoan jazotzen dira, Arabian, Txinan, Khvarezmian..., baina pertsonaiak, ideiak eta sentimenduak sasoiko Georgiakoak dira erabat.

Erreginari ezkutuki ziedukon amorioa estaltzearren “urruntzearen” literatur baliabide ezaguna darabil, baina azal horren azpian iker-tzaileek Georgiako Gortearen ezaugarriak nabari dakuskite. Horrela, poemako maite-izar distiratsu eta urruna, Rusthaveli beraren erregina erdiets ezina besterik ez da.

Poemaren balioen artean, hitzaurreko eskaintza, arte poetiko eta mundulerkuntzaz gainera, izpirituko maitasunaren kantua daukagu; dena ematen eta deus eskatzen ez duenaren amorio idealista, halegia. Adiskidetasun zintzo eta hil arterainokoa ere hor dago, gizezkoen zein andrazkoen artekoa. Azkenik, garaiko monarkhia feudalaren goraipamena dator: erregeen justutasun, botere ahalguztiduna eta eskuzabaltasuna ez dira falta.

Zaldieriazko istorio honetan, menturen arintasuna, paisaia pixi eta ugariak mintzaira ñabar eta oso koloreztatuaz eskaintzen zaizkigu, eta dena, oriente urruneko aieru fantasios eta erakar-garriaz.

5. *Itzulpenaz*. Poemaren lehenbiziko itzulpena joan den mendean egin zen, frantsesera, hain zuzen. Harez gero gehitu besterik ez dira egin georgiar maisulan honen erdarapenak. Gaur 40 hizkuntzatan irakur daiteke Rusthaveliren obra.

Poemaren izenaz zenbait istilu dago, horregatik komenigarri deritzot irakurlea honetaz informatzeari. Georgierazko jatorrizko titulua — Vephxis-tqaosani — honetara itzuli izan da hauzo hizkuntzetara: *Le chevalier à la peau de tigre*, *L'homme à la peau de tigre*, *Celui qui porte la peau de léopard*, *Le preux à la peau de tigre*, *The knight in the tiger's skin*, *Der Recke der Tigerfell*, *Der Ritter im Pantherfell*, *Vityaz v tigrovoy skure*, *El caballero de la piel de tigre...*; ez dago, dakusagunez, horretan batasun handirik, ez eta hizkuntza bereko itzulzaileen artean ere.

Eragozpenak bitan bana ditzakegu. Alde batetik *tigre/panthera/leopardo* arteko eztabaida dago. Lehengo eta behin, derragun panthera eta leopardo — zenbaitzuk, dirudienez, oraino ez badakite ere — animalia berbera dela (3). Duda, beraz, tigre ala

(3) Ba dira hizkuntza guztietan bizpahirur izen synonymoz ezagunak diren zenbait animalia: eusk. *luki* = *azeri*, *txerri* = *urde*, esp. *escorpión* = *alacrán*, *burro* = *asno* = *pollino*, *zorro* = *raposa*...

panthera ote den dugu. Georgierazko originalak *vephxi* dakar eta hori, inolako zalantzarik gabe, basapiztia handi baten izena zen. Eskueskribu zaharrak apaintzen dituzten irudietan, pertsonaiá puntudun larru pikardatu batez jantzita agertzen da, eta hortik zenbait autorek *vephxi* “panthera” zela atera dute. Ba dirudi, ordea, Euskal Herriko behialako katamotzekin (4) gertatzen zenez, garai-ko artistek, animaliok inoiz ikusiak ez zituztelako, aieruz pintatzen zituztela larruak, horrela nahasketa sortuz.

Gaurko literatur hizkuntzan (= *saliteraturo ena*) *vephxi* “tigre”tzat hartua da, “panthera”rako *djikhi* edo *avaza* erabiliz. Guk, hortaz, euskal itzulpenenerako *tigre* utzi dugu.

Bigarren eragozpena “*homme*” ala “*chevalier*” itzultzean datza. Georgierazko izen jatorra, *Vephis-tqaosani*, hitzez hitz “tigre(ren) larruduna” da, “gizon” edo “zaldun” aipamenik egin gabe. Euskaraz posiblea zen, beste hizkuntzekin batera jokatzekotan, *zaldun* hitza gaineratzea, baina horrela “Tigre-larrudun zalduna” genuke, bai hotsen errepikatzean eta bai atziki berbera berretzean kako-ponia nabaria sortuz. *Gizon* hitza honelako poema epikoaren tituluari arruntegi litzateke bestalde. Horregatik, alde batetik georgierazko textuari hurbilago jarraikiz eta, bestetik, euskararen euphonia kontutan harturik, “Tigre-larruduna” ezarri dugu izena.

Euskarazko itzulpenenerako hiru testu eduki ditut kontutan. Bat S. Tsuladzek Parisen 1964.ean frantsesera itzulia (5), beste bat E. Orbelianik eta S. Iordanixvilik egindako itzulpen bikaina izan da (6), eta hirugarrena georgierazko edizio originala, Greta Txantladze euskalariari eskertzen dizkiodan obrak azken biok.

Itzulpena, funtsean, frantseseko textuetatik egina dut, zalan-tzak georgierazko textuaren arauera erabakiz. Lexikoan, obraren sorturtea gogoan, euskara klasiko eta zaharra erabili dut maiz,

(4) Gipuzkoan XVIII mendean oraino harrapatzen ziren *tigres* haik, noski, euskaraz katamotzak ziren, baina euskal izenak *Felix lynx* edo *Lynx lynx* zientzi deituraz ezagutzen den piztia buztan-motza adierazten zuen, Asiakoekin inolako zerkusirik izan gabe. Hala eta guzti ere, eta logika guztien kontra, zenbait hiztegitan erdarazko *tigre* euskaraz *katamotz* gisa itzultzen da oraino.

(5) Chota Roustaveli, *Le chevalier à la peau de tigre*, Coll. Caucase, Ed. Gallimard, Paris, 1964.

(6) Chota Roustaveli, *Le preux à la peau de tigre*, Ed. Sabtchota Sakartvelo, Tbilisi, 1977.

Etxapare, batez ere, eredu. Bertsoak ez dira neurtuak izan, eta errima, ahal ukan dudanez, gutienez asonante egiten saiatu izan naiz, beti hori egiterik izan ez badut ere.

Ordu askotako lanaren fruitu gisa — gordina ala heldua ote de nirakurleak eritziko — da hona argitara ematen dudana lehen parte hau, egiteko asmo dudan obra osoaren itzulpenaren aitzindari.

Euskaraz agertzean, gure kultura aberasteaz gainera eta batera, georgiar herri hainbat gauzatan anaia dugunari neure ezagutza eta omenaldia eskaini nahi diot, nazioen balioak ez direla eremuz edo populazioz, soilki, neurtzen gogoratuz.

1977.eko Abenduan

BIBLIOGRAFIA

N. NATADZE, S. TSAISHVILI, *Shotha Rusthaveli y su poema*, Ed. Ganatleba, Tbilisi, 1966.

TIGRE-LARRUDUNA

(Vephxis-tqaosani)

XABIER KINTANAREN itzulpena

HITZAURREA

1. Bere indarraz, mundua boterez egin zuenak,
Eta, zerutiko arnasaz, hemen ikakiak oro sortu zituenak,
Gizonoi era guztietako gauzez hornitu Lurra zigun eman.
Haren irudiz eginak erregeak dira, beragandik datozenak.
2. O Jainko bakarra, gauza bakoitzaren eratzaillea,
Gorde nazak eta eman, Satan zapaltzeko indarra.
Emadak maitaleen bihotza, hil arteko amorioz betea,
Eta urrun itzak, otoi, bestaldera nazaketen bekatu larriak.
3. Lehoiari — ezpata, lantza, ezkutua dauzkanari — (1)
Thamar errubi-masaila, azabatxeko adasdun eguzki erregeari,
Ene laudorioen bidaltzea zilegi ote den ez dakit.
Hura dakusanak ezti gozoena dastatua du jadanik.

(1) Hemen aipatzen den lehoia David Soslan da, Thamar erreginarene senarra, Osetiarren erregearen seme eta armadaburu famatua. Haren heriotzea 1207.ean gertatu zen. Rusthavelik, beraz, data hori baino lehenago idatzi behar zuen bere obra, hura bizitzat ematen baitu.

4. Thamar erregina kantatzean, nahasirik dut odolez nigarra.
Ene bertsoak harentzat dira, hau izan bekit grazia.
Tintatzat azabatxezko aintzira, lumatzat kabanera liraina, (2)
Ni nantzutenen bihotzak gezi zorrotzak zula ditzala.
5. Kopla gozotan hura kantatzeko hartua dut kargu,
Eta kantuz adatsa, ezpainak, betile-bekainak goraiatu,
Haren ahoko kristal landuzko perlak bikainkiro ordenatuz.
Berunezko dornu bigunak harririk gogorrena hausten du.
6. Mintatzeko mihia dut falta, bai eta arte eta adorea ere.
Emadak premiazko indarra, haren aipatzeko grazia hemen,
Tarieli zerbitzu egitean, samurki hospa daitezen, (3)
Izar aurpegiko hirur zaldunak, hiruren zoria elkarrekin betez.
7. Tarielen gainean nigarrez ari izanok, zatozte zuek hona!
Zein beste gizonek, hare nautzera, ikusi du, gurean, eguna?
Bihotza azkonaz zaurturik, nik, Rusthveli izenaz,
Elzahar bat hartua dut, beraz egiteko, perlazko iduna.
8. Nik, Rusthvelik, lan hau neure artez dut egin.
Harmak behehitzen dituenak bizia eta zentzua kentzen dizkit.
Hargatik amorioz, naiz zaurtua, erremedio gabarik.
Eman diezadala berak, osasuna ez bada, lurpeko hobia niri.
9. Pertiako kondaira hau, nik orain georgieraz emana, (4)
Perla preziatua zen, eskuz esku zebilena.
Aurkitu ondoan, bertsoz jarrita, egin dut obra paregabea.
Burua zorarazi didanak, bere edertasunaz, koroa beza.

(2) Thamar erreginaren begi beltz eta gerri lerdenez ari da.

(3) Tariel, geroago agertuko denez, poemaren pertsonaia nagusiaren izena da.

(4) "Pertiako kondaira, hau, nik orain georgieraz emana...". Hau ez da egia. Rusthavelik, bere obran azaltzen duen maitasun gaizki ezkutatua nolabait estaltzeko, literatur atakia ezagun hau darabil. Pertsian, ez eta ekialde osoan, ez da "Tigre-larruduna"ren antzik duen ezein obra ezagutzen.

10. Haren argiz itsurik, bekusate bera berriz ene begiek.
Ikusazue nola, amorioz gatibu, ene bihotza, galdurik, mendiz mendi
Indazue arimarako bakea, ene haragia aski da erre. [dabilen.
Kantatzera doazen koruko hirur bozak jadanik prest daude.
11. Gizon orok behar du dagokion zoria onetsi.
Soldaduak burruka, langileak lotu bere obrari,
Amorosak bere maitea, haren begietan burua ikusi.
Ez dezala inork bestea gaitzets, ez degiola errefusa ezeri.
12. Poesia, partez, Jainkozko jakituria da; hori hasteko.
Jainkoek berek egina, entzuleen onerako.
Hemen ere, adituz gero, haren kantua izate da delizios,
Hitz gutitan hitzaldi luze, bertsoaren meritua duzue hor.
13. Bidaia luze eta arinak zaldiaren kasta du frogatzen;
Pilotaria, aldiz, ukitu doiak digu ederki erakusten.
Poetaren neurria haren kantu eta boz eutsiak dira izaten,
Hitzak eta bertsoak, nekeaz, zaizkionean urritzen.
14. Ikusazue bada poeta, hark eskribatzeko maina du.
Bertsoek burura nahi ez, eta hitzak ezin aurkitu.
Ez du, hala ere, bere xedea bertan behera bezatu,
Pilota trebeki jaurtikiz gero, bere artea erakusten du.
15. Ez doakio koblakari izena, egin dituenari bertso bat edo bi,
Eta horregatik poeta haundien pare, beste gabe, izan uste duenari.
Bertso bat, edo bi, edonola eginez, buru-buztan gaberik,
Aski dute halakoek "eneak onenak" esateko astoki.
16. Ba da bigarren poeta molde, kobla apalekoa;
Horrek ez daki zein hitzek zaurtzen duen bihotza.
Arku handiko ehiztari gaztearen pare da halakoa,
Ehizi handien beldurrez, ttikiak sartzen ditu, hilik, zorroan.
17. Edan eta kantatzekoa dugu hirugarren poeta,
Irri eragiteko lore, egoki lagun arteko bestan.
Pozik entzuten ditugu haren bertsoak, argi-garbiak direnean.
Poeta izenik ez du merezi baina, arnasa luze ez duenak.

18. Poetak ez du bere penen barreiatu behar fruitua ;
Haren amorio eta gorteak beute maite bera.
Harengatik soilki arituz, goraipa eta hospa beza Bakarra,
Inorengan, hartaz besterik, ezer espero gabe, begio hitzez musika.
19. Agerian dagoenez, kantatua kantatuz, nik,
Lehenago aipatuari lotuta, buruari gloriako izena diot eskaini.
Panthera bezain urrikigabe, bera bizitza eta izarra zait.
Haren izena kanta eta hospatu dut, eta, apalik, beloz estali.
20. Amorio-grinaz mintzo naiz ni, berau gorena baita :
Ez da erraza, halafede, ukaitea holako maina.
Bere hegaletan garamatza zerutiko dohainak
Horren erdiesteko, pena haundiak behar dira baina.
21. Jakintsua ezin dateke era horretako amoriora heldu,
Mihia trabatzen da eta belarria, aldiz, nekatu.
Nik Lurreko arte bat, haragira bidean, kantatzen dut,
Lizunik gabe, bera nahi dutenak, urrundik ere dirateke ahul.
22. Maitale itsua, arabieraz, *midjnur* izenaz ezagutzen da. (5)
Grinaz eroa da, esperantza gabeko jarraitzailea.
Zenbaitzu, Jainkoaren manuz, laster asetzen dira maiteaz,
Besteak, bihotza ez hain goi, ezti bila, ederrik eder dabilta.
23. Maitaleak eguzki gisa behar du izan, dirdiratsu, ederra, garbirik,
Batera zuhur, zorioneko, azkarra eta eskuz zabalik,
Bihozdun, eleder, burruka orotan nagusi,
Dohain horik ez dauzkanak, maitaleen falta du graziarik.
24. Egiaz da gauza zaila *midjnur* leuneko artea ;
Amorio eroa ez da desira, ez dute elkarren antza,
Ezberdinak dira osorik, amildegia dute artean,
Ezin batera daitezke, sinets diotsuedana.

(5) *Midjnur* : georgiar hitza, arabierazko *medjnun* "maitasunak eroa"tik hartua. Georgieraz "maitale" esan nahi du soilki.

25. Maitaleak ekile izan behar du, ez aldakor, satsu ez zital;
Maiteagandik urruntzean, zizpuruak berretu behar ditu hark,
Bere bihotza harentzat gorde soilki, izan arren gogor edo mainatia.
Bihotzik gabeko amorioa ez nahi nik, ez eta hots fauna den mosua.
26. Midjnr ez da ezer, desir hutsezko ahaleginez,
Egun, bat, beste bat bihar, maitatu eta gero uzten dituenaz, pena gabe.
Azarezko jolas hau gaztettoek dute, eskuharki, maitatzen,
Maitale egiazkoak, ordea, sufritzen ba daki, eta pairatzen.
27. Maitaleak bere maite mina gorde behar du lehenik;
Hartaz sekretuki oroitu, egunez hura zaindu, eta gauerako utzi;
Egin bitza ametsak urrundik, hil bedi, urrundik sugarretan izeki,
Maitearen penapean bizi beti, errespetua gorde bere damari.
28. Bere sekretua ez beza ager, ongi ezkutuan beuka,
Ez dezala, zizpuruka arituz, bere ederraren izenik aipa,
Izan bedi amorio ero hori misterio argi gabea,
Pairatzeak degiola atsegin, maitatzearen sutan erreaz.
29. Jakintsuak, bere amorioa agertu duena, ba al du onetsiko?
Horrek maiteari, buruari bezala, probetxu gabe, kalte egiten dio;
Aipatzean hura maiseatzen du, nola gero hospatuko?
Ez al litzateke hobe, bihotz oneritzia ez balu zaurtuko?
30. Harritzen nau gizonak, bere maitearen amorioaz harrotzean,
Zergatik hola maisea, beragatik, onerizkoak jorik, hiltzen dena?
Maitatu ezik gorrota dezake, baina gorrotoa agertu beharrik al da?
Arima zitalak, halabaina, hitz gaiztoa nahiago, bihotz ordean.
31. Maitaleari, bere maiteaz nigar dagienean, malkoak egoki darizkio;
Zaldun erratu itxura du hark, bakarrik dabileino;
Gogoan eduki bitza oroipenak, beti harenganako,
Amorioa ezkuta beza, otoi, jendartean ibiltzeko.

**ROSTEVAN, ARABIAKO ERREGEAREN
KONDAIRA**

32. Behiala ba zen Arabian errege bat, izena zuen Rostevan,
Haundia zen, eskuz zabala, osorik aberatsa jopu eta zaldunetan;
Zuzena, bihozpera, Jainkoak bedeinkatu, handirasunez ahal guztiduna,
Paregabeko gerlari, solaskide trebe, baita eta ere leuna.
33. Erregeak ez zuen haurrik, printzesa bat izan ezik,
Eguzki-suen parekoa zen, munduko argitan argi;
Zekusatenen bihotza, arima eta burua, txit zeuden arroboturik;
Haren kantatzeko hitzak, otoitzetan, jakintsuak ditzake aurki.
34. Thinathin zuen izena, gogoratzeko egoki,
Eguzkia baino ederrago, hura itzal eta atzean utziz.
Bere visirrak deituta, jauna lasai dago, trankil,
Inguruan esertzeko diotse, boz eztiz mintzatuki.
35. Hola dio: "Zuen kontseilua nahi dut, ongi merezi baitu kontuak;
Arrosak bere lorea zimeltzen, eihartzen, dakusanean,
Bera ba doa, baina laster, haren lekura, beste bat dator lorategira.
Ene eguzkia ere behera doa, aurrean dut, ilunik, hilargi gabeko gaua.
36. Gaitzik okerrenaz, urteenaz, hiltzera noa ni;
Egun ez bada, bihar hilko naiz, munduak holaxe nahi.
Zer balio du argiak, bidean iluna baldin bazaio nahasi?
Ene haurrari demaiogun koroa, eguzkia horrela birpiz dadin".
37. Visirrek zerantzuten: "O errege, zergatik mintzo adinaz?
Zimeltzen den arrosak ere, ba dauka gugandik ohore ongi merezia;
Duen usainak, haren ñabardurak, beste loreei hartzen die aurrea.
Zein izarrek bazter dezake, zurbilik ere, hilargia?"
38. "Ez zaitetz hola mintza, o errege, arrosa eihar ez duzularik;
Dukezun akordu okerra, besteren eritzia baino, izanen da hoberik,
Zure bihotzak zer uste baina, egitea holaxe da komeni;
Beraz ongi dago: eguzkia bainoagoa erregina izan bedi".

39. “Emakume da, baina agintzeko, Jainkoak munduan jarri du.
Zu ez zeundenean esana, orain ere, lausengu gabe derrakegu,
Haren eginen distirak eguzkiaren dira leinuru;
Lehonkumeak berdin dira, arrak zein emeak izan, indartsu”.
40. Avthandil armadaburua zen, emir spasalarraren seme, (6)
Hilargiaren pareko, nekosta baino lirainago, eguzki kide;
Bizargabea oraino, beira garbienaren antzo, aurpegiz eder.
Thinathinen betile beltz politek hura zuten hiltzen.
41. Bihotzaren barruan gorderik, bera zeukan amorioa zeukan,
Bere masail arrosak zurbiltzen, ordea, hura begietatik galtzean;
Berrikustean baina, sua haizatu eta zauria berriz minetan.
Ai zein den amorioa urrikalgarri! Giza bihotza hil daiteke, hargatik.
42. Erregeak bere alaba zuenean thronoratu,
Avthandil pozik zen, eta hari suzko garrak ematu.
Esan zuen: “Orain maizago dezaket haren kristalezko bisaia ikus,
Eta agian, hiltzen nauen gaitza jakin nola erremediatu”.
43. Arabian zehar errege ahaltsuaren agindua zabaldu zen:
“Ene alaba Thinathin erregina dadin dut nik manatzen,
Bere argiaz guztiok estal gaitzan, eguzkiak bezalaxe,
Betor hona mundu oro, kantuz hura laudatzeko hospez”.
44. Arabiar guztiak jaun haundiekin zetozen, (7)
Avthandil masail eguzkiduna, spaspet milaka soldaduren,
Bai eta erregearen adiskide visir Sograt bera ere.
Den denek, thronoa ikustean, “preziagaitza da” zioten.
45. Erregeak eskutik Thinathin zeraman, bisaiargi,
Thronoan esereraz, eta gero, berberak zion koroa ekarri.
Eskura makila eman, eta erregein gisa jantzi;
Eguzkiaren pare, erregekiro, dena zekusan neskak klarki.

(6) *Emir spasalarh* georgiar hitza, “armadako emir nagusia”, orduko kargu printzipala.

(7) *Spaspet*: georgiar hitza, “armadaburua”, “komandantea”; pertsierazko *sipak-bed-etik* mailegatua.

46. Erregea eta armada guztia atzera doaz, hari gur egiteko,
Errege kontsokratzen du hark, adar eta xirulen soinu gozoz;
Anitz herritako jendeak hari loxintxak egiten, era guztietako.
Bere betile beltzen bele hegala erreginak du beheratu, malkoz.
47. Aitaren aulkian jezartzeko, gai ez dela beldur da;
Arrosadia itotzen ari, hain da haren nigarra haundia.
Rostevanek diotso: "Aita orok bere haurrari uzten dio tokia,
Horrela egin ez banu, garretan erre nintzake suak".
48. Esan zuen: "Ene haurra, ez egin nigarrik eta entzun en abisua;
Arabiako haiz erregina, nik holaxe izendatua,
Hire eskuetan diagon bada erresumaren zoria,
Arazoak zuhurki trata, pentsutan hadi izan trankila".
49. "Eguzkiak bai arrosa eta bai satsa berdinzki ditu argitzen goitik,
Ez uka inoiz mesederik, ez beheko ez eta goikoari;
Dohainak askatua lotzen du, eta gatibua esaneko egin,
Eman beti, bere baitan itsasoak ere biltzaile bezain emaile izaten daki".
50. "Erregeen handirasuna Edeneko nekosten da kideko;
Eskuzabalari denek obedi, zitala ere haren menpeko,
Mahai ona beti da probetxuko, zikoizkeriak ez du deus balioko,
Ematen dunanak heure dirau, hik gordeak, aldiz, hik galduko".
51. Bere aitak esana erreginak entzun du zuhurki,
Eta haren irakatsiak oro kontu onean hartuki.
Erregea edanaz pozik dago, txit alegeraki.
Neskatxak eguzkia ilundu, hark egin du berau Thinathin.
52. Erregina bere unideari mintzo, zintzoen arteko zintzoenari,
"Ekarzkidan ondasun neureak — diotso — hik zigilatu kutxako horik,
Ekarzkidan erregeren alaba gisa dagozkidanak niri".
Ekarri eta gero, oparo banatzen, haren eskuak ez du hondorik.
53. Ttikitan hartu dohainak egun horretan dira besteren,
Ongi ziren, haiekin, apalak eta handiak berdin aberasten.
Honela dio: "Aitari ikasia, orain dut nik betetzen;
Ez beza inork, otoi, nik emandakorik hartua uka, herabez".

54. Eta agindu zuen : “Itzazue ondasunen gela guztiak zabal ;
Ene Ezkutari Nagusi, ekarzkiguk hona neronen eskuko mandatari denak”.
Holaxe egin zen, baina hark, atergabe, ondasunak guztiei eman,
Eta soldaduek, piratzen antzera, pilatzen zuten han urrea.
55. Denak ondasunei atxeki, haik turkoei kenduak bailiren ;
Odol garbieneko arabiar zaldi arinen pare ziren.
Zerutiko ekaitz hurrupatzaile bat, holaxerik ziruditen.
Hartan ez zegoen eskuhutsik ez zaldun ez neskarik bat ere.
56. Lehen egun osoan jai, bertan janari-fruituak ziren, eta ardoa ere bai.
Gerlari multzoak oturuntzara bilduta zeuden, denak lasai.
Erregea, aldiz, burumakur, aurpegia, betilun, ez zuen alai.
“Zer du? Zer gertatzen zaio? — jendeak galde — triste egoteko hain?”
57. Avthandil, eguzkitxuros, mahaiburuan jarririk zegoen,
Tropen buruzagia, harrigarri, pareko da lehoi eta tigrearen ;
Haren ondoan Sograt, visirretan nagusi, zen esertzen.
Elkarri diotsote : “Zer du bada gure erregek? Haren aurpegi zurbila,
[zeren?”
58. Eta hola diote : “Erregeren pentsuak, segurki, oroipenetan ari du,
Ez baita hemen deus ere, bera egin duenik sufritu ;
Galde degiogun beraz — Avthandil mintzo — zergatik den gugandik urrun,
Konda diezazkiogun solas plazentak, hola trista ez dakigun”.
59. ‘Sograt eta Avthandil gorputz ausarta batera altxatzen dira,
Beren ontziak ardoz bete eta harengana doaz, pauso arinaz.
Erregearen ondoan, irribarrez, esertzen dira, eta belaunak gurutzatza.
Visirra hitz leunez mintzo zaio, bokantza darabil haundia.
60. “O jauna! Bisai ilun daukazu, irria du orain galdua,
Egia da bai, urruti direla zure ondasun preziosak,
Datozen guztiei ematen baitizkie zure alaba esku zabalekoak.
Hola bada, ez izenda bera egiaz erregina, ez egin ezer gogoz kontra jauna”.
61. Mintzatzen entzutean, erregeak, irribarrez, aurpegia aldarazi dio ;
Harriturik dago, pentsatuz, haren aurrean nola izan den mintzo.
“Ongi egin du” onesten dio, eta horrela diotso gero :
“Nigan zikoizkeria ikusi uste duena, oker dabil zeharo”.

62. “Ez da hori baina, o visir, ez nau horrek ni tristatzen ;
Gaztaroko egunak edanak ditut, denbora dut orain nik jabe,
Eta ene erresuma osoan, non baitaukat aginte,
Harmen arte gloriosa nigandik ikasia ez du ezein zaldunek”.
63. “Ardura biziz, soilki, neure alaba bakarra dut hezia.
Jainkoak ez dit eman semerik, hala biz Haren borondatea ;
Inor ez da hemen ene antzeko, pilotan, tiroan ez geziaz.
Avthandil ez beste dut, nolabait, kide, bera izanik neuk irakatsia”.
64. Zaldun azkarrak, lasai, erregearen hitzak ditu entzun,
Harengana makurtzen, irribarrez, eta irribarreez edertu ;
Haren hortz xuri argien ñirñirak zelaiak klartu ditu ;
Erregeak diotso : “Zeri barre degiok? Zerk hau alegeratu?”.
65. Eta berriro diotso : “A, nitaz da! Zergatik egiten didak barre?”
Zaldunak erantzuki : “Esanen dizut, indazu baina, barkamena aurrez ;
Ez zaitez, otoi, ene hitzez min, ez eta gero haserre,
Ez nazazula ausartegi juja ; herioa ez niri eman ordainez”.
66. Erregeak hola diotso : “Ez nauk hire esanez haserre izanen”.
Thinathinez, eguzkia baino ederragoaz, du bere zina egiten.
Avthandilek ba dio : “Ausartzera noa, hitz eginen dizut beldurrik gabe ;
Arkutan trebe zarela diozu ; harrotu egiten zara holako hitzez”.
67. “Avthandilek, zure oinpeko lurrak, zeuk bezain ongi daki arkutan.
Dagigun bion artean apostu ; lekuko, zure zaldunak.
Zuk hola diozu : “Nor nire pareko?” ; esateak ez du balioa,
Zelaia eta geziak dira juje hoberenak kontuan”.
68. Erregeak dio : “Egin didaan lehiarako niagok gertu ;
Emak bada ordena, ez egik orain atzera, tira dezagun biok arkuz,
Lekuko eta laguntzat zaldunik onenak har ditzagun,
Ondoren, zelai hertsiaik merezi duenari eginen dio lausengu”.
69. Avthandilek baietz esanik, bukatu zuten eztabaida ;
Gaztettoen antzera, barrezka ari ziren, poz, elkarren artean.
Lehiaren apostua erabaki zuten bertan, eta bera zen honela :
Galtzaileak, hirur egunez, buruhutsik ibili behar zuela.

70. Ondoan erregeak agindu: “Hamabi jopu guri laguntzeko, (8)
Hamabi gizon guretzat, geziak eman eta ajutari izateko.
Hiretzat aski duk Xermadin, bakarra izanik beste ororen pareko.
Kolpe zehatzak neurt biezazkigute, okerrik gabe, gezurra ez esateko”.
71. Erregeak ehiztariei manu: “Zoazte oihan-zelaietara,
Eta bil ezazue han indarrez ehizia, zeuekin hona dakarzuela”.
Deituriko harmagizonak lerroan jarri ziren, arinka.
Orduantxe zen jaialdi ederra amaitu, hartan guk denbora alaiki emanda.

ROSTEVAN ERREGEA ETA AVTHANDIL

EHIZAN

72. Egunsentian, Avthandil ageri zen, gorputza azuzena bezain zuzen,
Aurpegiz errubi distiratsua, jantzia gorri eskarlata zuen,
Ehizarako kapaz jantzirik ,estaltzeko zapia urrez;
Zaldi zuri baten gainean doa, erregea irtetera du bultzatzen.
73. Erregea jadanik prest da, eta ehizara doaz, beren zaldiez,
Jendetzak zelaia inguratzen du, barruti bat eginez;
Jai habarrots handi batekin, gerlariek beren tokia bete.
Deman burutzeko, arkulariak gertu dira, lerro-lerro, begia erne.
74. Erregeak dio: “Betoz hona hamabi jopuak, gure ondora;
Arku eman diezaguten, gezi biziak guri eskaintzera,
Eroritako ehiziak ditzaten konta, gogoan harturik tiroak.
Zelai zabaleko txokoetatik ehiziak irteten hasten dira.

(8) Bertso hau, Sergi Tsuladzek jatortzat ematen duen arren, ez da ager-
tzen Georgiako Zientzien Akademiaren edizioan.

75. Ehiziak zalapartan datoz, egiaz konta ezinezkoak :
Oreina, akerra eta basastoa, jauzi haundiko sarrioak.
Ezkutari-jauinak oro haiengana doaz, ikusgarriak benetan.
A! Itzazue arkua eta gezia ikus, beso nekagaitzak jokoan.
76. Zaldiek altxatu hautsek eguzkiaren sua ilundu dute ;
Tiroka eta hiltzen, zelai osoa estali da odol gorriez.
Laster geziak agortu, bai berriak ekarri ezkutariak,
Patari guztiak, joz gero, kolokan dira, ezin aurrera eaginez.
77. Zelai hertsian zehar dabilta, ehizien bidea erdibituz,
Hilketa, sarraski izugarria egin dute, Jainkoa bera horregatik minduz.
Belardia purpuraz tinda, ehizien odolaz mozkortu.
Avthandil zekusatenek ba zioten : “Edeneko nekosten irudi du”.
78. Ibiltako alor zabala zeharkatzen dute, berek bakarrik,
Harantzago hibai bat doa, bazterrak haitzez horniturik,
Ehiziak oihanean barrena iheska, zaldiek ezin segi handik.
Unhaturik daude biak, eta indarrak txanda nekeari utzi.
79. Elkarri mintzo zaizkio : “Neu nagusi”, eta irria ezpainetan ;
Lagun mamien gisa biak, eta jarriak dira bata bestearen ondoan.
Geroago jopuak datozkie atzetik, haiekin biltzeko dute asmoa.
Erregeak diotse : “Zuengandik egia nahi dut, ez otoi gezurra”.
80. Jopuak honela mintzo : “Ez dizugu esanen, ez, ipuinik ;
O errege, ezin dezakegu konda, haren pare zarenik ;
Horregatik hil behar badugu ere, ez duzu zuk hark beste meriturik.
Berak jotako ehizia bertan erortzen dugu guk ikusi”.
81. Bion artean ehunogei ehizi erhan dituzue guztira, (9)
Baina Avthandilenak zureak baino hogegei gehiago dira ;
Jaurtiki dituen geziak artean, bat ere ez du huts egina,
Zuretarik, ordea, zenbait bildu behar ukan ditugu, lurrean egonikan.

(9) *Ehunogei* : georgieratiko itzulpen zuzen-zuzena, euskarazko *bostogei* eta *seiogei* arkhaikeen antzera moldatua.

82. Hitzok ez dute erregea mindu, kantuzkoak ditu, murmurio leunak;
 Pozten du, benetan, berak hezi zuenaren trebetasunak,
 Amorioa diaduko, holaxe du maite arrosa urretxindorrak,
 Irrien artean alegera da, bihotzeko lehengo pena orain zaio joana.
83. Freskatzeko, zuhaitzen gerizpean, jaisten dira zaldietatik,
 Gerlariak bertara biltzen zaizkie, galburuak bezain ugari.
 Hamabi jopuak erregearen ondoan dira, adoretsuenak dira haik.
 Atsedena hartzen dute, oihanaren hegala eta hibaia ikusiz.

ARABIAKO ERREGEAK TIGRE-LARRUDUNA

IKUSI

84. Orduan, ur bazterrean jarrita, ezezagun bat, nigarrez, zuten nabari,
 Zaldi beltz baten hedeak eskuan, lehoi eta heroi bat irudi,
 Arnes, zela eta bridak perlaz zeuzkan apaindurik,
 Malkoak arrosazko masailak izozten zizkion, irtenik bihotz irakinetik.
85. Hartaz jantzita, arropa berezia du, tigre larruzkoa,
 Tigre larruz egina da, halaber, daraman burukoa;
 Eskuan zigor bat dauka, besoa baino mardulagoa.
 Ikusgarri hau hurbiletik miresteke dute denek gogoan.
86. Jopu bat erregeak igorri du suzko bihotzeko zaldunagana;
 Burua behehitarik, nigarrez dago, tristatuz bera dakusana;
 Kristal finezko euria dario haren azabatxezko betilepean.
 Jopua harengana da hurrantzen, boz gabe, ez dekio zer esan.
87. Izuaz jopua ez zen harengana ausartzen,
 Harriturik, so zegoen, bihotza baina, indartzen,
 Gero, emeki, esan zion: "Erregek zaitu deitzen".
 Zaldunak nigarrez segi, ondoan zegoenaz kasurik egin ez.

88. Ez zuen deus aditu jopuak esandakorik,
Soldaduen hots eta deiez ere ez zen konturaturik ;
Zizpuru harrigarriez ari zen, bihotza su goriak harturik,
Odolaz nahasian, malkoak, iheska zihoazen begien askatik.
89. Buruan zerabilen pentsuak izpiritua urrun zeramakion ;
Jopuak, berriz ere, erregearen manua esan zion ;
Nigarrez beti, zaldunak ez dantzu zer diotson,
Ahoa sarrailez dauka, ezpainetako arrosa ezin zabaldu zaio.
90. Erantzunik ezaz, jopua atzera ituli zen.
Rostani diotso : “Ez du zutaz, antza, jakin nahi ezer ; (10)
Eguzkiak bezala itsutu nau, bihotza daukat oraindik minez ;
Ez dit deus entzun nahi ukan, ni han luzaro egon arren.
91. Erregeak, harriduraz, haserre bizitan zeukan bihotza ;
Luza gabe, haraxe bidaltzen ditu bere hamabi jopuak.
Hola agintzen die : “Har itzazue zeuen harmak,
Zoazte eta ekardazue hibai ondoko gizon hura.
92. Holaxe egin eta harmaduren hotsa zen entzuten,
Orduantxe zen zalduna zutitu, hala eta ere nigarrez,
Haren begi galduek inguruan gerlariak dakuskite.
Honela esan zuen : “Ai ene!”, eta gero, besterik ez.
93. Eskua begi gainetik pasa, eta hola nigar beroak lehortu,
Buiraka eta ezpata hestutuz, beso indartsuekin da altxatu,
Zaldi gainera jauzi, jopuen hotsez ardurarik ez du,
Bere bideari darraio, gerta zer gerta, egiteke kontu.
94. Soldaduek beren eskuak luza, zalduna harrapa nahiez,
Baina beronek denak gaizki kolpa, etsai bat urriki liteke haiez ;
Bata bestearen kontra darabiltza, bertan erhan, gupidarik gabe,
Makilborraz bularrak bi zatitan erdibitzen dizkie, indarrez.

(10) *Rostan* : Rost(e)van izenaren forma laburtua.

95. Erregeak, amorru biziaz, laster agindu: “Hari jarrain!”.
Besteak, hala ere, ez ditu begiak itzultzen, geldi dago, zain;
Datozkion guztiak bertan hilda uzten, lurraren gain,
Elkarren aurka zatikatzen; Rostanek haiez esan zuen bere ai.
96. Ondoren erregea, Avthandil lagun, harengana zen abiatu;
Hark, handios, indarrez beterik, iheska doa, gorputza makur,
Haren zaldi lasterrak arin egiten, eta eguzkiak zelaia argitu;
Orduan erregea etortzen dakusa, bera harrapatzea helburu.
97. Erregea ezagutzean, bere zaldi beltza jo du zigorraz,
Eta begi hertsireki batez, bistaz osorik galtzen, behingoan.
Amildegian itzaldua ote, ala hegaz egina zen zeruan gora?
Bila hasi, baina inon ez, ez zen lurrean haren arrastoa.
98. Oinhatzik ezin aurkituz, guztiak harritzen ziren.
Gizakia ba ote daiteke, devi bat bezala, hola desager?
Gerlariak, hilak deitoratuz, beren zaurtuak osatzen zituzten.
Erregeak esan zuen: “Hor dakusat gure alaia bukatzen”.
99. “Poza joan eta — diotse — Jaunak gozatzen utzi nahi ez digu,
Hala lehengo atsegina orain atsekabe du berak bihurtu;
Heriotzeraino zaurtu nau, ni sendatzeko dohainik inork ez du.
Eskerrak Jainkoari! Bere nahi eta borondatea horixe baitu”.
100. Mintzatu ondoan, atzera egin zuen, besosko ilunaz;
Ehizarako arestiko gogoa, zizpurutan zen bilakatua,
Ehiziak bertan behera utzirik, guztiak doaz barreiatuta.
Batzuk zioten: “Zuzen da horrela”, besteek, aldiz: “Jainkoa!”.
101. Erregeak, tristerik oso, bere gelara doa,
Seme baten gisa baina, Avthandil dago ondoan;
Senideetarik ez zen bertan inor batu, ez eta ere etxeoak,
Harpa-kriskitinen soinuak, alaitasuna, ez ziren jada entzuten, gozoak.
102. Thinathinek bere aitaren tristuraz entzun zuen mintzatzan,
Haren ate ondora doa, eguzkiaren argikide;
“Lo datza ala itzarri dago?” arduradunari galde.
Beronek diotso: “Jarririk dago, ilunik, aurpegiz kolorge”.

103. “Avthandil ez beste du ondoan, bere jarlekuaren pare,
Zaldun ezezagun bat ikusi omen du; horrexek du tristatzen”.
Thinathinek diotso: “Ez dut orain nekatu nahi, ez;
Dei badegit, esaiok behingoan natorrela, halere”.
104. Denbora joan eta, erregeak galde: “Non da ene alaba?,
Bera da ene poza, ene bitxia, ene biziaren iturri garbia”.
Arduradunak erantzun: “Lehen etorria duzu, zurbilik aurpegia,
Baina zure samina jakinik, ez zaitu nekatu gura, jauna”.
105. Erregeak dio: “Dei egiok! Nola nagoke bera gabe ni?
Otoi, esaiok: Zergatik joana haiz, aitaren bizia haizen hori?
Hator eta ken ene pena, zauria senda diezaion ene bihotzari.
Esanen dinat zerk naukan horrela tristaturik.
106. Thinathin laster heldu da, aitaren esanera prest,
Haren aurpegiko distirak hilargiarena du ematen.
Aitak ondoan jarrerazi du, eta laztanki besarka ere.
Esan zion: “Zergatik ez hentorren? Ene deiaren zain ba ote?”.
107. Neskatiak diotso: “Jauna, zu hain triste ikustean,
Nork ausartziarik hartuko, agertzeko zure aurrean?
Zure saminak argizagiak amil litzake zerutik behera.
Hobe du gizonak oztupoak gaindi, beraik pairatu ordean”.
108. Erregeak erantzun: “O ene haurra, hire ikustea aski da,
Bihotza pozetan jartzeko hire agertze soilaz.
Doloreak, elixir onak bezala, hik kentzen dizkidan,
Hik jakinen dun halaber ulertzen, ene zizpuru eta nigarrak”.
109. “Zaldun pitxi bat ikusia naiz, itxuraz miresgarri, zin-zinez,
Haren klartasunak ortzia eta lurraren mugak argitzen zituen.
Zerk penatzen zuen ez dakit, ez eta ere zergatik ari zen nigarrez;
Ez nau agurtu nahi ukan, eta orduan nik hari eraso, osorik suminez”.
110. “Ni ikustean baina, zaldiri eragin zion, nigarrak xahaturik,
Eta bera harrapatzeko nik bidali gerlariak oro bertan utzi, hillhotzik.
Deabru bat bezala joan zen gero, ni holaxe ilundurik.
Ametsa ala egia ote, nik ez dakit oraindik”.

111. “Miraz nago; zer ote zen bada nik hola ikusia?
Ene gerlariak bederen, hantxe hil zituen, odola isuriz uhinka.
Horrela desagertzeko, haragizko gizona ba al zitekeen izan?
Jainkoaren laguntza ba nuen, orain abandonuan nauka baina”.
112. “Haren dohain gozoak, mingots zaizkit bilakatuak;
Jada ahantzirik dauzkat pozaldian emandako egunak.
Min dut orain, inork ezin nazake ni kotsola;
Alaitasunik gabe, egun luzeak dirateke, bizitzeko ditudanak”.
113. Alabak zerantzuen: “Entzun itzazu, otoi, ene hitz dorpeak.
O errege, zergatik marmarka ari, Jainkoa eta zoriaren aurka?
Zer dela eta, zoritxarraz kexa, hain maitaro zaintzen gaituenaz?
Ongiaren egileak nola sor lezake, berberak, gaizkia?”.
114. “Hona ene kontseilua: Zu erregeen zara errege,
Zure aginduak oro, edonon dira, erresuma zabalean, betetzen.
Igor zeure gizonak toki guztietara, arazoaz jabe daitezten,
Laster dakikezu horrela, hura haragizkoa ba ote zen”.
115. Mundiaren laur aldetara bidali ziren gizonak.
Esan zitzaizen: “Zoazte toki guztietara eta ez estal zeuen pena.
Zabiltzate bada, bila zaldun hori, ez eduki besterik gogoan,
Igor ezazue gutunik, heldu ezin zareten lekuetara”.
116. Mezulariak, laster joanik, urte osoan ziren ibili,
Zaldun harrigarri haren bila beti, haren berri galdetuz guztiri.
Ez zuten Jainkoak sorturiko inor aurkitu, hura ikusi zuenik,
Gogaiturik itzuli ziren, etsita, bihotzean ez pozik.
117. Jopuek esan zuten: “O errege, mundua zeharkatu dugu,
Baina zaldun hori topatzeko zoririk eman ez zaigu.
Ezein lagun bizik ez omen du bera inoiz kausitu;
Ezin zerbitzatu ukan zaitugu; beste modurik mana ezazu”.
118. Erregeak dio: “Zuzen zegoen, egiaz, ene alaba.
Hura deabru bat zen, Satanen enganio zitala;
Zerutik amildu deabrua bera ukan dut bada etsaia.
Bihoa beraz ene samina, ez nadin gehiago oroit hartaz”.

119. Mintzatu ondoan, berriro bihurtu ziren jolasak eta pozak,
Kantari eta koblakariak haraxe deitu, nonnahitik bilduak.
Opariak egin zituen ugari, jendea ekarriz bere jauregira.
Zein beste gizonek, Jainkoak eginik, al dauka haren esku zabala?

THINATHINEK AVTHANDIL, ZALDUNAREN BILA BIDALTZEN DU

120. Avthandil, jantzi arinaz, bere gelan jezarririk zegoen,
Bere aurrean manjura bat zeukala, alegera kantatzen zuen.
Neska bat, Thinathinen esklabu beltza, atetik dakusa sartzen,
Hola diotso: "Aloe irudikoak, hilargi kide denak, nahi du zoazen".
121. Avthandil osorik poztu zen halako berri onaz.
Jaiki eta arropa jantzi zuen, zuenik apainena;
Zoriontsu, arrosagana doa; inoiz egon ez bakarrik biak.
Oi zein den gozoa ederra ikustea, izatea haren ondoan!
122. Avthandil aurrera doa, harro, ez du beldurrik inoren,
Harengatik maiz nigar eginak, bera ikusiko du laster.
Parrerik ez duena jarriarik zegoen, itxuraz triste,
Tximistak bezain ederrak, distiraz, hilargia zuen iluntzen.
123. Kataxuri-laruzko jantziaz gorputz biluzia du hark estaltzen,
Artagabeki jaitsia, haren beloia preziagaitza zen.
Beraren betile beltzek bihotza zula eta dena ederrez bete,
Lepo xuriari inguruka, adatsa daitso, luze.
124. Bertan zegoen jarrita, betilun, purpura gorritzko beloaz.
Lasaiki, Avthandili esertzeko diotso, boz benetan eztiatz,
Bai eta beronek aulkia apalki onhartu, esklabuak ekarria.
Aurrez aurre dakusa orain, pozez gainezka bere bihotza.

125. Neskatzak diotso: “Beldurrez eta kezka mintzo natzaik,
Ez nian hitz egin nahi, baina ixlitzeko ez diat jada indarrrik,
Hona zergatik haudan deitu, esanen diat orain,
Baina gogoa joana daukat, eta aurpegia ilunik”.
126. Zaldunak erantzuki: “Hiri mintzatzeko nik ezin hitzik aurkitu,
Eguzkiaren aurrean, hilargia, ttikituz, zerutik galtzen dun,
Ezin pentsa dezaket, neure buruaz ere naun ni orain beldur,
Esadan, otoi, zerk hauen hola kezkatzen, eta nik nola konpondu”.
127. Neskatzak hitz hautatuz erantzun, kortesiaz betea,
Hola diotso: “Gaur arte enegandik urrun haiz izana,
Horregatik harriturik hagoke orain entzunen duanaz,
Aurretik baina, neure penen kausa behar diat esan”.
128. “Oroitzen al haiz, zelaian, Rostanekin egin huen ehizaz?
Eta orduan ikusiriko zaldun arrotzaz, nigarra begian?
Harez gero, haren gomutak nahasirik nauka erabat,
Eta eskatzen diat, zerupeko munduan zehar, bera bila dezaan”.
129. “Gaur arte, behar bezala, esan ez badidak ere,
Aspaldian igarria diat nola naun hik maite;
Ba dakit nigarren txingorrek hire masailak jotzen zituela atergabe;
Amorioak harturik hago, eta hire bihotza gatibu duk beraren”.
130. *Bi arrazoi dituk, ba diosat, ene zerbitzari izan hadin:
Zalduna haiz, haragi-hezurrezkoen artean paregabe, batetik;
Bestetik, midjur haizelako, hitzez gabe, egiazki.
Hoa bada zaldun horren bila, eta aurki ezak, hurbil edo urrunik”.
131. “Diadukaadan amorioa bortitzagoa eginen duk horrela;
Eramak enegandik gaitz hau, eta deabru zitala katea;
Erein iezadak arrosaz bihotza, eta esperantzaren brioletaz,
Ondoren, hator, o lehoi, gure eguzkiak daitezen elkar”.
132. “Bila ezak, hirur urtez, aurkitu nahi duguna.
Topatzen baldin baduk, garaile, hatorkit hona.
Bestela, haren itxura, hartuko dut nik begitaziotzat.
Gordinik aurkituko nauk, arrosa ninika ez zimeldua”.

133. “Egiaz zin degiat: baldin eta ezkon banendi hitaz besterekin,
Hura izan arren eguzkia bera, giza irudiz, nigatik,
Paradisutik jaurtiki eta nadila ifernuan barrena amil.
Hi, maite neurea, hator ni hiltzera, eta bihotza ezpataz erdibit”.
134. Zaldunak esan zion: “Eguzki, azabatxezko betiledunori!
Zer dierranaket nik orain? Nola haiteke duda nitaz?
Herioaren zain nengoela, hik emana dut bizia.
Hire esana eginen dinat eta esklabu gisa hi obedituko ongi”.
135. Eta areago esan zion: “Oi Eguzki, Jainkoak berak eguzki egina!
Zeruetako argizagiak menean ditun, boteretsu, guztiak.
Hiregandiko grazia, sinesgaitz zait oraindik oso, harrigarria.
Ez da jadanik ene arrosa gehiago erreko, hire suzko argitan”.
136. Zin berria egin zuten orduan, hitz emanez izateko elkarren,
Solasa luzatzen ari eta ezpainetan hitzak hersten.
Ordurarte pairatu penak oro horrela zitzaizkien urruntzen,
Haien hortz xurien n̄ir̄n̄irak tximistak bezala argitzen.
137. Elkarri atxekirik, gozoro, mila gauzataz mintzo ziren,
Azabatxeak begi beltzetan diz-diz, errubiak masailak arrosaz janzten.
Zaldunak ziotson: “Hi hakusana amorioz da zorutzen,
Hiregandiko garrak dit neure bihotz zaurtua sendatzen”.
138. Zalduna, dolorez baina, beharrezkoa du joatea,
Burua itzuli eta begiak zirriborroz zuzendu harengana.
Aurpegian kristala eta arrosa izozten eta dardar gorputz lerdena,
Bihotz eskainiaren truke, maiteari berea dio osorik emana.
139. Esan zuen: “Oi Eguzki! arrosari ere hire urruntasunak min demaio,
Kristal eta errubi distiratsua lehen, horiagoa naiz orain anbarra baino.
Zer eginen dut nik, helas, zu ezin ikusiz luzaro?
Maitaleak bere maiteari, ene legean, hargatik hil beharra zor dio”.
140. Ohean etzanik, nigar jariora lehortuz eten gabe,
Haizeak darabilen lertxuna bezala, da eragiten.
Lotan, bere maitea dakusa ondoan, ametsez,
Ikaraz, goraka mintzo da eta hola bere samina hogei aldiz handitzen.

141. Maiteagandik urruntzeak erretzen dio, bai, bihotza,
Arrosaren gainera, perlazko euriaz, eztiro, nigarra darora.
Arturratzean, jantzirik apainenaz, ikusgarri zen osoa.
Zaldi gainera igon eta lasterka jauregira doa.
142. Eta berberak du edjiba erret salara igortzen
Hitzok hara eraman ditzan: "Oi errege, mintzatzera naiz ausartzen,
Zeure ezpataz mundu guztia duzu, jauna, meneratzen.
Komeni da, dena den, ingurukoak ere horretaz jabe daitezen.
143. Ni burrukatzera noa herri mugakideetan zehar,
Thinathinen handirasunaren etsaiei bihotzak zulatzera.
Zintzoa alegeratuko dut, bihurriari, aldiz, nigarra atera.
Dohainak eskubeteka nik emanen, eta konta ezinezko «salam»ak".
144. Erregeak ordainez zaldunari eskerrik onena erakutsi.
Honela diotso: "O, lehoi! ezerk ez hau inoiz atzeratu hi.
Igorri didaan mezuak ere hire adorearen pareko osorik dirudi.
Hoa bada! Baina hi gabe, luzaro, nola ni naiteke bizi?"
145. Zaldunak, sartu eta, agurrez, bihotzetiko hitzak diotsoz:
"Oi buruzagi! egin didazun laudorioak harriturik nauka oso.
Jainkoak ai letsa, eta egun ilunetan ene bidea bere argiaz jo,
Eta zure bisaia alegera nik zorionez berrikustea poz bekio".
146. Erregeak, lepotik hartu eta, seme maite gisa, hura besarka.
Harrigarri zeuden biak, eta ikaslea zen maisua bezala.
Joateko altxatu da zalduna, agurren ordua heldua dute jada.
Rostan jakintsuak, bihozpera, nekez gordetzen du nigarra.
147. Bidean da Aythandil, zaldun adoretua, itxuraz ausart,
Hogei egunez zaldiz ibili, gaua du nahasten egunaz,
Munduaren esperantza bera da, haren altxor eta alaitasuna.
Thinathinen oroipenak, ordea, zuen beti erretzen, bere garren suaz.
148. Bere erresumara heldu bezain laster, alaitasuna zen han nagusi,
Opari miresgarriak eskaitzera jendea zetorkion ugari
Zaldunak, aurpegi eguzkidunak, ez du bidaia bertan gelditu nahi
Eta hura zekusaten guztiek, segizioz, poza dute nabari.

149. Ba zen gotorleku bat, beldurgarri hauzoen
 Inguruan haitza jaikitzen, berezko murraila eginez.
 Zalduna hantxe ehizan aritu, horretan hirur egun emanaz,
 Geroago Xermadin, ttikitako laguna, ondora deitu zuen.
150. Berau zen lehenago aipatu dugun ezkutaria,
 Avthandilen adiskide mamia, haurtzaroko lagun zintzoa.
 Ordurarte zen zuen jakin suak zuela erre bere nagusia,
 Baina jadanik beronek agertzen Eguzki maitearen promes gozoa
151. Esan zion: "A Xermadin, ixiltzeaz lotsa naiz,
 Hik ongi baihekien ene asmo guztien berri eta laguntza eskain,
 Baina ez duk jakin orain arte, zenbat nigar ixuri dudan hargatik,
 Sufrierazi nauenak, halere, poza ematen dit orain".
152. "Thinathinez hiltzen nintzen, haren maitasun eta neure grinez.
 Ene narkissoei suzko malkoa jario eta arrosa izoztuak erre.
 Neure oinaze saminak pairatzen nituen, ixil, inori erakusteke,
 Baina haren esperantzazko hitz eztiak, orain pozez naute bete".
153. Esana dit: "Hoa, habil eta ekardak zaldun galduaren berria.
 Hatorrenean, hire bihotzaren nahi handia, nik konplituko diat,
 Hitaz beste senarrik ez dut gura nik, balitz ere paradisuko zuhaitza".
 Hark eman dit baltsamoa, garrezko neure bihotza ema dakidan.
154. Lehenik zalduna naiz eta neure nagusia zerbitzatu behar.
 Erregeei zintzotasuna zor, hola diete sujet guztiak,
 Haren hitzek garrak itzali, bihotza errausten zidatenak.
 Zoritxarra badator, gizonak gizonki du hura gainditzen.
155. Nagusi eta sujet guztien artean, hi eta ni hurbilenak garateke,
 Hortaz, entzun nazak, otoi, eta adi ongi ene hitzek zer dioten.
 Neure lekuna uzten haut, tropen agintari, ene loktenente.
 Ardura hau, hitaz besterik, inori ezin utz niezaioke.
156. Goberna itzak eta gida, ene jaun eta soldaduak,
 Bidal mandatariak gortera, berriak ekar ditzaten hangoak.
 Ene izenean gutunak eskriba, eta egin oparo bezuzak.
 Ez dezala inork Herrian nabari nabilenik urruna.

157. Burruketan har ezak ene leku, eta ehizan egik nik bezala.
Igurikak eta, zintzoki, ene sekretua hirur urtez edukak gordeta.
Orduan berriro natorke, neure aloe-zuhaitza eihartua ez bada.
Ezperre, auhen eginen duk, tristerik, nigatik ixuri beharrez nigarra.
158. Orduan, ez bestela, eramaiok erregeri hain berri mingarria,
Esaioak hila naizela, mintzatuz egiten duenez hordiak.
Esaioak inork eskapatzerik ez duen zorteak joa naizela.
Behartsuei ene altxorrak oro eman, urrea, zilar eta kobrea.
159. Hil nadinean are behar duk izan zintzoago enekin
Gogora hadi nitaz eta ez nazak ahantz goizegi.
Eta ongi dagoenez, ene arima bakean egon dadin, otoitz egik.
Hautzaroko oroitzapenez, hirea enegana, ama-bihotza bihur bekik.
160. Aitorpenok aditzean, laguna harriturik gelditu zen, zurtuta.
Begietaatik malko irakinak erori, perla itxuraz.
Diotso: "Hi gaberik ene bihotz tristea ezin dagoke poztuta.
Ba hoala ongi dakit, eta ezin diezaaket galeraz hori inola.
161. Zergatik nahi nauk izendatu hire erresuma gobernatzeko?
Nola ibiliko naiz ni nagusi, ez izanik hire pareko?
Hobe litzateke lurrak, bere sehaskan, har banintza betiko,
Hi bakarrik joatea baino. Hortaz, eskatzen diat elkarrekin joateko.
162. 'Zaldunak erantzunik: "Egia diosat garbiki,
Midjnurak bakarrik behar du, basoetan zehar, ibili.
Ezin dezake inork, nekerik gabe, perla arrarorik aurki.
Gizon faltsu eta ankerra, lantzaz zulatua izan bedi".
163. Nori neure sekretua konda? hitzaz besterik duinik ez da.
Nori agintea utz? Nork erabil dezake hobeki bera?
Senda itzak gure mugak eta edukak urrun etsaia!
Jainkoak abandonatu ezik, berriz natorke egunen batean.
164. Zoriak gizon baten edo ehunen biziak eskuan darabiltza.
Zeruko argizagien indarrek jagon bezate erratu honen bizitza.
Hirur urteren buruan ez banentor, lutuz eramane ezakek jantzia,
Gutun bat eskribatua diat, handi eta ttikiak oro, hire menpeko ditzan.

AVTHANDILEK BERE MENPEKOEI
EGINDAKO GUTUNA

165. Eta idatzi zuen : “Ene menpeko on, ene maisu eta ikasleok,
Segur eta frogatuak zarete eta beti holaxe izanen, egiaz zintzo,
Zuek dakizue ene nahiak betetzen, eta haiei jarraiki, itzalen antzo.
Elkarrekin bil zaitzete eta jakizue : ene mezua duzue hor !
166. Zuen oinpeko lurra naiz ni, hizketan nago, adi nazazue.
Gutun hau igortzen dizuet, eginik neure eskuez.
Denbora apur batez joan behar dut, ahantziz jai eta kantuez,
Ogia eta jana, enetzat, arku eta erpuruak topatuko dute.
167. Neure Herritik urrun bizitzera, arazo goi batek narama,
Behartsu eta bakarrik ibili, egun luzeetan erratzera.
Hona zergatik erreguz nagoen, hona zergatik eskatzen dizuedan
Ene erresuma osorik gordetzeko, bera dezazuela etsaiagandik salba.
168. Xermadin izendatzen dut jaun, ene lekuan jarriz,
Ene heriotzearen berri jakin ezik, Eguzkiak bezala eginen dizue argi,
Hark ez du utziko hiltzen, hotzez dardar, ezein ere arrosarik,
Gaizto guztiak, ezkoa beala, bere inguruan urturik.
169. Hazia dut, dakizuenez, anaia legez, seme gisa,
Haren manura zaudete, bera Avthandil bailitzen,
Turutak jotzean, ene lekuan behar diozue utzi erabakitzen,
Garaiz ez banentor, egizue, nigatik, otoi, zeuen nigar”.
170. Gutuna amaitzean, hain hitz ederrez egina,
Urrezko gerrikoa hertsiz, bere bidaiarako, bakarrik, prest zegoen,
Eta esan zuen : “Haren gainera noa, zelaian dut bada zaldia”,
Orduan, luza gabe, bertan bere etxea utzi zuen.
171. Agindu zien : “Zoazte hemendik, ez baitut behar ezein ere lagunik,
Eta jopu-gerlariak oro bidali, bera geldituz bakar-bakarrik,
Zaldiaren brida okertuz, kanaberetan zehar abiatu zen arinik,
Thinathin, bere erhailea, gogoan zeraman gorderik”.

172. Gero, hauzoko landetan zehar, bere armadatik urrundu zen,
Zein gizonek ikus lezake? Zein hari lerraioke?
Noren ezpatak harekin burruka? Indarra menderagaitza zuen,
Maitasunak dolorearen pisu astuna eramaten zion laguntzen.
173. Ehizaren ondoan, gerlariak bere buruzagia ikusi nahiz,
Haren Eguzki pareko aurpegia baina, inon aurki ezin,
Penak beren pozari tokia kendu, eta joan ziren, nekeaz zurbil,
Zaldi arinen gainean hegazka abia, eta haren bila ibili.
174. “Jainkoak, O lehoi!, ba al lezake heure tokian jar besterik?”
Ba doaz lasterka, nonnahi bila, jendeari deika, mezulariak igorritz,
Baina ezin dute inon eriden beren jaunaren hatzik,
Eta armadako guztiak nigarrez ziren aritzen, bihotza hunkiturik.
175. Xermadinek nagusiak bildu, gortelari eta jaun haundiak,
Haiei irakurtzeko buruzagiaren gutuna, beraren hitzak,
Guztiek bihotz zaurtuaz hari entzun, eta burua jo kolpeka,
Bular denak minberaturik zeuden, bihotza itota, nigarraz.
176. “Gure izatea — zioten —, hura gabe pisutsu dateke osoa,
Baina hala ere, nori, hiri ez bada, utz ziezaiokeen thronoa?,
Obedituko haugu, bai, eta hire esanetara makurtuko geure burua”.
Eta hola guztiek agurtzen, agintari bihurtua zuten menpekoa.

EGUZKIA GURTZEA

JUAN SAN MARTIN

Eguzkia gurtzeko ohitura aintzin aintzinako denboretatik gure egunok arte iraun du euskaldunon artean. Arkeologia aldetik begiratuko bagenuke, gutien gutienez Neolitos garaitik datorkigu ohitura hau. Eguzkiak argia eta beroarekin bizitza ematen digu, eta natura hutsaren gora beherekin bilakatu zen aintzinako gizonak, eguzkia gurtzea gauzarik bidezkoena zela esango genuke.

Aintzinako euskaldunek bitan banatzen zuten urtea: Uda eta negua. Hola aitortzen zigun Azkue berak *Euskalerrriaren Yakintza*-ren lehen tomoko 68. orrialdean. Eta, obra beraren 158/160 orrialdeetan aurkituko ditugu eguzki gurtzearen agiriak, goizean irteran edo naiz arratsalde ezkututzean. Gorbea ostean gordetzean: “Gaur kontsolau nozu, eguzkia; biar bere etorri zakidaz kontsolau naiten”. Edo beste honako hauek, Diman: “Eguzkia joan da bere amagana, biar etorriko da denbora ona bada”; eta Azpilkuetan egunsentiz: “Ongo etorri, iduzki xuri”.

Eguzkia, iduzkia, iruzkia,... ezagutzen da euskalkirik euskalki, baina bere sustrai zaharra Zuberoan oraindik erabiltzen duten “ekhia”n aurkituko dugu. Eta hontatik hartzen du bere izena hil honek ere, Ifarraldeko euskalki batzuetan, Ekaina. Eguzkia goren aurkitzen den hila. Eta hil honetan izango dira eguzki jaiak ospatzeak ere, Euskal-Herrian ez ezik mundu guzian ere zabaldua den ohitura.

Eguzki gurtze hoiek jentil otoitzak ziren noski, Luzaiden “atsuen otoitzak” eta “otoitz ttipiak” bezala ezagutzen direnak. Jose Maria Satrustegik jaso zituen hoietarik anitz eta Euskaltzain-

diko sarrera hitzalditzat *Luzaideko Otoitz ttipiak* hartu zituen (ikus, "EGAN", 1964, 1-6 zenb., 19/30 orr.). "Herri bat zer den ongi ezagutzeko, zer izana den jakin behar litzake lehenik; edo nolakatu dugun denborarekin", esango digu Satrustegik bere hitzaldiaren haseran, eta adibide askoren berri agertu zigun, ber berak zuzendi jasoak. Kontatzaileetariko batek honela aitortu zion: "Iruzkia ateratzian zeinatu eta esku-zabalari musu emanez potta igortzen dakogu".

Aita Donostiak ere antzerako gaia erabili zuen 1956an Euskaltzaindiko solas-aldi batean, "Euskal-Erriko otoitzak" izenez (ikus, "EGAN", 1956, 2. zenb., 34/52 orr.). Bertan zionez, Zuberoan oraindik ere esaten omen da "Ekhi saindua".

Nafarroako Larraunen honako otoitz hau aurkitu zuen:

*Agur, eguzki ederra,
Jetxirik zerutik lurrera,
Illuna desterratzera
Tta gu argitten paratzera.*

Eta Luzaiden bertan esaldi polit honi atxeman zion Aita Donostiak: "O Iruzki saindia, emakiguzu illeko ta biziko argia". Lekeition, haurtxoei, San Juan goizean goiz jaikitzeke esaten omen zien: eguzkia dantzaz agertzen zelako. Eta Baxenabarreko Banka deritzan herritxoan jaso zuen otoitza ere oso polita da: "Adio Iguki saintua, bihar arte; bihar xauri (atoz) egun bezala".

J. M. Barandiaranen bilketetan beste argibide asko bilatu genezake gai honi buruz. Ikus bere *Obras completas*-en lehen tomoan 75, 271 eta 383. orrialdeetan. Lehen partean, Euskal-Herriko Mitologian eguzkiak duen hedadura agertuko digu. Deitu ere, "Eguzkibegi" eta "Jainkoaren begi" deitua da Ataunen eta Berastegin. Eta San Juan jaiekin duen loturaz zenbait argitasun ematen digu. Aipatutako obra honen barnean dugu *La religion des anciens basques*, eta bertan ikusten denez, inoiz emakumezko amonaren izena hartzen du; Elosutik Plaentziara bitartean Muskurutzuko mendietan jaso zuenez:

Euzki amandria
Badoia amangana,
Biar etorriko da,
Denbora ona bada.

“Amandria”, ilargiari deitzea, maizago ezagutzen dena da. Lan berean eta erakutsi dugunaren ondorean agertzen den bezala :

—*Ilargi amandrea,*
Zeruan ze berri?
—*Zeruan berri onak*
Orañ eta beti.

Ataunen eta Ormaiztegin hurrek esan ohi dutenez. Baina, arestian adiarazi dugunez, “Ilargi amandrea”renak oso zabalduak dira Euskal-Herri guzian.

Bietan argia da pertsona izena hartzen duena. Honegatik, Ondarruko koplá bat honela hasten da: “Zeu zara Santa Klara, euskeraz argia...” Eta Mañari partean esaten dutenez, eguzkiaren ama dela Andre Mari, izen honekin Ama Birjina adiaraziz. Baina behar bada, lehen lehenago, Andre Mari, mitologiako Marirekin nahastu zen, Nafarroa eta Gipuzkoako zenbait herritan agertzen den bezala (J. M. Barandiaran, *Obras completas*, I, 383/384 orr.). Eta inoiz santa eta bedeinkatua aurkituko dugu. Adibidez, Errigoitin esan ohi da: “Eguzki santu bedeinkatue, zoaz zeure amagana”.

Erlijio berriagoak zaharragoetarik beti hartzen dute zenbait ideia, gauza eta sineskera, eguzkia gurtze honetan ikus genezakean bezala, eta Ekaineko Suan Juan suak zaharrenetarikoak ditugu, gure egunotara arte irauduenetarik behinik pegin.

I - USTEAK USTE DIRENEAN

Usteak uste direnean azterketa eskatzen dute, eta urrutitik eta era askotara badatoz argi asko eskatzen dute egiaren barnea ikus ahal izateko. Epe labur batean bi aldiz aurkitu dut noizpehinka erabiltzen den leloa eta argi zirriztu bat eman nahi nuke honako uste hauei buruz: Euskara garbia eta euskaldunaren mututasuna.

1977ko apirilaren 13ko "El Diario Vasco"n Elías Ruiz Ceberio-ren artikulu polit bat irakurri nuen G. Arestiren poesiari buruz. Euskal literaturara lordinkeriak agertzeaz ari zen eta aspaldiko uste haiek berritzen edo gogoratzen zituen. Menéndez y Pelayo-k Samaniegori buruz esan zuen "la honrada poesía vascongada" Ruiz Ceberio ber-berak bazterten du geroztik argitaratu ziren maitasun alegiak lekuko. Migel Unamunok ere, uste berekoa zenez, euskal poesiak beharrezko zuela "deshonrarla". Esan nahi horrekin hizkuntza gordina erabiltzea adiarazi nahi zen, naiz birao edo naiz lizun, erabili beharrak hala eskatzen baldin bazuen.

Egia da Arestik hizkuntza gordina erabili zuela, lordinaren beldurrik gabea, eta indartsu erabili ere. Baina baita ere egia da Unamunok, inoiz euskaraz idatzi bazuen ere, ez Etxepare eta ez Etxahun ez zituela irakurri, ez eta ere herri literatura ezagutu. Bestela ezinezkoa zuen esaldi hoiek beste gabe erabiltzea.

Bestalde, "resucitar un megaterio es más fácil que resucitar el vascuence como lengua histórica y de cultura" esateaz, nonbait ahaztu zen latinari gertatuaz eta joan zen mendearen erdialdetik Europan hainbeste hizkuntzak izan zuten berpizkundeaz.

Baina harrigarriagorik eta ilunagorik bada. Tirso de Molina-k idatzi zuen gure leporako: "Corto en palabras, pero en obras largo", gure esaera zaharraren kideko, "hitzetan lander, eginetan eder". Baina esan nahi honen alderdiak ez dira berdinak.

Mikel Zaratek berriro gogoratu digu *Euskal Literatura* deritzan liburuaren hitzaurrean Ortega y Gasset-ek Zubiaurretarrei buruz ari zelarik esan zuena: "Ser vasco es, sin más, una renuncia nativa a la expresión verbal". Mikel Zarate, Lizardi, Mitxelena, Intxausti,... eta bere bertsoak lagun, esaldi hoién aurrez aurre jartzen da edo jarkitzen da.

Guk, gure apaltasunetik, badakigu gizon handiak ere epelkeriak eta txotxolokeriak esaten dituztela. Gainera, azkoz txarra-
goak dira aintzinagoko esaldi ilunagoetatik nolabait hartuak baldin badira. Nolabait hartuak diot, zeren aintzinagokoak nola eta zergatik erabili zuten aztertu beharra bai dugu.

Cervantes-ek, esate baterako, Antso Azpeitiakoa (Quij., I, 8) jartzen du gaztelera traketsuz mintzatzen, bere humorea galdu gabe, antzerako humorez agertuko du *La Gran Sultana*-n ere Cadí Madrigal-en arteko elkarrizketa, honek, adarrajoaz, elefante bati euskaraz ("En vizcaína") irakasten ari zela, esaten dionean. Baina Cervantes gizon zuhurra zen eta ez zen lerratuko beste "jakitun" horiek bezala. Bazekien hizkuntza bakoitzak zer balio zuen mintzatzen zen herriarentzat. Eta, bere denboran, kultur mailetan oraindik hain beharrezko uste zen latin giroari erantzunez esango du: "Homero no escribió en latín, porque era griego; ni Virgilio escribió en griego, porque era latino. En resolución: todos los poetas antiguos escribieron en la lengua que mamaron en la leche, y no fueron a buscar las extranjeras para declarar la alteza de sus conceptos; y siendo esto así, razón sería se extendiese esta costumbre por todas las naciones, y que no se desestimase el poeta alemán porque escribe en su lengua, ni el castellano, ni aun el vizcaíno que escribe en la suya" (Quij., II, 16).

Orotarik esana da gure hizkuntzaren inguruan, bai ohorez eta bai irainez. Baina herriaren nortasunari eutsi nahi diogunok jaramon gutiago egitea komeni zaigu. Hobeagoa eta txarragoaren gaine-
tik, geurea dugu, eta geurea dugun aldetik herri nortasunaren galga markatzen diguna.

Euskaldunaren mututasuna eta mintzatzeko trakestasuna, aintzinako haiéntzat, aski argi dago gaztelera mintzaterakoan zela eta ez euskaraz mintzatean. Askoren harridura, aitonen semeak Gorteeetan erabiltzen ez zen mintzairaz jardutzea zen, eta hainbeste izkribadu gora behera, Gorteko mintzairaz hain gaizki jar-

dutzea. Eta, garai hartan, kultur hizkuntza, Gorteko hizkuntza zen. Honegatik, Camoes-ek ere aitortuko zuen jatorri noblezako baina arrazoi lehunik gabea, erromantzez aritzean behinik behin:

*A gente Biscainha, que carece
De polidas razoes, e que as injurias
Muito mal dos estranhos compadece.*

Esaera leunik gabeko bizkaitar jentea ginen; arrotz, arrotzentzat.

Baita ere, garai hartan, maiz esaten zen gure hizkuntzak ez zuela bertsogintzarako dohainik, kontsonanteak urri zituelako, baina gure egunotan harritzen dire gure bertsolariak bat batekoan nola ari diren bertsogintzan, puntuak osatzeko eragozpenik gabe.

Lehenago uste haiek behar bezala ulertzeka, hara hor oraingo "jakitunak" nola eroritzen diren arinkerietan. Baina, euskaldunok, bai orduan eta bai orain, erraz uler genezakean bezala, erdaraz ongi mintzatzen ez baginen ere, horrek ez du esan nahi euskaraz ongi mintzatzerik ez dugunik; Cervantes-ek Kixotearen bigarren partean ongi zion bezala, bakoitzak berean egiten du onduen.

Azken batean, esaera lehunak ez ezik, lizunak eta zikinak ere edozein hizkuntzak erabiltzen ditu. Pentsaerak eta sentipenak eskatuala hornitu beharra bai du literaturak, eta hala aitortzen zigun Piarres Lafitte berak "Gazte bati, Literaturaz" egin gutunean (*Hegatsez*, Hitz-lauzko bilduma, 1971).

Arrazoi bideko kritikak gailentzen diren European ordua dugu ganarorik gabeko usteak baztertzekoa, eta hontarako zentzunez jokatu beharra dugu, bai etxekoek eta bai kanpokoek.

II - MAITASUNETIK LIZUNTASUNERA

Aurreko artikuluan agertzen dudan bezala, aintz dire oraindik euskal literaturan birao eta zikinkeriarik ez den ustean. Informazio-

rik ezak zabaldu ditu holako usteak. Badakigu euskal literatura elizkoiak gehiago landu dutela, baina bestelakorik ere bada, Irigarayk "Esbozo bio-bibliográfico de Literatura éuskara profana. (Del siglo XV al XX)", deitu lanean adiarazi zigun bezala. Ikus "Príncipe de Viana" aldizkariaren 98/99 zenbakia (1965). Baina horiez gainera bada porno erakorik ere.

Adibidez, euskaraz inprimatu zen lehen liburu berean, 1945ean, Etxeparek emakumezkoaren maitasuna kantatzen duelarik, bertso eder asko eskaini zizkigun. "Emazten fabore" deritzan poesiaren azkenaldean honako bertso hauek agertu zituen:

*Munduan ezta gauzarik hain eder ez plazentik,
Nola emazia gizonaren petik buluzkorrik;
Beso biak zabaldurik dago errendaturik,
Gizon horrek dagiela hartaz nahi duenik.*

*Io badeza dardoaz ere gorputzaren erditik,
Ainguriak bano oboro ez larrake gaizkirik;
Bana dardoa ematurik, zauri ere sendoturik,
Bere graziaz ezartein'tu elgarreki baketurik.*

Etxepare apaiza zen, Hita-ko Arzizpretea bezala, Trentoko Kontsilio aurretikoa eta gai horiek libreago erabiltzeko eskubidea izan zutenetakoa. Baina geroztik ere gordinkeriarik aski idatzi da euskal literaturan. Gordinkeriak ez ezik baita zikinkeriak ere. Eta, hontan, Etxahun ez dugu izan bakarra.

Gure egunotan J. Mirandek "Igela" aldizkarian idatziak oso ausartak izan ziren, eta bere eleberria, *Haur besoetakoa* euskaraz ezagutzen den lizuzena noski. Baina Mirande aparteko kaso bat zela aitortu behar dugu, eta honegatik hain zuzen, ez zen gure artean ongi ikusia. Eta, Miranderen baitan Paris-korik haina Zuberoko kutsurik bazela esango genuke. Xaribari eta Xikitoak hangoak bai dire, eta bertako molde joera dute *Orhoituz* poema liburuko askok. Eta herri kanta horietan maitasunari buruzkoa

maizenik eztiki erabiltzen bada ere, inoiz gordintasunik ere ez zaie falta. Hara hemen Zuberoako bi bertso :

*Neskatila ejerrak abisa zitaie
Gaiazko bidajiak lanjerus dirade:
Zizañak sabelpetik lotzen bazaitzie
Bedatsian bidaküriak jelkiren zaitzie.*

*Ikusten dudanian maitearen aztala
jartzen zait büztana adarra bezala,
ondula lodi da, moskula gorri da,
Inbeia dü ziloa satorrak bezala.*

Euskal-Herriaren beste muturrean, Bizkaiko panderojotzaileak erabiltzen dituzte era horietako bertsoak. Hoiengandik entzunak guk geuk ere mutikotatik ezagutzen dituko holakoak :

*Iñork eskatzen ez ta eskaintzeko lotsa,
alperrik galtzen dauka bere santu motza.
Ai, oi, ai! bere santu motza.*

*Mari tranposa Mendigoittiko,
badozu milla grazia;
mutil gaztiak engaiñatutzen
gaztetatikan hasia.*

*Eibarko neskatillak
titi biribillak;
handik beheratxuago,
saiatu mutillak.*

Hoiek gainera nahikoa leunak dira. Gordinagoak eta lizunagoak ere badira. Baina komuneko gauza zikinak jan-gelara eta

senar-emazte gelakoak plazara ateratzea ezta itxura. Honegatik lotsatzen gara lizunagoak hemen agertzera; itsusi baita. Hemen-dik ulerteko du irakurleak gu holakoen lotsaz bagara, ez dela harrigarria kanta zaharren bilketan aritu izan direnak ere holako ahalkeak izan dituztela. Hare gehiago biltzailerik handienak apai-zak izan direnezkeru. Gainera, kontatzaileak ere, hoiei zien erres-petuagatik isilarazi izan ditu era horietakoak.

Hemen, gaurkoan, askoren usteen kontra lekukotasunaren adibidezko muestra batzuk bildu ditugu. Hala ere, esan beharra dut, pikarezka lehunagoa maizago erabili izan dela. Gauzak bere gordintasunean agertu gabe, esan nahiaz adiaraziz. Esate baterako, honako beste bertso honen antzerakoak:

*Urkiola gaiñeko
pagan azpian,
akordatzen al zara
zer egin genduan?*

Edo beste honako hauen erakoak:

*Ederra zaran bezain
baziña sekreta;
sarriago joko nuke
leihoko krisketa.*

*Arrosaren pareko
kolorearekin,
zeiñek ete dauko
fortuna zurekin.*

Estilo horietan intentzio hutsak airean uzten dira, nahi duenak nahi duen eran har dezan. Eta hoietakoak ugari aurkitzen dira

gure herri literaturan. Ez dira izango gure literaturaren agergarri-rik hoberenak, baina horiek er hor daude, beste edozein herrik bezala, Unamuno, Ortega y Gasset eta orainagoko batzuen usteak ustel direla salatzeko haina.

EUSKAL-LITERATURA BERE BARNETIK IKERTUAZ

JUAN SAN MARTIN

Edonongo literaturak bere nortasunean heldutasun batera iristen denean bere barnetikako kritika saioak ditu agergarrikerik berezianak. Euskarazko aldizkarietan, zenbait libururen parteetan eta bereziki liburuen hitzaurreetan, maiz agertu dira euskal-literaturari buruzko barnetikako azterketak, baina liburu osoak hortaz argitaratzea oso berria zaigu.

“Literatura testuak aztertzea modan jarri dela gaur leku guztietan esan genezake. Azken urteotan hainbat liburu argitaratu dira gai hortaz. Baina ez dut uste bat ere argitaratu denik euskaraz.” Hala dio Mikel Zaratek argitara berri duen *Euskal Literatura* (Azterbideak, Aztergaiak, Azterketak) liburuaren sarreran. Baina liburu beraren bibliografia partea begiratzen badugu Azurmendi-*ren Zer dugu Orixeren kontra*, Begiarmen *en Sei idazle plazara*, elkar laneko *Xabier Lizardi* eta Sarasolaren *Txillardegi eta Saizarbitoriaren Nobelagintza* aipatzen dira behinik-pehin, maila bereko azterketak ez badira ere, ezin ukatu literatura azterketakoak ez direnik.

Egia esan, gure belaunaldi honetan era guztietako errebisioak gailentzen diren garaian literatura azterketak ere bere lekua izatea

ezta batere harritzekoa, mendearen seme garenez gero, Ideiak eta balioak erroetaraino ikusmiratu nahi dira, eta Mitxelenak ongi zion bezala, kritika eta eraberritzea geuron kaltean izango badira ere, horiexen beharrean gaude.

Gure literatura bere barnetik erakutsiaz datozen liburu hoiek literaturagintzaren aro berri baten aurrean jartzen gaitu. Lanok, etorkizunean gidari izango ditugu, elkarri erakutsiaz maila hobeko bateko egoera aurkitzera eramango gaituanez. Zeren, azken batean, aburuak markatuko diskigute biderik zihurrenak.

Karlos Otegi, *Pertsonaia euskal nobelagintzan* deritzan liburuaren sarrean honako uste hau agertzen bai digu: "Baina, hauxe da arazoa. Euskarak baduela bere literatura propioa, eta geuk, inork izatekotan, behar dugula aurkitu, aztertu, kritikoki jakina, eta ezagutzera eman, norabidetu eta landu."

Honako aitopene honen ondotik, literaturaren saiaerazko liburu hauen hariaren berri soil soilik emango duk, barneragotik ezagutu nahi duen irakurlearen lagungarri. Hara hemen testu aztertzen agertu diren bost libururen berri:

Sei idazle plazara (1974) bi tomatan argitaratu zuen Jakin argitaldaria. Estrukturalismoaren teknika arabera Mitxelena, Aresti, Larresoro, Azurmendi, Garate eta Ansola euskal izkribatzaileen ideologiako azterketak agertzen dituzten P. Iztueta eta J. Apalategi "Begiarmen"en izenpean. 1975eko urriaren seian HOJA DEL LUNES honetan egin nion kritika aski luze bat. Nere ustez, oinarritzeko huts bat du obra honek, alde aurretik baldintza estuegiak harturik hasia denez, baldintza horiek egiztatzeko garraiatzen ditu hainbeste material beste ikusmoldeetakoak bertan behera utziaz. Hala ere, langintzarako metodologia berri bat agertu zuen, lan ederrak burutzeko ahalmena idekiko zutena, eta neurri handi batean obra berak ere salatu genuena baino alde hobeak gehiago ditu. Ikerketarako urrats handi bat izan zen.

Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza (1975), Kriseluk argitaratua, biziki ona da. Gure belaunaldi hontan euskaraz idatzi diren eleberririk hoberenak aztertzen ditu, Txillardegi eta Saizarbitoriaren eleberrien analisi serioak eginaz, irakurlearentzat gidari izango direnak. Kritika ondo burutzeaz gainera irakurgai atsegina iduritu zitzaidan I. Sarasolaren liburu hau.


Zer dugu Orixeren kontra (1976), Jakinek argitaratua. Joxe Azurmendiren liburu hau, bere gehienak bezala, ez da lotzen holako teknika zehatz bati metodologiaren aldetik, baina bere ideien jario aspergaitzak filosofia mugetatik ari den saio sakona burutzen du. Orixekin, inoiz gehienok pasatu ginen behar zen neurritik harat eta Azurmendik arrazoiz botatzen digu aurpegira. Gazteluk ongi zion bezala "behar bada euskal idazle batek luze-zabalean eta kalidadean inoiz utzi duen larriena, handi-haundizka harturik". Egia esan, Orixe bere handitasunean onartzeak ez dakar kalterik, kalteak idoloztat hartzetik datorzke. Idolo bati ahoa zabalik begira egoteaz lo hartzeko arriskua duenez eta elkar lanean aritzeak dinamika pizgarria. Baina, gaur, zorionez, ez daukagu holako arriskurik, zeren goi mailetan ari diren idazleen artekoak anitz ditugunez.

Pertsonaia euskal nobelagintzan (1976) delako saiaera ederra Gerok argitaratua da. Karlos Otegi du egile, baina ulertzen ez duguna zera da, euskaratzaile hala zuzentzaile, zertan parte hartu duen Dionisio Amundarainek. Holako lan bat hain ondo burutzeko behar beharrezkoa zuen egileak euskaraz ondo jakin beharra, erabili dituen lanok euskaraz daudenez. Dena dela, bertako saiaeraren aburuak dira interesatzen zaizkigunak. Eleberriaren muina ondo ezagutzeko beharrezkoa zaigu bertan erabiltzen diren pertsonajeak ongi ezagutzea eta hontara garamaz liburuaren egileak. Txomin Agirreren *Garoa*, Txillardegiren *Leturiaren egunkari ez-kutua*, A. Lertxundiren *Ajea du Urturik* eta M. Ugaldereen *Itsasoa ur-bazter luzea da* eleberrietako pertsonaietan oinarritzen da egilea, etxeko eta kanpoko anitz obrakin konparaketak eginaz.

Azkenik, *Euskal Literatura*, aurten Leopoldo Zugazak argitaratua. Mikel Zarateren liburu honen xedea zenbait idazkariren lanetan aurkitzen diren une ilunak, sinbolojiak, ideiak eta gainerako moldeak aztertzea da, nahiz hizlaurkoak edo nahiz hizneur-tuzkoak. Txomin Agirre, Otsalar, J. Azurmendi, Lauaxeta, J. M. Lekuona, R. Bustintza, Gandiaga, Intxausti, Aresti, X. Garmendia eta Saizarbitoriaren zenbait lanetan oinarriturik literatura irakurketarako lagungarri izan nahi du. Idazle bakoitzaren ingurua eta iturriak ere adiarazten ditu. Humorea ere humore sendoa du, Ortega y Gasset eta Unamunok beren marfilezko dorretik gure hizkuntzaren ezerreza eta hiletak kontatu bazituzten ere, Lizardi eta Mikel Zaratek bertsoz kantatuko digute, handi mandirik gabe, gure hizkuntza apal honen gogo berria eta noranahikotasuna.

Obra hoiek erakusten digute lanaren jardunez zertarako garan eta zertarako gauza den euskarazko literatura bera.

Azken bi liburuen egitura eta beren bibliografia iturriak bide berri bat markatzen digute ikerketazko saioretan laguntzeko. Bost obrok gure belaunaldi hontako literatura balioen lekuko dira. Gure literaturaz arduratzen diren guziek irakurri beharrezkoak eta, behar bada, euskal alfabetatzeetan irakurgaitzat erabili beharrezkoak, zene literatura erakutsiaz autoreak beren ilunbeetako agernahietara arte funtsez konprenitu ahal izateko erak ere agertzen bai dituzte. Eta horiek ezagutzeaz zernahitariko literaturak hobeto irentsiko bide baita.



Ipui-Kondari

MAIDDI-URRIKA

**(Haur txikientzako.
Iloba-loba Inhar-i)**

Euskaldunen maitagarria izan zen Mairidi-Urrika: Oso ederra, polita eta benetan ona. Urtez urte, beti irauten zuen gazte, azken gabeko gaztetasunez. Gazte, beti zahartu gabe. Beti gazte, eder eta polita.

Elur sasoieta eta ekaitz egunetan gure mendi eta basoetan artaldeetako ardi galduak bildu eta artaldeetara berreskuratzen ahalegintzen zen.

Laguntza handia ematen zien artzaiei ordu larrietan arkitzen zirenean.

Haritz eta pago-basoetarantz joan eta ezkutitzen zen, bere mesedeko eginkizun onak amaitzen zituanean.

Basoetan babes gabe bizi ziren izaki guztien gordetzaille eta zaindaria zen Basajaun mutil jator eta adoretsua zuen adiskide handia, eta biak biltzen ziren atsedean orduetan. Baso barneetan biltzen ziren batzutan, eta haitz-mendi tontor gailurretara igoten ziren beste batzutan: Mugarra, Anboto, Oiz,... Haitzgorri,... Anbotoko Kobara zokoratzen zen, erabat nekaturik aurkitzen zenean.

Bakardade hartan zuzpertzten zen nekaldietarik, bideetan behartsu harkitzen zirenei laguntzeko gero, galtzen ziren haurrei batez ere.

Basoetan, edo bide-bazterretan galdurik eta negarrez aurkitzen ziren umeei kontuz-kontuz eta maitekiro kasu egiten zien.

Kondu-kondari eta kanta-kantari, gozoek ere eramaten zituen, eta atsegingarri izaten zen haurrekin. Adiskidetu eta gero, etxeratu egiten zituen haurrak, poliki poliki.

Maidi-Urrika berarekin joatea nahi izaten zuten ume batzuek, bere etxeetara joan beharrean. Horrelakoxea zen Maidi ederra: Ona, atsegina eta maitagarria benetan.

Bainan, urteak joan eta urteak etorri, gizaldi eta gizaldietan, urritu egin ziren Euskal-Herriko basoak. Haritz eta pago, haltz eta urki,... eta beste zuhaitz eta arbola moeta ugariak galdu edo gutxitu egin ziren. Gizon diruzale eta zabarrengatik batez ere.

Galtzada zaharrak zabaldu eta bide berriak egin ziren; auto-estratak, trenbideak, lantegi eta fabrikak; automobiler eta trenez bete ziren zelai eta mendietako bide berriak; kemoltso, zikinkeri eta kutsaduraz bete ziren bazterrak,... eta poliki poliki zokoratu egin zen goikomendietara. Basojaun adoretuari ere berdin jazo zitzaion, batez ere pagadietan berentzako toki egokirik gelditu ez zenean.

Gaur egun ere, noiz-behin agertzen da Maidi-Urrika ona, udaldietako gau bero batzuetan.

Berezko argiz ibiltzen da, mendirik mendi, bere denboretako egoitz-tokiak ikustatzen. Basojaun lagun adoretuak laguntzen dio beti.

Olentzaro-garaietan ere agertzen da. Gabon-Zaharretan ere bai, batez ere umeei "*Urte Berri On* bat opa dizuet" esateko.

BITAÑO

1978 / Urtarrila, Deustuan

NAHAS MAHAS

BARANDIARAN eta AJURIAGUERRA Profesoreeri Omenaldia

A. IRIGARAY

Joan den Udan, ospe aundiko goratarre bat egin zioten LEXOAKO (Lejona) Unibersitateak izen aundiko bi Profesore eta jakintsuari; Jose Migel BARANDIARAN etnólogo famatua bat, eta Julian AJURIAGUERRA sendakin, psikiatra bestea. Biak DOCTOR HONORIS CAUSA izendatu zituen Bilbaoko (Euskalerriko) Unibersitate horrek.

Areto nagusian (Aula Magna) zelebratu zen goratasun aundienarekin, bizkaitarrek ospekizun horiek apailatzen oi duten bezala. Aretoko mahai nagusian Irakasle sail osoa zegoen (*Claustro delakoa*) Erretore ospetsua buru, beren kolorezko yaunztura eta kapeluekin. Lehenik Kantari talde berri batek AGUR JAUNAK kantatu zuen. Ondotik Barandiaran jaunari izendapena irakurri izan zitzaion, eta haren zina onartu, latinez irakurri izana.

Gero, omenduaren aita-bitxi egiten zuenak, J. M. Basabe pralle biologoak irakurri zuen (erdaraz) haren Biografia, bai akademiko tituluak eta Europako Unibersitatek (Paris, Viena,...) eman ohorezko sariak eta izendapenak, hala nola bere hainbeste liburu, izkribu eta ikerpenen lerroaldi luzea. Ondotik, Barandiaran Profesoreak irakurri zuen bere aurkezpen sakona, euskaraz eta erdaraz, Etnologia eta Prehistoriako ikerpenak eta ikasketak zer ardura aundia duten azalduz, eta inbestigazionearen sustaldia dela Unibersitate baten egiteko nagusiena, eta ez ofiziotako diplomak ematea xoilik; eta Euskalerriko Unibersitatean berdin.

Euskaldun gazte askok merkatalgo eta Industriari geyago emanak diralarik Letretako ikasgaietara baino, gure Fakultate eta Lizeoak kanpotar Irakaslez betetzen dira. Euskaltasuna galerazten etzaigu Madriletik bakarrik eldu, beraz. Barandiaran-en itzaldia irakurtzearekin, elukete asko galduko gure errikide jakitun diralako batzuk.

Tartetan erdal eta euskal kanta batzu adiarazi zizkiguten, eta Zeberioko Inchaurreaga koblakari argi eta zorrotzaren bi bertsu sakonak arritu ginduzten han euskaldun ginenak.

Ondotik, DOCTOR izendapenaren kapelua yauntziazi eta, AJURIAGUERRA profesorearen biografia eta tituluak irakurri zituen bere aitabitxi eta ikasle izana Guimon psikiatrak. Jaun hura ezagunago da erbestean Espainian baino, eta gutiago Euskalerrian. Gaztetik Parisa joana zen eta han Eritegi eta Unibersitateko ikerlari eta Professore izana da Ospe andia bilduz, Europako sendakin Irakasleen artean.

Ajuriaguerrak gero Lekzione sakon bat eman zigun bere espezialitateari buruz. Bruselas eta Ginebrako eskeintzak izan ondotik, azken hortako Unibersitateko Professore izatea autatu zuen. Hor egon da urte parrasta bat, bere Psikiatriako gaixotasunen eta bereziki aurren eroaldien ikasketak sakonduz eta irakatsiz, Europako Medikuntza gorenekoen artean ospe aundia irabazirik. Jende eta entzuleen arriduran, zoroen eta medikuen arteko ar-emanak gaurkotu zituen, eroek ere badituztela beren alde onak azalduz, medikuek eta bestek dituzten bezala; gaixo horiek arront beste gisa eta begiramenarekin tratatu behar dirala azpimarratu zuen. Sakon aundiko *Lección Magistral* delako bat esan zigun.

Biltzarre akademiko hau *Gaudeamus igitur* Erdiaroko ikasleen kanta ospatsuarekin finitu zen, esku zartaldi ozenaren erdian. Gure goresmenak antolatzaillerei. Atsaldeko bazkari-postretan, agur batzu dedikatu zizkietan bi jakituneri; besten artean, Altunak, Caro Barojak, J. R. Urkijok eta Eusko-Ikaskuntzaren izenean lerro hauen idazlearen agurrarekin bukatuko dugu azalpen hau:

... "Eusko Ikaskuntzako Biltzarre-buru-aren izenean, goresmen eta zorion aunitz esaten diegu gure Buruzagi den Barandiaran-go Jose Migel jaun ospe aundikoari, bere bizi guztian barrena bururatu dituen lan eta ikerpenengatik Etnologia et Prehistoria jakintzetan. Sail horren jakintsu guztien artean zabalduak eta lauda-

tuak. Bai halaber argirat eman dituen izkribu eta liburuengatik; lezetan arkitu ondar baliosak; aztikeriaz, Mitologiak eta bestetaz oraino.”

Bai eta bereziki, beyalako elexahar eta ipuin zahar gogoangarriak, bere ANUARIOS eta HOJAS de EUSKO FOLKLORE delakoetan argitaratuak, euskaldun agure eta atsoen ahotik itzez itz arrigarriki artuak. Ez bakarrik euskal prosa xarmagarria bilakatuz; euskara idatziaren pitxi baliotsuenetarik, betiko geldituko diranak baizik.

EUSKAL ELERTIA. - *A. Onaindia.* - Literatur-Liburu berria argitaratu du gure idazle yoriak. — EUSKAL ELERTIA izenaz batayatua, 230 orrialde ditu eta edergarri eta foto pollit asko; EUBA - AMOREBIETAN inprimatua. — Lehenago ere bere EUSKAL LITERATURA-ren V. tomoen berri xehea eman izan dugu hemen; Bilduma hau berriz bizkaieraz idatzi du, eta arrazoiarekin, azken denborako aldizkarietan sobera baztertua egon delako euskalki eder eta aberats hori.

Bilduma huntan ditu Onaindiak idazle eta olerkari nabarien bitizak laburzki sartzen; Bernat DECHEPARE eta LEIZARRA-GA-tik asirik eta orain arte, beuren izkribuen zatiño bat emanaz ere, *Lorategi* edo *Antologia* labor eta biziki jakingarri bat eskeinirik irakurleari.

Begiramen aundienarekin, oharpen bat egitera ausartzen gara, edizione berri baten bistan. *DECHEPARE*-z mintzo denean dio:.. “Zergatik espetxeratu (zuten)?; — ez dakigu”... — Guk uste haatik, aski argi dagoela. J. M. Huarte zenaren dokument hari esker (EUSKAL-ERRIAREN ALDE aldizkarian argitaratua) Fernando V g. Aragoeko erregearen aldeko agertu zelakotz Nafarroako aizutasuneko gerlan, giltzapetua izan zela *Pabeko* (Pau) presondegian.

XVII garren mendeko Saillean irakur ditzakegu, Ioanes *Etcheberry* ziburutarraren olerki batzu, *Axularr*-en zatiño bat eta *Oihenart*-en asmamen aundiko amodio-bertsuak, tankera aurrelari batean asmatuak.

BERIAIN nafarra eta MICOLETA bizkaitarra idazle pitxiak merezi luketela geixago aipatzea, iduri zaigu. Gero, XVIII gn.-ekoan

Mendiburu-ren zati bat dakarra, baina damurik, ez lehenbiziko edizioneatik artua; eta hala ezda irakurlea konturatzen haren grafia aldatu dutela, -h- letrak ekenduz. *Ubillos* idazle giputzak ere maiz sartzen du letra korapilatsu hori bere *Dotriña*-n, Gregorio *Arrúe* giputzak bezala. Alta, tolosar idazle aditu batek bestela idatzi izan du berriki.

*Cardaberaz*en erdi ametsa den zati bat sartzen du, gure mintzairaren etorkiari buruz; altabada, hernaniarraren liburu xotil horretan, zati interesgarriak badira Nafarroa eta Arabako euskera-
ren egoerari buruz (1750). Gero *Mogel* aundia aipatzen du Onaindiak, bere *PERU ABARKA* nobela jakingarriaren zati bat sartuz; beste bi *Mogel* idazleak baino goragoko maillan dagoena, dudarik gabe. *Aguirre Asteasuko* idazle gorena (giputzetan) ezdu uzten bazter, ez eta *Astarloa*, *Fray Bartolo* Markinakoa, *Ibarrart*, *T. Alzaga*, *G. Arrúe*, *Etchahun* Barkoxe, *Elizanburu* olerkari jakituna, *Kirikiño* eredia, *D. Agirre* ere... besten artean aipagarrienak diranak.

Joakin *Lizarraga Elcano*-ko idazleaz mintzo denean "*URTEKO igande guztietarako Itzaldiak*" liburua (1846 urtean argitaratua) aipatzen du, baina hor ezdugu *Elcano*-ko nafar euskararik batere, dena gipuzkeratua baidago. Alabaiña, *Lizarragaren* eskutikako 10 eskuzkribu lodi gelditzen zaizkigu, oraindik inprimatu gabeak, *Lecarozen*, *Iruñeko Artxiboan* eta *Seminarioan*. Haren Biografia eder bat idatzi duen *Apezecheak Antologia* bat egin urren omen dauka; merezi luke *Elcano*-ko idazle yoriak.

Oraiko idazleen artean, liburuko gorenak xoilik aipatuko ditut;... *Otaño*, *Enbeita*, *Hiriart-Urruty*, *Zubiri* (Manezaundi), *Irigaray* (Larreko), *Otsobi*, *Orixe*, *Lizardi*, *Lauaxeta*, *Onaindia* bera, etc. Teatrolarien artean, *Labayen*, *Larzabal*, *Echaniz*, *Aresti-z* gainera, *Arocena* eta *Lete* aipagarri dirala uste dugu (*Aralar-Orreaga*-778 — *Pasturalen* tankerako *Komediak* gustiz teatro berri ederra iduri zaigu, izkuntza errikoyan osatua).

Bizkayeraz idatzi arren, bi marraen artean giputz itzak sartzen ditu... hala nola... *egingo eben — zuten — // oitura zarra ei — omen — da // erakutsi deusku — digu — // arrigarria dogu — degu — // daikeguna — dezakeguna — //* eta abar, erreztasun aundi bat ematen dutelarik irakurleari, bai eta *Moldiztegi* kontuan ere.

Obra baliosa eta aunitz irakurlé izatea merezi duena. Goresmenak erraten diozkagu bihotzetik, idazle ospetsuari.

LUZE-KO PILLOTA PARTIDUAK

Duela urte gutti oraindik, Baztan-Bidasoko erri horietan luzean jokaten zen pilotan, larruzko guanteekin eta balazko pilota beltz gogorrekin; baina orai damurik, Arrayotzen bakarrik usatzen da... urtean bein bederen. Errebotea berriz, (zestaz) oraindik Billabonan, Zubietan eta beste nunbait ere usatzen dela uste dut.

Errekesta aundia zuten partido horiek eta loriaturik biltzen ziren jendeak ehunka plaza eder horietan... markalariak bere abots ozenarekin oyukatzen zuelarik tantoak... *sakeak yoko bat, errestoak baterez...* edo... *Ni arrai!*... Luzean jokatu izan da Gipuzkoan ere, eta 1846 urteko Irungo partida giputzen eta lapurtarren (bat baztandarra, Gamio) artean, hauek garaile gelditu eta probinziako etxalde aunitz erre kara joanik... Irungo partida famatua oroimenean gelditu da, bere bertsu eta guzti, Zalduby olerkariak dion bezala:

... // Kaskoinak (hazpandarra berez) eskularruz // kaska-ka xirristan // pilota noranahi // zabilkan ximixtan //; Yokoz bezenbat kaskoz // munduaren bixtan // nekez agerturen da // haren parerikan // // berrogeita zazpiko // Irungo partida... // sekulan halakorik // nun ikusiko da? // Kaskoinaren trunkoa, // // ez zaitela bira... // Hark eman zituen // guziak azpira.//.

Sustatu ditzagun kirolak gidatzen dituzten federatiboak, bai eta zenbait Kontseilu edo Ayuntamentoko buruzagiak, berriz ere geren plazetan ikus aal izateko luzeko partida eder hayek bezalakoak.

AURRAK ETA TELEBIXTA

Bere osasunerako umeek 10-11 ordurainoko loa egin beharra dute eta lo horren etsaia TELEBIXTA da; ez galtzen duten denborarengatik xoilik; goizik joanik ere ohatzera, on guti egiten diete arratseko Telebixtari soegoteak. Zainak airatuak paratzen dira eta lo nahasia gero, hor ikusten dituzten bortxakeri eta tiroen-

gatik; eta tarrotuak baldin badira aurrak, hor ikusten dituzten ebasgo eta iltze (gordinkeriak ez aipatzeko) edo zanpaldi bortitzak, berak egiteko gutziarekin gelditzen dira, eta bai asko tokietan egin ere, gertatzen den bezala.

Telebixtan aurkako bertsuak kantatzen ditu ITXARO-BOR-DAK, U.S.A., COLORADO-tik izkiriartzen duen sail umoretsuan... Telebixta da seguraski gure etxetan euskara iltzen ari den tramankulua. Huna idazle horrek botatzen diozkan bertsuak...

... // Irrati Telebistak denen ondatzeko // euskaldun su-bazterrak ixil egoiteko // Libertate itxura arras ez galtzeko // Badira iru kate, baten autatzeko // ...

BIELEKETA (BILINGUISMOA)

Franziako gobernuak Eskoletan utzi dituen erreztasunak euskaraz irakasteko berriz, ez omen dira oso baliagarri; HERRIA astekarian diotenez... Irakasle ibiltariak (Itinerants) beren ofizioaren betetzeko ez baititu Inspektoreak aitzinetik behar bezala moldatzen; asteen bizpairu orduz emanaz euskarari, ezdute aurrek deus funtsezkorik ikasten... ez Irakasle ibiltariengatik, legeak ematen duen irakasbidea arras mugatua dagoelako... Bestalde, jende euskaldun arrontak uste du euskara mintzatuz erdara gaizki ikasiko duela; eta erdara gabe jende gaizo bat izanen dela bizitzan, deustako on ezdena.

Ezdute ikasi Pedagogiak diona eta Errialde eskolatueta ongi aplikatzen dena gurasoen mintzaira (Hemen euskara) irakurtzen ongi ikasten delarik, aise errezago ikasten dutela aurrek eta garbiago erdara, irakurtuz ikasten dutelarik beñikpein.

HENDAYA-KO HAIZE GARBIA

A. IRIGARAY

HENDAYA-ko HAIZE GARBIA — deitu euskal Aldizkari ospetsuak, bere emanaldi batean Ikastolako auziaz idazten du: (*L'Ikastola est-elle la seule solution pour sauver la langue basque?*). Amar urteko esperienziak eskua ematen omen dio irizpide zehatz batzu azaltzeko; Ikastola bat baitu bere meneko lapurtar iri eder hortan. Orai azkenean Talde horrek beste bide bat abiatu nai du, gisa hortako Ikastola ez baita ondorio ona dakarken Ikasbide soilla, Iparraldean beñikpein.

Amar urte horietan, dio, ez dirala batere edatu hango 20 Ikastolak, erdi edo oso erdaldunduak dauden kostaldeko irietan plantatu diralako geyenak. HAIZE GARBIA-k dio 100 gurasotik 90-ek Ikastolarako gutizia andirik ez dutela; bestalde Baxenabarreko IHOLDY errian % 49 aurrak euskaraz mintzo dira eta HAZ-PARNEN % tik 41; ARRIGARRI!! Iparraldean beraz, oraindik euskaraz ari diran milaka aur horiek dira lehenik (besteak bazter utzi gabe) eskolatu behar diranak bere mintzairan, eta bai euskara ulertzen duten beste asko ere.

Uts hau betetzeko, Iparraldean, maisu erdalduna duten erri euskaldunetan, Estadoko eskola batetik bestera ibiltzen dira 8 Maisu euskaldun (Itinerants) eta berdin asteko dira Eskola katolikoetan 4 Maisu ibilkari, euskaraz irakurtzen (eta beste ikaste ximple bakun) irakasteko aur euskalduneri. Bestalde, Maisu euskalduna duten Eskoletan, 3 orduz astean ari daitezke klase apalenetan; indar audienea beraz erdi euskaldun diran aurrekin baliatu behar da.

Euskara-Ikastaro edo klase horiek ordu obligatuetan sartu behar dira, ez jostatze tartetan. Euskara nai ez duten gurasoek berriz, izkribuz adiarazi beharko lukete; eta ez euskaraz nai dutenek.

HAIZE GARBIA-k predikatzen duen euskaldungoa politika gabekoa da; politika berezi bat onartzen baluke, dio, beste ikusmoldeko euskalzaleek utseginen lukete; bereizten duen guztia baz-

tertu beharra dagola eta euskaldunak biltzen eta elkartzen duen oro, atxiki eta zabaldu. Zilatu bai dute Ikastoletako zenbait Irakasle eta laguntzalek ere, politika sartzen dutela ikas-moldean eta kantuetan; altabada hango euskaldun askok ezdute gogoko izkuntza nahastea estremoan ideiak.

Egoalde huntan ere euskal Ikuskari, Teatro edo kantaldietan, on litzake kontuan artzea eginbide horiek. HAIZE GARBIA-k laudatzen duela irakurri dugu, Euskalzaindiko kanpaña... baiña alde orotarik lagunduz, sistema bati lotu gabe, ez eta batzuen ikusmolde bereziera jarraitu gabe... Denek (dio) behar dute eriaundien izkuntzari lagundu, geyegikerietara lerratu gabe, gertatzen oin dan bezala maiz.

EUSKO-İKASKUNTZAK ERREGEARI AZALPEN-ESKEA

A. IRIGARAY

Joan den urtean Sociedad de Estudios Vascos delakoaren Batzorde nagusiaren izenean bidali zayo personalki Errege Juan-Carlosi, errespetuzko mezu bat. Erdaraz aipatua izan den arren, ardura andiko urratsa baita, euskal sail huntan ere adiaraztea merezi duela iduri zaigu, Elkartasun ospetsu hori xoilik kulturazko Lagunartea delakotz, politikatik bazter.

Mezu hortan aipatzen zayo Oñatin sortu zela Eusko Ikaskuntza hori 1918 urteko Biltzarre famatuan, Alfonso XIII gn. erregea zegoelarik ohorezko buruzagia bezala (eta A. Campion buruzagi izendatua). Eta lau probinzietako Diputazioek lagundu dutela beti, 1936 urtean, gerlarengatik ixildu zen arteraiño. Egitate sonatuak aipatzen dira euskara eta euskaldungoaren alde eginak, sei *Congreso de Estudios* delakoen eta RIEV. aldizkari jakintsu haren birtartez bereziki.

Begiramen aundienarekin Erregeari adiarazten zako, Euskal-erriak maiz eskatu izan duela orai bi mende urbil kendutako foru-eskubiden itzultzea, premiatsu zaikona bere euskaldungoa eta nortasuna gordetzeko; (la restauración de las Juntas generales, Cortes y demás órganos autonómicos de las diferentes regiones Vascónicas, adaptándolas debidamente a las circunstancias de los tiempos actuales).

Eta kendutako eskubiden itzultze hau ezin duela demokraziak ukatu, esaten zayo Azalpenean behar bezalako sistema ordenatua seguratzeko eta azkartzekotan.

Diosala batekin, bere errespetu eta mena eskeintzen dizkio *Jose-Miguel Barandiaran*, Buruzagiak.

H LETRAREN ARAZOA GIPUZKOARREN ARTEAN

JUAN SAN MARTIN

Batzuen H letraganako gorrotoa, beste batzuri konpreni ezina zaigu. Ulertu ezin hau, ez bakarrik ortografia betidanik aldakorra delako, baizik gainerako letrak bezala latinaren bidez hartua dugulako eta euskarazko lehen izkribuetan presente dugulako. Eus-kara idazten hasi zenetik, H “madarikatua” hor dago.

Euskalki batzuetan ahoskatzen dute, beste batzuetan ez; baina, badira kontsonantez aldatuz: *agoa, ogea, bigar, bixotza*, eta antzerako hitzetan, inoiz fonetismoak badira ere; hor dira Nafarroan *gan, gemen, gura, ...: kan, kemen, kura ...* Baina hau ere arrazoibide kaxkarra litzake, Mendebaldean *z* eta *ts* ez dituzte edo ez ditugu ahostatzen, baina ez zaigu iduritzen hauek kentzea, naiz eta hiztegian H bera baino gehiagotan konsultatu behar badugu ere. Nere asmoa ezta eztabaida hoietan sartzea. Bakoitzak hauta dezala zer komeni zaion, bere uste edo gustoen arabera, eta libertate osoarekin jokatu. Nik gaur hemen agertu nahi dudana, zera da, H letra gipuzkoar idazleen artean inoiz erabili izan dela, eta hontarako lekukotasunak jarri nahi nituzke. Jakina da Landuchio-ren hiztegian (1562. urtekoa) atxeak agertzen direla, Nafar-Akitaniako hilarrietan ere bai; baina garai ilun haietara jo gabe, natorren gure idazle ezagunagoetara. Eta XVIII. mendean gure literaturaren pizkundea Hego Euskalerrira ekarri zutenen artekoak ditugu Larramendi, Mendiburu, Kardaberaz eta Ubillos. Hauetatik, bat ez beste guztiak agertu ziren atxezale.

Kardaberazek, K gorrotatzen zuen garai hartan. Ez zuen K letra onartzen. Baina H bera ere ez zitzaion gogoko. Gutxi ba-

tzutan erabili bazuen ere, ez zuen ikusten H-ren premiarik, alperrikakoa zeritzalako. Hala ere, Aita Asteteren "Christauaren doctrina" euskaraz ematean, H-kin eman zuen. Liburu hau L. J. Riesgoren moldiztegiaren argitaratu zen, Donostian bertan hamazortzigarren mendean. Urterik gabe azaldu zen, baina inprimategi honek 1752tik 1802ra arte iraun zuen, oso oker ez banago.

Manuel Larramendik, "Diccionario Trilingüe"ren hitzaurreko XXXVIII. atalean H-ren erabilkeraren alderako arrazoiak agertzen ditu. Horrez gainera, ikus 1745ean argitaratu zen hiztegi honetan *vocablo* hitza bera. Gomendio hau jarraitu zuten nonbait Mendiburuk eta Ubillosek, eta gipuzkoarrak izanik ere, atxez idatzi zituzten beren izkribuak. Mendibururen, "Otoitz-gaiak", 1760garren urtean Iruñean argitaratuak, Tolosako E. López-ek birargitaratu zituen 1904an, baina H guztiak kenduta.

Hemeritzigarren mendeko giputz idazleak apenas erabili zuten H letrarik, guti batzuk baizik. Hala ere, Jose Manterolak lehen aldiko "*Cancionero Vasco*" hartan (1877), II. tomoaren 35. orrialdean agertzen denez, *itz* eta *hitz* bi erak jotzen ditu gipukoerztat, H-kin etaH gabe.

Tomas Eleizalde, Bergarako San Pedro-ko apaizak 1878an argitara eman zuen "Cristauaren gordairua" deritzan liburua ere atxeaz dago. Gregorio Arruek ordea bereizgarriztat erabiltzen zuen. Honen itzulpen lanetako euskara oso egokia eta txukuna iduritzen zaigu. Eta, adibidetzat Juan José Moglek bizkaieraz egin zuen "Baserritar jaquitunaren ehecho escolia", honek 1816an emana, G. Arruek 1878an gipuzkeraz agertu zuen Tolosako B. Gurrutzagaren moldiztegiaren, eta egile bizkaitarrak atxerik gabe emana, Arruek gipuzkeraz H ta guzi jarri zuen. Bere hitzaurre laburrean hala aurkituko ditugu *hill* eta *hitz*, eta liburuaren barna ere erregela bera jarraitu zuen. G. Arrue bera izan zen Félix Sardá y Salvani-
ren "El Liberalismo es pecado" itzuli zuena (1887), "Liberalen dotriña pecatu da" izenez. Hau bai barregarria, liberalen kontra H-kin idatziaz. Hark nonbait etzituen ikusten H letrak zituen perilak, zeren orain, batzuentzat, gorriena omen da. Sineskaitza da setati batzuen tiki-mikietatik noraino eraman diren H-ren us-teak.

Gure mendean oster, hemeretzigarren mendean baino ugariago erabili dute H letra Arantzazuko Biltzarra baino lehen ere. Orixek berak "Barne-Muinetan" (1934) deritzain liburuan eta Euzko-gogoa

aldizkarian. Gerratik herbesteratutako zenbaitek, Ipar Euskal-Herriko influentziak edo. Gernika eta Euzko-gogoa aldizkarietan ez ezik, EGAN-en ere nabari da eta lekukotasun batzuk jarriko ditut: 1956-ko EGAN aldizkariak aztertzen baditugu, Gabriel Aresti, Aingeru Irigaray (honek aspalditik jarraitu duen bidea izan da), Antonio M.^a Labayen eta beste.

Ez ahaztu Yon Etxaidek 1955ean argitaratu zuen “Joanak-joan” eta 1958ko “Amasei seme Euskalerriko” H-kin idatzi zituela. Antonio Labayen-ek, besteak beste, “Domenjon de Andia, Gipuzkoako erregea”, 1965ean Zarautzen argitaratua. Gero, H espantagarriaren aurka atera zen liburu batean, H tximistadunak baserria eratsiz azalean zuela, han esaten zen argazki ta guzi inoiz H-rik erabili ez zuen euskaltzainetako bat zela. Amaika gezur erabili da, alde batetik eta bestetik. Bortxakeriak erabili direla esaten dutenek ere badira. Hala izanen da, zeren elkar-lanean egin behar genuen lan batean, H-rik ez erabiltzera edo bestela parterik ez hartzera behartu ninduten ni neu. Bestalderakorik ere izan da. Bai horixe. Baina, batzuk, Arantzazuko gomendiora arte erabili ez genuenetakoak gara. Eta, gainera, lehendik erabiltzen zutenen kontrarik egin gabeak eta gero ere ez erabiltzen ez dutenei.

Hainbeste alperrikako eztabaidaren gainetik, hamar urteren buruan H letraren erabilkerazko lehen saioa Bergarako Biltzarren aurrean azertu du Euskaltzaindiak. Agertzen denez, Arantzazun begi onez ikusia, idazlerik gehienak erabiltzearen aldekoak dira. Bestalde, erraz ikus daitake, erabilkerak deseztatu duela H-ren zailtasuna. Erabili ez dutenek zailtasuna hartzen bai dute arrazoitzat, baina erabili ezik nola dakite hori?

Egiazko abertzaleak Zazpiak-bat nahi du, eta hau besteei ere amor emanaz egiten da, demokraziaz nahi baldin bada. Eta amor ematea zen den jakin nahi duenak azken 1978ko irailaren 14ko Herria astekaria irakur dezala, beste zenbait gauzaren artean hara zer dion bertan Bergarako Biltzarrari buruz: “Hirugarren eguna izan da oroz gainetik H letraren eguna, Ipar-aldeko zazpi euskaltzainek apailatu zute saila, P. Lafitte eta J. Haritschelhar-en gain utziz lanaren presentatzea.”

“Batasunaren onetan iparrekoek on-hartu zuten *x* letra *ch*-en orde; eta kontsonante ondoko *h* kendu ere. Hegokoez zertako ez lezakete *h* on-har, haiek ere beren aldetik? Denok badakite españaola irakurtzen, nahiz mintzairer hori *h*-ez emokatua den; aski

dute ez ahoskatzea euskaraz, erdaraz egiten duten bezala. Ber-
tzenaz ere 200hitzen afera da, bertzeak heien ganikakoak baitira;
eta *h* ez da lehen edo bigarren silaban baizik gertatzen hitz xin-
pletan. Ez dugu uste aditzale guziak gure ganatu ditugula aldi
huntan ere. Baina ez etsi!”

Guztion artean egin dezagun egiazko Zazpiak-bat. Ez elkar
zapalduz, bai elkar onartuz, Beharrezkoa zaigu bat egitea. Bata-
sunean dago indarra.

A. Fr. JUAN MATEO ZABALAREN BIGARREN EHUNURTEURRENA

JUAN SAN MARTIN

1977ko irailaren 24an ospatu zen Bilbon Aita Juan Mateo
Zabalaren bigarren ehunurteurrena, bertako hiriko bibliotekan
Euskaltzaindiaren ekimenez.

Bazen ordua gure kultura gizonak ere, beste edonongoak be-
zala, omenez goraiatzeko eta jendeari ezagutarazteko. Villasante
jaunaren agurrezko hitzen ondorean A. Agustin Biain eta A. Lino
Akesolo mintzatu ziren Juan Mateo Zabala zenaren bizitzaz eta
euskal idazle bezala egin zituen lanetaz. Azkenik, Alfonso Irigoyen
mintzatu zen Bilbo eta euskara gaiari buruz.

Izan ere, Juan Mateo Zabala bilbotarra zen, Bilbon jaioa
1777ko irailaren 2lean. Bilboko frantziskotarretan egin zituen latin
eta gainerako eliz-ikasketak, lehen aldiz eta Gaztelerrian Teologia.
Bilbon bertan Filosofia irakasle izendatu zuten 1804an eta egiteko
hontan jarraitu zuen 1808an Napoleón-ek fraideak beren komen-
tuetatik jaurti arte. Orduan, noraezean ibili zen, toki batetik
bestera.

Paulo Astarloaren *Apología de la lengua bascongada* obrak piztu zion euskaltzaletasuna, Honek eta Aññibarroekin adiskide mina izateak, noski. Sorterriminak ekarri zuen Euskal-Herrira eta 1815. urtetik 1840an hil arte, Zarauzko misiolari komentuan bizi izan zen. Gainera, bertako nagusi izan zen 1826tik 1829 bitartean lehenengo eta 1839tik aurrera gero.

Aita Zabala 1840ko otsailaren 6an hil zen eta handik denbora guti barru Gipuzkoako buruzagi arrotzaren aginduz Zarauzko fraideak sakabanatu behar izan ziren, eta A. Zabalaren lanik gehienak argitaratu gabe zeudenez, hauek barreiatuak izan ziren. Baina gehientsuenak han-hemenka bildu ahal izan ziren, eta denborarekin argitaratu ere bai.

Bizkaiko aditzari buruz egin zuen saiaiera ederra dugu "El verbo regular vascongado", 1848an Donostiako Baroja inprimategian argitaratu zen Guipuzkoako probintziaren ardurapean, Iztueta eta Iturriagari iritzia eskatu ondorean. Eta bizkaiera ez ezik ordurarte beste euskalkietan eginak ziren gramatikalarien lanak ere ezagutzen zituen. Gure aditzaren nortasunez, gramatikolari guziak bezala, harriturik aurkitu zen; narotasunez beteriko aditz-jokoan aberastasunak liluraturik utzi zuen. Liburu hau, nonbait, hil aurretik inprimategirako gerturik zuen, baina ezbeharrez hor gelditu zen zortzi urteko atzerapenez. Hala ere, gainerako lanak atzerapen handiagoa izan zuten, gure zoritxarrerako.

Bere bigarren liburua L. L. Bonaparte printzeak argitaratu zuen 1856an. Bibliografiaz ari zen eta "Noticia de las obras bascongadas que han salido a luz después de las que cuenta el P. Larramendi" zeraman izenez. Egile izenik gabe argitaratu zen, baina Aita Ruiz de Larrinagaren ikerketeri esker, gaur egun badakigu A. Zabalaren lana zela. Allende-Salazar bibliografoak zinuenenez, Aita Zabalaren lan hau, euskal-literatur bildumetan onena eta osoena zen, geroztikoei ezer kendu gabe, eta J. Vinson anitz baliatu zen lan honekin.

Bere hirugarren liburua, "Fábulas en dialecto vizcaino", bizkaierazko alegiak, Azkue zenak idori zituen Paris-ko Bibliothèque Nationale-an eta J. Urkixori eman zizkion honek RIEV-en argitaratzeko (RIEV, 1907). Baina bilduma hortako guziak ez ziren bereak, Zabala ber berak ere hala zionez. Bertako 23 alegi zituen bereak, 11 J. A. Mogelenak, 1 Bizenta Mogelena eta beste bat Salaberrirena.

Bere alegietatik baditeke guziak berak sortuak ez izatea, baik herbesteetakoetatik euskaratuak ere tarteka direla dirudi, baina bai bazekien hemengo kutsua emateaz eta euskaldun alegiarien artean toki berezia merezi du.

Argitaratu gabe ezagutzen diren esku-izkribuen arteko konjugazioeri buruzko estudio bat eta sermoi-liburu baten zati bat.

Garai hartako euskalari eta euskaltzale askokin izan zituen har-eman estuak. Hauen arteko ziren Lécluse eta J. P. Ulibarri.

Bere lan sakabanatu hoiek, era hortara gelditzen direnean gertatzen den bezala, betiko galtzeko zorian zeuden. Baina Zabala-ren pertsonalitatea handia izaki, eta berak ongi esana zuen bezala, "Egin-alak ta ezin-egiñak emon ezkeru" derrigorrezkoa zen langintza hura loratu beharra eta ilunpetik historiara irtena euskal-kulturaren onerako. Eta ezagutarazte hau, batez ere I. Ruiz de Larrinaga, J. Eguzkitza, K. Etxegarai eta besteri zor diogu. Azken ureotan, beren euskarazko bilduma eta lan orokorretan xehetasunik aski emana dute Y. Etxaide, S. Onaindia eta M. Zaretek. Eta erdaraz idatziko historietan L. Mitxelena, L. Villasante eta B. Estornés Lasa jaunek. Zerbait gehiago jakin nahi duenak beren lanetara jo beharko du.

PIARRES LHANDEREN MENDEURRENEAN

JUAN SAN MARTIN

1977ko uztailaren 10ean ospatu zen Zalgizen (Zuberoa) Pierres Lhande zenaren mendurrena. Zuberoako toki polit hartan bildu ziren euskaltzain guti batzuk eta mugazandiko euskaltzale andana eder bat.

Pierres Lhande jesulaguna, izatez ez zen Zuberoan jaioa, bere deitura ere ez zen Lhande, baina orrela erabili beharrean gaude bere nortasunaren adigarri.

Pierre Basagaitz zen bere izen deituraz, baina aitonaren izenordea zuen Allande eta hemendik zetorkion izen eta guraso izenordeak elkartzeaz, Pierre Lhande. Sortzez berriz, Baionan sortua zen 1877ko uztailaren 9an. Zortzi urte doi doi zituelarik hil zitzaion bere aita, eta orduan aldatu zen ama, bere haurrekin, Zal-gizeko Apphatia deitu guraso zaharren etxera. Hemen jarraitu zituen bere lehen eskolak eta laster joan zen Mauleko San Frantzes kolejiara bigarren mailako ikasketak osatzera. 1893an Baionako Mintegi Nagusian sartu zen Filosofia estudiatzeko, eta handik bi urtera hasi zen poesiagintzan. Lehen hastapen hoiak frantsezez ziren, eta garai hontan Schola Cantorum-en sortzaile zen Charles Bordes jaunarekin har-eman probetxugarriak izan zituen. Garai berean hasi zen kazetaritzan ere "Patriote des Pyrénées" zeritzan aldizkarian Petit Pierre eta Nadi-Preherel izenordez.

1898an Baionako Infanterian sartu zen soldaduzka egitera, baina osasun makalekoa zenez, libre utzi zuten. Bertatik Seminariora itzuli zen, baina poesiara gehiegi emana zelako eta oso guti Teologiara, Baionako Mintegi Nagusi hartatik bota egin zuten. 1900. urtean Rodez-ko jesuitetara sartu zen eta josulagunekin Beljikaratu zen. 1903an Holandara igaro zen, zenbait aldizkaritan kolaboratzen jarraitzen zuen eta orduan lehen aldikoz igorri zuen lan bat Euskalduna asterokora. Bi urte geroago Cádiz ondoko Santa Maria Portuko kolejoan frantsez irakasle jarri zen. Eta bi urtera Beljikako Enghien mintegi nagusira bidalia izan zen.

1908an *Autour d'un foyer basque* agertu zuenetik gogotik ekin zion euskal gaiari. Garai beroan joan zen RIEV-en "L'Emigration basque" delako lana argitaratzen, 1910ean liburu bezala azalduko zuena. Lan hau, 1971an Auñamendi argitaldariaz gaztelerara itzulia emana du.

Hogeta hamahiru urtekin egin zen apez eta handik laster heldu zen, 1910-ean Hondarribira lehenik eta Ernanira gero, irakasle bezala. Baina ez zen toki batean luzaro egoteko gizona eta 1913an predikari ibili zen Bruselasean eta Parisen. Urte berean, Ohiartzungo euskal jaietan "Gure orma zaharra" izeneko predikua egin zuen.

1918an, Euskaltzaindia sortzean, Azkue, Campión, Eleizalde eta Urkixo izendatu ziren lehen aldian, Akademia eratu zezaten, lankide gehiago hautatuaz. Hamabi euskaltzainek otsatzea pentsatu zuten eta honetarako 1919ean hautatu zirenen arteko dugu Piarres Lhande, eta beroni eman zitzaion Euskera aldizkaria argitaratzearen zuzendaritza ardura. Une haretan Frantsiako Tolosan eta Gipuzkoako Ernanin zituen bizilekuak.

Bere burua abertzale agertzen zuen eta 1921ean *Notre Soeur latine, l'Espagne* deritzan liburua argitaratzean, Madridedeko gobernadoreak Espainiatik bidali zuen.

Pio Barojaren zenbait obrari kritika zorrotzak egin zizkion. Parisko hauzo galduetan misionari ibili zen, irratiz han bertan kristautasunaren alde kanpainak ere eginaz. 1930ean Hego-Ameriketatik, Madagaskar-dik eta India-tik predikari bezala ibilaldia egin zuen. 1934an buruko odol-ixurtzea izan zuen eta honek aski ahuldurik utzi zuen. Pabera erretiratu zen eta handik aurrera lanik urri eman zuen.

Bere azken urteak Zuberoako Atharrátzen eman zituen, eta hainbeste maite zuen Zuberoa honetan aurkitu zuen heriotzak, 1957ko apirilaren 17an.

Gilen Epherre sartu zen haren ordez Euskaltzaindian, eta bere sarrera hitzaldia Lhanderen bizitzaz eta lanetaz egin zuen. Ongi zion bezala, "Aita Lhande eta Ziberoua bat beitirade, orai eta aspaldiko ourthetan, orai eta agian! sekulakotz." (Ikus, Euskera aldizkaria, 1960. urtekoa bere 5/19 orrialdeetan).

Era askotako lanak idatzi zituen. Euskalerrriari buruzko zenbait liburu ere bai, españolez et frantsezez. Eta euskaraz idatzi zituen beste honako hauek: *Kurutchet Apeza*, 1917an; *Agirre, irakurgaikiña* 1920an "Itzaldiak" liburuxkan; *Yolanda* eleberria 1921ean; *Dictionaire Basque-français* delako hiztegi mardula 1926an. HoiEI gaineratu behar dizkiogu beste anitz artikulua eta hitzaldi, euskaraz emanak.

Piarres Lhande zenak, bere azken lana ere, Zuberoaganako maitasunak bultzaturik, bertako seme berezi baten biitzari eskaini zion. Hala da Jean Larrasketekin elkar lanean egin zuen *Le poète Pierre Topet dit Etchahun (1786-1862) et ses oeuvres* deritzana, Eskualtzaleen-Biltzarrak 1946an Baionan argitaratua.

LORD CARNARVON ETA EUSKAL-HERRIKO FORUAK

JUAN SAN MARTIN

Maiz idatzi da foruei buruz bere funtsean zer direnik jakin gabe, edo egungo egoerari eta bakoitzaren politikazko joeragatik bere funtsa alderantziz agertzera behartuz. Holako kasoetan egia ahalik zihurren jakitzea nahi baldin bada, bertako interesetatik landa tratatzen duten autoreetara jotzea dugu onen onena. Eta hala dugu Carnarvon-go kondea, foruen galera zekarren Cádiz-ko konstituzioaren erabagien ondotik (1812) Espainia eta Portugaleko lurraldeak zehar ibili zen bertako historia arakatuz eta ikertuz, bertako egoeraz jabetzeko.

Lord Carnarvon-ek bi osterara egin zituen Iberiako peninsulan zehar, bigarrena 1827an, eta bere oroitzapen eta azterketak idatzirik utzi zituen. Egia esan, Carnarvon, noblezako familian sortua zen eta Eton-en eta Oxford-en estudioak egina. Estudioak butatu ondorean Afrika ifarraldetik, Espainiatik, Portugal-dik eta Grezia-tik ibilaldiak egina, garai haretarako munduz eta kulturaz ondo hornitua eta gizon zentzunduna. Eta aburu zuzenak emateko jakintza haina zentzuna behar da. Lord Carnarvon bi hoién jabe zela iduritzen zaigu. Hala ere, ez dugu esan nahi berak esandako guzia bat batean eta besterik gabe irentsi behar dugunik, ez; bakoitzak eskubide osoa du bere iritzia lortzeko. Baina bai beharrezkoa zaigu, nahasmenduetatik hat, gai bakoitzean jakitun direnei entzun beharra, irakurri beharra. Holako bidea hartzea norperaren onerako baita; eta, Carnarvon-en iritziak, gure foru zaharrei buruz, ezagutu beharrezkoak dira foruetaz jardun nahi badugu.

Bere liburua, Iberian zehar egin zituen ibileren egunerokoa da. Zehatz izkribatutako egunerokoa, Iberiako nazioak maite zi-

tuen eta karlisten aldekoa zen. Honegatik edo, liburuaren azken partean Euskal-Herriko foruei buruz ari da. Foruak, historia eta euskaldunen ohiturak adiarazten ditu.

Erreginaren jeneralak, euskaldunak egiten zioten eten gabeko borrokarekin nekaturik, foruak errespetatzea agindu omen zuten, aldez aurretik jakinean zirelarik gobernuak ez zuela onartuko eta foruak galduko zirela.

Foruak ez omen ziren zaharrez gastatuak eta baztertu beharrezkoak bihurtu, ez. Gaur, ordea, hauteskundeen aurrean, zenbait alderdi ezkertiarrek mespresiatuak izan dira, berriagoa den autonomia eskaintzean, Euskal-Herriko esan zahar batek dio: ahal dena, itsasoko arrainik hoberena. Eta esaerari erantzunez, har dezagun ahal dena; baina ez uste izan autonomia denik hoberena. Honen eskubideak laburragoak bai dira, baina konpon bide baterako amor eman beharrezkoak. Atakagaitz hontatik nolabait irten beharrean gara, gizonak gizonei amor eman beharrean. Hau izango da gaurko arrazoiak, baina ez foruak txarrago bezala baztertu behar direlako. Herriak, foruekin, bere jabetasun osoa zuen, autonomiak eskaintzen ez duen haina.

Beraz, garbi dago, hobeagoaren trukez txarragoa eskaintzen digutenak ezjakin batzuk direla edo bestela gure herriaren aurka daudela. Ez bait dut nahi pentsatzerik gezurretan ari zaizkigutela.

Carnarvon-ek zionez, euskaldun bakoitzaren etxea gaztelua bezala izan zen; ez zen magistradurik bortxatuko zuenik, ez irikiko zuen agindurik, ezta ere ein zitekean armarik edo zaldirik kendu; euskalduna ezin zen presondegietara eraman zorregatik edo bestelako zerbaitegatik alde zuzetik Batzarraren aurrekaldera eraman eta bere hutsak legearen aurrean salatu gabe.

Beste inongo gizonak ez omen zuten holako eskubiderik, agintariak indarrez behartu gabe, "Habeas corpus" berak baino eskubide handiagoak ematen zizkiela euskaldun foruak. Eta, gainera, britaniarren eskubide horiek baino lehenagokoak zituztela euskaldunak berenak. Hau ezta guti ingles batek aitortzeko.

Holako esaldiak ditu Carnarvon-go kondearen liburuak. Bere ustez, euskaldunon foruak suizarren kantoietakoak baino libertate handiagokoak dira edo ziren. Honegatik, Euskal-Herria defenditu

beharrezkoa zen. Eta foruak debekatu edo kendu zituzten agintariak salatzen zituen, behin eta berriz, gizonaren libertateak ukatzea zenez. Orduan, tiraniaren aurka sartzen da, naiz tirania hau agintari despota batengandik etorri eta naiz demokraziaren ize-nean etorri.

Liburu honek, irakurgai bezala, goitik hasi ta behera, dena du probetxugarria. Bada bertan zer ikasirik, ikasi nahi duenarentzat, eta ikasi beharrik ere badute foruetaz mintzatu nahi dutenez.

NAHI EZ DUGUNA FALTA DENEAN

JUAN SAN MARTIN

Plaentzian eta Eibarren, lanari, beharra (biharra) deritzaio; zeren bizitzeko beharrezkoa ez balitz inork ez luke egingo.

Bi herriok beren historian oso langileak izan badira ere, haue-tan ere, beste edonun bezala, inork ez du nahi lana egiterik; baina, beharra... Orain, krisis garaian gaudelarik, inork nahi ez zuena ere falta zaigu. Ez da gauza goxoa nahi ez dena ere falta izatea.

Baina herri haue-tan falta ez dena, zera da, humorezko filosofia berezia. Lehengo esaldiak oroituz eta egungo gertaldietatik herrituz, bada oraindik ere zirikadetarako ahalmenik.

Gure egunotako doinuz holakoak entzuten dira :

—Biharrakin (lanarekin) gaizki gabillaz —zion plaentziar ba-tek besteari. Eta bestearen erantzuna :

—Ba, gu; egin ezinik.

—Ez dok izango! Kasik guztiak dabillaz gaizki eta zuek egin ezinik?

—Bai ba; egin ezinik, ez daukagulako.

* * *

—Biharriak eza, baltza dok.

—Biharrik ezak ez najok bilduzten; txarragoa dok dirurik eza.

—Hori ez dok ezer. Ni oraindik txartuago nagok.

—Txarrago? Dirurik eza baino txarragorik ezer ba ete dagok?

—Bai.

—Zer?

—Zorrak.

Baina honentzat ere, gure filosofian bada erremediorik. Askok Urkin enterratuaz ordaintzen dituzte, larrialdieri aurpegia emanaz mundu honetan bardintzera heltzen ez badira. Gainera, zintzoena izan leike zorduna. Honegatik, Toribio Etxebarriak honako esaldi hau agertzen digu *Ibiltarixanak* liburu bikainaren 185. orrialdean: “Munduko ondrauak, zorrak, zaharrak, badira ahaztu! eta barriak diranean, itxaro zahartu arte”.

* * *

Plaentziako biajante batek, Gabonetako loterian, milla pezeta jokatu zituan numero batera, lagun bati esanaz: “Gorduak urtetzen bajostak, milloi mordukoa izango dok eta nik orduan barre egingo jotsat krisisari.”

—Ta, ...? Nora joango haiz bizitzera? Alikantera, Kanariasera, Balenziara, ...?

—Ni, Eibarrera.

—Eibarrera?

—Bai. Ze, Eibarren beti dabik hego-haizia.

* * *

Autubatzailiak pizteko ere oso onak izaten dira krisis garaiak. Elkarren berri jakin nahiez irrikitzen ibiltzen direnik aski izaten da. Baina, zaharrak berri, autubatzailien amorragarri. Lanaren gora-beherazko galdez Plaentziako ugazaba batenga joan zan bati hara nolako erantzuna eman zion:

—Esportatzen hasiak gaituk.

—Zer?

—Txirtxil (kirker) kaiolak eta tronpak.

—Kontxo, kontxo! Orduan, dibisaz kobratuko dozue, ez dok?

—Ez. Trukean, perrejilla toneladaka eta hiru puntako txorizua.

* * *

Krisis hoiek berekin dituzten estuasun eta larrialdiak. Euskarazko esaera zaharra da, "Mikaela ta Peru bitxi; haserre diranean, diru gutxi".

Bakoitza bere zoroak darabi; baina mundua eta mundukoak, diruak.

—Zer, Kalisto? Ez daukak aurpegi onik. Ondoez itxura daukak.

—Ez, ez nabik ondo. Oraintxe natok medikuagandik.

—Da?, igarri deuk?

—Ia bai.

—Ia...?

—Bai; hamar duro najeukazen eta zortzi kendu jeustaz.

* * *

Langile “Konbenioak” direla ta, goi eta behekoiei komeni zaiena ezin erabakirik zebiltzan. Bizitzako beharrak guzientzat berdinak izanik ere goikoak eta behekoak ezin berdindurik. Beste ezer ez dutenak, humorea edukitzea ez da gutxi. Eta humorea behar ere legezko eskubideen alde oihuka jardutzeko. “Berdintasunaren alde. Gora behekoak! Behera goikoak!”.

Behin, kaiñoi fabrikan konpondu eziña zebilen eta nagusi eta langileen artean “Delegado de trabajo” agertu zen, gertakizunen agiria jaso nahirik. Baina “delegado”aren aurrean ere aztabaidak sortu ziren. Eta, biharginen aldetik joan zen Arostegi delako batek, bere beroaldian :

—Zuek jauntxuok, jota garbitu egingo zaitugu!

—Ipini hori be agirian —esan zion nagusietako batek delegadoari.

Baina, Arostegik, esanez damutu gabe, laster asko erantzun zuen :

—Bai, baina jaboia kin.

Izan ere, Plaentzian ez dira zikin zaleak. Horregatik batek esaten zuen, bera oso “alabatua” zela. Bai horixe, zortzi alabaren jabe zenez.

Turkuan semeak esan zidanez, gu eibartarrok beti plaentziarren inbidiaz bizi ginela, Plaentzian plaentziarrak maioria diralako, eta Eibarren eibartarrak gutxien.

Bai. Gure mundu hau galdua da. Orain gogoratzen naiz meza nagusi ostean izan zen elkarrizketak. Amerikanoak “Apolo” zeritzan koetea ilargiruntz bidali zutela eta itzuliko ote zen zalantzaz :

—Joan bai, joan egin dituk, baina kostako zaielik berriz lurrera itzultzea.

—Zergatik? Orain arteko koete guziak ondo etorri bai dituk.

—Oraingoan kostako zaielako mundua billatzea. Zeren, apai-zak sermoian esan duenez, mundu hau galduta omen zegok.

CALIFORNIA-KO ASTEKARI ESKUALHERRIA

A. APAT-ECHEBARNE

LOS ANGELES irian 1893 urtean agertu Astekari horretatik, zenbait berri (zahar) bitxi ekarriko ditugu. Urte hortan Elekziorako tinkoak izan ziren Ipar-Eskualerrian, xurien eta beltzen (orduan gorrieri *beltzak* esaten zioten) artean; xurien diputatu gaya Etcheverry izan zen; preziski *Eskualduna* aldizkaria abiatu zuen urte batzu lehenago; eta beltzen izenean berriz Berdoly izenekoa. Hunek irabazi zuen 6.648 botoekin eta Etcheverry jaunak 6.153-ekin galdu.

Bayonako distritoan *Harriague* - Morrochko, Hazparneko alkatea, jokatu zen apez historiari batekin, *Diharassarry*, Orzaizeko erretora. Hazpandarrak aise garaitu dio 5.351 botoekin; politikerian sartzegatik, goiti beehiak izan zituen erretorak bere nautsiek; baina bestalde, euskal izkiriare ospetsu bat izan zen. **ESKUALDUNA** astekaria franko garratzki sartu zen irabazleekin; Huna bere lerro minduak:

... "MORROCHKO deputatu.— Guk gure eginbidea bete dugu, bertzetan bezala Lapurdin ere, erlisionearen alde gorako atxikiz.— Gibelarat egon edo makur ibili direnek kontu eman beharko dute beren solas eta urratsen ondorioez.— Zenbeit uste duten (?) edo uste gabe dioten bezala, MORROCHKO behar bezalako deputatu

bat ateratzen bada, hanbat obe.— Hanbat gaixtoago aldiz, *Morrochko* baitan beren sinestea emana dutenak tronpatzen balinbadire.

” Hastetik erran dugun bezala, guk beldur handia dugu, *Morrochko* gure ustez, dena denaren ezagutzen dugulakotz, berenaz gaixtoa ez izanik ere, lagun gaixtoekin hek bezala bezalaka(tu) dadin.

” Anartean eskerrak diozkagu Orzaize-ko jaun erreter kartsuari, zeren dituen bere ahal guziak egin adixkidek galdatzen ziotenaren egiteko.— Eskerrak hura eta gu lagundu gaituzten gizon xede oneko guzieri.

” Zer nahi gerta, ez zaiote eta ez zauku beinere urrikituko gure eginbidea bete dugeneri.—”

Orduko ikusmolde ertsi horiek, orai eztira onartzen, eta txoil liberal batendako, egungo kristauak jendetasunaz mintzo dira.

ANTOINE DABBADIE AZPEITIAN

A. APAT-ECHEBARNE

“Urte guzietz M. Antonio *Dabbadie* Urruñakoak, premioak ematen ditu Eskualdun koplari ederreneri.— Aurten primak (sariak) Azpeitian, ilabete hunen 3-an, 4-an eta 5-ean izan dire.— Esperantza dugu M. Antonio *Dabbadie*-k, premioak errezibitu dituzten koblak gure paperari igortzeko borondatea izanen duela.”

Abbadie hau, ziberotar euskalzale eta jakintsu (Etnologoa eta Linguista) aundi bat izan zen, bere diruak xahutu zituena euskararen alde, Euskalerriko lau bazterretan (Beran eta Elizondon ere) bestak eta txapelgoak antolatuz koblakari eta euskal idazle oberenen artean.

HARTZAK JANA

A. APAT-ECHEBARNE

“*Montana*-tik barda, herri izigarri bat etorri da.— *Midvale* deitu herri ttipi batean, 14 ilabetetako haur bat ari zen etxeko korralean jostatzen, eta ama haurrari beha zagoelarik, hartz bat etxearen aitzinerat etorri da.— Ama gaixoaren oyueri kasurik egin gabe animaleak, bere aztaparretan hartu du haurra eta iges joan da oyan batetarat.— Aita hartzaren ondotik abiatu da eta segitu ahal izan du animale.— Bainan hartza atxeman duelarik, animaleak haurra puskatua zukan.”

JAMES PHILIP BANKEROA AUZITEGIAN

A. APAT-ECHEBARNE

“*Farmers Nat. Bank*-eko presidenta den gizontxo hori arrastatua (detenido) izan da *Chicago*-n, *Madama W. Burson*-en salakuntzaren gainean.— Bankero hori akusatua da, andere horren alaba bortxatu duela.— Nexkatxari hitzemaña bide zion bankeroak esposatuko zuela, eta gau batez joan du berekin teatrorat.— Handik itzulita edari bat edanarazi du neskatxari, eta joanazi bere ganberarat.— Biharamunean, neskatxa ohartu delarik non zen, eskapatu da eta gertatu zitzaion amari erraitera joan.— Amak orduan Bankeroa arrastarazi du.— Neskatxa, *Chicago*-ko familia handietaririk batetako da.”

LOS ANGELES-etan, 1893-an agertu astekari euskaldunak 5 urte iraun zuen.

Joan den mendeko dokument bakar bat delako ustean gaude. Halako besterik, batto ezpada, ezta Euskalerriz landa ezagun, eta ez hainbeste urteak iraun ere.— Hau da azken kopia.

OCCITANO IZKUNTZEN ALDE ONAK ETA ARRANKURAK

A. APAT-ECHEBARNE

Occitanoak ere bildu dira uda huntan, beren izkuntzak pizteko eta axean paratzekotan.

Zer diran Occitanoak? — Frantzia egoaldeko 30 departamentutan bizi diran 4 edo milloi jende bere mintzaira propioarekin, frantsesatik bereix, catalanan idurikoa. Lurralde zabal hori, Bordeletik eta Bayonatik as eta Clermont-Ferrand barrena joanez, gero Avignonetik beehiti Marsellaraino eta Pirene-mendi mugaraiño edatzen da; eta horko jende xeheak gaskoina, limusin, languedoc, provenzala izketak erabiltzen ditu, denak iduriak. Euskalerrian izan ditugun arrankura berak dituzte gure adiskide horiek.

Uda huntan Batzarre bat baino geyago izan dituzte, APT Irian bezala; hemen ikaste-aste bat izan dute, occitan literatura erakatsiz, oiturak, Historia, izkuntza (Provenzala); eta bertan bilduz idazle, kantari, teatrolari, arrakesta aundienarekin. Aurak dantzari, kantuz eta jostetan aritu dira, hala nola erriko jendea ere.

ENBEITA-TAR KEPA

A. APAT-ECHEBARNE

Oraiko gaztek ezdute Olerkari eta euskaldun aundi hura eza-gutu; eta pentsatzen ere dute, aberri eta izkuntza-aldeko egitate sakon eta zuzenak oraingo egunetan xoilik burutzen direla. Gai-zoek, joan deneko euskal historioaren berri gutti dakite. — Enbeita Kepa, orain ehun urte preziski MUXIKE-Areatzako baserri batean sortu zen; urretxindorra deitzen zuten, guk erresiñula dioguna, bere abotsa leun eta izketa sorgin harekin bereganatzen eta xarmatzen baizituen entzule oro, berdin Bizkayan nola Baztanen edo Donibanen.

Bizkaitar mintzoa zuen arren, denek adi-adi zeuden ari entzun naiez. Oroitzen naiz behin Elizondoko biltzarre batean nola zeuden baztandarrak bozkarioz xarmatuak haren kanta sentikorreri. Euskalerriko bazter guzietan ibili zen kantari, eten gabe. Bere lanpidea Usparitxa-Jauregui baserrian zeukan, eta saskigilea ere zen. Orduan meatz tokietan erruz saltzen ziran zareak, eta bere abertzale ospea edatu zenean, hango jauntxoek zareak saltzea debekatu zioten. Osasun makalekoa beti, gaitz-epelaz zituen biriak yoak, eta Larreko idazle zenak orduan asko lagundu zion.

Enbeita, Larreko zenaren adiskide mina izan zen, eta gure etxean gorde dira hanbat gutun eta bertsu eta olerki, noizpait argirat emanen ditugunak. Huna gure aitari eskeinitako bertsu batzu... “Zu nappar, ni bizkaitar // zu ta ni bi anai // Nik nai zure zoruna // Zuk nirea be bai // Goraintziik zeure sendi // maitagarri denai // Zeuri... nere biotzau... // Agur Irigarai //”.

1934-eko Gabonetan berriz... “Irigarai Pirmin jaunari Zorionak! // Euskal idazle bikain // nappartar zintzo // jeltzale agur-garri // Ene Larreko // Zuzuts aldeztalea // zarealako // Urtzik egin zaitzela // Zori-oneko // Gabon-aldi gozoa // Iosuren maitez, sendi kuttun orrekin // osasun pakez // Jel-bidez emen bixi // nai beste urtez. // (Enbeitatar Kepa — Gora Euskadi osatuta!)”...

Bukatzen dugu berri oroigarri hau, bihotzez eskeinia, 1932 urteko gutun batetik artutako lerro hauekin...; “Irigarai Pirmin

jaunari, Iruñian; Ene biotzeko aizkide eta aberkide on maitagarri ori, agur!... Oraingo bide barriakaitik zer esango ote luken Kirikiño gaur bixi balitz?... Euzkera arazoetan argia dan jaun bati galdetu nionean, onek erantzun eustan...” — Kirikiño ixilik dago, eztiño ezertxu be, ezta erreza zure itaunari erantzutea. — “Ni neu ez naz iñor, onelako jakintza arazoetarako; ikusten dodana auxe da; ... *Euskerearen batasunara eltzeko oraindik urrun-txu bixi gareala*”...

“Irular azkarrari gorantzi asko eta zeuri sendi begiko orrekin batean, orain eta betiko zorion osoa opa dautzun aizkide onen biotza. — Enbeitatar Kepa.”

SORGINKERIAREN LIBURU BAT

A. IRIGARAY

Badu denbora puska bat liburu mardul bat atera dela Nafarroako sorginkeriaren berri dakartziena, XIV-tik eta XVII mendartekoak. Erdaraz dago eta “La Brujería en Navarra y sus documentos” deitzen da. Iruñeko Artxiboan buruzagi dagoen Florencio Idoate ikerlariak ditu, aspaldiko sorginen auzi eta lekukotasun bildu, 487 orrialdeko liburu batean. Dokumentoen fotokopia aunitz ere aurkitzen ditugu hor hala nola sorgin dohakabeen erretzean egin ziran xahupenen kontuarena (egurrak, sokak, kateak etc. -1525-)... beste batean irakurtzen dugu... “de Graxi Equialt (Ekialde-eki—eguzki) y de Cathelina Jaureguy vezinas de Ustarroz (beste 20 geyagoekin)... deben padecer muerte corporal”...

Beste batean azaltzen da... “Declaración de una muger que hace referencia a la quema de brujas en *Burguete* (1525)”... “Donación hecha por el Emperador, de bienes de brujas (1525)”... Bestean... “Tormento aplicado a una acusada de Vidangoz (1560)”...

nola zintzilik edukitzen zuten egur batetik ezur-giltzak kraskatu artean, eta ilurren; eta honelako beste izigarrikeri siñeskaitzak.

Luze eta mingarri litzake halako basakerien azaltzea; xoilik aipatuko ditugu liburuaren zenbait izenburu edo kapitulo: ... “Los brujos de Ituren —La prueba del tormento— // El alcalde-brujo de Salazar // El proceso de Burgui en 1569//” zeintan Idoatek azaltzen duen lehenago argitaratu duen sorgin gaztetxoan —arnegoa—... *euskaraz*. Beste auzi guzietan itz bat edo beste salbu, erdaraz agertzen dira beti euskarazko deklarazioeak; honela dio Erronkariko uskaran:

... “Aurrac, arnega eçaquey Janguicoaz eta Andre dona Mariaz eta saintu eta saintaez, ama eta aytaez eta ascaci guçu eç...” Gero Anocibar-ko auzia ikusten dugu, euskarazko eleekin, Urdiaingoa, Amezko-kõa, Piedramillera-n, Araiz-en, Erratzun (1611). Inkisizioneko zerbitzariak ankerrak eta jakin guttikoak ziran; aurren deklarazioeak ere siñesten zituzten, pentsa zer basakeri zarraizketen!!!... Baina epaikari itsu horien artean Salazar y Frias deitzen zen andaluz jakintsu bat izan zen zuhurra, arrazoinez eta finki defenditu zituena xoralda dohakabe hayek.

Halako gertakari, euskarazko ele eta esaldiekin batzuetan, ikasiko ditu denbora its eta illun haietakoak, liburu hori eskuratzten duenak.

ONATI-N EUSKO IKASKUNTZAKO BILTZARRE NAGUSIA

A. APAT-ECHEBARNE

Irailaren 17-an aro eder batez, eta iguzki distirant alaiaren laguntzan, mundu bat bildu zen iri eder hortan, Estudios Vascos delako Talde ospegarriaren ikasgoetara urbildu naiez. Unibersitateko lau aretoak atondu zuzten euskal letradun adituenean eman

behar zituzten itzaldi jakituneko; Taldearen buruzagia dan Barandiaran profesoreak etorritakoeri agur bat euskaraz egin ondok, oroitaraziz orai 60 urte hantxe berean eta Elkarte berak bilarazi zuen Kongreso gogoangarri hura.

Batera eta lau Saletan, hauek izan ziren izlariak: — Irakas-kintzan, Instituto Labairu-ko Ander Manterola. // Juris-Derecho — Celaya, Adrian, eta Salinas, Francisco. // Antropologia eta Etnografia — Caro Baroja, Julio // Arkeologia eta Prehistoria — Jesus Altuna // Musika eta Folklorea — P. Jorge de Riezu // Izkuntza eta Literatura — M. Lecuona // Natur Zientziak — J. Elo-segui // Fisiko-Kimiazko Jakintzak — C. Santamaria (eri egonez, ez zen agertu) // Medikuntza Jakintzak — I. Barriola // Sozio-ekonomiazko Jakintzak — IKEI (J. Jose Echeberria) // Kondaira-Geografia — A. Mañaricua // Antze ederrak — E. Kortadi // Uste dugu itzaldi horiek argitaratuko dirala, bere interesa aundiarengatik.

Etorritakoen artean zeuden; lau Diputazioen izenean, Amorrortu, Bizkaitik / I. Irazoqui, Nafarroatik / Olaizola, Gipuzkoatik / eta Sancristobal, Arabatik.

Beste presuna ospetsuen artean, xoilik aipatuko ditugu: — Urquijo, J. R. — Oregui — Karmele Rotaecche — Micaela Portilla — A. eta Jose A. Irigaray — Zumalabe A. eta J. M. — A. Zatarain — Azurza — Aramburu — F. Zabala — Sanmartin — Maturana — eta abar...

Bazkal ondok Batzarre orotarra, Araudia ikertzeko eta Batzorde nagusia autatzeko. Aretora, eskurik ez zuten batzu ere sartu ziran, arrotz ziran eskaera eta salakuntzak aipatuz; kontuan artu gabe Eusko Ikaskuntza, ikasketak eta ikerpenak egiteko Elkarte bat dela eta norberakeriak ezdirala ongi adosten xede horiekin, X. Aranburuk esan zuen bezala;... Altabada... “galdegin aal zaie batzueri—. Zer saillean lanegin gogo zuk?—. Ah, ez?—. Orduan lekuz tronpatu zara, edo Eusko Ikaskuntzak dituen arau eta xedeak azpizgora itzulikatu gogo dituzu”;... Barandiaran buruzagi jaunaren itz gotor batzuez, hau bera esana izan zen.. “oraikoez zuzia piztua daramagula eta ezdugula uzteko gogorik oraindik”... eta bakean bukatu zen Batzarre oroitgarria, —Batzorde berari bo-toa emanez, beste iru ilabetetarako.

LIBURUAK

JUAN SAN MARTIN

JOSE URIA IRASTORZA - Sagardoa. Donostiako Aurrezki Kutxa.
21 × 26,5 zm., 287 orr. Donostia, 1978.

Urriaren 27an eman zen 1978. urteko Andima Ibiñagabeitia deritzan saiaketa sariaren berri. Aurtengoa Jose Uriak eraman du, *Sagardogintza Euskal Herrian* azterlanarekin. Bigarren saria, Akustikaz, Iñaki Azkunek eraman zuen.

Jakitun ginen aspalditik zetorrela Jose Uria Irastorza tolosarra sagardogintzaren ikerketaz eta honegatik pentsatu nuen lan horren frutu zela sari hura; baina, bai zera, ordurako beste lan handiago bat burutua zen eta Gerediaga Elkarrekin Durangoko Azokan eratzten duen liburu sariaren artean bereziena aurkitu genuen Donostiako Aurrezki Kutxak atera berri duen "Sagardoa" deritzana. Liburu apaina, bai azalez eta bai mamiz. Han aurkeztu zirenen artean behinikpehin.

Irakurleak konturatuak egonen dira, nere artikulua hauetakoa gai asko galde-erantzunezkoak direla. Zenbait irakurlek eskatzen bai dizkidate halako edo holako gaiak informatzean nahi dutela edo komeni dela. Arrazoi honegatik bete izan ditut zenbait artikulua jendeak nahi zuenari ihardetsiz. Eta holako lanez jabetzen naizelarik, ez zait beti hain erraza izaten berri biltetarako iturririk jatorrenetara heltzea, hontan ahaleginak eginarren ere. Dena dela, gogoz betetzen dut euskal kulturaz edo historiaz herriko irakurleak jakin gura duenaz idaztea.

Betekizun hoietakoa zen, adibidez, “Sagarra eta sagardoa noiztik?” zeritzana (ikus, *Gogoz* liburuaren 120/24 orrialdeetan, eta EGAN-en eman nuen lan luzeagoa). Baina nik orduan eman nituen berriak uskeriak ziren Jose Uriak argitaratu duen liburu honen aurrean.

Sagarrondoak badu gure historiarekin ikustekorik. Aintzina zenbait herritako hamarrenak ordaintzeko sagarra eta sagardoa erabiltzen zirenez, sagarrondoaren ondasunak estimu handikoak zoren. Gaur egun, pinudi ustelok jan dute gure baso jatorra. Haritz, pago ta gaztainarekin bateratsu doa sagarrondo. Hala ere, oraindik orain, urte garai honetan sagarra dugu bertako fruturik ederrena. Aurtengo udazken honetan egualdi ona sobera dugu, baina bestelakorik ez. Honegatik, gutitan bideratzen zaigu aurtren baino hobeto gure herriko esaera zahar hura: “Hau da egualdixa, sagardua egiteko, dolaria bageunka; sagarrik ez eze”. Hala bai da, gauza bat eduki eta bestea falta: “txerrikumea errialian eta errialik ez”.

Sagastien lehen aipamena, 1014. urtean, Ernaniko lurraldeak Leireko Monastegira eskaintzeaz agertzen dena da. XII eta XIII. mendeetako esku-izkribuetan maiz aurkitzen dira sagastiak holako eskaintza edo donazioetan. J. Uriak berri eta zehetasun asko ematen ditu. Garai hartan, Atlantika itsasaldera urak ematen dituzten lurraldeetan oso hedatuak zeuden sagastiak.

Geroko urteetatik dakigunez, sagardogintzarako eta frutu osasungarritzat ez ezik, sendagarritzat ere hartua zen sagar errea. Tolosako hirian Miraballesko jaunari hezueria sendatzeko eskaintzen zioten 1619an, liburuaren 74. orrialdean ikus dezakegunez; baina, batez ere, XV. mendeko eresietan haurra egiten zuen emakumezko erdituarentzat eskaintzen zen. Andre Milia Lasturko haurgintzan hil zelarik, hala zion bere aizpak:

Zer ete da andra erdiaren zauria?

Sagar errea, eta ardao gorria.

Ala baña kontrario da Milia:

Azpian lur otza gañean arria.

Agiri ugariekin batean produkzio ta salmentan berri ere ematen digu. Aymeric Picaud erromesagandik hasita gainerako arrotzak historian zehar eman dituzten berriak ere jasoak ditu. Eta, nola ez, gure foruetan sagardoa nola azaltzen den legepean jarririk.

Toki-izen eta deiturretan sagarrondoaren berriak, sagarra eta sagardoa kanta zahar, bertso berri eta olerkietan, denetarik bildu du lehen partean. Puntu batean, gure literaturaren historiaz huts egite bat du, Oihenart hemeretzigarreneko Artolatarren epokara ekarriz. Zeren, Oihenarte 1592an sortu eta 1675ean hil bai zen.

Ondorean sagarra bera frutu den aldetik ikertzen du. Lan teknikoa du bigarren parte hau eta hogetahamabi sagar mota kolorezko argazkiz eta bakoitzaren adierazpenez dakarzki. Teknikoki adierazten du sagardogintza ere, xehetzeko makinatik tola-erata, sagar biltzetik upeletara arte, sotoak eta sagardotegiak aurkeztera arte. Sagastiak zaintzeaz eta hauen onuraz, sagarrondoak bere sustraietatik erneaz hosto, lora, ernalketa eta frutua heldu arte behar dutenez: berritzeak, txertaketak eta gainerako ardura guztiak zehatz mehatz azaltzen ditu liburuaren egileak.

Azkenean bibliografia aberatsa ematen digu, eta, bukaeraz, gaztelaniazko eta frantsezezko laburpena, gai guzia zertaz den adiaraziko diguna.

Urte askoren langintza arduratsuz burututako liburu ederra horrela betea dago, hitzaurrean eskaini bezala, egilearen asmoa frutu bihurturik: "Gaurko Euskal Herria, aurrepenean murgilduta doa esango digu, eta, honelako zerbait behar duela, uste dugu. Behar du, noski, asmaketa modernu eta konplikatuak gidaritzen jakitea. Baina, ohitura zaharrak nolakoak ziren ez ahaztea ere, behar du. Bata eta bestea, biak, behar ditugu.

"Aurreraka, arrasto berria irikitzen ari garenean, noizean behin, atzera begiratuaz. Atzean utzi ziguten arrastoa —gure arbasoek egindakoa, alegia— zuzena dela ahaztu gabe. Garbia.

"Ezagutu eta ikas ditzagun bai, gaurko makina eta teknika aurreratuenak. Baina jakin dezagun, esate baterako, sagardo berri bat patxadan dastatzen.

"Orduan bai, lortuko genukeela euskaldunok, gaurko munduak gizonari esijitzen dion tenplea. Herri baten nortasuna lortzeko —Euskal Herriaren nortasuna—, hai beharrezkoa den tenplea."

Oroi bertsolarien garai bateko unibertsitateak sagardotegiak izan zirela, sagardoa dastatuz eta bertsoz jolastuz ibiltzen ziren garaietan, egilearen herritarra genduen Ramon Artola gogoangarriak kantatutako Sagardoaren grazia deritzan bertsoetatik dasta gai hontaz aritzen garen bakoitzean:

*Bedeinkatua izan dedilla
sagardoaren graziya,
bai eta ere kupira gabe
edaten duen guziya;
edari onek gizon askori
ematen dio biziya,
au edan gabe egotia da
neretzat penitentziya.*

ANTONIO ZAVALA. Afrika'ko gerra (1858-1860). Auspoa Liburutegia, 1977. 18 × 10,5 zm.; 159 orrialde.

Antonio Zabalak maiz eskaintzen dizkigu bertsolarien liburu ezagugarriak Auspoa liburutegiaren bidez. Gai baten inguruzko azken bilduma "Afrika'ko gerra" deritzana dugu; eta bertsoez gainera agiri asko ematen ditu Afrikako lehenbiziko gerra hartaz. Lehenengo gerra hura 1859-1860 urteetan izan zen. Karlisten gerrate bien bitartean.

Bertso paper bilketa toki askotatik egin du A. Zabalak, baina batez ere Chicago-ko New Library-n L. L. Bonaparte-ren agirien artean gordetzen zirenetatik. Frai Jose Antonio Uriartek bialtzen zizkion Bonaparte printzeari. Uriarte praile frantziskotarrak berberak gerra honi buruz jarritako bertsoak ere agitaratzen ditu.

Historian beti iduritu zaigu ilun samarra gerra hura, bai gerra egiteko arrazoien aldetik eta bai "Tercios Vascongados" zirelako haiek parte hartzeaz ere. Gipuzkoak 1.136 mutil prestatu behar izan zituan, eta antzera Arabak eta Bizkaiak.

Gerra hura Leopoldo O'Donnell jeneralak hala nahi izan zuelako gertatu omen zen, politika alderdiak zerabilkiten nahaspila baretu eta espainiarrak abertzaletasunez berotu eta batu zitezten. Artean, Ministroen kontsejuko lehendakari eta gerrako ministro bai zen O'Donnell bera. Honegatik, Ceuta-ko gobernadorea moroak zirikatzen jarri zuen, mugak hiritik harat eramanez.

Bildu beharrezko soldadu kopurua, lehenengo bozondatez joan nahi zutenei dei eginaz eta falta zirenak, kopurua bete arte, hogeitik hogetahamar urtera bitarteko gizonezko ezkongabeen artean zozketa eginaz, eta suertez irtetzen zirenak beren ordezeko bat diruz eros zitekeen.

Gerra pizteaz, Gipuzkoan erregeren korrejidore zen Manuel Somoza-k deia egin zuen, arenga itxurazko hitzaldi batean esanez: "La guerra, contra los bárbaros del Riff, tan popular en España, tiene las simpatías del mundo civilizado; y la Diputación general, en su previsión y patriotismo, no se ha considerado dispensada de acudir a vuestro ilustrado criterio en demanda de auxilios para desagraviar el orgullo nacional. De vosotros pende ahora el fallo, que tanto puede influir en las glorias y en el provenir de Guipúzcoa."

Beti bezala, handi itxurako hitz arinak ugari, herriari burua berotzeko. Baina, azken hitzak ongi irakurtzen baditugu, foruen hauzia bitarteko zegoela laster ohartuko gara; liburuko beste ageri askotan eta bertsoetan nabari den bezala:

*Obligazioz da eta
joan bear gerrara,
lege maitagarriak
gordeko badira;
Tanjerrren ipiñirik
español bandera,
denbora labur barru
etxerako gera.*

Alegia, gerrara joatea beharrezkoa zela, eta hori foruak gordetzearren.

Izan ere, Bergarako besarkada ezkeroztik, foruak erdi kolokan zeuden. Egileak ongi dion bezala, ikus, adibidez, Pablo Gorosabelek zer dion, bere "Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa" liburuan, "El estado de la cuestión foral" deritzan atalean.

Horregatik, hemengo Diputazioak, beste edozeinek hainbat lagundu nahi zuten gerra hartan; eta euskal probintziak beste guziak bezain abertzale zirela agertu.

Hasiera hasierako bertso berak ere hara zer dion :

*Adiarazo nai det
izketa klaroan
eusker a ta fueroak
noiztik nola diran;
aspalditik nedukan
jarria buruan
Iputzen onerako
egingo ote nuan.*

Bertso horien egileak ez dakigu nor ziren. Baina Aita Uriartek 1859ko abenduaren 2lean Bonaparte-ri bidalietan Elgoibarko errementari zen Etxaniz deiturako batenak dira, eta hara zer dion zazpigarren bertsoan :

*Iru probintziako
Diputaziuak
orain artu dituzte
beren mediuak:
iru milla mutil da
gaiñera diruak
gerra orretarako
dirade ainduak.*

Liburu erdialdera arteko bertsoak aski berdintsuak dira. Propagandaren giroak eraginik, moroen kontra, Espainia eta kristautasuna eta gure probintzien etorkizunaren alde. Ordurako, Nafarroa bere "Ley Paccionada" (1841) zelako foru eskubideaz jabetu zen eta horregatik ziren hiru probintziak bakarrik.

Arestian esan dugun bezala, bertsoarik gehienak ez dakigu nonak diren, beste batzuk ordea, Altzoko Imaz, Zubiria, Elgoibar-ko Etxaniz, Durangoko Pantxillon zirelakoen izenak daramazkite; eta baita ere badira gizon eskolatuenak: Aita Uriarte, Eusebio Maria Azkue, Ibazeta markina eta abar.

Zizurkilgo mutil batenak dira bertsoarik hunkigarrienetakoak. Gerratik libratzeko, begia jota zuen hauzoko neska batekin ezkontzea nahi izan zuen, baina etxeokoa errain diruduna nahi zuten eta ez zuten semearen andregai hori onartu. Eta horregatik kantatzen ditu bere bihotzeko nahigabeak:

*Morerira juan da
gerran biet asi,
enpleo txarrerako
ez ninduten azi.
Zer egingo det bada?
Il artian bizi!
Adios, aita ta ama
ta Mikela Inazi!*

*Adios, nere aita,
agur, nere ama,
eskergabetasunak
soldadu narama;
adios bada, nere
biotzeko dama,
bizi banaiz bueltan
banator zugana.*

Hemen ere pobre zirenak txarrago agertu ziren, herriaren en-
gainagarri asmatutako gerra honetan. Gainera, zertarako genituen
lur haiek? Hainbeste odol ixuriaz hartutako lurrok, gero, bat
batean eta probetxurik gabe, hor utzi behar izan ditugu. Ez dut
uste mundu zibilizatuaren sinpatia handirik irabazi dugunik, So-
moza korrejidoreak gipuzkoarrei esan bezala.

Gainera, hara joan ziren soldaduetatik, balaz baino gehiago
hil ziren koleraz. Ongi etorria emateko asmatu ziren bertsoak hala
aitortzen dute:

*Mutill oietatikan
batzuek dira ill,
kolerak eta balak
die kalte egin.
Bizirik datozenak
ez dute izango min,
emen dira jarriko
sano eta berdin.*

PIERRE BORDAÇARRE. Etxahun-Iruri Khantan. Agertazilia Jakes
Larrondo. Inprimeria I.P.A. Pabe, 1977. 21 × 15 zm.; 276 orri-
alde; 95 doinu; 25 argazki.

Mugia muga dela, argi dago. Duela berrogei urte R. Plandé
jaunak "Pyrénées" aldizkarian, jakitun mailan ez ezik zientifikoki
agertu bazuen ere, Pirineoa ez zela muga naturala, denboraren
buruan politikazko mugak geroago eta gehiago bereizten gaitu
Euskal-Herriaren ifarraldeko anai euskaldunengandik. Zorigaizto-
ko muga herri bat modu horretan zatitzen duena.

Mugak berakin dituen ondorioegatik, Ifar Euskal-Herrian hain
arrakasta handia izan duen Etxaun-Irurikoren omenaldiak hots
guti izan bai du Hegoalde honetan.

1977ko uztailearen 24an, “Atharratzen Besta eta zer besta! Berrehun eta gerrogei ta hamar dantzari eta phastuakari zaharrek laidatuk die Etchahoun”, zion Mauleko “Le Miroir de la Soule” deritzan hamabosterokoak 531. zenbakiaren lehen planan, eta uztailearen 28ko “Herria” asterokoak, plana bat eskaintzen zion omenalde horri, baina hemendikaldean apenaz izan du entzute handirik.

Bere ohorez 250 dantzari eta pasturalkari bildu zituan jaun hori nor dugu? Gure artean ez hain aski ezagutua, gure buruen kalterako.

Iruriko Etxahun, bere izen-deituraz Pierre Bordaçarre, 1908an sortua, anitz kanta eta zortzi pasturalen egilea dugu, eta eskola zaharreko koblakaria. Hauek dira berak gertatutako pasturalak: *Etxahun-Barkoxe* (1954), *Matalaz* (1955), *Berterretx* (1956), *Santxo Azkarra* (1965), *Le comte de Treville* (1966), *Txikito Kanbo* (1967), *Pette Beretter* (1972) eta *Iparragirre*.

Gure alde hontan hain entzuna den “Agur Zuberoa” delako kantaren egilea da Etxahun-Iruri. Zuberotarra izatez, beste Etxahun hura bezala, mende baten ondorean euskaldunon zorirako etorria. Ez doa lehengo Etxahunen hildo beretik, poeta bezala ere ez da maila berekoa, honegatik, Barkoxekoari eskaini zion pasturalean zintzoki aitortuko zuen:

*Gure zazpi probintzietako
Euskal Herrik'ederrena
Bihotzak dio zira Xibero
Arauz beitzütüt maitena
Zure mendi ibar ederrak
Zure Mari-Maidalena
Eta horien orenen gaiñetik
Barkoxen Etxahun zena.*

Uhure arren Barkoxerat
Egün jin den mündiari
Jinik delakoz orhitzapenez
Gure koblakari zena
Haren pareko orano nihur
Nihune ez da ageri
Esker mila erranen deiziegü
Eta lüzaz osagarri.

“Xiberutarra kantari” esan ohi da, eta Zuberoak historian zehar izan duen nortasun indarra eta kemena nabari dira Etxaun-Irurikoaren lanetan. Anitz urteko emaitzaren eskergarri eskaini zaion omenaldi hau ongi merezia zuen.

Makhila, txülüla, tabala, Xiberuko inganiuak, hala dion Jakes Larrondo xiberutar prestuak argitaratu duen liburu ederrean. Larrondo delako jaun hau kezkatu eta arduratsu ari da Zuberoako folklorea biltzen, eta lan hauen arteko dugu “*Etxahun-Iruri khandan*” deritzan liburu argitara berria, Jakes Larrondok bere lepotik egina. Liburu honek, P. Bordaçarre Etxahun-Iurikoren kantarik aipagarrienak biltzen ditu. Oso apain prestaturiko liburu honek, bere 21 × 15 zentimetru neurritz, 276 orrialde ditu. 95 kantaren doinu pentagramak ere agertzen ditu. Paper onez eta 25 argazkirekin jantzia dator. Pabeko inprimategi batean txukun egina Etxahun-Iurikoren omenaldirako.

Liburu estimagarria benetan, herri literaturaren giharretik irtena den hau. Madaleine Jauregiberri euskaltzain ohorezkoaren aintzin-solas labor bat daroa, eta fidelki azalduko digu koblakariaren apaltasuna: “Kabalen onduan, phertika bizkarrian edo makhila eskian, khorpitz txüt phensamentükan, bardin koblakan, zankhuak eta enthelegia ber denboran ebil-eraztez, hola zütügü maite, faizurik gabe, laborari simple düzün gano amiagarria izanagatik”.

Zuberoako doinu ederrez mozkortuko gaituen liburua dugu, eta folklore bikain honetatik edaten baldin badugu, guk ere esan geneza Madaleinek bezala, “Azkar bizi bedi haiñ khandatü düzün mündüko xokhorik oijerrenian: XIBERUA.”

Liburuko lehen kanta “Agur Xiberua” dugu, Hego Euskal-Herrian aspaldi danik zabaldua, baina hemen kantatzen dena baino hobeto ikasi beharrezkoa.

Egileak, Zuberoaz ez ezik Euskal-Herri guziaganako maitasuna agertzen digu bere obran, honako errepika hau daramanak agertzen digun bezala :

*Jeik'hadi Eüskadi eta mintza hadi
Ozenki gure gazteriar
Behardiela bethi fidelki kunserbi
Gure usantxa zahar horik.*

Euskal-Herria oro ezagutzen dutenetakoa denez, orotariko laudorioak eskaintzen ditu egileak, bere denboran Donostiari bezala, adibidez :

*Hendaia eta Irunen gaintik
ikhustera Donostia
ta ber denboran besarkatzera
hanko anaie maitiak.*

Liburuaren azken partean frantsezezko zenbait poesia ere agertzen ditu, baina gure ustez ez dira euskarazkoen mailakoak. Koblakaria bere giroaren mugetatik irtetzen delarik, ez da ber bera. Bere alorretatik landa, eroriago aurkitzen dugu. Hemen ere argi ikusten dugu mugak gizona nola ahultzen duen, zehin lurreko mugak hala hizkuntzaren mugak.

“Ene azken bersetak” deritzatenak dira euskarazkoen bukaeran, eta zehin hunkigarriak diren, bere azken agurtzat agertu nahi dituen horiek :

*Khantore horik huntü dititxüt lür lanaren inganio
Sasuen gisa batian triñte bestian oro boztario
Denbora heñ bat lüze ükhen düit horien ororen medioz
Bena nik uste beharko dit erran laster güzier adio.*

.....

*Horik exkentzen dereitziet bat begiratüz goguan
Enñrada gisa khanta dezadan Josefateko sohuan.*

Bai. Koblakaria joanen da, baina holako gogoia agertzen den artean Zuberoako nortasun txarmengarriak iratzarturik iraunen du. Esan dezaten gerokoak ere :

*Ez gal gure odol berua
Bizi dadin gure Xiberua.*

LIZARRAGA DE ELCANO-REN BIOGRAFIA EDER BAT

A. IRIGARAY

Liburu jakingarri bat argitaratu du *J. Apecechea* jaunak, Elcano-ko euskal idazle ospetsu-n bizitzaren berri aunitzekin (Joaquin de LIZARRAGA —Un escritor navarro en euskara— Edit. Príncipe de Viana. Pamplona, 1978).

Lizarraga idazlea lehenik sakon ikertu zuena *Bonaparte* Printzea izan zen; hunek esana da bere —navarro-meridional— euskalkia XIX g. mendearen astapenean, euskalki guzien artean zabalduena zela, Orreagatik as eta Lizarrako egoalderaiño.

Artxiboetan ikertu ditu Apececheak haren estudiante denborako berriak, jesuitekin Villagarcian (eta ez Loyolan, makur idatzi izan dugun bezala). Franziako gerlen desmasiak azaltzen ditu, eta geroago inglesenak, baiño ez xoilik; portuguesenak eta —*por el Ejército de Reserva de Andalucía*— delako bortxakeri ere sartzen dirala. Elcanoko eta bere etxeko berri (Miguelena) aunitz ekartzen ditu Apececheak.

Gero Lizarragaren euskara gustagarriaren (Iruñe berekoa zena) zati labur aunitz dakarra, eta navarro-meridional joskera eta morfologiaren bereizgarriak azalduz, lehenago ere behin baino geyagoetan aipatu izan ditugunak. Berri ez ezagun bat aipatu beharra daukat; Burlata-ko (*Burlada* euskara zaharrea) 1602 urtean egin-dako bisita pastoraletik kopiatzen du egileak :

... “Que el dicho Vicario (de Burlada) declare el Santo Evangelio, qenseñe la doctrina christiana a sus feligreses en *bascuence* explícitamente, de manera que lo entiendan y al que no lo supiere no case ni absuelva y le note en la matrícula de los excomulgados...” (Libro de Visitas de la Parroquia de S. Juan Bautista. En un mandato de visita del a. 1625 se repite la misma exhortación.)

Liburu biziki aberatsa, egilearen merezimendua erakusten duena. Euskarazko Antologia labur baten gutuzian geldituko dira irakurle asko, haren bertsuak ere sartzen dituela.

Holako lantxo baten bururatzeko gaiena dela Apecechea jauna, dudarik ez dago.

PUBLICACIONES
DE LA
REAL SOCIEDAD VASCONGADA
DE AMIGOS DEL PAIS

(Delegada del Consejo Superior de Investigaciones
Científicas en Guipúzcoa)

REVISTAS

**BOLETIN (de la Real Sociedad Bascongada
de los Amigos del País)**

España

Suscripción anual	750 ptas.
Número suelto	400 »
Número atrasado	500 »

Extranjero

Suscripción anual	900 »
Número suelto	500 »
Número atrasado	600 »

EGAN (suplemento de literatura vasca)

España

Suscripción anual	240 ptas.
Número suelto	240 »

Extranjero

Suscripción anual	300 »
Número suelto	300 »

**MUNIBE (del Grupo de Ciencias Naturales
«Aranzadi»)**

Precio por fascículo:

Socios y Colaboradores

Años 1949-1962	150 ptas.
Años 1962 y siguientes	200 »

Público en general

Años 1949-1962	250 »
Años 1962 y siguientes	300 »

Redacción: Seminario de Filología Vasca «Julio de
Urquijo», Palacio de la Diputación de Guipúzcoa

SAN SEBASTIAN

